

KURIN

ate zulotik ikusten da... Lekeitio.

2018



KURIK

ate zulotik ikusten da... Lekeitio.

2018



*Erdu neugaŕ
eta egia Kurik*

KURIK  Ate zuletik ikusten da...

3. zenbakia. 2018ko Udaberria

ARGITARATZAILEA:
LEKEITIOKO UDALA

LAN TALDEA: **KURIK**^{erua}
Maite Garamendi Rey, Iñaki Goigana Mendiguren,
Aitor Iturbe Gabikagojeaskoa
www.kurik.eus
emaila: kurik@kurik.eus

AZALAREN DISEINUA:
Iñigo Zabala

MARRAZKILARIA:
Jon Zubiaur

DISEINUA eta MAKETAZIOA:
KIÑUKA

L.G. BI-883-2018
ISBN 978-84-09-01909-0

Aurkibidea

KURIK KURIKAN	4
KATUOK ERPE ETA GEHIAGO	6
ARS MORIENDI Lekeitioko lauda flamenkoak <i>(Jesús Muñiz Petralanda)</i>	8
SAGAR LAPURRETAN Amantzi Urriolabeitia <i>(Aitor Iturbe Gabikagojeaskoa)</i>	14
EZ, EZ DUT NAHI Gabika abadia <i>(Ibon eta Aitor Iturbe Gabikagojeaskoa)</i>	24
IZURRITE BELTZA Lekeition <i>(Aitor Iturbe)</i>	45
GITARRIA ETA BIOLINTXUA Ezenarrotarrak <i>(Aitor Iturbe)</i>	66
ZAKARRONTZIAN Zumatzetako maleta <i>(Aitor Iturbe)</i>	71
DIEGO RIVERA Lekeition <i>(Mikel Onandia Garate)</i>	74
JAKOB GEORG GAPP <i>(Mikel Arizaleta Barberia)</i>	85
LEKEITIOKO KANPOSANTUA <i>(Gorka Pérez de la Peña Oleaga)</i>	90
ENTERRADORIAK <i>(Aitor Iturbe)</i>	102
GOIAN BEGO Heriotzaren gañeko eliz dokumentuak... <i>(Cristina Castillo Pérez)</i>	107
IPASTARREKO HILKETAK <i>(Aitor Iturbe)</i>	118
USATORRETARRAK Itsas gizonen dinastia <i>(Koldo San Sebastian Fernández)</i>	130
PASKALIREN KONTUAK Idazkunaren gorabeherak <i>(G. Gabriel Piedra Anakabe)</i>	134
GERRA ZIBILA LEKEITION eta Lekeitioko frontean <i>(Patxi Juaristi Larrinaga)</i>	138
IDIGORAS GUDARIA Lekeitioko frontean <i>(Kurikeruak)</i>	156
IBAÑEZ DE LA RENTERIA LEINUA <i>(Aitor Iturbe)</i>	168
HERIOTZAREN BELDUR <i>(Juan Manuel González Cembellín)</i>	173
LURRAZPIKO LEKITTO <i>(Oier Gorosabel Larrañaga)</i>	178
2TTORREN FEIXBUKA <i>(Bittor Txakartegi Etxebarria)</i>	190
BOLBORA ETA KRESALA Lekeitioko gotorlekuen historia <i>(Alfredo Moraza Barea)</i>	194
R.I.P. Garraitz irlako azken pinuak <i>(Iñaki Gezuraga Ozkorta)</i>	201
LUIS MARIA CENIGA ARRIANDIAGA <i>(Maite Garamendi Rey)</i>	206
LIBURUAK <i>(Iñaki Goigana Mendiguren)</i>	217
GERNIKAKO ARBOLA Altunaren heriotzaren 150. urteurrenean <i>(Fernando Garatea Alzola)</i>	220
ADOKIN GUZTIEN GAINETIK Lekittoko sorginak <i>(Aitor Iturbe)</i>	226
ETAHALAIZANBAZAN Se non e vero... Il atala <i>(Koldo Leniz Ortuondo eta Aitor Iturbe)</i>	232
BATEAN KALE BESTEAN BALE	248
ARTXIBOKO KONTUAK <i>(Maite Garamendi)</i>	250
ZAZPI AKATSAK	253
AGURRA	254

KURIK *kurikan*

Heldu da udaberria, eta heldu da haregaz Kurika. Berandu heldu dela esango edo behintzat pentsatuko dute batzuk; ez dugu lekeitiarrak gabela berriro erabiliko aitzakia legez, ez diogu eguraldi eskasari errua botako, ez eta Donald Trumpi (edo errege ohiari). Kontua da urtaroak probatzen ari garela: neguan atera genuen lehen zenbakia, ez zen txarto saldu; udan bigarrena, tira...; hirugarrena udaberrian atera nahi izan dugu ea gehiago saltzen den; laugarrena, eta azkena, oraindik hemen bagaude –eta gogotsu–, udazkenean izango da (beharko litzateke). Gainera inprentara bidaltzeko geundenean Santa Ana kaperakoa gertatu zen (ikus. 231. or.). Afera argitu arte ez genuen aldizkaria atera nahi, baina ikerketa korapilotu egin zen eta... Azkenean Autzaganekeo tunelak be aurrea hartu digute, a zer lotsa!!! Gure deskarguan 256 **WOW!** orrialde dituela aldizkariak.

Kurik zer den eta zer nahi dugun behin baino gehiagotan azaldu dugunez oraingoan labur-labur kontatuko dizuegu ondare eta historia errebista gabela eta gure ondarea ezagutaraztea –eta babestea– dela gure asmo nagusia, inor aspertu barik bada hobeto. Izenari dagokionez esan Kurik ez dela poloniera, gure herrian sarritan erabiltzen den hitza dela, begiradaxoa botatzen denean erabiltzen dena. Ate zuloak ikusten denean bezalaxe.

Hirugarren Kurik honen *leitmotiv*-a zoritxarra izan da. Zoritxarrez, zoritxarra gure bizitzako parte da, baina ez guke jakingo zoriona zoriona denik ha barik, *Misfortunes tell us what fortune is* ingelesez, eta zer egingo guke zorion barik? Ba ote dago arantza bako larrosarik? Gainera zoritxarra, zoriona baino maisu hobea da: *zoritxarrak irakasten; zorionak ergeltzen*. Gora, beraz, zoritxarra!

Jakitunak ekarri ditugu horretaz eta gehiagotaz idazteko: Jesus Muñiz Petralanda, Juan Manuel González Cembellín, Cristina Castillo Pérez, Patxi Juaristi Larrinaga, Gorka Perez de la Peña Oleaga, Alfredo Moraza Barea, Mikel Arizaleta Barberia eta Mikel Onandia Garate fitxatu ditugu. Eskerrak bihotzez denei.

Besteok harrobikoak gara. Kontuz gero, harrobia da geroa eta! Azken urteetan lan taldea osatzen dugun kurikeruei aurten idazle lanetan Koldo San Sebastian Fernández, Fernando Garatea Alzola, Iñaki Gezuraga Ozkorta, Oier Gorosabel Larrañaga, Gabriel Piedra Anakabe eta Ibon Iturbe Gabikagojeaskoa gehitu zaizkigu eta gu pozik honelako lanak egiteko ez baita historiagile profesionala izan behar. Koldo Leniz Ortuondo, gure Txitxirri, aspaldiko kolaboratzailea dugu. Horiei, ezagututa zelakoak garen, eskerrak ber bi.

Aurtengo zenbakiak makina bat lan dakartza; kantitatea ez da falta behintzat, kalitatea, irakurleok epaile. Kantitatea hitza asmatu beharko zen!

Jesus Muñizen Ars Moriendiko laudak Amantzi Urriolabeitiak ia ehun urte lehenago ikertu zuten. Sagar lapurretan eta gehiago egin dugu zuoi lekeitiar ezezagun hori hurreratzeko. Heriotzaren beldur da Juan Manuel González, nor ez, zuek ez ala? Enterradoriak igual ez; Aitor Iturbek ofizioa ikertu du eta Gorka Perez de la Peñak horien lantokia, kanposantua. Cristina Castilok Bizkaiko Eliz Artxiboa hurreratzeko gaitu, heriotza gai nagusi legez. Iluna doakigu zenbaki hau; gure auzokoek ere, Ispaster aukeratu dugu, sekretuak dituzte. *Ez da sekreturik goiz edo berant jakiten ez denik*: lau hilketak mando atera dizkiegu “armairutik”, izara eta mantapean gorde-gordeta zeudenak. Oraindik ez zarete beldurtu, ausartak zarete. Zoritxarren artean ezin ahaztu izurriak, benetan beldurgarriak 1524 eta 1597koak. Beldurgarriak izan ziren baita gerrak eta goseteak ere. Gerrak eguneroko ogia izan dira, baina Francoren gerra zibilean zentratu gara (kanpoan utzi ditugu esaterako gerra karlistak, pena handiarekin), gerran eta ondorioetan. Patxi Juaristik Lekeitioko fronteko gertakariak azaldu dizkigu, eta Jose Andrés Idigorasek lehen pertsonan bizi izan zituena.

Zapran gagoz, zapran gabiz

Francoren gerizpa luzea izan zen eta da. Zeniga medikuak (Maite Garamendiren artikulua) eta Gabika abadeak (Ibon Iturbe) jasan izan zuten euren haragian orduko injustiziak. Gezurra badirudi ere, plazan dagoen monumentuak ere badaki horretaz (Gabriel Piedra). Jakob Gappi (Mikel Arizaleta), oraindik okerragoa, posible bada, tokatu zitzaion, Hitler.

Alfredo Morazaren *Bolbora eta kresala* artikuluekin, Lekeitioko gotorlekuen historia errepatatuko dugu.

Alaixegoak dira (ez dakigu egileek zer pentsatuko duten) beste artikulu batzuk: Diego Rivera handiak (ezin da hobeto esan) Lekeition egindako oleoak Mikel Onandiaren eskutik, Altunaren parte hartzea Gernikako arbola kantan (Fernando Garatea), *Lurrazpiko Lekitto* (Oier Gorosabel, *ADES Espeleologia Elkarteko kidea*), *Garratx irlako azken pinuak* (Iñaki Gezuraga), *Usatorretarrak* (Koldo San Sebastian), *Gitarria ta biolintxua*, *Ibañez de la Renteriatarren leinua*, *Lekittoko sorginak edota Zumatzetako maleta*, *azken hauek*, eta *besteren batzuk*, *autore berarenak*, *Aitor Iturberenak*. *Honek ez daki sobera hartzen duenak*, *gaizki estutzen duela*. Saillkazina eta misterioitsua Koldo Lenizen *Se non e vero...* istorioa.

Horrez gain betiko atalak, hauxe editoriala, Kuriken diskurtso edo filipika, liburuen erreseinak (Iñaki Goigana), *Artxiboko kontuak* (Maite Garamendi), Batean bale, bestean kale eta gure hankasartzeak (*Zazpi akatsak*). *Txitxiñik* ez dugu oraingoan ekarri, baina bai herriko artista bikain bat, milaka kartel diseinatu eta marraztu dituen, Bittor Txakartegi. Espazio faltagatik aurten Perla eta Azken kopatxu barik geratu gara, azken hau Alejandro medikuak eta Abstemioen ligak gomendatuta.

Eskerren atalean, amaitu baino lehen, berriro eskertu artikuluak idatzi dituzten guztiak eta, baita gure marrazkilari bikaina ere, Jon Zubiaur eta zelan ez, Kiñukakoak, euren trebeziagatik baino pazientziagatik. Azkenerako utzi dugu meriturik gehien duena, ondarrutarra den Iñigo Zabala famatua, meritu handia baita ondarrutarra izan eta Lekeitioko aldizkari batean parte hartzea. Azala diseinatu zigun, eta aurten ere eskua bota digu (samara).

Akatsen atzetik ibili diren detektibeek ere, Maite Garamendik eta Fernando Garateak, txaloak merezi dituzte. Ibon Iturbek ere euskara arloan lagundu du. **ESKERRAK DENOI** (eta ahaztu barik Lekeitioko Udalarari).

Gehiegi luzatu bagara barkamenak eskatu, baina hainbeste izen eta abizenekin ezin amaitu!

Hurrengoan gehiago eta hobeto (hobeto ezin da)!!!

Familiak ez du inor hartzen

KURIKeruaK



KATUOK ERPE ETA GEHIAGO

Kaixio laguntzarrak:

Ez neuko nik esango hirugarrena atarateko adorerik edo balorerik eukiko ehenik honet, baina hamen dago kalian zuon esku artian hirugarren zenbakia udabarriko loren antzera... Dagoeneko ez zan egon biharko planeta honetan ni ez nabenik ezagutzen, baina, badaezpada, jakin egizue etxekuentzat Kurik naizela, eta kanpokuentzat eta karnetian Felis silvestris catus (Catusenekua). Eta aldizkari honetako izarra ni neu naizela. Ez dot orainguan errebista honetan gai nagusia izango danari buruz ezer esango, bakar-bakarrik, gurian beti esan dala zorionaren bila juan egin bihar dala eta zoritxarra, amaginarreben modura, deittu barik etorten dala. Zirkinik egin barik jatorku! Aurtengo eta sekulako notiziarik harrigarriena espele, zelan esaten da, espelolo, ezta, espeleologo horrek ekarri dabe. Armintxen topa dabezen grabauak ez ei dauke parekorik, baina gehien harritu zaituena legoiena dala entzun dot. Orain dala 14.000 urte be hamentxe bizi ginian primo! Bueno gu bakarrik ez, pinttoria eta pinttorinekuak be lekittarrak zirian, baina ez dakit ez genduzan jan. Zer egingo genduan ba? Egun santu guztian ibiltten zirian geure atzetik eta! Aspaldion barriz, primeran konpontzen gara sapiensakin (eurak pentsa!), errebista honetakuakin ezin hobeto. Egia esan, gure lehengusu nagusiak ez dabe oraindino gure manerak lortu, baina denbora kontua baino ez da. Beste 14.000 bat urte eta danok katu!

MIAUUUU.

Gloria, Patri et Filio gure katuak txilio; in secula seculorum Amen, katurik ez dago hemen.



Ars MORIENDI

Lekeitioko lauda flamenkoak

Jesús Muñiz Petralanda

Itzulpena: Hori-Hori

XXI. mendearen hasieran bizi garenok ez dugu denbora asko ematen heriotzaz arduratzen, baina tradizioz gizakion funtsezko kezketako bat izan da gure historia osoan. Eguneroko bizimodu azkar eta korapilotsuan murgilduta gabiltzanez, ez diogu jaramonik egiten harik eta segadun andre zaharrak ezagun edo senide bat bere zerrendan ezarri arte. Eta orduan konturatzen gara zer txarto gauden prestatuta gai honi aurre egiteko. Heriotza gertatzen denean, askotan ez dugu azalpenik ez kontsolamendu-hitz egokirik asmatzen zenduaren hurkoentzat.

Heriotzaz hitz egitea, gaur egun, ez da gozoa, ez da inoiz aproposa gertatzen, nahiz eta funtsean denok jakin heltzen denean ezin izango diogula itzuri egin. Heriotza gertaera naturala da (jaiotzea, haztea edo zahartzea bezain naturala, behintzat), baina bizi garen gizarte hedonista postmodernoak nahiago du kontu gogaikarri horrekin zerikusia duen guztiari muzin egin eta baztertu, eta heltzen denean azkar, modu aseptikoan, pribatuan eta profesionalen laguntzarekin pasaratzen saiatzen da.

Ez da beti hala izan, ordea. Heriotzaren inguruko gizarte-ohiturak asko aldatu ziren XX. mendearen erdialdeaz gero. Gure arbasoentzat heriotza egintza soziala ere bazen. Izan ere, komunitateak herio-errituetan parte hartzen zuen eta horrela trantze garrantza errazago eramaten laguntzen zuen. Antzina bizimodu estua zen; bizitza kolokan zegoen sarri eta jendeak heriotza hurbil zuen beti. Horregatik, aurre egin behar zitzaion eta prest egon behar zen ustekabeaz ez harrapatzeko. Besteak beste, aurrerapen nahikoarekin ezartzen zen non

ehortziko zen gorpua. Heriotzarekiko hurbiltasuna ez zen noizean behingoa, baizik eta egunerokoa, eta horren erakusgarri hoberenak tenpluak ziren, barruan biziak eta hilak biltzen baitziren egunean-egunean, harik eta XIX. mendean zehar kanposantu zibilak egiten hasi arte. Ohiturak aldatu badira ere, gaur egun elizetan oraindik aurkitzen ditugu bizihilen nahasturaren berri ematen duten leku-kotzak. Lekeitioko basilika ez da salbuespena.

Latinezko *Omnia mors aequat* adagio zaharrak adierazten duenaren kontra, heriotzak ez

Dokumentu bikain hauek Behe Erdi Aroan Lekeitioko eliteko pertsona batzuek heriotzaren kontzeptuaz zer iritzi zuten argitzen dute; gainera, Lekeitioko artelan flandriar bereziak dira.


ditu beti amaitzen gizakien arteko desberdintasunak, eta hori are nabariagoa da egungo aroaren aurreko gizarteetatik heldu zaigun ondarean. Ez dugu ezagutzen lekeitiarrik azken arnasa eman ez duenik, baina utzi dizkiguten aztarnak eta gomutak askotarikoak dira, oso desberdinak dira eta.


Ez dugu ia ezer esanguratsurik gordetzen gehienen kasuan, hiribilduko herritar ezezagun gehienak, onenean ere, garrantzi sinboliko eta

sentimental sakona eduki arren interes artistikorik ez zuen familia-hilobian amaitu zuten eta. Etxeko hilobiaren balioaren adierazle ona da parrokiako artxiboko funtsetan gordeta dagoen elizako hilobien planoak, 1863. urtean egin zena zurezko estalkiak berritzeko lanak egin zirenean [1. irudia], agerikoa baita kontu handiarekin zehaztu zela non zegoen familia bakoitzarena (450 baino gehiago zeuden). Sailen antolamendua itxuraz homoginoa bazen ere, desberdintasunak zeuden, hilobiagatik kobratzen ziren eskubideak asko aldatzen baitziren aldare nagusira zegoen distantziaren arabera. Izan ere, jendeak uste zuen santuen erlikia nagusietatik zenbat eta hurbilago egon handiagoa izango zela babesaz azken judizioa heltzen zenean.

Bizian nolabaiteko oparotasuna lortzen zutenek arreta handia jartzen zuten, bai eta baliabide asko ere, beren aldiko pertsonak eta etorkizunekoek (gu geu tarteko) ikus zezaten zer ondo bizi izan ziren, are beren gorpuen errautsetatik zipitzik ere geratzen ez zenean. Gorpuaren azken egonlekua parrokiako zorupeko hilobietako bat izango bazen ere, lekeitiar batzuek ahaleginak eta bi egiten zituzten gainerakoetatik bereizteko. Horretarako, hilobi-estalki oso bereziak agindu zituzten; batzuen batzuk heldu zaizkigu: letoiz soldatutako lau laminez osatuta dauden laudak dira. Gaietan bi bikoteren irudiak grabatuta daude. Inskripzioak dituzte, baina ez daude osorik, zorritzarez. Dokumentu bikain hauek Behe Erdi Aroan Lekeitioko eliteko pertsona batzuek heriotzaren kontzeptuaz zer iritzi zuten argitzen dute; gainera, Lekeitioko artelan flandriar bereziak dira.

[1. irudia] AHEB-BEHA. Hilobien planoak, 1864. Lekeitioko. Sig. 7433/001-01





Bi lauda horiek Santa Anaren kaperako horman esekita daude gaur egun, baina jatorriz hilobi banaren estalkiaren gainean egon ziren. Pentsa liteke bi obra horiek ez direla oso gogoangarriak, baina kontuan hartu behar da Flandrian egindako mota honetako pieza gutxi gorde direla (hamar bat baino ez daude estatu osoan, erdiak Euskadin) eta Lekeitioko eliza dela honelako bi lauda dauden toki bakarra. Horrez gainera, zaharrenetakoak dira, Castroko batekin eta Sevillako Arkeologia Museoan dagoen beste batekin batera XIV. mendeko bakarrak baitira (gainerakoak XV. eta XVI. mendekoak dira).

Kaperaren barrualdean dagoenak besteak baino kalte handiagoak jasan ditu: goialdea belztuta dago eta inskripzio erdia galdu da. Inskripzioak dio irudiko emakumea Maria Ibañez de Uribarren dela, agiri batzuen arabera Ochoa Ortiz de Larizen alarguna izan zena; seguruenik, bera da ondoan irudikatuta dagoen gizon apaina [2. irudia]. Gizonak plaka-armadura du soinean, eta horren gainean jipoi ikusgarria, eta armak dauzka: ezpata eta gupida-sastakaia. Horiek guztiak, oinetako ezproiek, enblema heraldikoak eta buru gainean duen lore-sortak zaldun noblea zela erakusten dute. Andreak ere lore-sorta dauka buruan; gainera, adatsa bi mototse-

tan bilduta dauka, eta aurpegian belo gardena. Lepo luzedun mantu handi batek ia soinekoaren apaingarri guztiak estaltzen ditu, mahukak baino ez baitaude agerian. Senar-emazteek eskuak otoi egiteko moduan batuta dituzte, eta gorputza zertxobait biratuta dute, ezkontideari begira.

Agertokiak ere zenduen gizartemaila gorengoa zela erakusten du: senar-emazteen irudien azpian brokatu-zapi luxuzkoa dago, eta gainean errezeltxo bana dute; hauen barruan Abrahamek hildakoen arimak hartzen ditu, alboetan intsentsu-ontzei eragiten dieten aingeruak dituela. Oinetan bi animalia daude makurtuta: lehoia, kemenaren sinboloa, gizonaren azpian; emakumearen azpian, aldiz, etxe-txakurra, hezurra marraskatzen, leialtasunaren adierazgarri. Irudiak bi zolako poligonalen gainean; zokaloak ehiza-irudiez apainduta daude: gizonaren azpian, hartza eta oreina; emakumearen azpian, basurdea eta adarbakarra, eta ondoan lehoia, dontzeila batek koroatua. Pentsa liteke nobleziaren ohiko denbora-pasa baten adierazgarri baino ez direla, baina benetan adieraz asko dituzte, eta era askotakoak, gainera: fededunen bertuteen eta bizioen arteko betiereko liskarra adierazten duten sinbolo moralizanteak dira.

2. irudia. Maria Ibañez Uribarrenen lauda





3. irudia. Juan Perez Ormaegi eta Auria Martinez Zerangaren lauda

Beste laudan [3. irudia] inskripzioa osorik dago, eta horri esker badakigu nortzuk diren ezkontideak: Juan Pérez de Ormaegi eta Auria Martínez de Ceranga, 1382ko azaroaren 23an hil zena (inskrizioan 1419. urtea ageri da, data aro hispaniarraren arabera ematen da, eta horregatik 38 urte kendu behar dizkiogu egungo egutegira ekartzeko). Gizonezkoaren heriotzaren data ez zen zehaztu (ez da agertzen ez eguna ez hila, eta urtea ez dago osorik –aro hispaniarrereko 1420. urtea ikusten da, baina zuriunea dago azken zenbakiaren atzean–), eta horrenbestez badirudi bizirik zegoela agindu zuela, alargundu eta gero, heriotza ezinbestekoa zuela jakinik. Oro har, aurretik azaldutako laudaren oso antzekoa da; hala ere, honetan hildakoak aurrera begira daude, hau da, ez dago Maria Ibañezen laudako konplizitatearen arrastorik. Bi laudetan, irudietan eskuak nolabait behartuta biratuta daude, alde bat erakutsiz, eta ez profila. Antolaketa arkitektonikoa ere antzekoa da: Abraham eta aingeruak, luxuzko oihala atzealdean eta buruak kuxinen gainean.

Hala ere, gizonaren jantzia desberdina da, zibila baita: txanodun jantzi luzea; normalean hil-jantzizat hautatzen zen frantziskotarren abitura dela pentsatuko genuke (garai hainbat lekukotasun dauzkagu), baina aurrealdean botoi-ilara bikoitza dauka, eta horregatik, azkenean, jantzia, zerrendez atxikitako larruzko oinetako puntadunak ezkututzen ez dituenak, identifikatu ahal izango da: *surcot*. Haren azpiko jantzia oparagoa da, eskuaren zati bat estaltzen duten mahuka handietako apaingarriek salatzen duten bezala. Emaztearen barruko soinekoa ondo erakusten

da, besaurre osoa ikusten da eta: hiru- eta granada estilizatuez apainduta dago, eta botoi ederrak dauka. Horren gainean mantuak dauka soinean; mantuaren barruko forruari tira batek eusten dio bularrean. Aurpegiaren inguruan lepoa ezkututzen duen estalgarria dauka, eta buruan beloa. Bikote honek beste animalia batzuk ditu ondoan: txakur bana. Senarrak zapaltzen duenak itxura basatiagoa du (agian adiera negatiboarekin, Erdi Aroan txakurrek ohi zuten bezala) emaztearen oinen artean dagoen txakurkume zoragarriak baino (kas-kabilodun lepokoa dauka). Hemen ere ehiza-irudiak daude: basurdea eta oreina, bestean bezala, eta horiez gainera erbia, lasterka ihesi, eta aztarnari batzuk adarrak edo tronpak jotzen.



Xehetasun xume batek gizonaren lanbidea erakusten du. Inskripzioan tartekatuta, laudaren alde luzeetan, bi ezkutu txiki daude, sei puntako izar batez (barruan gurutze bat duena eta beste bat errematean), eta kirtenetik ateratzen diren bi banderolez osatuta. Juan Perezek Flandriara eramaten zituen salgaiak identifikatzeko erabiltzen zuen marka komertziala da. Jarduera horrek oparotasun handia eta honelako artelanak ezagutzeko aukera eman zizkioten. Bestalde, gizarteko beste pertsonai ospetsu batzuei kopia zeko asmoarekin luxuzko estalki hau eskatu zuen bere hilobirako. Horri esker, egin eta sei mende baino geroago, ahaztu gabe jarraitzea eta oraindik gure artean egotea lortu du, nahi zuen hilezkortasun horretatik nolabait hurbil geratuz.¹

¹ Artikulu labur honek Brujasko Ronald Van Belle ikertzailearen *Laudas Flamencas en España* liburuan (Bilbo, 2011) azaldutako ideietako batzuk laburtzen ditu, eta haren argitalpenaz eta gaztelaniarako moldaketaz ni arduratu nintzen. Testua irudikatzen duten lauden kalkoen egilea ere bada, beraz, bere eskuzabaltasuna eta adiskidetasuna eskertu nahi dizkiot berriro ere.



Sagar lapurretan

Amantzi Urriolabeitia

Aitor Iturbe Gabikagojeaskoa



Eskolapeko eskola XX. mende hasieran

Oraingoan sagar lapurretan Amantzi Urriolabeitiaren ortura goaz. Urriolabeitia ez da gurean abizen ezaguna, baina XIX. mende amaieran eta XX.eko hasieran izan zen gure artean maisu *famatua* Domingo izenekoa, ondarrutarra gainera, 1880-1915 aldirian eskolapeko eskolan lekeitiar belaunaldi bi hezi zituena. Bitartean bederatzita seme-alaba izan zituen.

Ez da, beraz, harritzekoa udal aktetan agertzen den ia guztietan diru "eske" ibiltzea. Ondo merezita zuen jubilatu zenean eman zioten eskupekoa, 250 peseta: "... un escrito de Don Domingo Urriolabeitia participando que cesó en 31 de Diciembre en virtud de jubilación en el ejercicio activo de la enseñanza indicando que el vecindario conoce los servicios que ha prestado al frente de la enseñanza educando a 2 generaciones y suplica se le conceda una gratificación..." LUA, Udal Aktak 1916-1-8.



Urriolabeitia-Ibarrola familia 1900 bueltan



Amantzi Urriolabeitia eta Maria Sasuategi, 1907

Seme nagusia da guri interesatzen zaiguna, Amantzi Urriolabeitia. Zertxobait badago "eskegita" Interneten, baina hurrunetik ere ez, merzei duen beste. Botikaria profesioz, botikak saldu izan ezik edozer egin zuen bere bizitza oparoan.¹

Politikaria, margolaria, musikoa, heraldista, literatua, linguista, historialaria... zer ez zuen landu gizon honek! Botikari errenazentista hau 1907an zornotzar batekin ezkondu zen, Errosalia Maria Sasuategirekin Urkiolako santutegian, eta Zornotzan geratu eta egin zuen bere bizia harik eta Francoren gerra zela eta Frantziara alde egin behar izan zuen arte. Lekeitiarrek galdu zutena zornotzarrek irabazi zuten. Zornotzan hazi eta hezi zuen familia gure botikariak. 1914an zabaldu zuen botika San Miguel kaleko 14an, Felipe Sasuategi koinatuaren eraikinean, hor albaon ikus dezakezuen. Botikaria esku zabala izan zela esan dugu, hemen baieztatzen duen gutuna: "*Me dicen tambien que como profesional de farmacia, era muy desprendido, ya que cuando algún cliente pedía algún específico caro, le insinuaba que no lo comprase y en su lugar él prepararía alguna fórmula muy similar y con un costo muy inferior*" (Lequeitio, 2-1-76). Gure aurretik ha-

¹ Bego Renteria zornotzarrak lagundu digu linformazio bilaketan eta aitak, Enrike Renteria margolariak, esandakoak gogoratzen ditu. Aita Amantziren lagun handia izan zen eta Begok etxean entzuten zituen kontuen artean Amantzirenak sekula ez ziren falta. Haren botikara joaten zirenak sekula ez zuten aurkitzen nahi zutena, etorri bihar esaten zien Amantzik, negozioari kasu gutxi eginez. Artistak beti artista!

ren atzetik ibili zen Jose Ramon delako baten ikerketak dira: "*Ahi va lo que he podido conseguir, de momento, referente a BOTI. [...] Seguiré recopilando datos curiosos con los ancianos de la Villa con el fin de que Aita Shanti pueda lucirse con este Lequeitiano-Zornotzano, que para eso soy el embajador de Amorebieta en esta Villa costera*". Nahi barik Aita Santiren berriemailea preso! Baina ez gara hona etorri Amantzi botikariaren gainean hitz egiteko bakarrik.²


Beste dohainetaz hitz egitera gatozkizue, esaterako hango korala fundatu zuela esatera eta, besteak beste, Zornotzako ereserkia (musika behintzat) berea dela:

AUPA GAZTEAK
Aupa gaztiak erdu goazen
kirol egitera
gure gorputzak
jartzen sendo, sendo haritzen antzera
Nagia makala
beti, beti
edonon ageri da
oin eta besoak
harro, harro
burua dok arina



² Santiago Onaindiak lehenengo (1908an) Elgetan izan zela botikari dioen arren, badakigu 1905ean Areatzan botika zabaltzeko eskaera egin zuela.

Caparen botika hori lehenago Amantzirena izan zen, antza, Felipe Sasuategi koinatuarena zen eraikina.



"Euskal literatura" Santiago Onaindia, 1972-90

Gure idazleak zuoi hurreratu nahian sagar lapurretan jarraituko dugu, oraingoan amotar baten ortuan. Santiago Onaindia, aita Shanti, amorotarraren "Euskal Literatura" liburuko Amantziren biografitxoa erabiliko dugu gida legez.

AMANTZI ERAKLIO URRIOLABEITIA IBAROLA (1881-1944)

Euskaltzale goragarria, zintzo bezain apal euskal gaiez hain aundia egiña.

Lekeitio'n jaio zan 1881-6-6'an, goizeko zazpi ta erdietan, Arranegi plazan. Zortzian bateatu zuen Toribio Gerrikabeitia ango apaiz-buruak. Bere gurasoak: Domingo Nikolas Urriolabeitia Aguado, ondarrutarra, Lenlkaskuntzako maixua, ta Josefa Petra Ibarrola Garaizabal Motriko'ko alaba. Bederatzi neba-arreba izan ziran: Amantzi Eraklio, Anjel Eugeni, 1883- 3-1'an jaioa; Emiliano Ipolito, 1884-11-12'an jaioa; Petra Josefa, 1887-1-31'an jaioa; Pablo Julian, apaiza, 1888-2-5'an jaioa ta Zornotza'ko kapellau zala erbestera ta 1921-3-6'an illa; Andresa Eloisa, 1889-11-30'an jaioa ta 4 urtekin muiñeriz illa; Bonifazio Erroberta, 1892-6-5'an jaioa; Atanasia, 1893- 10-5'an jaioa; ta Erraimundo Amantzi, 1896-3-15'an jaioa.

Gizon ikasia zan Amantzi. Abertzale zintzoa. Bizkai-Buru-Batzarreko izan zan, eta Sukarrieta'ko Batzokia zabaldu zanean, adibidez, bera mintzatu zan Alderdiaren izeanean. Lanbidez sendakilari edo botikario izan zan, lenengo (1908) Elgeta'n eta gero gerrarte Zornotza'n egonik. Marrazkilari bikaiña zanez, badu lan ederrik –Lekeitio'ko erria ta eliza artako Andre Maria, esate baterako– arkatzez eginda. Musikalari ere bazan, eta Zornotza'ko Korala berak eratu ta zuzendu zuen.

Idazle bezela ere lan polita egin zigun, euskeraz ta erderaz idatzirik. Ezta miwesgarri: bere aitak Lekeitio'n bietara erakusten zuen; gizaseme artez ona zanez, eskolako bere ikasleak ere orrelaxe nai zituen, onak, jalkitunak eta artezak: bere semeak orduetatik kanpo ere ikasten eukiten omen zituen.

1919-10-26'an Euskaltzaindiak zazpi Probintzietatik urgazleak autatu zitunean, an zan A. Urriolabeitia ere Bizkaikoen artean; ots, F. Belaustegigoitia, Jon Gurutz Ibargutxi, Gabirel Manterola, N. Oleaga, A. Urriolabeitia ta P. Zamarripa.

Ba-zuen bai ospe ta itzala euskal letratan, ta, euskaltzain bezela, iker-saillean ari izan zan, beste arlo batzuk arbuia gabe. Eusko Ikaskuntza'k, esaterako, Gernika'n eratu zuen, 1922'gko iraillaren 10'rik 17'ra, III'garren Izkuntza-sailekoen Batzar orokorra. Ots aundikoa nunbait. Amantzi Urriolabeitia'k itzaldia izan zuen, gai onetaz: «El Euskera y el Estado». Eta ondoren bezela au jakin-erazi zuen: Estaduagandik iritxi bear zala, erreguz eskaturik, Euskalerrian lan egin bear zuten notarioak euskeraz zekitenak izan zitzala; baita gure Udaletxetako sekretario ta osalariak ere euskeraz jalkitera beartu bear lirakela.

1911-1915 bitartean batez ere «Euzkadi» aldizkarian idatzi zuen, Eleizalde'tar Koldobika'ri lagundurik; adiskide miñak ziran biok, eta bergaratarrek bere «Zaldi Baltza» eskeiñi zion (Euzkadi, 1914, XI, 317 orr.) lekietiarri, zegion lanaren orde z bear bada. Geroago, Bilbao'ko «Euzkerea»-n ere, 1930'tik 1936'ra, lanok beintzat argitara zizkigun: «Escudo de Lekeitio», «Las lapidas de Elorriaga», «Heraldica vasca», «Las laudas de Lekeitio», «Lauburu», ta abar.

Azken gudaldian Frantzia'ra jo bear izan zuen bere emazte —Errosalia Maria Sasua-tegi— ta seme-alabakin. Biarritz'en, Verdun kalean, 84 zenbakian, bizi izan zan zazpi urtean: bertan il zan 1944-12-26'an.

Onaindiak esandakoari gutxi gehitu diezaiokegu. Badakigu batzokia (Zornotzar Batzokija) 1907an fundatu zela eta lehenengo batzordeetan (junta municipal) Amantzi eta Felipe Sasuategi koinatua ohikoak zirela. 1916an Jaungoiko-Zale Bazkuna sortu zen, han be partaide ziren bera eta bere anaia Pablo abadea. Alderdiak antolatzen zituen ekitaldi gehienetan parte hartuko zuten, berak eta bere seme-alabek, batez ere, kantuan, dantzan, antzerkian... Hogeitamarreko hamarkadarako lehen "ezpatari" bihurtu zen: 1930ean "Comuni6n" eta "Aberri"ren elkar-batzeko komisioko partaide izan zen eta urte berean, abenduan, Bizkai Buru Batzarreko lehendakariorde aukeratu zuten Ramon Bikuña lehendakari zela. Berriro izan zen BBBko batzarkide 1932an Luis Arana Goiriren lehendakaritzan.

Heraldikan ere ez zen edonor izan. Larra-betzuko eta Getxoko armarriak bereak dira eta Euskal Herriko armarrria ere ideiatu zuen, oraindik jeltzaleek erabiltzen dutena. Lekeitio-ko armarrriari buruzko ikerketa Euzkerea aldizkarian argitaratu zuen.

Margolaritza ere gustoko zuen. Irakurri dugu, Frantzian, azken urteetan, pintatu zuela. Ez dugu ezagutzen bere obra, baina etxean gorde dute Onaindiak aipatzen duen Andre Maria, Lekeitioko Antiguako Ama, eta esku ona erakusten du. Apurtxo bat beranduago jaio izan bazen —edo gu lehenago— Kurik aldizkarian lan egingo zuen duda barik!



Amantzik margoztutako Lekeitioko Antiguako Ama



Amantzi Urriolabeitia eta familia desterruan (Biarritz?)



"Euzkerea",13. zenbakia. (1939-1-15)



Amantzik diseinatu eta zizelkatutako armarrria. Familiaren altxorra!



Bizkai Buru Batzarreko kideak, euren artean Amantzi lehenengoa eskumatik eta Luis Arana Goiri BBBko lehendakaria erdian, 1932.

BOGA-BOGA

Musiko ona zela esanda, ez da harriztekoa bizi izan zen garaian Lekeitio musikoz —eta musikaz— blai baitzegoen. Eta zer diosku Ondarroako aita zuen musiko honek Boga-Boga kantari buruz, ba Lekeitiokoa zela. Aita Donostiak bere "Cancionero" liburuan batu zituen Amantziren hitzak:

"Esta melodía se cantaba en Lequeitio, en la escuela de párvulos de D. José Etxeberria, hasta el año 1887, año en que dejé de asistir a este Centro docente".

Barkora, mariñelak
Barkora, mariñelak.
Juan biar dogu urrunera,
Bai, Indijetara,
Bai, indijetara.
Etxat, ez, aztuko
Zure plai ederra. } bis
Agur, Lekeitio,
Itxaso basterra!
Agur, Lekeitio,
Itxaso basterra.
Agur, Lekeitio!

Amantzik txikitik ikasi zuen Lekeitioko eskolan kanta hori, eta ez zuen uste halako edo antzeko ezer kantatu zenik Ondarroa aldean, aita hangoa izanda etxean ez zuelako sekula komentatu gaztetan Boga-boga kantatu zuenik Ondarroan. "Mi padre, que era ondarrés, de buena memoria y no mal músico, nos decía que al aplicar el nombre de la localidad en la despedida de la canción, era a gusto del cantante. En su juventud (hacia el año 1870) tomó parte en un orfeón que se formó

en Ondarroa, y no le oímos nunca jamás decir que cantasen el "Boga-boga"; y parece puesto en razón que en una masa coral apareciese, como pieza obligada, la que hiciera referencia al pueblo". Ez dago txarto arrazoituta. Ausartago eta poetikoagoa da hurrengo azalpena, baina auskalo: "La melodía que transcribo pudiera bien ser parte de alguna pieza de teatro (al estilo de "El Borracho Burlado"), representada por la aristocracia lekeitiarra de fines del siglo XVIII. Había en este tiempo entre dicha aristocracia (los Otxandegi, Oxangoiti, Renteria, Navarra-Larreategi...), la costumbre de celebrar veladas literarias y concursos de poesías en romance y bascuence por acontecimientos que hoy nos parecen fútiles: la traída de aguas, el plantío de árboles en la alameda, etc. etc.; y eran, generalmente, las señoritas las encargadas de expresar su mejor o peor genio poético o literario. Me imagino ver en uno de los salones de esta aristocracia o en el salón del Ayuntamiento (que también se utilizaba para espectáculos públicos) un paso de escena, en que instalados los marineros en alguna txalupa figurada, se les ordena bogar (rau, rau) hacia el buque que ha de conducirlos a las Indias, despidiéndose del pueblo objeto de sus aficciones. (Fin de acto y telón des-pacio)".



"Barry Lindon" pelikulako fotograma

Antza, gero moldatu egin zuten kanta Gipuzkoa aldean eta aldaketen artean Ondarroa agertzen da Lekeitioren orde. Ze eingotsau ba!

Eskerrak
Jon Atela eta
Begoña
Renteriarri



LAS LAUDAS DE LEKEITIO

Allá, a principios del 1900, lei en Cavanilles "Lequeitio en 1857", refiriéndose a las dos laudas sepulcrales de la basílica lekeitiarra: "Estos monumentos respetables, por su raro mérito, por su veneranda antigüedad, serian en otros países objeto de especial cuidado. Se habrían sacado calcos, grabados, figurarian en los museos..." Y me formé el propósito de sacar, inmediatamente, un calco, quizás el primero que sobre estas laudas se habria hecho. Con el interés que en mí despertó el deseo de conservar un recuerdo de tan bellos objetos de arte, y de los primeros monumentos que de su historia conserva mi villa natal; provisto de papel y barras de carbón, útiles que en la ejecución del tal trabajo empleé, me dirigí a la iglesia parroquial.

Estas laudas hallábanse, anteriormente a la fecha precitada, clavadas sobre el entarimado de las sepulturas familiares. En mi niñez, una de estas era situada sobre el pavimento, junto al altar de las Animas, expuesta a las pisadas de los fieles que acudian a los oficios divinos; motivo este por el cual algunas líneas delicadas del grabado se hayan desvanecido por el roce, aunque no desaparecido las siluetas o contornos de los motivos ornamentales.

Esta lauda fué levantada y colocada en la pared del tramo que actualmente ocupa el altar de San Antolin, en el hueco de la parte de la Epístola; a demasiada altura para ser cómodamente examinada.

La otra, desclavada del entarimado, y plegada sus cuatro secciones, hallábase en el desván habilitado para archivo parroquial, en espera de que se resolviese el litigio entre el Cabildo parroquial y la familia de Artze, que sostenía ser la propietaria de esta segunda lauda.

Tuve, pues, que dirigirme al altar de San Antolin, y por medio de una alta escalera de tijera, ayudado en mi labor por un amigo — Julián de Ziarreta (q. e. G. e.) — pude sacar el calco, que aún conservo. Hoy se hallan estas dos laudas colocadas en el muro donde se abre el arco que da acceso a la sacristía, a derecha e izquierda de este arco.

¡Qué contrariedad! La leyenda correspondiente al varón en la lauda que reproduje, habia sido cortada en todo su lado mayor, así como también la del lado

inferior! Había desaparecido ya esta inscripción cuando don Antonio Cavanilles (1) hizo su referencia en el año que consigno en la nota bibliográfica.

¿Quién será este ignoto caballero? Es la pregunta que entonces me hice y azuzado por el placer de rasgar el velo a lo desconocido; de entonces acá sigo olfateando su rastro. Aunque presumo haber dado con el conspicuo personaje, no he de abandonar mis búsquedas hasta adquirir la evidencia — en cuanto la crítica histórica conceda —, de la personalidad de este caballero.


La lauda señalada con el NUM. 1, chapa de bronce, tiene de altura (sin incluir la inscripción recientemente adosada a su pie), 2,110 metros por 0,785 metros de anchura, seccionada en cuatro chapas.

Con un fondo de motivos de estilizado ramaje, interpolado de aves en posiciones simétricas en cada diseño (que bien puede simular un tapiz); sobre una doble peana historiada de escenas de caza: lucha del hombre con el oso, caza del ciervo, del jabali, etc., motivos ornamentales interesantísimos; y bajo dos series de a tres doseletes del gótico florido, surcados de seis imágenes de santos de difícil designación; hállanse dos personajes, que por los almohadones, encajados de hojas y volutas, que respaldan sus cabezas, hemos de suponerles yacientes.

El personaje de la derecha (2), caballero cubierto con armadura de la época, ciñendo espada y puñal, calzado de espuelas, envuelto su busto en corto manto ricamente bordado; un cerco de menudas flores, a modo de diadema rodea su frente, y embraza escudo en el que campea la cruz trebolada, orlado de diez saufiores; escudo que aparece dos veces repetido promediando los dos lados de la inscripción funeraria. Lleva a sus pies un león de heráldica melena, que diz que simboliza el valor del difunto.

(1) "Lequeitio en 1857". — Madrid.—Imprenta de J. Martín Alegria, 1858.

(2) Téngase en cuenta, para lo sucesivo, que me refiero siempre al objeto y no al observador.





Núm. 1



Núm. 2

Laudas de la Basílica Parroquial de LEKEITIO

(Fotos LUX)

La figura de mujer que va a su izquierda, lleva mano largo y liso, excepto el cuello y los mitones y exigua parte de la túnica que van adornados de pájaros y hojas, a imitación de tisúes y estofas. Da lástima que el tocado haya perdido las finas líneas del grabado, pero conserva el aplastado bonete (?) de adornos encerrados en círculos y rombos. A sus pies, un perrito con collar de cascabeles, royendo, como supone Lekanda (1), una tibia.

La inscripción de esta lápida, en monacales de relieve, ha dado origen a apreciaciones de fechas no concordantes

He aquí la inscripción (2):

Lado superior. — : DIOS : AYA : SO : ALMA :
✻ : AQUÍ IASE DONA :

Lado izquierdo. — MARY : YVANS : DURIBARREN : SO : MUG : FYNADA : QUE : DIOS : PDONE : QUE : FINO : — DIAS : DEL : MES : DE — ASO : DNI (roto) : CCC : — ANOS : QUE : DIOS : AYA : SO : AL (cortado).

Difiere esta mi transcripción de la de Cavanilles, al igual que de la de Pirala (3), que es una copia de la de Cavanilles, y para su confrontación beta aquí:

Aquí yace doña Mary Ibañez de Uribarren so muger finada que Dios perdone que finó a... del mes de... ano de M e CCC años, que Dios haya so alma.

La lauda NUM. 2, es de 2,195 metros de altura por 0,772 metros de ancho. Es idéntica en estilo y ornamentación a la ya descrita. Se repiten, con alguna variación, las escenas de cacería de la peana.

Representa también a dos personajes, marido y mujer, yacentes y en actitud orante.

La indumentaria, de ricos-homes, es lisa, sin más adornos que los que el varón ostenta en los mitones y la mujer en las mangas; vestas entalladas, sobre-vesta y velo de líneas simétricas y toca cubriendo el mentón. A sus pies un mastín? bajo el varón y un falderillo en los de la mujer.

En los cuatro ángulos, sendos círculos que contienen representaciones de los cuatro Evangelistas; muy estropeado el del cantón superior derecho.

A la mitad de los lados mayores e interrumpiendo la franja que circunda a esta lauda, hállanse

(1) Juan José de Lecanda. "Páginas de piedra de la historia de Vizcaya".—"El Nervión", 22 de octubre de 1899.

(2) Quedó advertido que fué cortada la inscripción correspondiente al varón; por lo que empezamos con la terminación que la correspondía.

(3) "España".—Sus monumentos y Artes.—Su naturaleza e historia, "Provincias Vascongadas", por don Antonio Pirala.—Barcelona, 1885.

dos círculos que llevan la figura NUM. 3, que hace las



Fig. núm. 3

veces del señorial escudo de la anterior lápida. Constituye la cifra o marca comercial particular del mercader Ormaegi. La inscripción, en caracteres indécifros a los de la anterior; comenzando por la mitad del lado inferior, dice:

✻ AQVI : IASE : IOAN : PERIS : DE : ORMAEGY : DE : FUNTO : Q̄ : DIOS : PERDONE : Q : FINO : A — DE — EN : LA : ERA : DE : MIL : ET : CCCC : XX : ANOS : ROGAT : POR : LA : SO : ALME.

✻ AQVI : IASE : DONA : AVRIA : MARTINES : DE : GERANTA : SV : MVGER : Q̄ : DIOS : PERDONE : Q̄ : FINO : A : XIII : DIES : ANDADOS : DE : NOVIEMBRE : ENLA : ERA : DE : MIL : CCCC : XIX : ANOS : ROGAT : POR : LA : SO : ALME.

La transcripción de Pirala, que es, con la excepción de PEREZ por PERIS, la misma de Cavanilles, es esta que sigue:

"Aquí yace Johan Pérez de Ormaegi, difunto que Dios perdone que finó a... de... en la era de MCCCXX años. Rogad por la so alma".

Y la de Lekanda:

"Aquí yase Ioan Paris de Ormaeche difunto, que Dios perdone que finó a... de... en la era de mil e C. C. C. X X años. Rogad por la so alma."

Pirala no inserta la transcripción de doña Auria; lo hace Cavanilles al tenor siguiente:

"Aquí yase doña Auria Martinez de Ceranga so muger que Dios perdone que fino a 13 dias andados de noviembre en la era de MCCCXIX años. Rogad por la so alma". ✻

Los errores más importantes de estas dos últimas transcripciones son: en las de Cavanilles y Pirala el de la era de mil trescientos en lugar de la de mil cuatrocientos. La de Lekanda pone ORMAECHE en vez de ORMAEGUI, sin tener en cuenta el patronímico. PARIS en vez de PERIS, que lo atribuyo a error de imprenta. Pirala, con la elisión de una R cambia el

toponímico: OMA-EGI por ORMA-EGI; (OMA=colina, ORMA=pared, muro), error en que anteriormente cayó Cavanilles. (1)

El escritor Lekanda, en el lugar citado, que Etxegarai (Carmelo) lo copia en la "Geografía del País Vasco-Navarro", tomo de "Vizcaya", pág. 888, dice: "En la obra "España" en el tomo correspondiente a las Provincias Vascongadas, escrito por don Antonio Pirala, al transcribirse las inscripciones de las laudas de Lekeitio, se ha comido el transcriptor en cada una de ellas una C, que equivale a hacerlas cien años más antiguas de lo que realmente son, y vase más allá aún en dicha obra afirmándose que son obra del siglo XIII. Además hay algunas variantes entre la copia de la inscripción que yo doy y la correspondiente a la que se estampa en dicha obra y a esto sólo tengo que oponer que procuré copiarla con la mayor escrupulosidad que me fué posible, para que ello sirviese a mi escasa competencia en achaques epigráficos".

Etxegarai cierra contra los que erraron, a



Fig. núm. 4

su juicio, por la supresión de una C en las tres transcripciones; y citando a Cavanilles "en la única que reprodujo de la segunda" que es la única que pudo reproducir, por cuanto la otra, hemos visto ya que se había cortado anteriormente; cae él mismo en el error de Lekanda, que no pudo examinar dicha lauda.

(1) El apellido *Ceranta* es error del grabador. Con haber añadido la tilde a la G la convirtió en T.

Cavanilles en su citada obra rectifica acertadamente este apellido. Que es *Ceranga* y no *Ceranta* —aparte de que así se llama el caserío próximo a la villa de Lekeitio, que el uso le ha convertido en SERENGA— véase por los documentos de la época a que la lauda hace referencia.

En el instrumento que me sirve para comprobar la personalidad del esposo de Mari Ibáñez de Uribarren, aparecen como alcaldes de Lekeitio, *Iohn Ortiz de Ceranga e Pasq. Ms. de Ceranga*, y uno de los jueces arbitrales del pleito *Iohn Ederra de Ceranga*.

Pongamos las cosas en su lugar. Pirala, al igual que Cavanilles, transcribió la fecha de la primera lauda dando el año 1300, como hemos visto, y no la hace "cien años más antigua de lo que realmente es". Véase la copia fotográfica número 4, reproducción de un calco que hice sobre la lauda, y que recientemente he examinado y contrastado su exactitud.

Si la parte que de ella falta desapareció al desclavarla del suelo que cubría la sepultura, fué gran torpeza el no haber vuelto a juntarla sobre la tabla que hoy sostiene el resto de la lauda. Si alguien, intencionalmente, por justificar asertos sobre la edad de este monumento, arrancó tal porción, la torpeza fué aún mayor. Separó la cifra de la unidad de millar, pero dejó íntegras las centenas, pues las tres C aparecen con la separación de los dos puntos: el inferior intacto y el superior, lo suficiente para demostrar su presencia; ambos puntos, al uso del resto de la epigrafía.

Es de suponer que el hueco que observamos, llevase la cifra del millar y quizá además, la conjunción

E o ET; mas el rasgo terminal que nos queda, no he podido referir, por comparación y superposición, a ninguno de los caracteres que ostenta el resto de la inscripción. Pudiera ser terminal de letras acopladas; pero por hoy, no me es posible ir más allá de las suposiciones en lo que a esto respecta.

Pirala transcribió bien la fecha, y denota ligereza en Lekanda al atribuir a tal escritor una fecha equivocada, máxime si se tiene en cuenta que en el artículo "Páginas de piedra" dice el mismo Lekanda: "La segunda de las laudas se ha fijado en el muro de una de las naves laterales, a guisa de cuadro, en lugar obscuro y a alguna más elevación de la conveniente, causas que motivaron el que NO PUDIESE LEER LA INSCRIPCIÓN FUNERARIA QUE CIRCUYE ESTA PIEZA ENEA".

Lo que en Pirala no me explico es la interpretación (si no fué mera copia de Cavanilles) de la abreviatura DNI por DE; pues, aunque en medio de la N hay una cabeza de tirafondo, el resto de la letra no ofrece duda.

Cometió error Pirala al asignar la fecha a la segunda lauda, como advierte Lekanda. Es la era de 1400 y no la de 1300. Muy a la vista, quedan las cuatro C para una tal equivocación.

La misma observación hecha por Lekanda, sobre las variantes de las copias de ambos escritores, a pesar de que "procuró copiarlas con la mayor escrupulosidad que le fué posible", debo hacerla a las transcripciones de éste, comparándolas con las que yo doy.

* * *

¿Cuándo se trabajaron estas laudas?

Si las hiciéramos coetáneas a las fechas de defunción de los causantes, habríamos de colocarlas por los años de 1300... la primera y de 1382 (era de mil cuatrocientos veinte) la segunda.

Esto me lleva de la mano para traer de la personalidad del caballero desconocido.

Consta, por la inscripción de la lauda, que Mari Ibáñez de Uribarren fué su mujer.

En el archivo municipal de Lekeitio, R.º 3, Número 2, hay una escritura del año 1383 de un pleito entre el Concejo y los alcaldes de la villa de Lekeitio y "entre doña m̄ beltran darançaua señora del dicho lugar darançaua e doña M̄ YS̄ DURIUARRE muger legitima que fué de OCHOA ORTIS DE LARIS finado..." herederos del lugar de *Laka* en el término de Amallo.

Que Mari Ibáñez de Uribarren fué viuda de Otxoa Ortiz de Lariz el citado año de 1383, concepto es que se halla repetido en el citado documento.

Otro recurso se nos ofrecía para inquirir tal personalidad y era la correspondencia de las figuras heráldicas de su escudo con las del linaje a que pudieron corresponder. Consulté, a este propósito, enviando los datos que yo poseía con don Juan Carlos de Guerra, eximio heraldista vasco, el cual con la deferencia que me obliga a profundo agradecimiento, contestábame esto que enfresaco: "No hallo aún datos concluyentes para una solución definitiva; porque no coinciden el apellido Lariz y el escudo que embraza nuestro difunto. No es esto negar la posibilidad de que el sujeto fuese el mismo Ochoa Ortiz de Lariz, y me inclino a sospechar que fuese hijo de cierto Fortun Ochoa de Villela, heredado en Lariz, y que por la propiedad de este solar o su residencia en el mismo dejara el apellido paterno por el solariego. Así lo indica su nombre, su patronímico y la cruz de su escudo. Pero

guárdeme Dios de afirmar como hecho cierto y averiguado esta sospecha mía. Si prosigue usted en sus investigaciones, posible es que obtenga algunos indicios que confirmen mi suposición o que la desvirtúen y dirijan la investigación por otros rumbos".

"El Fortun Ochoa de Villela, antes aludido, aparece en documentos del año 1319".

Como aportación de dato que pudiera corresponder al personaje inquirido, no será ocioso citar la tregua establecida el 28 de noviembre de 1355 entre don Juan de Abendaño con sus parientes, parciales y compañeros, incluido un *Ochoa de Lariz*, y los moradores de Bilbao, ante don Tello, señor de Bizcaya.

Tras esta digresión, originada por la identificación del anónimo difunto, volvamos al punto de partida de este parágrafo.

Si trasladamos a nuestro caso el criterio que Guiard (don Teófilo) aplica a la lauda de Pero López de Victoria (1) (conservada hoy en el Museo Etnográfico de Bilbao), habremos de deducir que, por la omisión de los días, meses y decenas y unidades en blanco de la primera lauda, fué abierto el grabado en vida de doña Mari Ibáñez de Uribarren; correspondiendo así a la XIV centuria; pues viuda en el año 1383, según la escritura mencionada, restaban aún diecisiete años para añadir la cuarta C, como equivocadamente supuso Lekanda le correspondía. En la segunda lauda, después de la defunción de doña Auria de Zeranga, 13 de noviembre de 1381 y probablemente el 1382.

Flandes y Alemania, en el siglo XV, son los lugares y la época señalados por los críticos de arte, como de importación y ejecución de estos estimables trabajos cincelados en chapas de bronce.

El escritor Lekanda opina sobre las laudas de la basilica lekeitiana, que "tienen la misma procedencia que su coetánea, la célebre lauda del sepulcro de los Fernández de las Cortinas de la iglesia parroquial de Castro-Urdiales, que desde 1871 se guarda en el MUSEO ARQUEOLOGICO NACIONAL (2).

Las relaciones comerciales entre los puertos del litoral cantábrico y los puertos del Norte, es razón para admitir que a Castro y Lekeitio hayan podido arribar estos interesantes monumentos del arte santuario medieval.

(1) "Boletín de la Comisión de Monumentos de Vizcaya".—Tomo IV, pág. 99.

(2) Hace muchos años que vi esa lauda y apenas conservo recuerdo de su contenido; pero sí de la impresión que me produjo por su similitud con las laudas lekeitianas.

Ez, ez dut nahi

Gabika *abadia*


Ibon eta Aitor Iturbe Gabikagogeaskoa

Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez,
ez holako zibilizaziorik.
Kaiolaren adarrak ditugu alboan,
eskuindarrek eskua zabaldu juxtuan.
Zigorren indarren menpe tiroak gogoan,
horrela bizitzerik ez dago munduan...

Julen Lekuona

Mende erdi igaro da, gezurra badirudi ere harrez gero 50 bat urte pasa dira. Orintsu entzun dugu irratian "Ez, ez dut nahi" abestiaren bertsio rockero indartsua. Kantu hau Julen Lekuona abadeak idatzi zuen 1966an Francoren diktadurapean. Urte batzuk beranduago, abade talde batek grabatu zuen GOGOR diskoan Derioko Seminaria okupatu eta protesta itxialdi sonatu baten ostean. Abade izan arren ez ziren diktadorearen atzaparretatik kanpo geratu eta kartzela berezi batean eman zituzten euren bizitzako urte mordoa. Ezkutuko espetxea, isilpeko kartzela, munduan antzekorik ez zuena, Estatuak eta Elizak elkarlanean eraikitako kartzela, Estatuak atondua eta Elizak bedeinkatua. Zeru-lurren engendroa, apaizak kondenatzeko eta isiltzeko bidea: Zamorako konkordatu-kartzela, abade askoren dimisio apostolikoa lortu arren, misio ebangelikoan eragin menegialagoa izan zuena.

Bada, lekittar bat izan zen Zamorako abade kartzela hau zapaldu zuen lehena; Don Alberto parrokiakoentzat, Gabika abadea abadekide eta lekittar askorentzat, Alberto senide eta lagunentzat. Osaba Alberto edo Tio Alberto ilobontzat. Idealista handia bere hitzetan, ekintzaile nekazina dudarik gabe, eredu askorentzat: Alberto Gabikagojeaskoa Mentxaka. Francoren erregimenarentzat, ordea, abade gorria, errebeldea, zismatikoa, konformagaitza, intsumisioa, separatista, menderagaitza, matxinoa, subertsiboa... "Badakigu gure hemengo bizitza ekarpena dela, bere txikian, mundu gizatiarrago baten alde borrokan dihardutenentzat; eta honek adorea eta arrazoiak ematen dizkigu aurrera jarraitzeko" (Alberto, 1973-04-06).



Alberto, Gerra Zibila hasi eta bost hilabetera jaio zen Lekeition, 1936ko abenduaren 26an. Gazterik, hamaika urte zituela joan zen Saturrarango seminaria bost urterako. Jarraian bi urte Gasteizen eta beste bost Derion egin ondoren, hamabi urteko formakuntza zorrotzaren ostean 1960ko ekainaren 23an abadetu zen hogeita hiru urte zituela.



Gerra osteko lehen hamarkada biak garai latzak, goibelak, ilunetan ilunenak izan ziren. Diktadura ankerra, krudela, herratsua eta errukigabea izan zen Gerra Zibila galdu zutenekin, Francorekin bat ez zetozenekin. Disidentzia larritik ordaintzen zen. Eskubide zibil zein politikoko gabeko garaia zen: ez zegoen ez adierazpen askatasunik, ez manifestatzeko askatasunik, ez prentsa askatasunik, ez informazio eskubiderik, ez elkartzeko eskubiderik, ez alderdi politikoak eratzeko aukerarik, ez sindikatuak eratzeko aukerarik, euskara debekatuta, Eusko Jaurlaritza atzerrian...den-dena legeaz kanpoko, disidentzia oro klandestino. Giro benetan itogarria, estua bizi zen Espainian eta Hego Euskal Herrian.

Gerra osteko sasoi haietan, Elizaren gerizapean edo bermepean, Hego EHko abade batzuk Ipar EHN errefuxiatu baten beste batzuen laguntzaz gai izan ziren argitalentxo klandestino batzuk zabaltzeko. *Euskal Abadeen Taldea (E.A. TALDE)* deitzen ziren eta urte luzez praktikatu zuten erresistentzia mota hau. Era berean, salaketa-dokumentu edo adierazpen ugari argitaratu zituzten tarteka. Kontrainfor-

mazio lan honek Erregimenari min egiten zion baina onartzeko moduko mina, Eliz hierarkiak berak erreprezio bigunez kontrolatzen zuena. Frankismoa momenturik gorenean zen, oso zaila da gaur egungo ikuspuntutik ekintza hauen arriskua, ausardia eta balioa neurtzea.

Horrela helduko gara 60ko hamarkadara. Hamarkada haretan hainbat indar norabide berean jarri eta olatu txiki zena tsunami erraldoi bihurtu zen. Euskal Herria lozorrotik esnatu zen eta tsunami honek Alberto bete-betean harrapatu zuen.

EKIN talde kulturala EGIrengandik (Eusko Gaztedi, Euzko Alderdi Jeltzaleko gazteak) urrundu eta ETA (Euzkadi Ta Askatasuna, herri askapenerako erakunde armatua) bihurtu zen. Aberri egunak ospatzen hasi zen gizartea. Langileen aldeko mobilizazioak gero eta ugariagoak ziren, Langilearen Egun ilegalak, gose grebak... Euskarazko Oinarrizko Hezkuntza abiatuko da Ikastolen eskutik, nagusien alfabetatze kanpaina ere abiatu da Euskaltzaindiaren baitan. EZ DOK AMAIRU talde kultural zabal eta oparoaren gerizapean Euskal Kantagintza Berria ere sortu da. Hamarkada amaierarako euskal argitaletxeen *boom*a daukagu. Ikasleak antolatzen eta manifestatzen hasi ziren. Goi Elizari dagokionez, Vatikanoko II. kontzilioan jarrera aldaketa ikusten da, herrien eskubideen eta pertsonen duintasunaren aldekoak. Gurean ere, haizea popoaren, abade belaun-



di berri bat dator herriarekin engaiatua, herriarekin eta herriarentzat lan egingo duena. Horren adibide argia da 1961ean EHko kristau komunitateetan Herri Gaztedi ekimena sortu izana. Gazteak hezteko modu berritzailea zen, euskara ardatz zuena, elkar lanean eta modu asanblearioan antolatzen zena. Behetik gorako antolakuntza zuen eta talde ekintza eta gizarte ekintza zituen oinarri. Gabika ere ibili zen Herri Gaztediko talde batekin elkar lanean, jarraian ikusiko dugun moduan.

Tsunami honen aurrean, Erregimen frankistaren erantzuna betikoa izan zen; erreprezio bortitz eta indiskriminatua. Salbuespen egoerak, atxilotuak, kolpatuak, torturatuak, sasiepaituak, kondenatuak, kartzelaratuak, tirokatuak eta hilak nonahi eta zenbanahi. Erbesterratuak eta exiliatuak ere beste horren beste. Francoren bake beltzak bazeramatzan 25 urte indarrean 1964an.



Ajuje-ri Kurik!

2018ko apirila

Ajuje (jota biak lekittarren moduan ahoskatuta) Ajuria da, Lekitto Lekeitio den legez. Lau auzune nagusitan bananduriko herritxo polit-polita da Ajuria, gaur egun Muxika udalekoa.

Haraxe bidali ninduten ni abade 1960an apaiz egin nintzenez eta nire destino bakarra izan zen, harik eta 1969an Zamorako kartzelara eraman ninduten arte. Orduan berrehun biztanle inguru zituen eta udalez lbarruri zen.

Askotan eman zidaten niri ajujarrek (ajuriarrek), ostatu baino gehiago familia berri izan nuen Etxebarrieta baserritik hasita. Neure euskara lekittarra aberastu zidaten, nire atzetik etortzen ziren polizia jakasun behar izan zituzten; auzolanean jokatzeko aukera izan genuen herri-txoko bat sortuz, lehenengo telebista denon artean ekarriz, elizarako bankuak... taldean jokatzen ikasiz, bidaiak elkarrekin eginez.

Baina, gainera, askatasun handia izan nuen Herri Gaztedin Bizkaia guztian zehar eta Gipuzkoan ere lan egiteko, lbarrurin zegoen nire abade-lagun Txomin Artetxe euskaldun sutsu eta lagun minarekin jarduteko eta artikulu honetan agertzen diren ekintzetan parte hartzeko.

Horrez gain, beharbada ekarpenik handiena Ajuriako andrazko eta gizonetako euren izaeragaz egin zidatena izan zen, jende zintzo, argi, lagun on eta alai hark eskainia. Batez ere emakumeek bizitari aurre egiteko erakusten zuten ganorak, gaitasunak, sortzen zidan eraginik handiena: etxean eta kanpoan lanean gogor, familia guztiaren ardura —handiegia nonbait— hartuta. Kategoria handiko jendea benetan.

Nik, nola ez, kurik eginez, neure poza agertu nahi diet ajuriar guztiei, bederatzi urtez euren artean bizitzeko sortea izan dudalako. Eta adiskidetasun eta karinorik handienaz diotset: urtero legez datozen Sanjuanteko herri-bazkarira arte.

Beti lagun

Alberto



* "Mañana se cumplen 4 años de la inauguración de esta cárcel destinada a curas, pues el 22 de Julio de 1968 entraba sin protocolos a inaugurarla; desde entonces son 52 los sacerdotes que han pasado por aquí, algunos de ellos repetidas veces". Alberto Gabika, 1972-07-21

Akabo bakea

Egoera aztoratu hartan, 1964ko udazken hasieran Ajuriatik hurbil dagoen Muxikan, Areatzako eskola hankaz gora agertu zen: Francoren erretratu desagertuta, bandera espainolaren ordezkurria, Frankoren aurkako pintadak, ETaren aldekoak... Guardia zibilak Gabikaren taldeko, Herri Gaztediko sei mutil eta Balendin Enbeita bertsolaria atxilotu zituen. Galdeketetan gazte bi torturatu eta Balendin zaplastada tratatu zuten. Azaroaren batean, momentuko egoera eta gertaera hauen aurrean zuten iritzia eman zuten Alberto Gabikak sermoi batean; bertan Guardia Zibilaren, agintarien eta herritarren jarraera ere aztertzen zituen. Sermoia euskaraz irakurri zuten arren santiamen batean hiru hizkuntzatan argitaratu zen; euskaraz, gaztelaraz eta frantsesez. Gotzainaren

HILZAILA BAT BEZELA

Hiltzaile bat bezela
hemen naramate
bi eskuak loturik
mundutik aparte
Errurik ez dutela
azaldu nahi nuke
egia nahi dunantzat
emana dut merke

Julen Lekuona, 1966 urtarrila

Julen Lekuonak
Alberto Gabikari eskainitako
abestia



Apaiz lagunak, Patxi Bilbao Gernikako epaitegira deitzean, 1967an: Pedro Berrioategortua, Txomin Artetxe, Martín Orbe, Alberto Gabika, Ander Manterola, Jon Onaindia, Agustín Idoaga, José Luis Jauregi, Emilio Kortabarría, besteak beste.

Garaiko egunkari batean aurkitutako argazkia. Emilio Kortabarría barik Emilio Kortabartete lekeitiarra da agertzen dena. (Akerrak adarrak okerrak ditu).

Hona sermoiaren ataltxo bat...

Gernikako Guardia Zibila: Euren eskubideaz baliatuta, itaunketa egiteko deitu deutsee batzueri, euren artean 16 eta 17 urteko sei gazteri eta gizon heldu bateri. Itaunketan gazteetarik bi torturatu egin ditue eta gizon helduari aurpegiko bat emon deutsoe. Ez dabe egiaztatu errudun direla.

Ekintza hori ez da gizakieri jagokena, gutxiago agintari bateri; izengabekoa da agintari katoliko batengan. Ekintza horrek infragizakitzat hartzen ditu gure gizasemeak. Gizakia (gizaki oro) kreazioko errege eta Jaungoikoaren seme edo alaba dala uste dogun guztiok beharturik gagoz holako injustizia baten kontra gogor protestatzeraz.

Zoritxarrez, ez da ezagutzen dogun kasu bakarra. Euskal Herriko komisarietan sarri torturatzen da azken urteotan. Bost edo sei poliziren artean hartu eta torturatu egiten dituzte gure gazteak eta helduak. Torturazten dabilte bitartean, torturatuen sendiak, herria, gurasoak eta maiteen dituztenak iraintzen ditue barbarik itsusienekin.

Hori ez da zilegi, eskubide ororen kontra dago hori; giza eskubideen kontrakoa da. Holako injustiziaren aurrean protestatzen ez dabenak ez dauko giza sentimenturik, eta holako jokaera toleratzen daben kristauak ez dau ulertu Kristok mundu honean euki eban eginkizuna.

2º. Eskola dagon inguruko agintariak. Ezelako motiborik barik uste dabe jazotakoa abade batengandik eta bere inguruan egiten diren batzarretatik sortu dela (sumorik egon ez dadin, abade hori neu naz. Eta batzarrek Areatzako gazteekin neuk egiten ditudanak dira).

Gazteori itaundu eta euretako batzuk torturatu be egin eta gero, ez dabe errurik aurkitu abade horregaz (nigaz) batzen direnengan.

Halan be, herri honetako agintariak (batzuk) presioa egiten dabiz batzarrok amaitu daitezana.

Zer esan horrerri buruz?





GOGOR



AGORIL

Belaunaldi eta jarrera aldaketa ikusten zen euskal klero abertzalearen baitan. Erreleboa ote? Haustura ote? Gerra zibila hasi zenetik 30 urte igaroak ziren eta abade askok ez zuten gerra zuzenean bizi izan, bai ordea, gerraondoa. Ordura arte diktadura osoa klandestinitatean lan egin eta borrokatu zuen apaiz taldeak, Euzko-Apaiz Taldeak (E.A. TALDE) ez zituen onetsiko abade gazteek protesta egiteko proposatzen zituzten metodo berriak: gose grebak, itxialdiak, eliza itxierak jaiegunetan, eserialdiak... Diktaduraren lehen zatian euskal klero abertzalea EAJren ildokoa bazen, bigarren zatian ezkerrekoagoa zen apaiz belau-naldi berria agertu zen. Ematen du Bizkaiak Gipuzkoaren erreleboa hartu zuela. Abade gazteak indartsu zetozen eta GOGOR taldea sortuko zuten laster, Gogokeriaren aurka gogortasuna lemapean. Talde hau Bizkaialdean sortu zen ezkerreko abade langile eta abade abertzaleen elkarlanari esker. Ordu arteko kontrainfomazio eta adierazpen-dokumentuen erresistentzia metodoari ekinbide berriak gehituko zaizkio. Aurrerantzean ekintza batzuetan bat egin zuten talde biek eta beste batzuetan ez.

ELIZA POBREA
 Eliza pobrea, Eliza pobrea
 danontzat hobea
 moztu kardenalen arropak
 moztu torre luze zorrotzak
 moztu obispo kotxe luzeak
 Julen Lekuona (1966)

I. Kartzelaldia

Dueñas eta...
 Halako batean, 1968ko ekainean, gotzainaren baimenez, Gernikako Kultur-etxean atxilotu eta arrastaka eraman zuten Gabika Dueñaseko Trapako monjeen komentura kondena betetzera. Erregimenak eta Elizak sinatutako konkordatoaren arabera, abadeek ez zituzten zigorrak kartzelatan bete behar, elizako egoitzetan baizik. Trapako monasterioan bete zuten kondena erdia. Han zegoela, bisitaz gainezka ibili zen; lagunak, herrikoak, espainiako apaizak, jakin-minak eramanak, autobuskadak... "Gogorra zan e... monta eben kartzelara baina kartzela be konkordatoria, konkordataria, osea-ke, bijak bat egindda, da zegaitxik? Ba herria etorten zalako, jente pilua etorten zalako, etorten jatezen Valladolidtik baina ikusten e, eta berba egitten neugaz falangistak... nik danak esplikaten neutsen... ni honetan da honegaitxik eta honegaitxik nago hemen... hainbeste jende hara, klaro beste kartzelatar ta ezin zan juan, ez da oingo moduan oin e gehijago edo gitxiago kontrolata, baina oin jun leike, han ez euan juterik." (Alber-to, 2016-12-24). Bisiten kontu hau kontrolaezina eta eskandalagarria zenez abade-kartzela konkordatorioa zabaltzea erabaki zuen Erregimenak Elizaren oniritziz, eta horretarako Zamorako Kartzela Probintzian egokitu zuten txoko bat.



Xabier Amurizak esaten zuen legez, Julio Iglesias baino famatuagoa egin zen Alberto!

Zamora 1968

Eta halantxerik, 1968-07-22an, Otsagiko Txikitoren, parkatu, Gurdipe Gotzainaren baimen idatziaz noski, Zamorako apaiz kartzela inauguratu eta kondenaren bigarren erdia hantxe bete zuten Gabika abadeak. Hotela estreinatzeko ohorea berea izan bazen ere, biharamonean bertan Martuteneko kartzelatik Juan Mari Zulaika eta Felipe Izagirre apaiz langileak eraman zituzten Zamorara, lekittarrari konpainia egitera. Donejakue urtea zela eta kondena murrizturik, 1968ko irailaren 08an irten zen kartzelatik Xabier Amurizarekin batera.



Derioko seminarioko itxialdia

Biek ala biek opor laburrak izango zituzten. Irten eta hilabetera, azaroaren 4an, arratsaldeko lauretan eta 1.000 pta-rekin patrikan, **4, 4, 1.000** operazioan parte hartu zuten. Batetik irten eta bestean sartu. Hirurogei bat abade Derioko Seminarioan sartu ziren azaroaren 4an eta 25 egunez han izan ziren itxita, gau eta egun poliziak inguratuz. Nahiz eta Erregimenaren menpeko prentsa gutxiesten eta iraintzen ahalegindu, Radio Pirenaica eta Radio Parisek albistea eman zutenean euforia eta garaipen sentipena izugarria izan zen abade taldean. Hogeita bost egun hauetan euren ekintzaren xede eta arrazoen berri emateko hainbat hitzaldi eman zituzten nonahi apaiz gotortuek, Madrilen bertan ere bai. EHko egoeraren berri ematen zuen gutun bat idatzi eta ordezkaritza bat bidali zuten Vatikanora Pablo VI.a Aita Santuari dokumentua eskuan ematera, baina gorentasunak hartu ez zituenenez, beste bide batetik igorri zioten agiria. Oraingo gutun honetan EHren eskubide kolektiboak ia oharkabean azaltzen dira, ez ordea, *Euskal Erriko Langillearen*, E.E.L.ren egoera kaxkarra, eta sistema politikoak Elizako egituretan zuen esku hartzea. Horren aurrean eliza pobre, dinamiko, libre eta indijena aldarrikatzen da batetik eta herriak aukeraturiko

gotzain batzorde berri bat, bestetik. Itxialdia amaituta, famatua egin zen Gogor disko klandestino grabatu zuten abadeek, meza haietan kantatzen eta errezatzen zituzten testuekin. Agorrila disketxeak argitaratu zuen Ipar EHn.

Egoera tenkatuz zihoan eta 1969a urterik bortitzenetakoa izan zen. Gipuzkoako salbuespen egoera Estatu osora zabaldu zuen Erregimenak urtarrilaren 24an, otsailean 35.000 langile ziren greban Sindikatuen Legearen kontra Bizkaia eta Gipuzkoan, kaleetan manifestaldiak ziren ETAko presoan alde, apirilaren 8ko Aberri Eguna ere istiluz bete izan zen. Apirilaren 9an eta 11n poliziak ETAko kupulakoak atxilotu ditu eta Jon Etxabe abadea ere tartean da. Mikel Zuazabeitia abadeak bertatik bertara ikusi ahal izan zituen Jonek eta beste hiruk behintzat jasandako tortura basatiak. Maiatzaren 9an eraman zuten Jon Zamorako presondegira beste zazpi eliz-gizonekin batera. Ondorengo hileetan errepresioak goia jo zuen: ehundaka atxilotu, torturatuak, ihes egin beharrak...

Bilboko gotzaindegiko gose-greba

Ordurako nazkatuz, 1969ko maiatzaren 30ean abade boskote bat, Bilboko Gotzaindegiko sotoko gela txiki batera sartu zen gose greba egiteko asmoz. Aurreko urtean ere egoitza ho-

netan itxialdi bi egin zituzten hainbat abadek. Oraingoan, ekintzan parte hartu nahi baina ezinik geratu ziren abade asko eta asko. Ekintza honekin batera, torturen eta salbuespen egoeraren aurkako agiri labur baina gordin bat zabaldu zuten. Cirarda Administrari apostolikoari itxialdian egindako bisita baten esanak: "Txo, gu zeuk egin bihar zenduna egitten gagoz hamen, herri guztija jota ta apurtuta dao eta isil-isilik zagoz da geu goiaz horixe esaten, hau da, ley de bandidaje y terrorismo Estaduari aplika bihar jako. Horixe bakarrik esaten gendun: jentiari barrik, apurtuta dagon jentiari barrik, estaduari aplikatu bihar jako" (Alberto, 2016-12-24). Hirugarren egunean polizia gotzaindegian sartu eta Indautxuko komisariara eraman zituen bostak, eta han eduki zituzten 72 orduz, torturatu gabe egia esan. Handik Basauriko kartzelara eraman zituzten eta hamar bat egunen buruan gerra kontseilua izan zuten Burgosen, abokatuek defentsa prestatzeko astirik gabe.

II. KONDNA

Erregimen frankistak ezin zuen jasan ez itxialdia ez idatziak salatzen zuen guztia. Euskal klero errebelde eta separatistaren mamua ixildu, desagertarazi behar zuen lehenbailehen. Sententziaren arabera, bost abadeek elkarlanean idatzi bat egin eta zabaldu zuten, eta idatzi horretan Gobernu, Ejerzito eta Agintarien Erakundeen kontrako albiste faltsu eta iraultzaileak jaulkitzen zituzten, zertarako eta espainiarren elkarbizitza baketsua eta Aberriaren Batasuna –ondare historiko besterezina– asaldatzeko... Zer egotziko eta... ohorearen aurkako irainak edo legez kanpoko propaganda? Ez horixe! Matxinada militarra egotzi zieten! 1969ko ekainaren 11an Burgosen bildutako Ohiko Gerra Kontseiluak, 66/69 epaiketa sumarisimoaren bidez; Alberto Gabikagojeaskoa eta Josu Naberanentzat hamabina urteko kartzela kondena, eta Nikola Telleria, Julen Kalzada eta Xabier Amurizarentzat hamarnakoak ezarri zizkien. Luzaro egongo zen boskotea zulo barruan! Etakide izatea egotzita, eurekin batera egon zen Jon Etxabe abadea ere, 50 urteko kondenapean.

Ez zaio falta umorerik Kaltzadari hurrengoak esateko: "Jesu kristo hiru egun kanposantuan egonda Zerura joan zen; gu ostera, hiru egun jan gabe egon eta Zamorako infernura. Eta epaiari buruz zera: "Frankoren armadako militarren ustez, hori errebelamendu militar argia izan zen eta, errebelamendu militarretan inork jakitekotan, Frankok eta bere militarrek zekiten".

ALBERTO GABICAGOJEASCOA MENCHACA nacido el 26 de diciembre de 1936, hijo de José y de Primitiva, soltero, prebitero, natural de Lequeitio (Bilbao) y vecino de Múgica (Bilbao), con instrucción, actualmente ejerciendo sus funciones sacerdotales en la localidad ultimamente (sic) citada, como Párroco en Ajuria, con antecedentes penales, figurando con tal caracter en una condena del Tribunal de Orden Público de seis meses y un día de Prisión y diez mil pesetas de multa como autor de un delito de propaganda ilegal, de mala conducta social (informada en autos), habiendo sido sancionado por el Gobernador Civil de Bilbao por manifestarse contra el Orden establecido... se reunieron en la Casa de Ejercicios de Begoña con el propósito y resolución, que llevaron a la practica, de redactar y confeccionar una declaración escrita o manifiesto, cuyo texto -en castellano y vascuence- elaboraron conjuntamente...

SACERDOTES VASCOS EN "HUELGA DE HAMBRE"

Un Grupo de Sacerdotes inicia una "huelga de hambre" consciente de que al encerrarse para ello crean una nueva situación de incomodidad, que sólo podrá ser aceptada si se llega a comprender el dolor y la angustia que sufre nuestro Pueblo. Su huelga de hambre quiere ser un grito de protesta y lucha a favor de los oprimidos de nuestro pueblo. Quiere ser un complemento a la voz de la Jerarquía.

1. Los derechos humanos mas (sic) elementales siguen siendo conculcados. Los ciudadanos perseguidos, detenidos, torturados, se ven obligados a huir o son encarcelados indefinidamente y condenados, al fin, por unos Tribunales entregados a los intereses del Régimen vigente.
2. A raiz de los conflictos laborales de Altos Hornos de Vizcaya...
3. Somos testigos de como la "busqueda y captura del hombre" se ha recrudecido de forma alarmante...
4. El Regimen vigente realiza hoy un nuevo crimen sirviendose de unos Tribunales Militares quienes, en virtud de la ley de "Terrorismo y Bandidaje" pueden imponer facilmente (sic) ondenas elevadas e incluso la pena capital.
5. A los acusados se les niega muchas veces la posibilidad de entrevistarse con los abogados defensores...
6. Nuestros pueblos, fábricas, iglesias, lugares de reunión y diversión, sufren la presencia de infinidad de chivatos...
7. La TVE, prensa, radio, y demás medios de información tergiversan sistemáticamente estos hechos...

Por todas estas razones nuestro pueblo vive bajo el imperio (sic) de un auténtico TERRORISMO... De aquí que el mismo pueblo es quien tiene sobrados motivos para aplicar al Estado actual la Ley de "Bandidaje y Terrorismo"... La transcripción anterior, en cuanto al relato, es falso en su contenido, tergiversando (sic) en su exposición, tendencioso en la forma y subversivo en la finalidad, ya que está, en su contexto y redacción, claramente dirigido a promover la rebeldia (sic) contra las Instituciones... y tendende (sic) a desprestigiar a los organos (sic) del Estado, subvertir la paz social, así como incitar y promover acciones directas y violentas contra la unidad de la Patria, estimulando el separatista (sic) y la desmembración de la nación... Siguiendo con este propósito de conseguir grán (sic) audiencia y notoriedad para su potesta... el día treinta de mayo del presente año se encerraron en las Oficinas del Palacio Episcopalo de Bilbao en Huelga de Hambre" para de esa forma... obtener y buscar una difusión del escrito antes mencionado. FALLAMOS Que debemos condenar y condenamos a los procesados clérigos DON JESUS NAVERAN NAVERAN Y DON ALBERTO GABICAGOJEASCOA MENCHACA, como autores responsables del calificado delito consumado de Rebelión Militar del Artículo 2º del Decreto de 21 de Septiembre de 1960 en relación con el parrafo 5º del Artículo 186 y artículo 290, ambos del Código de Justicia Militar, sin la concurrencia de circunstancias calificativas, a sendas penas de DOCE AÑOS Y UN DÍA DE RECLUSIÓN, con la accesoria de inhabilitación especial por el tiempo de la condena...

Sententziaren laburpena.



EUSKAL HERRITIK APARTE

Xabier Amuriza , 1970

1 Euskal Herritik aparte mila legoa bitarte esku ta hanka loturik preso Zamoran naukate Pentsaturik zenbat urte behar dogun hemen bete pazientzia hartu beharko libre itzi arte


2 Nahizta kriminal ez izan kaiola-txorien gisan bost gizon handi kolpera preso sartu ginduezan Baina zergaitik izan zan nahi neuke poliki esan inozentzian bizi diranak itzartu daitezaz

3 Maiatzeko egun batez hogeita hamar hain subertez gose greba bat hasi genduan geure borondatez Goitik laguntzarik batez guztia zan geure kaltez obispo ta apaiz kolko-haundiak lasai bizi beitez

14 Heldu ginan Zamorara inpernu-zulo hontara Jainkorik bada dagon lekutik gaizala anpara Urte batzuen bolara gu hemen izango gara bien bitarte Euskal Herria askatzen ez bada

15 Pilatos eta Herodes izan dira gure juez Anas ta Kaifas ere oraingoan kontsola daitezkez Hala ere gure partez lasai gagoz eta bakez askatasuna kendu deuskue baina umorerik ez

16 Horra amaitu baino lehen bost apaizok nortzuk ginen bat da Gabika hurren Kaltzada Naberan ondoren Amuriza da laugarren nor falta ete da hemen guztion buru Nikola jarri behar neban goren



II. Kartzelaldia Zamora 1969-1976

Bigarren kondena hau bidegabea, neurrigabea, zentzubakoa eta lotsagarria zen baina, eredugarria, beldurgarria izan behar zuen eraginkorra izateko. Oraingoan ez zegoen errekurtsotarako aukerarik, BARRURA! Burgoseko Gerra Kontseilutik Zamorako presondegiara zuzenean, koplá barik.

Zamorako apaiz-kartzelako trafikoa izugarria izan zen 60. hamarkada amaieran. Denetarik egon zen kartzelan; euskaldunak eta euskaldunak ez ziren abadeak, kondena monasterioetan betetzea onartu zutenak eta ez zutenak, taldeka antolatuta zirenak eta aparte geratu zirenak, delito komunengatik kondenatutako abadeak, kondena laburrak zituztenak, kondena luzeak zituztenak... Martin Orbek dioenez: "Kartzela hartatik igarotako apaiz eta fraideak 53 izan ziren. Horietatik 40 euskaldunak: 31 bizkaitarrak eta 9 gipuzkoarrak". Abade euskaldunen kasuan, pekatuak ohikoak ziren: elizetan bandera espainola kendu edo estaltzea, elizetan espainiar ereserkia ez jotzea, torturak salatzea sermoi edota idatzietan, etakide hildakoen arimen aldeko elizkizunak egitea, langileen protestetan parte hartzea, aberri egunetan parte hartzea, kili-kili aldizkaria edukitzea, delitu hauengatik jarritako isunak ez ordaintzea... Hamarkada berriarekin trafikoa urrituz joan zen baina han jarraitu zuten kondena luzeak zituztenak; gotzaindegiko grebako boskotea eta Jon Etxabe.

Zamora 22 de agosto de 1969


Queridos aita y hermanos:

Espero habreis recibido la carta que os he escrito pasada. A Dios le escribi el 10 de agosto y espero que continúe hasta ahora.

Como os podéis suponer aquí no suceden cosas buenas, aunque ya nos buscamos maneras de variación; un día porque es el cumpleaños de un compañero, otro porque son las vacaciones de alguno de nuestros presos. Entre cosas buenas me voy alegrando y buscando maneras para tener un poco de alegría.

En todos los días me voy alegrando y buscando maneras para tener un poco de alegría. Me voy alegrando y buscando maneras para tener un poco de alegría. Me voy alegrando y buscando maneras para tener un poco de alegría.

Zapran zagoze! Kartzelara eta kartzelatik bialdu zirian kartak eta postalak dira erabiliko dirazenak, historia-lariak esaten daben modura, lehen iturriak Ez dot sekula aittu hainbesteko miresmena, baina eurretatik edan bihar ei da. Sikieran Maritxu ta Bartolon itturriko ardautxu zuria izango balitz... Izan kontuan erderaz idatzi ziziala, zer erremedio Francon denporetan!, baina guk gehienak euskeratu egin doguzela. Erabili doguz hurrengo liburuak be: elkarlanian egindako "Zamorako apaiz kartzela", Jon Etxaberen "Zamorako landan" eta Julen Kaltzadaren "Umezurtzen aberria".



La visita de Mariano y Mariol me causó un gran dolor, pero quitado todo poro en paciencia de que pueda estar necesitado de algo.

La visita de Mariano y Mariol me causó un gran dolor, pero quitado todo poro en paciencia de que pueda estar necesitado de algo.



... barreak

Baina momenturik estuenetan ere barreak eta gozamenak bazuten euren tartetxoak Zamorako zuloan. Tentsioa baretzeko, lasaitzeko eta gogoia indarbertzeko metodo paregabea baitzen, egunerokotasunari denbora pixkat osteko amarrua eta ihesalditxoak egiteko modua ere bai. Hona hemen uji batzuk.

Presokideen urtebetetzak egun bereziak ziren. Goizean Xabier Amurizak eta Martin Orbek diana jo ondoren aurrekua dantzatzen zieten omenduei logelan bertan. Egunean zehar pilota, partxis, ping-pong lehiaketak e.a. antolatzen zituzten. Bazkaritxo berezia atontzeko ere baimena zuten baina arratsalderako egunerokotasuna gailentzen zen berriro.

Lotaratu aurretik antzerkitxo gogoangarri hau behintzat posible zen: abade batailoia, hobe esanda, gudari batailoia antolatzen zuten eta Nikola komandantearen esanetara *Eusko Gudariak* kantatuz desfile militarren parodia egiten zuten. "Hemen dena doa ondo, Nikola buru dugula, ezina ere posible da" (Alberto, 1972-03-03).

Hor azpian daukazue kodepean idatzitako postal bitxi bat. Ez euskaratzea erabaki dugu adierazkortasunik gal ez dezan. Irakurri eta batera barregura ematen du, ez da ia ezer ulertzen eta xeblekeriak edo huskeriak kontatzen direla ematen du; baina mezu argia izango zuen bere sasoiari hartzailearentzat.

Martin Orbek kontatzen digun ateraldi honetan kartzelariak berak ere barre egin omen zuen. "Xelebrea Andreu Vila jesuita katalanak kartzeleroarekin izan zuen elkarrizketa:

- Y usted, señor Andreu, ¿por qué no se levanta?
- Porque tengo insuficiencia sexual.

Kostata baina deszifratu dugulakoan gaude ia berrogeita hamar urte beranduago.

-Eso qué...
 -¡Que tengo insuficiencia sexual!
 -Pero eso no...
 -¡Que no se me pone en los c... para levantarme a esta hora para no tener nada que hacer durante todo el día!"

Eta gozamenari amaiera emateko ezin dugu aipatu gabe utzi taldean zegoen bertso eta umore iturri agortezina; Xabier Amuriza. Eza-guna da bertsolari birritan txapeldun honen trebezia bertsoak egiteko eta horren lekuko dira artikuluan zehar bildu ditugun bertsoak. Gabiak beti aipatu izan du haren baikortasuna eta kemenena. "Jabier, nahiz eta oinak hotzik, irudimenez bero dabil eta beti bezala prest, eta umore ona beti bestean zerbitzuan; goraintziak (cariño) bialtzen dizkizue" (Alberto, 1972-12-01). Edo "Nire adiskideak zoragarriak dira eta oso ondo moldatzen gara, betiko legez, eta Jabier bezalako lagunekin ez da umorerik falta, barre asko egiten dut berarekin." (Alberto, 1973-02-24). Eta azken azkenengo barre-argara amaigabea. "Kartzelia zelan dan, e! Ni akordaten naz, behin toka jakun, zeldak ipini aurretik edo ipintteko egoazala, toka jakun, zelda baten, zelda haundi baten egotia Jabier Amuriza ta ni, kartzelan danetariko egunak egoazan baina gau baten Amuriza xeblekerijak esaten da kontaten da hori, gau guztijan, gau guztijan baina erremenda biharrian agujetakin, tripako agujetakin. Kartzelia zelan dan, e!. Goizaldian etorri zirian errekuertuan kartzelerauari esaten entzun neutsan, hori kontatekua da hor e, esaten entzun neutsan: "estos tios se han tomado la cárcel de cachondeo". Da behekuak be bai entzuten, da gau osua lorik egin barik, zelan izan leike hori, e! [...] Jabier be akordako da horregaz, errementauek egin nebazan nik, da ha ni errementaten ikusitta anima egitten zan ganera gehijago..." (Alberto, 2016-12-24).

Lequeitio, 7 de abril de 1970

Querido hermano: Aunque no tengo muchas noticias que darte ~~pero~~ siempre viene bien una postal y enviart un saludo muy sonoro. En casa todos estamos muy bien. Manuel ha recibido de su jefe suficientes cartas como para jugar al mus, hasta para eso tiene ánimos. Según Patxo hay algunos que están heridos de ald, como Julián, etc. etc. pero otros siguen fumando su pipa como San Juan, después del cargo que ha recibido. Entre noticias burocráticas destaca la escapada de Luis por los púñares de Mandata, no conforme con sus galas, por otra pretera, se le ocurrió meterse por los púñares, y como es natural se largó el coche, él salió ileso, dispuesto a repetir la hazaña. También sobresale la afición de Txomin por el fútbol es ahora hincha del Indauchu y el otro día estuvo en Gasteiz. Ya te acuerdas de aquel refam: "un fútbol de parte de toda tu familia". Un saludo de parte de toda tu familia. Jesús María de Sabido y Escobar



Josu Naberanek Zamorako kartzelan ahateen (watervogels) poster baten atzean marraztu zuen Euskal-Herriko mapa

Tunela

"Zelan dabiltza hiru marinelak? Zelako bekaitza diedan! Ziur naiz eurretan inork ez duela nire oraingo bezain marrea luzerik inoiz egin. Uste dut halako batean porturatzea tokatuko zaidala; baina tamalez ez dut portutik ikusten, ezta lehorrik ere, ezta sikiera kalatxori lehor iragarlerik ere. Gainera zuen itsasuntziak aurrera egiten dute, baina burdinazko pakebote honek betiko ainguratua dirudi" (Alberto, 1970-10-03).

Gabikak errepikatzen duen modura, urtea joan urtea etorri, beti kartzela bera, beti patio bera, beti logela bera... egunero errutina berberak: "... kartzelan gertatu ohi denez, ez daukat gauza askorik kontatzeko..." (Alberto, 1969ko urria), "Ilusio itzela daukat biharko bidaia dela eta... irudi aldaketa... atsedeen psikologikoa... Begitu hara, zer gauza gutxi den izugarri guretzat" (Alberto, 1970-09-07), "Oraindik Zamoran!" (Alberto, 1971-06-05), "Asteon, hobe esan-

da asteon ere, ez da gertatu ezer berririk" (Alberto, 1972-05-12). Baina, 1969ko urte amaieran Naberan eta Etxabe hasi ziren kaskarrari eragiten eta presondegiko sasi guztien azpitik irten behar zutela erabaki zuten. Ordurako hamaika bat abade geratzen ziren kartzelan. Kargutzen ziren ihesaldia oso arriskutsua izan zitekeela eta gauzak okertze aldera bizia ere gal zezaketela saiakeran, baina ez ziren kikildu, lanari ekin zioten. Taldeka lan egin zuten: batzuk sator zulatzaileak ziren, beste batzuk asto garraiatzaileak, beste batzuk kartzelero entretenitzaileak. Alberto klaustrofobikoa zenez lurra desagertarazteaz arduratu zen. "Ni dedikaten nitzan botatera da, euen lurra gehijena, baina harrija be bai, da ha ezin gendun bota, ezin gendun bota komunetik... barrero barrura." (Alberto, 2016-12-24). Noizbehinka sartu-irten batzuk egiten zituen tunelean, beldurra galtzeko eta ihesaldirako prestatzeko. Hamazazpi metroko tunela egin zuten oso tresna traketsekin; zerrautsa mugitzeko paleta, koi-lara batzuk, eskuak... Osaba Joxe walkie-talkieari esker izan zuten hartue-mana kanpokoekin eta kanpoan dena zegoen prest; mozorroak, kotxea, pisu frankoak Zamora, Salamanca eta Madrilan. Geldiune batzuen ondoren 1971ko urriaren 03an Luigi Dadaglio Vatikanoko Nuntzioak ez zuen ezeren susmorik hartu kartzelara egindako bisitaldi zinikoan. Hilaren 16an goizeko zortzietan ihes egingo zuten zulo hartatik baina, astearte eta 13an, hiru egun baino falta ez direla, Naberan eta Gabika garbategian daudela funtzionari bat agertu da oharkabean eta ordurako tunelaren ahoa itxita badago ere baldosaren juntaduran hezetasun marratxo bat lehortu gabe dago. Kaka zaharra!! Atrapo!! Kartzelariet irratiren bat-edo aurkitzea espero dute... ezin dute sinistu begi bistan dutena. "Da gero eskapatia zan golpe handija emotia, danari; ez bakarrik horri obispuari, da danari. La Carcel Concordataria eurak egindda... ha izan zan penia... golpe handija zan... haaitzik zan penia." (Alberto, 2016-12-24). Golpeaz gain, kondena oso luzeak zituztenek ihes egingo zuten, baina...

Gabika eta Naberan hantxe bertan harrapatu zituztenez eta Etxabek kondena luzeena zuenez, hiruren plana zela aitortzea erabaki zuten, besteak errugabetzeko eta ez zigortzeko. Araketa zorrotz baten beldur, Osaba Joxeri agur esan behar izan zioten eta sukalde gaineko teilatura bota zuten presaka. Gaur egun, gezurra badirudi ere, epaile batek bueltatzeko eskaria onartu ondoren, oroigarri gisa gordetzen du gatibu ohiren batek tramankulu hau.

★ ALBERTO GABIKAGOJEAASKOA ★



★ JON ETXABE ★

★ JOSU NABERAN ★

★ XABIER AMURIZA ★


★ "ALSO STARRING": KURIK ★



Grapo taldekoek ihesaldirako erabili zuten jatorrizko planoak. Gorriz abadeen ihes saiakera.

SE DESCUBRE EL INTENTO DE FUGA DE DOS SACERDOTES RECLUIDOS EN ZAMORA

Trásase de los presbíteros don Juan Echave y don Julian Calzada, condenados por terrorismo y rebelión militar, respectivamente



Sunsun kordan geratzeko modukua da! Gure morroiak atrapo eta handik gitarra Grapokuak eurok egin eben guztia eginda (tunela, garbategia, estalkia...), ospa egitia lortu! Tripa hutsak entendimentu argitzen ei dau: sarrailagile, igeltsero, arotz, kontrabandista, elektrizista, antzerkilari... ze ofizio salba zan? Honek ogi maminagaz eta orraziagaz egin eben garbategiko giltza gero, honek baldosak kendu eta igarten ez zan estalkia prepara eben gero, honek kontserba latetan sartu ebezen erramintak eta walktolkia gero, honek lur toneladak atara ebezen gero, honek 17 metroko tunela egin eben gero... Honek danak eginda gero, 13 eta martitzean atrapa ebezen!

Plano original de los fugados. Cárcel y entorno.

URRIA
EGUZKIA ETA EURIA, URRI EGURALDIA

13

San Florentzio Tesalonikakoa, San Gernaldo Ciergesekoa, San Leobono Salagnacekoa, San Lubentzio Ko-bernekoa...

MARTITZENA
1971

Cartagena

Tunela jausi ta gero, hiru egunez zigor ziegetan eduki ondoren Cartagenako Moldagaitzen Kartzelara eraman zituzten 90 bat egunerako hiru tunelgileak. Azkenean, elkartu zituzten beste preso batzuekin baina ez eurak nahi bezala preso politikoekin, preso komunekin baizik. Preso komunek lurrean egiten zuten lo eta inkilino berrien ziegetan oheak sartzten ikusi zutenean zur eta lur geratu ziren.

–¿De donde venis? –hango presoek.

Beste zeldetakuak uste eben... harrituta egoazan ze eurak behenganin egitten eben lo, eta ikusi eben guri ohiak ipinitta, guri ohiak ipinitta...



Beitu nun amaittu eben hiru mosketarijak Cartajenako kartzelan!!!



–¿De dónde venís?
–De Zamora –guk.
–¿Qué sois, qué sois?
–¡Curas, curas!
–¿Protestantes? –eurak. Katolikorik pensau bez harek be!
–¿Protestantes?
–Si protestantes, bastante protestantes! –geuk.

Pabiloia karraju bat zen eta ziegak elkarren aurrean zeuden, ezker-eskuma. Karrajuaren ertz batean pabiloia ixten zuen leihatiladun ate bat zegoen kartzelariet pabiloi osoa kontrolatu ahal izateko. Abadeak erretzaileak ziren

eta kartzelariet tabakoa kentzen ez zieten, preso komunek tabakoa pasatzeko eskatzen zieten. Laster irakatsi zieten preso komunek tabakoa pasearen lekzioa. Ezinezkoa zirudien: ziegetako ateak burdinazkoak ziren, 3m ingurukoak, erdian leihatilatxo bat eta goi-goian burdin sare estaliako leihotxo, nola egin? Lehenengo eta behin kartzelariak euren leihatilatik pabeloia kontrolatzen ari ziren ala ez jakin behar zuten eta horretarako ur pixkat bota behar zuten ziegako atepera ispiluarenak egin eta kartzelariet leihatila ikusteko. Ondoren botoi bat askatu eta jostorratza eta hura josteko haria eta jostorratza eskatu behar zioten kartzelariari. Gero zigarroak ondo harilkatu eta lotu ondoren, orrazi bati lotu eta atepetik jaurtitzen zioten beste preso bati. Honak zigarro bat edo bi hartu, berriro korapiloa egin eta ondoren berriro jaurtitzen zuen zigarro konboia beste ziega batera; horrela azken presoenganaino. Etxabe, etakidea zenez El Lute egon zen ziurtasun bereziko ziegan sartu zuten. Cartagenan hile bi eman ondoren, atzera ere eraman zituzten Zamorara, hori bai kotxe ederretan.

*Peud de Cartagena
Warkit, 9-nov-71*

*¿Cuando dos auto y hurrenauz?
¿Como estais? Habéis reu-
lido en la segunda carta? ¿E' aye
de Hago? La 12 del 22 de octubre
de Hago? ¿Porque hay un libro he reu-
lido? ¿Porque una de sus padres, en
de que le dicen como han estado ahí?
Espero que para ahora os habra lle-
gado también la que os escribí el
3 de noviembre.*

*Brian, tal como os prometí, hoy
vuestro, ahí estoy en un libro. Todo
va bien aquí. Debéis estar muy
tranquilos. ¿Es así? ¿Estáis ya
fuertes desde el día 2 y si pasáis
que se os una? ¿En, si quisiera
deverí de falta bastante, pero es-
peramos que por Navidad han-
peramos que por Navidad han-
da el lap con nosotros. El de uerq.
vixiente i os que em por una
ca hay problema. ¿Habéis escrito
a la madre? ¿Yi dos com-
pares en la Navidad? ¿De la uerq.*

ELKARTASUNA ETA BEROTASUNA

ez zitzaien inoiz faltatu: etxekoena, herrikoena, kanpokoena. Erregimenak etxe barrukoa ondo kontrolatuta zuen baina etxez kanpokoarekin buru hauste izugarriak zituen. Eta ordurako abian zen Amnesty International, oinarri-oinarrizko giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundea; egun ere, mundu mailan eta edozein herrialdetan gertatzen den bidegabekeria oro salatzen duen plataforma. Gabikari Alemaniako familia bat "tokatu" zitzaion. Albertoren lagun handi bihurtu ziren Herbert eta Irmgard Klingst, eta Gabikatarron bihotzean beti izango da tartetxo bat eurentzat. Sekula ez zaigu ahaztuko idazten ari garen umeoi oparitutako liburua. Lekeition alemanieraz gehien irakurritako liburua! Alemanian jokaturako Munduko Futbol txapelketari buruzko liburukote ederra.

ZE ZIJN NIET BANG MEER JA EZ DIRA BELDUR



WIEERARTIGE PRIESTER!

Maar Albert Goetzgins is een Baskische priester die hij zegt dat hij in de kerke, die op het moment van de kerke, die op het moment van de kerke, die op het moment van de kerke...

Dit is misschien wel de beste priester die ik ooit heb gezien. Hij is een Baskische priester die hij zegt dat hij in de kerke, die op het moment van de kerke, die op het moment van de kerke...

"Quick", Blutiger Terror in Spanien

In diesem Gefängnis sollen die Priester gefügig gemacht werden. Man behandelt sie schlechter als Mörder und Diebe

Acht Jahre Gefängnis
Weil die Polizei in seinem Auto Flugblätter fand, die das Unrecht in Spanien anprangern, wurde Kapitän Luis María Dereciartus (28) zu acht Jahren Gefängnis verurteilt.

Zehn Jahre Gefängnis
Aus Protest gegen den Polizeiterror trat Kapitän Juan Cárdena (32) gemeinsam mit vier anderen Vorgesetzten in den Hungerstreik. Er wurde zu zehn Jahren verurteilt.

Zwölf Jahre Gefängnis
Eine kritische Predigt brachte Kapitän Alberto Gatica-Gocoesaco (32) sechs Monate Gefängnis ein. Zwei Jahre danach erhielt er zwölf Jahre - wegen Hungerstreiks.

Zwölf Jahre Gefängnis
Seine erste Strafe erhielt Kapitän Jesús Naranjo (27), weil er für einen Freiwildkämpfer der Tournee war. Jetzt sitzt er wegen Hungerstreiks für zwölf Jahre in Zamora.

ESPEYERKOREAREN ETORKISUNA

GURE ESKUE TAN DAGO

EGOERRI 71-72

Herbert Klingst, Amnesty International-eko Albertoren lagun alemaniarra



"La única Cárcel Concordataria de la Humanidad estuvo en Zamora, junto al Duero. Baldón eterno, mancha indeleble de la Iglesia española. ¿Privilegio, este antro esquinado, desván inhóspito con grandes rejas abiertas a la intemperie?"

Traganarrua

Ihesaldi saiakerak kale eginda, ez zuten konkordatoaren araberako pribilegorik nahi, preso politikoeekin egon nahi zuten; baina Estatuak eta Elizak ez zieten kasurik egiten, ez bata ez besteak. Frankisten indarkeria eta zapalkuntza eguneroko ogia zen, eta Elizaren morrontza eta zurikeria lotsagarriak. Ordurako zazpi lagun bakarrik ziren kartzelan, gose grebako boskotea, Jon Etxabe eta Paco Garcia Salve. Ekintza bortitza prestatu behar zuten kartzela hartatik atera zitzaten. Gotzainek jaso zuten euron-gandik protesta ekintza berri baten abisua eta urduri zebiltzan oso, beste gose greba baten esperoan. Kanpoko laguntzarekin adostuta, kameralari batek kartzelako irudiak grabatuko zituen atzerriko TB kateetan emititzeko. Adina zela eta, kanpokoekiko kontaktua mantendu behar zela eta... asko kostata eta bere borodatearen kontra, Nikola operazioetik at utzi zuten. Halako goiz batez, 1973ko azaroaren 6an hain zuzen, Elisa Kalzada, Rikardo Gabikagojeaskoa, Maribel Gabikagojeaskoa eta Marisol Gabikagojeaskoa senitartekoak kartzelara bisitan sartu zirenean inork ez zuen usaintzen berehala gertatu behar zena. Jon Etxaberen seinale batek hasiera eman eta deabruak hartuta lege, inguruan duten guzti-guztia birrintzen hasi dira abadeak; atek, kristalak, komunak,

TB aparailua ere patiora jaurti dute, koltxoiei su eman die... *Koipe* kartzeleroak ezin du sinistu ikusten ari den **traganarrua*, Gabikak esan dio geldirik egoteko eta ez zaiola ezer gertatuko. Hamar-hamabost minutu, dzi-dza batean egin da dago triskantza, kartzela infernu bihurtu da, sutan da ke beltz-beltza dariola leihoetatik... Eta espetxetik kanpora kamera bat ari da dena filmatzen Pedro Berrioategortua abadearen laguntzaz. Gauerako, Frantziako TB ematen ari da goizeko irudiok. AEBn ere eman zituzten irudiok. Arrakasta itzela izan zen operazioa baina, noski, 80 eguneko ziegaldia irabazi zuten. Pentatu bezala gose grebari ekin zioten berehala. Oraingoan Espainia osoan izan ziren elkartasun ekintzak: 111 pertsonak itxialdia Madrileko Vatikanoren Nuntziaturan, 100 pertsonak itxialdia Madrileko seminarioan, abadeen itxialdi eta gose greba Bilboko Gotzaindegian, abade eta herritarren itxialdia Bilboko San Anton elizan, Donostiako 128 abadek telegramak Aita Santuari, itxialdia Deustuko Unibertsitatean Teologia Fakultatean... Bitartean medikua joaten zitzaien beldurtzera gose greba bertan behera utz zezaten. Hamahiru eguneko gose grebaren ostean Madrileran eraman zituzten Carabancheleko kartzelako eritegira. Preso politikoeekin elkartuko zituztelakoan euforiko zeu-

denean, eritegian astebete eman ondoren berriro itzuli zituzten Zamorara. Kartzelaldiko momenturik txarrenetakotzat jotzen dute abadeok itzulera hau. "*Huraxe izan zen niretzat kartzelako unerik latzena*" Julen Kaltzada. Bi aste pasatxoko gose greba berri batekin erantzun zioten golpe baxu honi. Eliza eta Gobernuaren arteko hartuemanak gaiztotuko zituen ekintza izan zen Traganarrua. Lau gotzain, Bilboko Añoveros, Donostiako Argaya eta Setien eta Segoviako Palenzuela, Zamorako apaiz kartzela ixtearen alde agertu ziren, argi eta garbi. Ordurako Vatikanok ere birraztertu nahi zituen Espainiar Gobernuarekin zituen harreman eta akordioak. Ez zen berehalakoan gertatuko konkordatoaren aldaketa, baina inflexio puntutzat har genezake ekintza hau. Dena dela, Gabon Gaua heldu zen eta zigortuek ere elkarrekin afaltzeko baimena zuten, zigor ziegetatik irteten eta Nikolak eman zien albiste pozgarria. Kartzelako zentzuratzaileri oharkabean pasa zitzaien eta kirol egunkari batean irakurri zuten futbol partida batean minutuko isilunea egin zela Luis Carretero Blancoren hilketagatik. ETAK Madrilen bertan gobernuko presidentea hil zuen abenduaren 20an *Ogro* operazio sonatuan!! Non eta Espainiaren bihotzean!

*tornado deitu zioten kartzeleroek matxinadari. Guk Lekittarok traganarrua deitzeko baimena hartu dugu.

KE AZPITIK SU GAINETIK
Xabier Amuriza , 1972

1 Ke azpitik su gainetik gar artetik ihesi uhuka sei ihizi Hauts eta putz ahal zen dena erre eta erazi Ai kartzela Zamorako nola gelditu haiz hi eskerrak sei apaizi? Ez zaik ezer sano utzi egik sutan garraisi

2 Sei tximistek infernutik bueltan eztanda heman aitaren semearen kartzela hankaz goratzeko aski zen ordulauden. Lotegia gar eta ke Eliza ere ondoren Barka, Jauna, zer hoben! Nekez dugu berriz gaurko San Joan surik eginen

10 Hemen nago hemen gaude orain bigarren guda gose-greba heldu da ez dugu ezer jan-edango horma hauetaz barrura. Lor nahiz eror irten arte edo kanposantura han ez digu ardura lur nahiz zeru nahiz infernu ala harren kontura.

13 Hartzak bartzen galtzak sartzen hemen gaude Madrilen ez gara hil eta hilen oinak kili soinak kolo baina burua gailen. Jan mutilak, jo matrailak ez kezkarik makilen laster baita jakinen jaun akarren buztanpean zer sar-irten dabilen



Con el traslado al Hospital Penitenciario de Carabanchel, en Madrid, de los seis sacerdotes, en permanencia—según la Agencia Cifra—en huelga de hambre en la prisión concordataria de Zamora, culminan una serie de acontecimientos que comenzaron el pasado día 6 en el centro penitenciario de la ciudad del Duero. Aquel día los seis sacerdotes realizaron una serie de importantes destrozos en la prisión. Al ser conminados para que depusieran su actitud, se sometieron y, posteriormente, comenzaron una huelga de hambre. Los sacerdotes pedían que se les trasladase a una cárcel común o a una casa religiosa.

LA "PRISION CONCORDATARIA"
La cárcel de Zamora está dividida en dos secciones, sin comunicación entre sí, una destinada a condenados por delitos comunes y otra a los sacerdotes condenados por el tribunal de Orden Público y la jurisdicción militar. Los seis sacerdotes recluidos en Zamora solicitaron en diversas ocasiones la supresión de esta cárcel especial para clérigos y el traslado a otros centros donde cumplen condena los procesados por el T. O. P.

Los días después de los incidentes en la cárcel, con fecha del 8 del presente mes, los obispos de Bilbao y Segovia y el obispo auxiliar de San Sebastián dirigieron una carta a los sacerdotes de sus diócesis en la que, tras analizar los hechos ocurridos en Zamora, después del conflicto que antes y durante en torno al tema planteado por los sacerdotes, termina diciéndoles: "Deseamos, ante todo, que las penas de privación de libertad de los sacerdotes se cumplan en una casa eclesial o religiosa, designada de común acuerdo por la autoridad eclesial y la autoridad judicial."

BALANCE DE LOS INCIDENTES
La versión de los hechos iniciales del conflicto, según la nota oficial de la Dirección General de Instituciones Penitenciarias, arroja un balance total de 200 cristales rotos, destrozos de un televisor, de tres radiadores, de quinientos aparatos sanitarios, de quinientos colchones, dos sillas, una clase de ornamentos y toda clase de muebles para el estudio de capilla, y el mueble que servía para el estudio de los reclusos.



(los religiosos), que aparentaban todos, a excepción de uno, que se hallaban durmiendo. Media hora más tarde el jefe de servicios fue avisado de que dichos internos fueron dados de banquetes de madera y palos, estaban destrozando cristales, puertas, ventanas y otros efectos que había en los locales, provocando también varios incendios."

Los sacerdotes internos en el Centro Penitenciario de Cumplimiento de Zamora estaban alojados en la parte del edificio destinada al Centro de Diligencia de la planta baja.



Mediterráneo
LOS INCIDENTES DEL CENTRO PENITENCIARIO DE ZAMORA
UN PLAN PREMEDITADO PARA EL ESCANDALO Y LA CONFUSION

LOS SACERDOTES RECLUSOS DISPONIAN DE INSTALACIONES INDEPENDIENTES, SERVICIOS INDIVIDUALES, UN BASO Y DUCHAS, AGUA CALIENTE, COMEDOR-COCINA, SALA DE LECTURA Y TELEVISION, CAPILLA Y BIBLIOTECA Y UN PATIO DE 258 METROS PARA EJERCICIOS DEPORTIVOS

SE RIGEN POR UN PRINCIPIO DE AUTOGUBIERN PARA SUS ACTIVIDADES COTIDIANAS. EN SU REGIMEN ALIMENTICIO, EN EL QUE DISPONIAN DE AMPLIOS PEDIDOS DIARIOS AL ECONOMATO

Aitaren heriotza

1974ko maiatzaren 28an Jose Gabikagojeaskoa, Albertoren aita hil zenean Alberto bere familiaren etxera, Gabikenera eraman zuten eskuburdinekin polizia bati lotuta. Beldurra- ren beldurrez segurtasun neurri izugarriak hartu zituzten: herri osoa poliziaz josi zuten, Lekeitioko abran gudontzia jarri zuten ETaren beldurrez eta Albertorekin zihoan poliziak ez zeukan eskuburdinen giltzarik... Ordubeteko baimena zuen aita ikusteko. Herritarrek adierazitako hurbiltasuna eta berotasuna itzela izan zen, besarkada artean hartu zuten abadea eta besarkatuaren besarkatuz eskuak zaurituta amaitu zuten poliziak eta Albertok. Arreba poliziarri oldartu zitzaionean, honek pasatzen ari zen estualdi eta lotsa aitortu zion. Gertaera hau kontatzen duen olerki bat idatzi zuen Nemesio Etxaniz abade azkoitiarrak.

Kartzela, 74ko ekainaren 1a.

Neure anai-arreba maitzak!

[...] Lekeitiara heldu nintzenekoa kolosal izan zen; inork imagina ezin zezakeena; musuka jan ninduten inongo konbentzionalismo eta formalkeria barik; ez dut inoiz hain ordu intentsorik biziko. Ezin izan zutenei, agurtu nindutenei bezain besarkada estu eta amoltsua igortzen diet.

Marisolek gertatutakoa zehatz-mehatz azaltzen didan gutun luzea jaso dut. Ziur naiz ez dugula merezi herriak erakutsi digun maitasun guztia. Dena izan da hain ezustekoa! Hala ere, dena beharko dugu horrela jokatzeko duen herriaren zerbitzura egoteko.

Kontsolagarri dugu denok aita ondo zaindu izana, baita gutaz pozik eta harro zegoela jakitea ere; orain bere aldeko itxaropenean irmo jarraitzea baino ez daukagu. Eta herriari dagokionez, a zer nolako lekzioa eman digun! Herri honengatik, eta bereziki umilengatik, egin dezakegun oro gutxi izango da. [...]

Nire bisitak giroa lasaitzeko eta animatzeko balio izanak oso pozik jarri nau.

Marinelen jokaera paregabea izan zen. Eurentzat nire eskerrik beroenak besarkada handi batekin batera. [...]

Adiskideek magnifiko darraite, guztion pozak eta penak elkarrekin partekatuz. Julenek egin zuen moduan, neuk ere segundurik segundu kontatu diet bidaia, agurtu nituen pertsonak deskribatuz bereziki. [...]

Denontzako inoiz baino maitasun handiagoz Alberto Gabika

Gabikagojeasko'tar Alberto, apaiz eta euskal-martiri

1 Seme apaiza kartzelan dute, Zamora'n urte luzetan; Lekeitio'ko errian dago Aita azken-arnasetan.

2 Aitarengana utzi diote Etortzen abadeari; Esku-muturrak katiatuak Utzirik, ain lotsagarri.

3 Aita zerraldo otzean dago Semea etortzerako; Aitaren gorputz-aurrean jarri Da semea belauniko.

4 Alberto, seme errukarria, Asi da aitari izketan; Ingurukoak, ari entzunda, Urtu dira negarretan.

5 Nork esan ango negar-zotiñen Biotz-intziri samiñak? Nork neurtu ango jende onaren Malko agortu eziñak?

6 Erri osoa sutan jarri da, Apaiza laztandu nairik; Polizi bera lotsatan dago

7 «Naiago nuke - esaten dio Apaizaren arrebari - Lotura oiek kendu lenbailen Zure anai minduari»

8 «Baina sinistu zaidazu, arren, - naiz gauza gogorra izan - Loturak aska al izaleko Giltzarik ez didate eman»

9 Erri guziak beso-zabalik Artzen du apaiz zintzoa, Itxaropenez gozatu nairik Aren barruko giroa.

10 Ordubeteko epea izan du Apaizak aita ikusteko; Besterik gabe eraman dute Giltzapean usteltzeko.

11 Katetan dauden gure anaiak, Gogora ditzagun beti; Euskalerriko sua pizteko Oiek ditugu illeti.

12 Gabikagojeaskoa degu Euskalerriko martiri Apaiz jatorrak ar beza gure Esker onaren agiri!

Nemesio Etxaniz (Amilaitz)

ASKATASUNA

“Nire gidabaimena dela eta, 1976an iraungitzen da eta ordurako, zorionez, kanpoan izango naiz; horixe bakarrik falta da!”. Horrelaxe idatzi zien Gabikak senideei 1973-03-29an. Bada, hortxe-hortxe ibiliko zen gure ameslaria gidabaimena berritzeko.

1975eko azaroaren 20an, agonia luzearen ostean Franco Diktadorea hil zen. EHN bizi izan zen poza eta alaitasuna deskribaezina zen. Amnistia legea aplikatuz, 1976ko martxoaren 1ean, zazpi urteko kartzelaldiaren ostean askatu zuten Gabika, Naberanekin batera. Zamorako abade kartzela 1976ko martxoaren 24an hustu zuten, Etxabe eta Kaltzada komentu banatara eramanez. Horrela amaitu zen Zamorako kartzela konkordatorioaren historia beltza.

Askatu zuten egunean bertan ere ikuskizun negargarria, esperpentikoa antolatu zuen polizia frankistak Lekeition Albertoren etxe aurrean. Gabikeneko ateta barruraino sartuta, txakur amorratuak lege kolpatu zituzten inguruko herritar zein senitartekoak; anaia Karlos matrail hezurra apurtuta, loba Joseba koartelera...

Gabika eta abadekideek bizitako gehiegikeria hauek 40 urtez egon dira izkutututa, isilarazita, gutxietsita. 2010ean Argentinako María Servini epaileak 4591/10 Frankismoaren krimenen kontrako kereila martxan jarri zuen, eta Zamorako abade batzuk ere kereilan parte hartzea erabaki dute. Estatu espainiarrak, bere aldetik, zazpi urte daramatza epaile argentinarraren lana oztopatzen. Lehengo lepotik burua!

Artikulu idazten eta atontzen ari ginen bitartean Julen Kaltzadak, Etxebarriatze baserriko prakaduntxo bakarrak uste gabeen azken ihesaldia egin du 2017ko azaroaren 13an, eta are umezurtzago utzi gaitu. Zer gertatu ote da Kartzelako patioan Etxabek ureztatu, Naberanek handik izkutan atera eta Etxebarriatzen landatutako bi arandoekin?

Argazkiak, postalak, dokumentuak: Iturbe familiaren bilduma

Izurrite beltza

Lekeition

Aitor Iturbe

“Raguaglio della Peste scuoperta nella città di Riete...” Colantonio, Giuseppe, 1658. Mateo Piccioniren grabatua. 1656ko izurritea.

Quanti valorosi uomini, quante belle donne, quanti leggiadri giovani, li quali non che altri, ma Galieno, Ippocrate o Esculapio avrieno giudicati sanissimi, la mattina desinarono co' lor parenti, compagni ed amici, che poi la sera vegnente appresso nell'altro mondo cenaron con li lor passati! Bocaccio *Decamerone*.

Raguaglio della Peste in Riete
e de modi tenuti per estirparla.

Mateo Picioni Inuentor

Louduicus Roubier Sculp. Roma con licentia de Sup. 1658.

A metsgaiztoa, ez zen inor salbu geratu, ez lustredun, ez gazte, ez lerden. Osasunez gainezka, goizez mai-teekin gosaldu zuten berek, gauez arbasoe-kin afaldu zuten, beste munduan. Halakoxea izan zen 1348an Euro-para heldu zen izurria, errukigabea, maltzurra, beltz-beltza. Zelan ez, historiara pasatu da, baina ez zen bakarria izan. Luzarorako etorri zen Europara eta ez zen inor, inon libratu. Gurera "askotan" etorri zen, baina 1523koa eta 1597koa itzelak izan ziren. Ateak eta harresiak genituen eta baita goardiak ere, baina den-den-alferrik. Eginak egin, izurria behin eta berriro gailentzen zen.



"La morte batte egualmente alle porte dei grandi che dei piccoli", Wellcome Collection

1523ko izurritea

1523ko abuztuan hasi zen, 1523-8-29an hain zuzen, (Que se guarde fiesta el dia de la degollacion de San Juan por la peste) eta 1525era arte iraun zuen, beraz, oso luzea izan zen. Agian hasieran ez zen larriegia izan, baina 1524ko abenduan Nieto medikua kontratatu behar izanak argi uzten du ez zela hildako gutxi batzuen arazoa. Testigantzak hala dioskue. Juan Hormaegui lekukoaren hitzak dira: "... se acuerda de la pestilencia que en la dicha villa el año de veynte e quatro... estuvo toda la mayor parte de la gente de la dicha villa fuera della que no osaba entrar por que murieron quinientas personas poco mas o menos...".

Kostaldean bizi ginen eta Atea, Piedade eta Elexateako atea zarratu arren portuak ez zuen aterik. Lehentxoago Donostian eta Pasaian, besteak beste, zabaldu zen izurria Lekeitiora heldu zen. Apetatsua zen izurria, Ondarru salbu ge-

ratu zen, behintzat 1523ko neguan.¹ Apetatsua eta aldakorra, ez zuen gustoko negua. Gaur badakigu, orduan ez, izurria sortzen duen bakteria Yersiniak bizitzeko eta hedatzeko beroa eta hezetasuna nahiago dituela. Hala ere, Nieto medikua neguan ekarri zuten, berandu, antza.² Lekeition ez daukagu apenas dokumentaziorik, denboraren eragina, baina Valladolideko artxiboan (Real Chancillería de Valladolid) zer edo zer aurkitu dugu.




¹ LUA R53, 43r


Han zegoen Korrejidorea Lekeitiora etorri ezinda kontuak hartzera, Korrejidorearen hitzak: "En la villa de Hondarroa a veynte e cinco dias del mes de diciembre de myll e quinientos e veynte e tres años el noble señor licenciado domingo de bargas correjidor... dixo que por quanto en la villa de lequeitio se abian muerto ciertas personas de pestilencia e a cabsa de ello estaba fuera della mucha gente por manera que su merced no abia podido yr en persona a la dicha villa de presente a la visytar e toma e rreçibir las cuentas de los propios e rrentas e rrepartimientos della a los oficiales del año pasado de myll e quinientos e veynte e dos...".

² Beti berandu ibili beharra... Nieto medikua maite ez zuen testigu bati kasu egiten badiogu ordurako txarrena pasatuta zegoen: "respondiendo a la trezena pregunta dixo que tiempo que el dho bachiller entro en la dha villa ya avia çesado la pestilencia e despues que el entro no morian como de principio...". Egia ote zen?

Egiari zor medikuak ezin ziren beti kontratatu norberak nahi zuenean. 1579an medikua to-patu ezinik ibili ginen eta aurkitu genuena Gernikako udalak ez zuen ibre utzi nahi. LUA R54, 194r 1579: "yten que pago a Nicolas de Bega mensajero que se hizo para Vitoria sy abia medico que quisiese venir a esta villa por lo mucho que picava la enfermedad diez reales y medio". 195v: "Yten que pago a garçia de çubieta quatro reales por su trabajo de mensajero que por esta villa se ynbio a la villa de vermeo con carta para el bachiller belendiz rogando se llegase a esta villa a visitar los enfermos della". 195r "yten que pago al dicho Rodrigo de Solarte veinte y ocho reales por otros dos dias de salario que se ocupo en yr a ablar y rrogar al dicho licenciado guilliz a guernica, para que con el partido que se le estaba ofreciendo viniese por medico a esta villa como lo havia prometido -la qual dicha diligencia se hizo porque por la contradicion que hazia la villa de guernica se dilatava su venida- y en esta villa havia mucha necesidad de medico porque picava mucho la enfermedad".



"Huc venias toto quisquis in orbe viges...", Memento mori. Wellcome Collection



Lequeitio

SALA DE
SITIO-3
VIZCAYA

Pleito de Pedro Ibáñez de la Rentería, de Lequeitio, con María Ochoa de la Rentería sobre la validez de los testamentos de María Pérez de Alday y Francisco de Ibarra ARCHV/Sala de Vizcaya, Caja 640,3. 1550

Non aurkituko 1523ko izurria eta, 1550ean bukatuko zen auzi batean testamentu eta herentzia artean!

Kontua da Maria Ochoa Renteria ezin bereganatuta zebilela Maria Perez Aldaik lehenengo eta Francisco Ibarrak geroago, herentzian utzitakoa, Francisco Ibarra eta Lucia Arteitaren seme eta oinordeko Pedro Ibañez Renteriarekin ez zelako konpontzen. Lucia Arteita eta Francisco Ibarra izurriak jota hil ziren Ipidegi baserrian eta, gure zorionerako, Maria Ochoa neskameari ez zion inork ezer ordaindu gorpuez arduratzearen⁶. Lekeitiotik alde egin zutenerako beranduegi zen, antza: "en su caseria de ypidegui... donde estaban huydos e ausentados desta dicha villa porque en ella a la sazón habia grand pestilencia y moria mucha gente dello y como morieron de la dicha pestilencia nynguna persona quiso enterrar ny tocar a sus cuerpos por que no se ynficionasen contagiasen de la dicha pestilencia y por que se enterrasen en sagrado y no comiesen los perros e infizionasen a la otra gente sus parientes y el pueblo de la dicha anteyglesia mandaron que los cuerpos de los dichos francisco e doña lucia fuesen enterrados debaxo de tierra aunque se hubiese de pagar grand cantidad de dineros a los enterradores y como nynguna persona les quiso tocar ny enterrar por no se ynficionar de la dicha pestilencia la dha maria ochoa de la rrenteria y cateli-

⁶ Egia esan auzia konplexuagoa zen, Maria Perezek eta Franciscok utzitakoa eta Franciscori eta Luciar zerbitzatu ziona ere kobratzeko zituen. Jakina, Pedro Ibañezen ustetan soberan ordainduta zegoen. Maria Perez Aldaik 1521eko testamentuan utzi ziona: "Yten mando a mi sobrina e criada maria ochoa de la renteria la viña de Garnacha... y mas el mançanal de hormaeguy... y mas una taça de plata y una cama goarnyda por descargo de mi conçiencia para en hennyenda e satisfacion de los serbiçions que me hecho e porque con ellos se pueda casar...".

na de aldaola ya defunta se atrebieron a amortajar y enterrar los dichos cuerpos finados... los truxieron al cementeryo de la yglesia de nuestra señora santa maria desta dicha villa con grandisimo peligro y trabajo de sus personas y ende los enterraron debaxo de tierra porque a la sazón la dicha villa no consentia enterrar semejante cuerpo finado dentro la dicha yglesia y sabén los dichos testigos que por el riesgo e trabajo de mortajar y enterrar de semejantes cuerpos finados contagiosos merecian e debian aber las dichas maria ochoa y catelina cada quinze ducados y mas tanto y mas pagaban en la dicha villa al dicho tiempo por enterrar semejantes cuerpos contagiosos...".

Decameronak ez du hobetzen! Beldurra eta balentria, errukieza eta errukia, bihotz-zabaltasuna eta miseriak... ageri dira testu honetan. Baina ez da fikzioa, errealtate gordina baino.

Lucia urriaren 17an hil zen eta senarra handik gutxira. Ez ziren edonor, aberatsak ere hiltzen ziren frogar⁷. Lucia, Maria Meçeta Uriarte dorrekoaren alaba, beraz Arteitatarra eta Francisco Ibarra senarra. Gainera Pedro Ibañez de la Renteria zaharraren alabak, izeko Maria Perez Aldaik, aukeratu zituen oinordeko legez. Bi baten prezioan, Ibañez de la Renteriatarren galdutako kate-maila aurkitu dugu, baina hori beste kontu bat da (ikus. Renteriatarren lantxoak).

Mari Ochoa Renteriak txikitatik egin zuen lan familia horrentzat, izan ere, familiakoa zen bera ere. Azkenean ahaide umilak lurperatu behar izan zituen familiako aberatsak, baina defuntuen semeak ez zion meriturik ikusten egindakoari, antza. Herritarrek, ordea, bai: "que la dicha maria ochoa de la rren-

⁷ Ez dugu ukatuko pobre edo umilak zirela hildakoen artean gehienak, baina hil ziren handikiak ere, alde egiteko aukera gehiago eduki arren. 1523an Martin Amezetketaren ama esaterako; 1597an Sebastian Jauregui lizentziatua, Hernan Perez Yarza abadea, San Juan Crisal eta bere izeko, ikusiko dugun legez, Martin Meabe fiela, Pedro Bergara errejidorea, Rodrigo Arrieta alkatea...

teria es digna de gallardon... que esta testigo por ningund dinero no se pusiera a la bentura...".

Testiguen, Maria Ochoarenak noski, harek erakutsitako balentria azpimarratu zuten. Jakina, merezi zuen gorpuak urrunetik ekarri eta lurperatzearen eskatzen zituen 15 dukatak, hurre-hurretik ekarritakoak eta lurperatutakoak ere asko ordaintzen ziren eta! Bizia arriskatu zuen!⁸

Testiguetariko bat, Marina Yarza, lurperatzaile lanean ibili zen garai hartan eta bazekien zer ordaintzen zen: "... e aun esta testigo tenyendo cargo de enterrar semejantes cuerpos fynados de pestte le dieron e pagaron onze ducados de oro e a su compañera otros onze ducados que ambas enterraron a un cuerpo... traydo en distancia de un tiro de ballesta avia tres dias que estaba defunto e asy pagaban muy vien a los enterradores a causa que los perros no comiesen sus cuerpos...". Txakurrak hildakoak jaten! Defuntuari lurra eman behar zitzaion, zer gutxiago! Heriotza naturaltasunez onartzen zen, baina beste bizitza hobe baten esperantza zegoelako barru-barruan sustraituta. Izurriak dena jartzen zuen azpikoz gora; gogorra zen Elizan bertan lurperatu ezin izana, imajinaezina eta jazanezina txakurrek irentsita amaitzea.

⁸ Hamabost dukat dirutxoa zen. Orduan neskameen urteko soldata 2 dukat eta arropak zen: "se daba a semejantes moças que la dicha maria ochoa dos ducados de oro por año y sus rropas acostumbradas/ se dabgn a las moças semejantes que a Maria Ochoa de soldada onze coronas corrientes de cada ochenta maravedis por año e mas las rropas acostumbradas que balian un ducado por año". Hurbilago zeuden gorpuez arduratzearen Catalina Legegik 7 dukat ordaindu zituen, Lope Ibañez Urkizak 18 dukat eta Marina Ibañez Ramuak 9 dukat.

1597ko izurritea

Hau bai hau deskalabrua! Izurri atlantiarra deritzote adituek eta 1596-1602 artean Iberiar penintsula suntsitu zuen, batzuen ustez 500.000 hildakotik gora eraginez.

Oraingoan erruduna —ustezkoa— ezagutzen dugu, RODAMUNDO. Ontzi hau Calais eta Dunquerquen egon ondoren Santanderreko portura heldu zen etxean inork nahi ez zuen gonbidatuarrekin, izurriarekin. Polboraren antzera zabaldu zen Yersinia pestis-a, uztaillaren amaierarako⁹ Donostia, Lezo, bi Pasaia eta Lekeitio kutsatuta zeuden¹⁰ eta hurrengo urteko maiatzera arte iraun zuen Lekeitio behintzat: "por causa de la peste que duro en esta Villa desde fin de Jullio de 1597 asta el mes de maio del año siguiente de 1598 ay algunas notas en el assentar de los bautizados...".

1523ko izurritean gertatutako antzera, Donostiatik ekarri zituzten zirujauak, Mason eta Arrieta. Zelan ez, abenduan heldu ziren (gogorra ezazue Nieto medikua abenduan etorri zela). Hildako kopuruan eta zirujauak ordaindutako soldatan 23koa erraz gaingitu zuen.

Iturriei dagokienez oraingoan Udaleko eta Elizako kontuak, Mason zirujauak Lekeitioko udalaren kontra eragindako auziak eta Crisaltarren arteko auzia erabili ditugu gehienbat.



"Doktor Schnabel von Rom", Paul Furst, 1656


aequo pulsat pede, regumque turres pauperum tabernas pallida pestis

Mas la peste no solo espanta a la gente con su atrocidad, empero aparta la muger del marido, a los hijos del padre, al amigo del amigo, privando a muchos de los bienes de fortuna. Y lo que peor es, que de todos como de haz de leña carga y camina con ellos, sin respeto alguno, ni tener cuenta con calidad de personas, aequo pulsat pede, regumque turres pauperum tabernas pallida pestis [de la misma forma la pálida peste destruye con su pie las torres de los reyes que las chozas de los pobres]. Todo lo llena por igual, y conforme a esto se vee, que la peste muchas vezes es causa de destruycion de las ciudades, y que los reynos se pierdan. "Remedios preservativos y curativos en tiempo de la peste", Martínez de Leyva, 1597.



Zenbakiak/Hildakoak

Ez dakigu zehatz-mehatz zenbat jende hil zen, baina ez ziren *lau katu* izan. "Deskribapen anonimoaren" (LUA R40, c.1735-40) arabera jendetza: "*Fueron no pocas las rogativas que se hicieron en la presencia de la Virgen de la Antigua en la gran peste que padeció ésta villa despues de su gran incendio pues de mil seiscientos y más vecinos quedaron escasos trescientos y no sé que llegasen á este número...*". Baliteke idazlearen esajerazioa izatea Lekeitio handi bat irudikatzen (1.600 auzokide 7.000-8.000 biztanle dira), baina 300 auzokide geratu izanak egiantzekoa dirudi.


Deskribapen anonimoa sarritan erabiltzen dugun dokumentua da, idatzi zen garaia ezagutzeko ezin hobea, baina lehenagoko gertakarietarako ez hain fidagarria. Gure idazle anonimoak Jose Antonio Ibañez Renteriak "*Luz concionatoria de varios discursos...*" titulu amaiezineko liburuan esandakoa errepikatu zuen bahetu barik. Renteriak zera esaten zuen: "... y de algunos fragmentos que dexó el Doctor Urrea, varon docto, beneficiado de la Iglesia Mayor de Lequeytio, y de sus Iglesias unidas, fueron (dexo escrito) no pocas las Rogativas que se hizieron en la presencia de la Virgen de la Antigua, en la gran peste que padeció esta Villa, despues de su gran incendio; pues de mil y seiscientos, y mas Vecinos, quedaron escasos trescientos, y no sé que llegasen á este numero; con esta fatal desdicha, cessó la continua Peregrinacion de los Estrangeros...". Araza da Urrea doktorea 97ko izurritea baino lehenago hil zela, 1576an, hain zuzen. Edo ez dugu ondo interpretatzen esandakoa edo Renteriaren hankasartzea eta harekin fidatzearen idazle anonimoarena monumental da!  Zer darabizu, ez da hainbestera!

Haria galdu baino lehenengo biztanle kopurua zehaztu beharko genuke. 1600 auzokide zituela baztertua, horren erdia ere ez zen gutxi ordurako. Errola faltan dokumentu bat aurkitu dugu hori argitu diguna. BFAH, Not, Leq, 391/309. 1587an Udalak 3.000 anega gari erosi nahi zituen eta besteak beste esaten zuen: "... por rrazon de ser la dicha villa puerto de mar y tener mas de setecientos vecinos y todos e la mayor parte dellos marineros e pobres...". 700 auzokide ez zen gutxi, 2.800-3.500 biztanle inguru.

Eta zenbat hil ziren? Asko, baina zenbat da asko? 1523ko izurritean aipatzen diren 500 hildakoak erraz gainditu zirela dirudi, bikoiztu akaso, hirukoiztu? Jendetza hil zela uste dugun arren, kontuan izan behar dugu hurrengo aipamenaren arabera ez zirela hainbeste izango: "... porque si antes se morian en un mes sesenta o setenta personas mas agora e despues que vino la dicha limosna no se avia muerto en mas de mes y medio diez y seis o veinte personas de que se sospechava se yba y salia dicha enfermedad...".

Dena dela, bestea dakigu, berrehun urte beranduago Lekeitiok 2.000 biztanle bakarrik zituela eta orduko datuak nahiko fidagarriak dira.

Hainbeste jende hil zela hurrengo datu eta faktuek erakusten digute:

- 
- 1 Deskribapen Anonimoan esandakoa. **KONTUZ**
Hala ere, **mesfidantza** apur batekin mende bat eta hiruzpalau belaunaldi geroago idatzi zelako deskribapen ditxosoa. Deskribapen anonimoak bertsiotze bi ditu: batean zera zioen: "despues de la peste luego el año mil seiscientos hubo disenteria que tambien hizo grande estrago; con estos infortunios se aniquilo esta villa y se redujo a cortisima vecindad"; bestean: "... con estos ynfortunios se reduxo a menos de la tercia parte de que era antes de la peste...". Askotxu beharbada, baina Lekeitiok ez zuela lehenagoko indarra eta ospea berreskuratu egia da.
- 2 Bi zirujau kontratatatu izana, ez bat bakarrik eta ordaindu zieten soldata ikaragarria. Egia esan 1523koan Nietori ordaindu zitzaiona ere ez zegoen batere gaizki.
- 3 Egun konkretu batean 180 izurridun egon izana irlan (ospitalea, etxeak, marea errota... kontuan izan barik), Udaletxeko kontuetan agertzen da: "... se cogieron por el dia de san francisco que avia mas de ciento y ochenta apestados...". Izurridun eta hildako ia sinonimo bihurtu zituen izurriaren hilgarritasunak, are gehiago irlara baztertua zeudenen artean.
- 4 Mason zirujaua egunero 80tik gora gaixoz kargu egitea, teoriarik izurria baretu zen garaian: "donde de hordinario curaba de su persona cada dia mas de ochenta enfermos".

lord have mercy upon us



John Dustall grabatzailea, 1665eko Londoneko izurria. 1666

5 Elizaren nahasmena jaiotzekin.

Egoerak larria behar zuen izan jaiotzen kontrola galtzeko. Honakoak agertzen dira Lekeitioko Santa Maria Elizako liburuetan BEHA, Lekeitioko Elizako bataio liburua, 2489/002-01, 0017, 71r: "... en ocho de nobienbre baptize por nescesidad de la peste que hubo en este año de mill y quinientos y nobenta y siete en esta villa y mendexa a un hijo del señor? doctor Sebastian lopez del puerto y su muger doña maria san joan de leaegui llamose baltassar y como digo por la dicha nescesidad le di solamente agoa baptismal en la caseria de Urquiça donde estaban...". Edo halakoak: "... baptize tan solamente sin exorcismo ny catecismo por temor a la peste...".

6 Elizaren aparteko gastuak (argizaria, prozesioak, mezak, kanposantuen garbiketak...).

Ziur gaude hainbeste argizeri ez zela sekula kontsumitu, prezioak ere gora egin zuen! Bestalde konturatuko zarete argizeria lantzen zuten biak hil zirela izurriak jota, hori ere jende asko hil zen seinale. BEHA, Lekeitioko Santa Maria Elizako Kontu liburua, 2516/002, 178r: "... porque a la sazón balia caro la dicha cera por el mal recelo de la enfermedad contagiosa...". Eskaintza eta eskaera legea: "yten da por descargo aber pagado a san juan de osinaga defunto por el librar de las dichas ceras por tres vezes 1.900 mrs del qual no se cobro conocimiento porque fallecio con la enfermedad de la dicha peste". BEHA, Lekeitioko Santa Maria Elizako kontu liburua, 2516/002, 191v: "yten da por descargo aber pagado a mateo ybanes de arancibia y a su hija por el labrar de las dichas ceras por tres bezes 1.951 mrs como parece por el conocimiento que dellos dio la dicha maria porque murio el dicho su padre de peste".

7 Udalaren gastuak.

Sekulako HONDAMENDIARENTZAT ez dirudi gastu handiegia, 700 bat dukat (zirujaueri ordaindu zieten 200 dukatak kenduz gero, 500 dukat eskas "bakarrik"). Gastu batzuk apuntatu barik gelditu zirela dirudi: "y asi se gastaron las dichas sumas y aun muchas mas". Eta Urkiza, Uribe eta Leaegik utzitako 1.700 dukat eta 280 gari anegak non agertzen dira zenbatuta? Laguntza eta guzti, Udalak ezin izan zion Masoni agindutakoa ordaindu!

8 Eskribauen ihes egiteak.

Beldurra askea da, baina herria eskribaurik barik gelditzea azkena zen. Hainbat jende hil zen ganoraz testatu barik, egoera larri-larria bizi izan zen adierazle.

9 Maria Ortiz Abaroak anaiarentzat kapila eraikitzean aurkitu zituen gorpuak (edonon lurperatzen ziren hilerririk beteta zeudelako).

Maria Ortiz Abaroaren testamentua, 1605-7-6: "primeramente gaste mucha cantidad de maravadies en haondar el sitio y lugar donde se havian de echar los cimientos del paño de la pared que tiene la dicha capilla hazia la mar porque estaban alli sepultados algunos cuerpos de personas que murieron apestados y no querian cabar ni ahondar en el dicho lugar donde se havian de echar los cimientos traxe muchas personas que con mas salario de lo que les podia pertenecer abrieron y cabaron y ahondaron [...] El dicho cimiento me costo mucha cantidad... porque se havian mesclado en sacar los cuerpos de los apestados por mandado de la justicia fueron metidos en ciertas casas para que no saliesen de ellas en cierto tiempo y asi les di de comer a los encerrados por treinta dias...".

10 Kanpoko laguntza behar izana.

Ochoa Urquiiza kontadorea (280 gari anega), Juan Uribe Apallua generala (1.550 dukat) eta Domingo Leaeguiaren laguntza (150 dukat). Guk dakigula estreinakoz eta azkenekoz.

11 Eliza alboko ortuan lurperatuta zeuden izurridunen kopurua.

Bakarrik ortuan 500 hildakotik gora zeuden lurperatuta, eta hau ez zen hilerri ofiziala! BEHA Lekeitioko Santa Maria elizako fabrika liburua 2516/002, 178r: "Yten no se carga el dicho garcia del puerto de la renta de la huerta de nuestra señora que son dos ducados y medio por estar enterrados en la dicha huerta mas de quinientas personas que murieron de peste por haberlo mandado los señores del cabildo y Regimiento...".

Katastrofea

Izurriak urakanekin konpara ditzakegu. Sarr agertzen dira, batzuetan edo gehienetan kalteak txikiak dira eta jendea ohitu egiten da, baina noizbehinka aurkitzen duten guztia birrintzen dute. Izurriteak ere halakoak ziren. Hasserretzen zirenean, ez gosea, ez gerra, IZURRIA zen nagusi: "Entre todos los temores espantos, y crueldades que pueden acontecer, ninguno hay mas horrible ni temeroso, ni mas cruel que el de la peste". Remedios preservativos y curativos para en tiempo de la peste, Martínez de Leyva, 1597.

Crisaltarrak

"En el nombre de la santísima trinidad padre e hijo y espíritu santo... temiendome de la muerte que es cosa natural de toda criatura bibiente en especial en esta tan peligrosa enfermedad de peste que **corre** en la dicha villa...". Korrika eta ziztu bizian Usain Bolten antzera!



Zoriaren gorpila, 1572

San Juan Crisalen hitzak dira. Izurriak jota eta hil zorian, Domeca Olea izekok, San Juan aukeratu zuenean oinordeko ez zekien handik gutxira zorte bera izango zuela ilobak. Ez zuen zortetik izan Crisaltarrak, Santa Mariako erre-taula urreztatu zuen Juan García Crisalen ondo-rengoak.

San Juanek testamentua 1597ko irailaren 7an agindu zuen eta ez zuen sinatu eskribauak ez ziolako hurbiltzen utzi, kutsatuta zegoela uste zuelako. Testiguen sinatu zuten bere or-

dez: "a los quales les rogué firmasen porque aunque se escribir respeto de la grave enfermedad que corre y ay al presente no firme por la sospecha que el escribano tenia de llegarse tan cerca de mi quanto me pudiera dar el dicho Registro por ser pegadiza la dicha enfermedad...". Ez zuen ondorengorik, baina bai anaia bat eta arreba bat. Hala ere, nahiago izan zuen izeko Maria Juana Arancibiari utzi bere ondasunak. Antza, azken orduan damutu egin zitzaion. Gurasoak Luis Crisal maestra eta Maria Garcia Arancibia ziren eta anai-arrebak Julian Crisal eta Isabela Arriaga.

Askotan gertatzen den antzera neba-arrebek auzitara eraman zuten defuntuak agindutakoa. Eta horri esker, kutsatu, paria horien azken egunez zertxobait dakigu.

San Juan Crisal gaixotu zenean etxetik kanpo "bota" zuten agintariak: "... y hera así que despues de otorgado el dicho testamento por estar herido de la peste la justicia hordinaria de la dicha villa le havia mandado yr a la ysla de sant nicolas donde estaban los demas heridos desta enfermedad...". Hara eraman aurretik Kurlutxu azpian eraiki zuen edo zioten txabolatxoa, baina eguraldi txarra zela eta irlara joan zen. Azketan zegoen, benetan bizkorra zen izurria, eta damututa anaia-arrebak aukeratu zituen oinordeko modura: "y allí antes que fallciese en el articulo de la muerte a altas voces y ante diversas personas havia dicho que rebocava el dicho testamento... y que ynstituía y nonbrava por sus herederos unibersales a los dhos Julian e ysavela sus hermanos...".

Testiguak behar ziren hori esan zuela frogatzeko, baina testiguok irlan zeuden eta izurridunak ziren. Justizia izurriak ere ez zuen gelditzen. Bi eskribau eta testiguak behar ziren, eskatzailarena Hernando Solarte izan zen eta demandatuarena Nicolas Licon. Testiguak, izurridunak denak, 1597-10-9an aurkeztu ziren.

Ochoa Zuloaga eta Madalena Puerto etxe batean itxi zituzten: "presento por testigos ochoa de culoaga y madalena del puerto vezinos de la dicha villa que por mandado de la justicia hordinaria della estaban encerrados en sus cassas adonde ansibien fueron por estar contaminados de la enfermedad contagiosa los quales haciendo ynsignia y señal de la cruz con sus manos por la dicha contaminacion..."; Juan Zearreta, Catalina Puerto eta Lucia Zamalloa eta beste batzuk Isuntzan: "los quales por respecto de estar con-

taminados de enfermedad contagiosa juraron de lexos hasta donde se les podia dar a entender lo contenido en el dicho pedimento haciendo señales de cruz con sus manos derechas...".


San Juan Crisalen patu tristea Otxoa Zuloaga 22 urteko testiguak ederto kontatuko digu: "... de allí a pocos dias le havia visto al dicho san joan de crisal en la ysla de san nicolas donde le vio estar herido de peste y le oyo que de una choza que junto a la orilla del rio debaxo del monte llamado curruluchua estava haviendo salido de la dicha villa a ella por mandado de la dicha justicia y porque en la dicha choza no se abrigaba bien se havia ydo a la dicha ysla donde este testigo estava con otros que estaban contaminados de la dicha peste en donde se hecho luego en una cama que de la choza le llevaron y haviendole sobrepujado tanto la dicha enfermedad bino muy alcavo para con dios y estando de aquella suerte le oyo dezir de como rebocando los dichos testamentos que antes tenia fechos de nuevo les mandava todos sus bienes a el pertenescientes a Julian de crisal y a ysavela sus hermanos... y que ansibien cobrasen del dicho Pedro de Bergara y su muger du-cientos y tantos reales que el dicho san joan se los havian dados al tiempo que salia de la dicha villa con la dicha enfermedad y esta manda hazia ante este testigo y los demas que allí estaban por caussa de no poderse yr ningun escrivano al dicho puesto donde el estava... por cuya causa les rogo a este testigo y a otros que allí estaban que dello fuesen testigos y lo publicasen de manera que biniese a noticia de los dichos sus hermanos, porque a menos que ellos subcediesen en la dicha herencia no se podria salvar su alma...". Testigu guztiek bat zetozen eta halako egoera batean, hiltzorian egindako testigantzaren sinesgarritasuna ezin zen dudari jarri.

Ez dirudi irlakoek laguntza handirik zutenik, San Juan Crisali eurak gaixoek laguntzen zioten. Madalena Puertoren hitzak: "... esta testigo que le solia curar muy a menudo..." edo Catalina Akuriolarenak: "... como testigo que la solia servir oyo al dicho San Joan..." hala adierazten dute. Badirudi irla gaixoaren azken geltokia izatea, erremediorik bakoien infernua.¹¹

¹¹ Ez dut uste izurrite honetan danbolindaria irlara hurreratu zenik. 1579ko kontuen arabera badirudi danbolindaria eraman zutela hara (egia esan, ez da irla aipatzen). LUA R54 192v, 1579ko kontuak: "Yten que pago a Domingo de Licona tamborin por lo servio con dicho ofiçio de tamborin todo el tiempo en la dicha enfermedad porque no la sintiesen tanto, ocho reales".



"Apokalipsiko lau zaldunak", Albrecht Dürer, 1498



Beldurra

Crisaltarren auzi horretan behintzat eskribauak agertu ziren. Miguel Libornak ez zuen zorte hori izan (1597-9-8an hil zen), horregatik hurrengo urtean haren alarguna zen Marina Amezketak testamentua egiaztatzeko eskaria egin zuen.¹² Miguelek hil zorian, besterik barik, abade bat eta testigu bi aurkitu zituen testamentua agintzeko; testiguak egun gutxitara

hil ziren eta abadea bakarrik gelditzen zen fede emateko.

Antzeman dugu eskribauen beldurra —esaterako, aurrerago aipatutako Nicolas Likona eskribaua hil egin zen—,¹³ beraz ez da harriztekoa Cristobal Amezketa eskribauak alde egi tea. Abadeek egiten ez zuten artean!

¹² BFAH, Not, Leq, NO15/202, 1598

"Pedimento de marina de amezqueta para autenticar el memorial de testamento de maese miguel de liborna su marido En la villa de lequeitio a ocho días del mes de junio de myll y quinientos y noventa y ocho años... y dixo que por quanto por el mes de septienbre proximo que agora passo deste proximo año de nobenta y siete hizo y hordenó un memorial de testamento dicho maese miguel de liborna su marido ya defunto vezino que fue desta dicha villa estando herido de enfermedad contagiosa de peste ante miguel ocho abad de licona su confessor y cura a la ssazon en la dicha villa a falta de escribano que no pudo ser abido mediante la dicha enfermedad siendo testigos ocho de licona y juan de barrutia vezinos de la dicha villa los quales ochoa de licona y juan de barruti murieron de alli algunos días de la dicha enfermedad y no abia persona alguna fuera del dicho miguel ochoa abad que depusiesse declarasse lo que hordenó el dicho su marido defunto... memorial de testamento de maese miguel de liborna En la villa de lequeitio a ocho días del mes de setienbre de mill y quinientos y noventa y siete años maese miguel de liborna vezino desta dicha villa de lequeitio enfermo de enfermedad contagiosa de peste y a lo que parecia en su buen juicio y entendimiento pareció ante mí miguel ochoa abad de licona..."

¹³ Berak sinatu zuen hiru mezaren eskritura, Juan Uribe, Otxoa Urkiza eta Domingo Leaegiren alde. Baikor agertzen ziren agintariak urtarrilean, laguntza zela eta izurria amaitzeaz zegoelakoan: "... si antes se morian en un mes sesenta o setenta personas, mas agora e despues que vino la dicha limosna no se avia muerto en mas de mes y medio diez y seis o veinte personas de que se sospechava se yba y salia dicha enfermedad de la dicha villa...". Zoritzarrez eskribaua hil behar izan zen oker zeudela ohartzeko. Arteita batxilerrak San Roke ermitan agindu zuen testamentua 98ko martxoan, eskribaua Nicolas Likona zen. Handik gutxira hil zen testamentua sinatu barik "... y despues bio este testigo como de alli a pocos dias dio la enfermedad de peste al dicho nicolas de licona y murio sin aver firmado el dicho testamento". Ironia bikoitza, batetik San Rokek izurritik babestu behar zituen, bestetik agintariak izurri urtarrilean amaitzeaz zegoela iragarri zuten eta eskribauak fede eman.

Biziraupena

Bitartean harriztekoa zen jende horren estozismoa; fedea, sinesmena eta gehiago behar ziren samin horrekin bizi edo bizirauteko. Batzuek behintzat ez zuten onartzen hura: "yten da por descargo haver gastado con las personas y pagado que con horden de los señores del Regimiento siendo diputados y señalados para ello anduvieron de noche y dia rondando por toda la villa por los ynsultos que hazian y robos los dhos apestados en quatro meses que duro nuestro oficio dos mill y quinientos mrs".

Auria inguruan ere, Ateako errabalean, jendea pilatzen zen, eta ez dirudi Udala harriz kanpo gertatzen zena kontrolatzeko gai zenik. Beste batzuk euren airera zebiltzan, oraingoan, "The Walking Dead" komiki eta telesailko zombien antzera: "Yten da por descargo hauer gastado con los hombres que nombrados por los señores del regimiento andubieron en más de seys meses en compañía de los dichos cirujanos a hazer recoger en sus casas y lugares señalados a las gentes apestadas que andauan sin horden ynficionando a los sanos, dos mill y docientos y quarenta y quatro mrs". Hauxe da pena!

Betiko legez, diruak bizirauteko aukerak hobetzen zituen. Hala ere, 1597ko izurritean ez zen hain erraza izan alde egitea inguruko herriek ez zutelako onartzen izurridun herrietako jendea. Ez zen elkartasun eza, zuhurtasuna eta IKARA baino, Lekeitiok ere gauza bera egingo zuen.¹⁴

Baina diruak zabaldu zuen aterean bat, Cristobal Amezketa eskribauari eta Marina Arteita Likona dorrekoari bai behintzat. Ispasterrekoek 50 dukatetan saldu zuten arima.¹⁵

Antzekoa gertatu zen Mendexan Sebastian Jauregirekin;¹⁶ Amoton eta Gizaburun ere hala izango zen. Hemengo aberatsak baserrien jabe ziren, zeinek ukatuko zien euron baserrietara joateko zuten eskubidea?

Dena den, ez dirudi 1523an antzematen den nahasmena, kontrol falta, denak herritik alde eginda Hernan Perez Yartzak dioskun legez: "estando mucha parte de los vezinos desta villa en la anteyglesia de yspaster ausentados por temor de la pestelencia..." edo Francisco Ibarrek: "... las obe traydo de la villa de nuestra casa a la casa de ypidegui donde yo al presente estoi por mejor los goardar e por temor del fuego

¹⁴ LUA R53, 161 v, 1548 kontuak

"a XXI de março pague a garçia de dolaraga e a juan del puerto o de çarra e a domingo de allona e a ochoa de odiaga goardas quatro myll e ochenta mrs por los dias que estubieron de dia e de noches goardando e rrondando a esta villa en los portales e calles della por mandado de los señores del rregimiento porque avia pestelencia e se avian muerto della tres personas en la casa de urquiça de gardata que es cerca e junto a esta villa e los tenyan çerrados en sus casas e avia muy grandisimo temor de la dha pestelencia e tenyan cerrados los portales de la villa porque no entrase en ella ninguna persona ny rropa ynficionada e por ello..."

¹⁵ BFAH, Not, Leq, NO233/10, 1597-11-25

"Hordenaron estando todo el pueblo ajuntado de canpana tañyda que cristobal de amezqueta por si y por su muger y toda la famyllia de casa que agora tiene en oguilla que pague cinquenta ducados si a de estar en el dicho lugar de oguilla o sino que se baya con toda su famyllia a su casa que los aya de pagar mañana todo el día para adreçar y su xxx de hazer las canpanas del dho pueblo que ay necesidad dellas...". Baina ez zeuden burutik jota ispasterarrak, lekeitiarrak koarentenan geratzen ziren, etxe barruan preso: "... y pagando así las dichas cantidades si quieren estar pongan el dho Christobal y el dicho Santiago (Merecicia) cada uno dos guardas a su costa dellos de dia y de noche para todo el tiempo que estubieren..."

¹⁶ BFAH/ Jud/ Korrej/ JCR0077/016 , 1626

Domingo Ojarbe abadearen hitzak, Teresa Saez Munibe Sebastian Jauregiren emaztearen lehengusuarenak (orduan 64 urte): "A la quarta pregunta dixo que save como el dicho Sebastian de Jauregui fallecio desta presente vida agora puede haver 29 años poco mas o menos que a la sazón corria esta villa la peste y murio en la casa de Algorta jurisdiccion de la anteyglesia de mendexa mediante la dicha enfermedad despues su cuerpo fue enterrado en la ermita de Sant Cristobal de la dicha anteiglesia y despues trasladaron sus guesos y enterraron en la iglesia matriz de Santa Maria..."

e de los ladrones porque la villa esta despoblada por la enfermedad de pestilencia que en ella ay".

Askoz ere zorrotzagoak izan ziren adibide Ereñon eta Ispasterren bertan aurkitu dugu. Ereñoko fiela Pedro Arrupe Lekeitiara hurbildu zen, Ateako arrebalea, eta Dominiketako komentuko moja batekin, Ana Esunetarekin, eskutik (kolpeta) ibili zela salatu zuten. Ez zen moralitatea kontua, mojak komentutik alde egin zuela eta berarekin zegoen bat izurriteak jota hil zela baino. Koarentenan jarri nahi zuten Arrupe fiela.¹⁷

Ispasterrekoek ere filekin izan zuten arazoa, lekeitiarrak "kontrolatu" beharrean erlaxatu egin zirelako. Behintzat mojatxoek aurkitu zuten gordelekua: "y lo mismo el dho juan de chumutegui siendo fiel del dho pueblo e debiendo hazer la guardia visitando las casas de su bezindad haziendo lo contrario habia consentido junto a su casa en casa de juan ochoa de esuneta unas monjas de lequeytio que habian salido de lequeytio por myedo de la enfermedad contaxiosa que una de las dichas monjas le hallaron muerta en la dicha casa de la dicha enfermedad contaxiosa..." (BFAH, Not/ Leq/ NO23/95, 1597-12-8).

Penagarria eta errukarria zen moja horien egoera. Izurriak ez zuten inor parkatzen, ezta elizakoak ere. Izurriak komentua ezagutu nahi zuten eta hara egin zuen. Moja baten hitzak dira: "esta testigo con algunas religiosas estaba retirada en la torre que esta pegada al dicho monesterio porque tenian enferma a una religiosa hermana del dicho bachiller arteyta y de temor que no se les pegase estaban retiradas..."

Moja gaixoa familia handikoa zen, Arteita batxilerraren arreba. Ez dakigu hil bazen, bai-

¹⁷ BFAH, Not/Leq/NO23/94, 1597-12-1

"como el dho pedro de arrupe abia ido el dia sabado biespera de Sant andres que se conto veynte y nueve dias del mes de nobienbre deste presente ano de myll y quinientos y noventa y siete a los nogales de auria que es junto a la billa de lequeitio donde cada dia andan las personas que tienen enfermedad de peste vezinos y abitantes en la villa de lequeytio donde al presente ay enfermedad contaxiosa de peste y habiendo ydo al dicho lugar habia comunycado con personas de lequeytio y especialmente habia andado con una monja hermana de juan ochoa de esuneta que estaba junto con otras dos monjas que (tenya EZABATUTA) abian salido de la dha villa por myedo de la dha enfermedad contaxiosa que a la mysma monja con quien habia andado se le habia muerto otra monja que tenya en su companya de la dicha enfermedad contaxiosa xxx tres o quatro dias que murio y siendo ello así ablaba el dho pedro de arrupe con la dicha monja y habia andado tomandole de la mano paseando con ella y andando paseando le preguntaba a la dicha monja qual habia de yr a la mano derecha? lo qual hera en gran desservicio de dios nuestro señor y poco rrespetto a la justicia rreal de su magestad y así conbenya que el dicho fiel le cerrasse en su casa asta pasar los ochenta dias".

na badakigu batxilerraren alaba Maria Iñiguez izurriak jota hil zela eta berarekin batera bera zaintzen zuen Bartolome Masonen morroia. Biak lurperatu zituzten Arreitatarren Dominiketako Kapera Zaharrean (BFAH Jud, Korr, Zib, JCRO077/16): "Haviendo visto enterrar en la dicha capilla a una hija del bachiller arteyta hermana de la dicha doña maria de arteyta agora veinte y nueve años poco mas o menos en tiempo que corrio la peste en la dicha villa y a un moço criado que dezian hera de un cirujano que asistia en la dicha villa y se murio en casa de la dicha doña maria segun se dixo entonces..."

Nahi barik Ana Esuneta edo Urkiza moja protagonista bihurtu zaigu. Ez zuen izurriak hil, moja izaten jarraitu zuen eta hil zenean Dominiketako kapila zaharrean lurperatu zuten, ohore handia. Hernando Urkizaren alaba zen, Juan Otxoa Esunetaren arreba, Maria Garcia Esunetaren izeko, ez zen edonor!



Eliza

este saber es de dios e no de otro alguno

Gizartea orduan oso jainkozalea zen, zer esanik ere ez halako egoera batean. Gainera medizinak ezer gutxi egin zezakeen eragilea ezagutzen ez zuen gaixotasunaren aurrean. Eliza kompetentzia barik geratzen zen.

Jainkoaren nahia zen eta haren bideak asmaezinak zirenez onartu egin behar zen kristau etsipenez. Jainkoa eta haren ordezkariak (Roque eta Sebastian batez ere) ziren bakarrak halako hondamendia konpontzeko gauza. Badaezpada, mediku eta zirujauak kontratatzen ziren. Fedea, sinesmena zen gozagarri bakarra izurri garaian: "como por la misericordia divina en esta dicha villa avia avido y al presente avia enfemedad peste y contagiosa".

1523an San Juan Bautistaren lepogabetze eguna ospatzea agindu zuten sekula eta betiko (por siempre jamas)¹⁸ ahaztuta daukagun arren, egun horretan hil zelako lehen izurriduna¹⁹ eta hainbat prozesio eta meza San Roke, San Sebastian eta Antiguako amaren ohorean ospatuko ziren.

1597koan ere prozesio ugari antolatu ziren eta argizeritan zer ez ote zen gastatu! BEHA, Lekeitioko Santa Maria Elizako kontu liburua, 2516/002, 178r: "yten da por descargo que conpro treinta libras de cera de prescio de cinco reales la libra que montan ciento y cinquenta reales los cuales fueron para hazer algunas achas y candelones para la solene procesion que se hizo por debocion en esta dicha villa por los sitios y calles acostumbrados el dia que se saco la ymagen de nuestra señora la antigua de su capilla y puesto donde estaba en la nescesidad

18 Urkiza, Uribe eta Leagiren mezak ere betiko ziren baina... "para que hubiesse memoria de una obra tan solene y necesaria para inperpetuum de sacar tres missas cantadas en la dicha yglesia parroquial de nuestra señora santa maria de la dicha villa perpetuamente mientras el mundo fuere mundo" Eternitate ur handiak dira!

19 LUA R42, 5 r "Que se guardase fiesta el dia de la degollacion de san Juan por la peste

[...] vyendo como en la dha villa avia pestilencia e los vesinos e moradores de ella estaban en gran peligro sy dios nuestro señor no lo rremediase por su ynfinita clemencia aviendo piedad de ellos y como el fallescimiento del que primero morio deste mal caecio el dia de la degollacion de San Juan bautysta a XXIX del mes de agosto pasado acordaron por servijio a dios que en la dha villa se goardase fiesta el dicho dia de san juan por todos los vecinos e moradores della de aqui adelante por siempre jamas".

Agindu ziren baita hiru kantatutako meza, Antiguako amarekin herritik zehar prozesioa, eta San Roke eta San Sebastiani prozesioak eta mezak ere.

grande que en esta dicha villa avia por la gran peste que en ella corria la qual estubo fuera de la dicha su capilla y asiento en quarenta dias encima del altar maior de la yglesia de la dicha villa delante del santissimo sacramento estando muchas achas encendidas delante della segun se requeria de dia y de noche deziendo y cantando por los señores del cabildo cada dia a la tarde delante de la dicha ymagen de nuestra señora la salbe regina durante los dichos quarenta dias en el qual dicho tienpo y en muchas prosesiones que en el dicho tienpo se hizieron por debocion y nescesidad asi al monesterio de santo domingo desta dicha villa y hermitas de san roque y san juan ebangelista y santa maria madalena y santa catalina y otras partes y humilladeros de de la juridicion desta dicha villa se gastaron las dichas treinta libras de cera...". Santu, eliza, baseliza, prozesio... artilleria guztia erabili zen!

1597ko izurritean Santo Domingo fixtatu zuten. Antza denez, hainbat txalupa irten ziren itsasora sailduaren egunean eta denborale gaiztoa altxatu zen arren lekeitiarrak sasoz bueltatu ziren portura inguruetakoak hondoratzen ziren bitartean. Ez dirudi justua santua gurekin bakarrik akordatzea baina... guk komentua genuenez hemen Lekeition...²⁰ Esan dugu medizinak gutxi egin zezakela asuntu horretan. Ehundaka tratatu idatzi ziren gaitz hori ulertu nahian. Erremedioak milaka! Baina errealitatea burugogorragoa zen. Gainera lan

20 LUA R56, 232v-233v

"Acuerdo sobre lo prometido y boto que la dha villa hizo de las fiestas de los señores santo domingo y san francisco y san antolin

En la cassa del concejo de la Villa de lequeitio en el señorio de Viz^a a veinte y cinco dias del mes de Julio de mill y quinientos y noventa y ocho años estando ayuntados y congregados... (udalekoak eta hainbat herritar) dixieron que por quanto se an visto en muchas afliciones y travajos y xxx xxx ussando de su ynmensa missericordia los Abia librado dell y avian tenido nueva debocion con el deboto santo domingo fundador de la sagrada religion de los predicadores especialmente en su dia aviendo sallido cinquenta chalupas poco mas o menos a la mar con mucho numero de gente en el año proximo pasado succedio llebantarse borrasca en la mar y recogerse y volber al puerto tan a tienpo las dichas chalupas que ninguna dellas se havia perdido y casi quantas sallieron de Vermeo mundaca Ondarroa motrico guetaria pasaje y otras partes y puertos comarcanos havian perescido peligrado y anegadose en la mar y la dicha particular ventura atribuyeron y atribuyen a la especial misericordia y merced que nuestro señor les hizo por intercession del dicho santo y por la debocion que a el le tienen y porque tambien ay en esta dicha Villa un monesterio y cassa de su horden de religiossas y monjas y algunos frailes que ay para el servicio del dho monesterio... y especialmente el dia de santa clara pasado del año de nobenta y siete estando juntos en su cavildo y concejo abierto hizieron xx a nuestro señor de goardar y celebrar por fiesta en cada un año el dia del dicho santo domingo y el predicador".

eta abilezia handiarekin medikuek zerbait lortzen bazuten ere Jainkoari esker zen, eta burugabea hori onartzen ez zuena...

Nietotarraren auzian bi alderdiek izan zuten Jainkoa euren alde. Nioto batxilerrak eta bere aldeko testigiek Jainkoaren laguntzaz osatzen zuela adierazi zuten: esker oneko gaitz batek esan zuenez: "e de todas ellas le sano mediante dios..."; Rodrigo abad Oleak, kontixu abadea zenez, medikuaren trebezia ere gorai-patzen zuen: "que con la cura buena que le fizo el dho bachiller sangrando e purgando e dando las otras mediçinas nesçesarias le sano mediante dios con su yndustria y saber e le rrestauro en su salud..."; Nieto harro zegoen bere inguruko inor ez zelako kutsatu Jainkoari eskerrak: "ninguna persona que conmigo anduviese a quemar rropa venenosa e contagiosa ninguna persona loado nuestro señor dios se peligro ni se mesclo aunque conmigo entraban en todas las casas..." eta Udalak Jainkoaren laguntzaz izurriaz akabatzea eskatu zion: "yten que los alcaldes e ofiçiales del rregimiento e diputados de que con la ayuda de dios acabare de linpiar la villa e labar la rropa...".

Baina Yurrebasoren ustez ez zuen Jainkoaren laguntzarik, zorotzat zeukan: "lo otro porque finalmente ciega e locamente hizo el dicho dapno syn ser posible tener conosçimiento de qual rropa estaba ynfiçonada o sana porque este saber es de dios e no de otro alguno". Nieto ez zen ez zoroa ez leloa, bazekien nola erantzun: "lo otro porque lo que yo trabaje en alimpiar esta dicha villa no fue por la rrabiosa manera que se dize con diabolico atrebimiento mas con teson atrebimiento e confiança de la graçia e ayuda de nuestro señor dios abiendome de primero comulgado e confesado bestiendome con las armas de nuestro señor dios e mediante su graçia syn la qual no se puede fazer nynguna buena obra e no por la manera que el odioso e calunyoso acusador me llama...".

Mason zirujauak ere argi zuen Jainkoa zela mirariak egiten zuena, baina bere prestutasuna ere kontuan hartzekoa zen: "donde de hordinario curaba de su persona cada dia mas de ochenta enfermos de los quales abian peligrado pocos mediante el favor divino e su diligenzia...".

San Roke ermita –geroago Arteitatarren eskuetan ezkontza bidez– Juan Esteban Axpe merkatariak altxatu zuen 1523an emaztearen eta bien arimaren alde. Deskribapen anonimoan (LUA R40, 30 r), Iturriaren ohar batean, esaten den legez: "Esta Ermita de San Roque o de Santa Elena, con el título de la Cruz, mandó edificar Juan Esteban de Axpe, Mercader, por su alma y por la de su mujer doña Maria Perez de Zatica el año de 1523, segun que consta de la inscripcion que halli existe". Horregatik izurri sasoiari, 4-9-1523an, erabaki eta egin zen hara prozesioa: "yten se hizo una proçesion a San RRoco donde su ymagen esta en la yglesia desta crus + estramuros y se dixo una misa". Izurria zela eta altxatu zuten ermita? Izurria abuztuaren hasieran heldu eta irailerako amaituta ermita? Auskalo.

Jaunarequin zuc beti daucazun escubide orrengatic Aita San Roque libra gaitzatzu gaitz-peste guztietatic



Medikuntza

Bartolome Mason eta Pedro Arrieta zirujauak etorri ziren 1598ko abenduaren 9an Lekeitiara. Arrieta pare bat aste bakarrik egon zen,²¹ Mason, berriz, ia bost hile. Ez zuten lana bakarrik egiten, euren laguntzaileak zituzten (Masoni Lekeitio hil zitzaion kutsatuta) eta Udalak ere jendea jarri zuen euren esanetara. Hain zen arriskutsua lana, nahi zuten guztia irabazten zutelara: *“con salario situado de diez ducados por dia y al oficial suyo diez ducados por mes”*. 1.000 dukatetik gora zor zion Udalak Mason zirujauari, dirutza orduan!!! Eta zergatik ordaintzen zioten hainbeste? Kamikazeak zirelako! Gutxi batzuk zuten abilezia eta, batez ere, atrebentzia hori. Herriko medikuek askotan alde egiten zuten. Masonen ordainsaria ezagutzen dugu: 1597-12-9tik 1598-3-22ra arte (Pazko domeka), 103 egun, hamar dukat eguneko kobratu beharko zuen eta hurrengo 40 egunetan Igokunde egunera arte ezkutu bat eguneko. Lehenengo hileak oso gogorrak eta arriskutsuak izan zirenez soldata parekoa zen, azken hilabete luzeagatik askoz gutxiago kobratu behar zuen izurria kontrolpean zegoelako eta badaezpada gelditzen zelako herrian. (ARCHV/Sala de Vizcaya, Caja 4223,6)

Saso hartan 50 dukat kobratzen zuen Maguregui lizentziatuak; 1560 aldean, berriz, Hernan Gonzalez Nieto lizentziatuak, Gonzalo Nietoren semeak, 24 dukat bakarrik. Ordaindu ezinik ibili zen Udala, baina Bilbori ere antzeko zerbait gertatu zitzaion 600 dukat ordaindu behar izan baitzion (zorra eta kostuak).²²

Diru handiak ziren, baina merezita irabazitakoa. Ez zen, eta ez da bidezkoa arazo konpondu eta gero esatea agindutako dirua larregi zela. Bartolome Masonek zioen bezala Lekeitio izurritsu batetara etorri zen erregutu ziotelako, ARCHV SV 4223 0006, 47r: *“... que el abia benido a la dicha villa de lequeitio a nueve de deziembre proximately pasado estando la dicha billa muy contaminada de peste y mal contaxioso e habia sido muy ynportunado a estar e rresidir en ella como ciruxano a la cura de los enfermos y enpestados...”*.

Lehenago ere esan dugu ez zela ezagutzen gaixotasunaren eragilea; izurridun gehienak hil egiten ziren, mediku eta zirujauak eginak egin. Neurri aringarriak eta prebentiboak ziren eraginkorrenak: arropak erre, etxeak desinfektatu, gaixoak bakartu... Nola edo hala izurriaren kutsadura moztu behar zen, San Nikolas irla apraposa zen horretarako. Badakigu behin baino gehiagotan erabili zela eta txabolak egin zituztela izurridunak jasotzeko.²³ Txabolak eta janaria besterik ez. Ez medikurik,

21 LUA R56,253v: *“yten da por descargo haver gastado y pagado en la comida y gasto que se hizieron los dichos dos çirujanos y sus criados y gente que avia en la cassa donde se les dio la possada que de hordinario asistian mas de seys personas y se les dava de hordinario abes y carnero y otros muchos regalos en mas de quinze dias que estubieron hasta que se despidio al dho Pedro de darieta se concertaron con el dho bartolome mason treynta ducados menos tres reales”*

22 Juan Gondrak bere “Los médicos de Bilbao. Siglos XV al XIX” liburuan kontatzen digu Bartolome Masonen ibilbidea Bilbon. Bilbon ere izurriteak gogor jo zuen eta Mason eraman zuten soldata apartarekin, 200 dukat hileko 1598ko azaroan eta abenduan, 1.000 erreale urtarilean, eta 550 erreale otsailean (martxoaren Sean eten zuten kontratua ez zelako behar ordurako). Auzi amaiez in baten ondoren, 1618an azkenean, Udalak onartu zuen 600 dukatekoa zela zorra eta epeka ordaindu zion. Gero irakurri dugu Santo Domingo de la Calzadako udalak kontratatu nahi izan zuela. Izurritea ez zen nekatzen...

23 LUA R54, 193v, 1579ko gastuak: *“Yten dos mill y cient y sesenta mrs que pago a Sancho de Loniquiz los mill y trezientos y sesenta mrs del precio de ochenta codos de madera que se gastaron para hazer ciertas choças en san nicolas desta villa para los que estaban hechados por la peste...”*. Txabolak erabiliko ziren, baina ermita eta alboko eraikinak ere bai. LUA R56, 260v, 1598ko gastuak: *“...haver pagado a martin de Mendiola y Juan de Muxica y consortes por limpiar la cassa*

y hermita de señor san nicolas que es donde asistieron todos los enfermos y estava muy arruinada cien rreales que son a quatro hombres...”.



Juan Tomas Porcell (Sardi) medkua Zaragozako izurrian lan egin zuen eta liburua idatzi. Irudi horretan izurridun baten autopsia.

ez eskribaurik, ez ezer ere ez; badirudi irlan gaisoak zirela elkar jago- ten zutenak, Izurridun Errepublikan Independientea, itzulera gabeko bidaia. Benetan beldurgarria izan behar zen irlarako bidaia, hain hurre eta hain hurrin! Izurriaren indarraren erakuslea da ospitalea eta marea errota ere erabili behar izana.

Santa Katalinako ermita ere aipatu beharra daukagu. Paraje ezin hobe zen izurri sasoian herritik aparte geratzen zelako. Bertan sinatu zen esaterako hiru mezen eskritura 1598an. Ehun urte lehenago 1493an Nicolas Arrieta abadeak eta Lekeitio udalak sinatu zuten akordioan zelan erabili ohi zen azaltzen da

LUA R24 D31 1493-2-20 *“Ytem, que por quanto por estar la dicha hermita apartada de la villa e poblacion della cada i quando algunos sospechosos de pestilencia llegan a la dicha villa, acostunbran el conçejo, justicias, regidores della enbiar a los tales sospechosos a la dicha hermita, porque en ella ayan de estar algunos dias hasta que los tales sospechosos quiten la dicha sospecha, tanto quantos los dichos juezes i justicias ordenaren. Que en esta costumbre el dicho Nicolao abad, por seruiçio de Dios, pues es cosa meritoria, consienta y acoja a los tales i les haga buena compannia, fasta tanto que por los dichos conçejo i justicias sean libertados los tales sospechosos para venir a la dicha villa i sallir i entrar i morar en ella”*.




y hermita de señor san nicolas que es donde asistieron todos los enfermos y estava muy arruinada cien rreales que son a quatro hombres...”.


George Thomson "The manner of dissecting the pestilential body" 1666.



Robert Hooke (Micrographia, 1665).



Isola Di S. Bartolomeo Lazzaretto Brutto/ Inventati e date in Luce Da Gio: Giacomo De Rossi in Roma, 1657




Ogirik ezian, artua gozua: Lekeition gerta-tukoaren irudirik ezean, Erromakoarekin konformatu beharko gara.

Gitarria ta BIOLINTXUA

Ezenarrotarrak

Aitor Iturbe

Urteak dira Jabier Kaltzakorta markinarrak idatzi zuela "1721. urteko Eibarko koplak zaharrak" artikulua, Yolanda Ruiz Eibarko Udal Artxiboko zuzendariak ezagutzera emandako dokumentu batean oinarrituta. Ezagutzen genuen lana, baina berriro heldu zaigu whatsapp-aren bidez. Uatxaparen abantailak ikaragarriak izango dira, arriskuak tamainakuak. Kontua da holakoetan ez dagoela ez lekurik ez denborarik gauzak ondo azaltzeko. Lan lasterra, lan alferra! Orregaitarren, gai horri astiroago kolpetzea pentsatu dugu, ez Kaltzakorta zuzentzeko¹  Kostako da! gertatu zena hobeto ulertzeko baino. Hori asmoa...

Artikulu horren protagonista Agustin Ezenarro "lekeitiarra"² da, orduan Eibarren botikari. Agustin, koplak iraingarriak asmatu eta kantatu ziotenen kontra ari zen 1721eko auzi horretan. "me querello criminalmente, contra Angela de Arrmona, y su hija, Ana maria vezinas, de esta dicha villa; porque a mi noticia, ha llegado, que las susodichas, Madre y hija, an dispuesto, ziertas coplas en gran perjuicio de mi onor y de mi familia honrada...".

Koplen arabera andrazale amorratua zen eta horregatik lehen ere Lekeitiotik kanporatua izan zen; Kaltzakortaren hitzetan, "Agustin de Ezenarro botikaria gonazale amorratua da. Itxurak direnez, Lekeitiotik bota zuten kontu edo arazo beragatik eta Eibarren dagoela berdin jarraitzen du, emakumeei etengabe erasoz." Gonzalez Julio Iglesias ere bada edo bazen, baina bortxatzailea... beste kontu bat da eta hori izan da guk ikertu nahi izan duguna zerotik hasita aurreiritzi barik, dokumentu horrek eta beste batzuek kontatuko digutena zuoi erakutsiz. Baliteke kopletan esaten dena egia izatea, baina baliteke gezur galanta izatea, libelo hutsa; ez da ez lehenengo ez azkenengo aldia izango koplak eta kantak izen ona zikintzeko asmoz erabiltzen direna. Ez dugu erabiltzen gaur egun ez egizu koplarik egin edo koplatan zabiltza esaerak?

¹ Hiztegi, sintaxis, morfosintaxis... kontuak gustukoak badituzue gozatuko duzue Kaltzakortaren artikulua bikain honekin.


² Benetan Elgoibarrekoa, han jaio baitzen, eta hangoak aita eta anai-arrebak.

Eibarko Udal artxiboa.

Judiziala. C/060-15, 1721.



"Ederrak jakuz etorri" dino bertsuak Ba geugana be zuon alboko herri batetik etorri zanian, baten batek esango eban "geu bagara be". Hori bai, lekittarra ez bazan be laster ikasi ebazan gure ohiturak; Ezenaroren antzera gabeko zortziretan o'clock urtetan gara lekittar peto-petuak, baina barruak pizkat alegratera, ez inor izorratzera!



1
Gitarria ta biolintxua,
ederrak jakuz etorri,
ederrak jakuz etorri [eta]
Jaungoikuak baixe eztaki.

2
Arrabaleko dama ederrok,
ez arren urten etxerik!
Trupin jauna orra nun datorren
dama ederren ondorik.

3
Gitarria ta biolintxua
atxakiatzat arturik,
kaballeria ta perrukia
enkaxe puntaz beterik.

4
Tabakera bi or darabiltza
z-/sorabedarez beterik,
zein ezkontuba zein ezkontzakia
ezta iminten dudarik.

5
Orregaitarren atera eben
leen bere Lekaitiorik,
Arraguetako jentiak
leenago dauko jakinik.

6
Trupin jaun orrek zortzirak jota
urtetzen dau etxerik,
urtetzen dau etxerik [eta]
dama ederren alderik.

Kaltzakortaren transkripzioa/moldaketa.

Kaltzakorta ahalegintzen da koplen esanahia lurpetik ateratzen, baina ez da erraza klabeak eta informazioa falta zaizkigulako. Hipotesi interesgarriak maneiatzen ditu, baina ezkurtuko zentsuak ezkurtukoak dira eginak egin. Guri sorabedarraren kontua interesatzen zaigu.

"Tabakera bi or darabiltza z/sorabedarez beterik" dio koplak. Ez du batere argi Kaltzakortak sorabedarra ala zorabedarra transkribatu beharko zen eta bere buruari galdetzen dio zorabedar hitzak amodio-belar edo amore-belar delakoarekin zerikusirik duen eta ohar-txo batean zera esaten du: "... Agirre Asteasu-kok biltzen duen bezalaxe amorio belarraren hautsekin norbait beretuko edo bereganduko zuela uste zuen neska edo mutil maiteminduak". Baina tabako-hautsa ez ote den ere dudatan dabil. Nire ustez amore-belarrak dira aipatutakoak, ez tabakoa. Geroago argituko dut zergatia.

Fotomuntaketa. Agustin Ezenarro Turpin dorrearen aurrean. Gure Ezenarro ere gizon dotorea zen, antza, beranduago etorriko ziren macaroni edo petimetreen antzekoa.

Ezenarrotarrak

Gutxi dakigu familia honetaz eta dakiguna hidalgiako frogei esker. 1628rako Joseph Ezenarro delako batek erakutsi zuen kaparea (hijosdalgo) zela Elgoibarren.

Joseph Ezenarro hori Maria Andres Mispilbarrekin ezkondu zen eta Elgoibarren jaio zen Agustín semea. Hau Maria Josefa Ugarterekin (don Pedro Ugarte eta Isabel Olazaranen alaba naturala) ezkondu zen eta gutxienez bi seme izan zituzten eta biak ezkondu ziren Lekeitio-ra, Juan Bautista eta Agustín.³

Agustín Ezenarro Ugarte 1691n ezkondu zen Maria Antonia Manrique Uribe lekeitiorrekin eta Juan Bautista anaia M^a Saez Lariz Atxabalekin hurrengo urtean.

Badakigu Juan Bautista Udalak kontratatu zuena botikario lanetarako 1690. urtearen amaieran 4 urterako. Badakigu 1693an anaia biak ohorezko karguetara heltzeko noblezia frogak gairitu behar izan zituztena eta ez zen izango azkeneko aldia.

Lekeitiora heldu ziren anaiak, ondo ezkondu zirenta eta lortu zituzten ohorezko karguak; Agustín fiel 1696an, errejidore 1708 eta 11n, eta alkateorde, eta haren faltan alkate, 1719an. Anaia Juan Bautista errejidore 1694an.

Agustín Ezenarro Ugarte hori da koplari agertzen dena, gutxienez zortzi seme-alabaren aita eta Turpin dorreko alabarekin ezkondua. Hainbat urtez bizi izan zen Lekeitio eta 1720 aldean Eibarrera jo zuen; koplaren arabera Lekeitiotik bota zutelako. Badirudi aurkitu dugula, beraz, erruduna.⁴

Behin botikaria edo bekataria identifikatuta ekintzak edo gertaerak konprobatzeari ekingo diogu.

Eibarren gertatutakoaz ez dakigu ezer, beraz oso zuhurrak izan beharko gara. Hala ere, ez dirudi kopletan iradokitzen dena gertatu zenik, behintzat frogatu zenik.⁵

Gezurretan zebiltzan epaitutako emakumeak? Zer gertatu zen benetan?

³ Bi seme bakarrak ez. Aita Agustín Ezenarro Mispilbar 3 aldiz ezkondu zen: 1666an M^a Josefa Ugarterekin, 1673an Francisca Arriolarekin eta 1681ean Ana M^a Zabaletarekin eta gutxienez 12 seme-alaba izan zituen Elgoibarreko botikaria izan zen honek.

⁴ Semeetariko bat ere Agustín deitzen zen, baina ez zen kopletan agertzen dena. Garai hartako botikaria bere aita zen, 1723ko beste auzi batean "maestro boticario" eta 53 urtekoa, beraz 1669-70ean jaioa.

⁵ Epaitetaren sententziaren faltan, badirudi Ezenarrotarren bizimodua ez zela hondoratu. Agustín eta familia Eibarren gelditu zirenta eta botikari dinastia sortu zuten (Bartolome Ezenarro eta haren seme Pedro Antonio ere botikariak izan ziren). Hori bai, lantzean behin herritarrekin drogan amaitzen zuten.

Horra hor Don Hilarion agure gordina Casta eta Susannaren atzetik. Halako botikaria zen Agustín Ezenarro? Dirugaz eta ospeagaz balliatzen zen badezapadakoa?



Una morena y una rubia,
hijas del pueblo de Madrid
me dan el opio con tal gracia,
que no las puedo resistir
y es que las dos,
ja ja ja ja
y es que las dos,
ja ja ja ja
se deshacen por verme contento,
esperando que llegue el momento
en que yo decida,
ja ja ja ja,
cuál de las dos
me gusta más,
cuál de las dos
me gusta más.



eta amaitzeko *amaialaia* (happy end) denak adiskidetzen dira eta.

Hori bai, xehetasun bat, Juan Bautistari bahituko zaizkion ondasunen artean biolin bat agertzen da "ytten un violin", familiako afizioa, antza.

Gertaera horiek Ezenarro familiaren izen ona lohituta utziko zuten, dudarik barik. Beharbada Eibartarrek kanpaiak entzungo zituzten eta Agustín anaiaarekin nahastu, baina kopletan aipatzen den deserriratzea gertatu berria zen. Ordurako Juan Bautista hilda zegoen.



Juan Bautista Ezenarro

Ezin izan dugu Lekeitioan aurkitu, baina bere anaia Juan Bautistak izan zituen arazoak bere emaztearekin eta haren ahizpekin.

Esan dugu Juan Bautista Maria Saez Larizekin ezkondu zela 1692an. Esan ez duguna da ez zirela ondo konpontzen. Auzi bat ezagutzen dugu 1701 aldekoa horren berri emango diguna: (BFAH Judicial, Alcalde de Lekeitio, Criminal JTB0898/001). *Salvame*-ko kulebroi horretan denetarik dago: Juan Bautistaren amorantea, Magdalena Garazatua Escalante, ezkutuan izandako bi seme-alabak, seme-alabon Lekeitiotik ateratzea, koinatak jasango dituen tratu txarrak, ondasunen bahiketa...

⁶ Agian gitarrak eta biolinak esanahi metaforikoa izango dute, nire ustez Agustínek berak jotzen zituen instrumentuak ziren.

⁷ "La verbena de la paloma. El boticario y las chulapas y celos mal reprimidos" edo "Usoaren erromeria" Tomás Bretónen akto bakarreko zarzuela da. Ricardo de la Vega idatzia, Madrilgo Teatro Apolon estreinatuta zuten 1894ko otsailaren 17an.

Agustín Ezenarro

eta ondorengoak

1714an hil zen Juan Bautista, alarguna utzi zuen eta seme naturalak han eta hemen, Eibarren bat behintzat. Agustín bizitzak lasaigoa dirudi, zortzi seme-alabaren aita (DOKUKLIK) Turpin dorreko alabarekin bizi izan zen itxuraz arazo barik.⁸ Maria Antonia Manrique Uribe zuen izena emazteak. Ama eta emazte, senarra edo semeak defendatu behar zirenean han zegoen bera. 1733-34an seme Bartolome Ezenarro Manrique, botikaria hau ere, zebilen auzitan. Kopletan esaten den antzera, Manuel Izaguirrek gurasoak Lekeitiotik erbesterratu zituztela esan zion: "... que soi un abador enbustero puerco... de que si me tubiese abajo me daria las bueltas que merecia y que antes de aora devia haver estado fuera de esta villa por lo que ttamvien fui y lo fueron mis padres desterrados de la villa de Lequeytio..." eta gainera jo egin zuen.⁹ Bera ere ez zen makala, testigu baten esanetan: "...dicho Bartholome agora siete años poco mas o menos y en la alcaldia de Don Juan Francisco de Ucueta Jauregui un dia de la corrida de toros de la celebridad de San Juan Baupista le vio con bara alta finjida de correjidor a cara descubierta con alguaciles que asivien ivan finjidos de este empleo y se puso en un tablado que esprofeso estava para el fin en la plaza publica de esta villa con su dosel o solio y dio sus ordenes en lo que mirava a la corrida y otras cosas... sobre que hubo bastante alboroto y tubo algunas palabras con Don Luis de Garro presvitero... y le parecia a la jente muy mal...Y asimesmo save el testigo que dicho Bartholome el dia (25-6-1733) siendo asivien dia de corrida salio de su cassa con espadin desembainado a la calle publica con la mira de buscar a Juan de Ordorica...". Maria Antonia Manrique ama eta Sabina Ugarte Bartolome Ezenaroren emaztea ere mazian sartu ziren. Ez ziren makalak Ezenarrotarrak! Guri amaren erantzuna interesatzen zaigu orduan 61 urteko etxekoandrea eta irulea. Lekeitiotik zergatik alde egin zuten zioen: "Agustín de Ezenarro mi marido e yo con nuestra familia vivimos con todo credito y buena fama en la Villa de lequeytio y salimos lo mismo por haver otro boticario en dicha Villa y aun para uno su partido corto, y que mi marido regidor de la villa, y poco an-

⁸ Guk dakigula bekatu bakarria Maria Zubiaur ispasterarrarekin izan zuen alaba Maria Ezenarro 1706an jaioa.

⁹ Eibarko Udal artxiboa. Judiziala. C/073-02, 1733/34.

tes que hubimos de salir con las rebueltas que hubo en aquel tiempo en el Señorío y comarcas habiendose ausentado los Alcaldes como ofizial del Regimiento lebanto bara de Alcalde dicho mi marido y gobierno la villa asta que volviessen los propietarios de que se conose quan supuesto y ageno de verdad es lo que ha querido imputar la parte contraria...".

Horra hor familiaren azalpena amaren hitzetan, baina azpimarragarria da dozena bat urte beranduago eibartarrek, batzuk behintzat, familia hori onartu ez izana. Agustín aitak ere bitartean izan zituen bere auzitxoak, gehien bat ofizioarekin eta diruarekin zirikusia zutenak. 1736an Agustín seme Cristobali tokatu zitzaion txanda, kera-deiaren ostean aurkitu zuten ezpatarekin armaturik.¹⁰ Lekuko baten hitzak: "Dixo que lo que puede dezir es que por Nuestra señora de Arrate que fue a ocho de Septiembre ultimo pasado le oio a Cristoval de ezenarro en el rabal de esta villa estava con dos muchachas al anochezer y al pasar dezia que en Eybar le persiguian y marcharia haziendo paz con alguno que no se le dava nada comer pan de aqui o de aqui a zinquenta leguas tomando la capa al hombro...". Ez ziren Eibarren maiteegiak, antza, baina izakera kontua dirudi. Askoz beranduago, 1800. urtean, Fabian Ezenarro, Agustín Ezenaroren biloba, abadekia aurkituko dugu auskakan herrikoekin. Testigu baten hitzak: "... Llegó a asociarse de acia la plaza nueva Don Fabian de Ezenarro tonsurado, con un perrito de su casa al hombro, y paró un poco encendiendo el cigarro...". Hala hasi zen eta amaitu muturrekoka. Bagoaz Ezenarrotarrak ezagutzen, agian apur bat harroak, "drogosoak" Lekeitioan adieran.

Bide batez falta zaigun bakarra aurkeztuko dizuegu, Pedro Antonio Ezenarro, Fabianen aita eta lehen aipatu bezala Eibarko botikaria. Honena ere kontatekoa.¹¹ Frantsesen 1794ko gerrako gorabeherak primeran kontatzen ditu: "... y otros gritaban a la plaz que quier decir en la plaza, y consentti o que alla mismo nos iban a matar a todos, o que otros querian guillotarnos en la plaza, y mas al decirme el medico a la oreja amigo guriac eguin du guciaoc ilceco diñue, que es decir, amigo se acabo con nosotros pues dicen que se nos

matte a todos...". Berrito agertuko da euskara pasarte honetan: "mi muger que a su lado tenia a una francesa que... tambien fue echa prisionera, y iba con nosotros preguntandola si entendia lo que en frances decian dijo Señora galdubac guera, emen ilco gaituzte, que es decir, Señora somos perdidos aqui nos matan...". Ba, ez ziren hil, Ezenarrotarrak itzelak ziren.

Lekeitioan egon zireneko urteei buruz esan dugunari gehitu behar diogu ikasketak izango zituelako edo... hainbat dokumentutan agertzen dela Agustín abokatu antzeko jardueretan (prokuradore, administrari, kuradore, maiordomo, negozio-gizon...). Badakigu aita eta anaia botikariak izan zirela eta seguruenik anaia hil zenean 1714an haren botikarekin geldituko zen. Ezagutzen ditugu Udalean izan zituen karguak, baita 1719an matxinadaren urtean alkate izan zela ere. Itxuraz orbanik gabeko bizimodua! Dokumentuek, heldu eta erabili ditugunak noski, hori dioskue, zorren bat, besterik ez.




"Monr. Le Medicin" M. Darly, 1771. Wellcome Collection. Medikeri macaroni baten satira.

Atrapo edo

Artikulu amaitu baino lehenago badaezpada erreparatu egin behar dela eta dokumentu surrealista bat aurkitu genuen. Aurkitu hitza erabiltzen dugu, baina egia esan interneten Pares web-orrian eskegita dago.

Archivo Histórico Nacional, INQUISICIÓN, 3732, Exp.133



El ynquisidor fiscal del tribunal de Logroño contra Agustín de Ezenarro y otros muchos vecinos de la villa de Eibar delatados sobre varias proposiciones por don Joseph de Garagarza cura de la Ante Yglesia de Aguinaga...

Zein eta Inkisizioa Agustín Ezenarro eta beste batzuen kontra. Salatzaila Joseph Garagarza Aginagako abadea. Itxuraz, hasieran batez ere, kopletan esaten zena motx gelditzen zen, infernuko deabrua baino okerragoak ziren Agustín (eta lagunak).

Hasteko: "en 18 de Noviembre de 733 (sic) don Joseph de Garagarza remitio carta a el tribunal en que incluía un memorial delatando para en descargo de su conciencia a varios sujetos que dice en dicha su carta dan mal exemplo como es publico a diferentes pueblos jactandose de su mala Doctrina; que en quanto lo primero Agustín de Ezenarro de oficio voticario veziño que fue de Lequeytio dio principio a el vicio deshonesto valiendose de algunas medicinas, y por Arte Magica para saciar su apetito deshonesto, y declarando no ser pecado la simple fornicazion, que por semejantes medios quiso desflorar a cierta persona de calidad llamada doña Theresa de Basterrechea¹² vezina de Lequeytio,

¹² Teresa Basterretxea, Agustín Basterretxea Beingolea eta Josefa Ibañez Rentería Montianoren alaba zen Lau abizenak jarri ditut jakin dezazuen familiaren "pedigria". 1703-4-7an jaio zen, beraz, 1719. urtean 15-16 urte zituen. "Zerbait" gertatu izan balitz nekez irtengo ziren onez Ezenarrotarrak halako batetik. Baten batek, lotsa eta ondrea tartean, auziz kanpo ezkutuan konponduko zela argudiatu dezakeen

de donde por miedo de los parientes escapo a Marquina donde tubo que ver con madre e hija y parieron; paso despues a Elgoibar donde tubo copula con dicha hermana carnal y pario; de donde paso a Eybar donde vive publicamente amancebado con Monica de Yzaguirre, y su hija Magdalena y otras que son Rosa de Lazcano, Antonia de Lizundia, y Cathalina de Elguezua Declarando que el santo sacrificio de la Misa, era una zeremonia falsa y que la simple fornicazion no era pecado...".

Jakina!, halakoak irakurrita Rasputin d-torkigu burura, eta kopletan esandakoa huserria da. Don Juan edo Casanovatik Rasputinera pasatu gara! Nahikoa sutan erretzeko! Baina Garagarzarentzat ez zen nahikoa eta hurrengo gehitu zion: "... Que dicho Agustín de Ezenarro, y que Don Domingo de Oregui havian pasado diferentes vezes a la Parroquial de Aguinaga, y tubieron copula con las referidas Antonia Rosa y Catalina para hacer desprecio del sagrado; y el dicho Agustín le tiro a el cura con la escopeta, y que habiendose quejado ante dicho Martín de Ezenarro primo carnal de dicho Agustín lo dio por vien hecho, y notifico no explicase la doctrina cristiana porque era una zeremonia falsa...". Errematatzeko: "Que Don Francisco de Varraycua, Don Domingo Oregui andan amancebados con las dichas tres mujeres, y con otras casadas; y que don Domingo Oregui lo esta con su criada, que se ha valido de dicho Ezenarro para que abortase porque no se publiquen sus delitos".

Inkisizioak fama txarra, oso txarra zuen, merezikoa gehienetan, baina ez ziren arduragabeak. Salatzailak frogak aurkeztu behar zituzten, Lekeitiora etorri zen Garagarza Agustín Ezenaroren ibilerez jakitera, horra hor bere hitzak: "declara que por el mes de septiembre de 733 hizo 4 años estuvo el que declara en Lequeytio, y oio a diferentes personas, que no save quienes fueron, decir que dicho Agustín de Ezenarro valiendose de medicamentos o con arte magica atraia a su voluntad a las donzellas para saciar su apetito; y que esto mismo oio decir a don Ygnacio don Agustín de Arizmendi

arren, ez dirudi zentzuzkoa Garagarza berak ere kalean entzun baitzuen. Eta behin xurrunmurrua kalean, kaltea egina zegoen. Lucas Plazaola jauntxoak gustura ezkondu zen Teresarekin 1731n; bi familia handi batu ziren, ondrea kontuak zaintzen zutenetakoak. Ez dirudi logikoa Plazaola, jakinda zer gertatu zen, Basterretxeatarrarekin ezkontzea, maiorazgo eta ondasun mila ekarri arren. Baina zeinek daki, "disparate" handiagoak ikusi ditugu...

y a don Martín de Orbea..." "Que oio decir (no se acuerda a quien) que dicho ezenarro dio una manzana a Doña Theresa de Basterrechea, y que desde que la comio andaba en su busca; y que con esta novedad los parientes la recojieron, y dispusieron que dicho ezenarro saliese de la dicha villa de Lequeitio...".


Garagarzari sinistuz gero badakigu zer gertatu zen Lekeition eta zergatik alde egin zuen. Inkisizioa epaileak ez zion sinistu, guk bai? Mendekua ote zen?

Zergatik ez zion epaileak sinestu? Ez zuelako ganorazko frogarik agertu eta batez ere, salatuek lehenago Garagarza bera salatu zutelako antzeko afer batengatik: "... Don Joseph de Gargarza cura actual de Aguinaga... tenia actualmente en zinta a dicha moza llamada Margarita de Maguregui, a quien confiesa, y comulga, y la da su desayuno en su propia casa deciendo no es pecado el sexto mandamiento de que se ha causado grave escandalo...".

Edozer sinesten zen orduan, baina Garagarzak arrainari igeri egiten irakatsi nahi izan zion.



Casanova



Rasputin

Garagarza abade funtziari Gaztelako erretra zahar hori primeran jatorri "cree el ladrón que todos son de su condición". Teresa Basterretxea gaztetxuen afera norainoko egia ala asmakeria zan ez doqu jakingo, baina inguruan daben guztiak sinesgarritasuna kentzen dotso. Botika faltan beran Garagarza egan. Ia ibili-ibilian beran Ezenarro zantarra izan bazan jipiari aurria hartuta amodio libria (Free Love) asma ebana nun eta Euskal Herrian, noiz eta 250 urte lehenago!



Zakarrontzian Zumatzetako maleta

Testua: Aitor Iturbe


Historia, gogorapenez eta ahanzturaz osatuta dago. Icebergetan gertatzen den antzera, ikusten dena, hau da, gogoratzen duguna, ezereza da ur azpian gelditzen denarekin alderatuz. Ur azpian gordetzen dira "sekretuak" eta han ibili beharko genuke guk, baina hori beste kontu bat da.

Gaurkoan ur azpian barik lehorrean, maleta horren antzeko batean aurkitutako istorio umila dakarkizuet, zoria edo halabeharrak Busca-Busca moderno honen aurrean ipini zuena. Hileko lehen eguaztenetan ateratzen dira trasteak Lekeition eta lantzean behin zaharkinen artean honakoak agertzen dira.

Ez banintz gelditu maleta horren aurrean ez zenukete eza-gutuko istorio hau, ez eta geldituta ere, ez banu interesgarritzat jo. Ahanzte eta oroitzapenaren arteko marra zer fina den! Bestalde badago beste kontu bat, zenbat kontu! Kontu baino apraposagoa da arazo hitza. Nor nintzen ni, edo nor naiz ni, part botata zegoena batu eta zuoi erakusteko? Ez dauka erantzun errazik, baina ez al da hori behin eta berriro historialariok egiten duguna? Tira, beste barik, Amerikatik ibili zen lekeitiar baten istorio kontatuko dizuet, Koldo San Sebastian kazetari eta historia-zalearen ikerketaz eta zorioneko imajenez baliatuz. Azalpentxoak, jakiteko nor zen gure protagonista eta imajenak bera eta familia ezagutzeko eta bide batez Lekeitiora bueltatu zirenean 1959an aurkitu zuten herria erakusteko.

Andrés Julián Alberdi Larrinaga

Nacido en Lekeitio (Bizkaia) el 30 de noviembre de 1894 (pasaporte 1884-11-18 eta Dokukliken eta Ameriketako arotzen sindikatuen arabera 1889-11-30ean). Hijo de Pedro y de Tomasa. Antes de emigrar, era marino. Llegó a Nueva York a bordo del Hudson procedente de Bilbao el 18 de marzo de 1915. Se dirigió a Pocatello donde tenía un primo. Se empleó como pastor para Ben Dorrah, en King Hill, Owyhee. Se convirtió, luego, en rancheero, instalándose en Shoshone. Se había casado en Lekeitio con Vicenta. Fueron padres de Francisco (1916), Juanito (1920) y Angelita (1922). En 1920, residía en King Hill. En 1930, trabajaba en una serrería en Honey Lake, Lassen Co, Ca, donde vivía con su mujer e hijos. En 1942, se empleó en la Pickering Lumber Corp. en California. En 1958, residía en Stockton. Falleció en Euskadi en septiembre de 1964.



Lista de Pasajeros
VIAJE: 2 / 1959 RETORNO
Servicio: N. E. CADIZ / NEW YORK / CUBA / MEXICO





MEMBERSHIP STATEMENT

The bearer, Mr. Julian Alberto was initiated as a (seal) beneficial member in the U. B. of C. & J. of A. in L. U. 2559 City of San Juan State of Calif on the 19 day of May 1943 Initiation Fee, \$ 5.00

This is to certify that the bearer hereof (Seal) was initiated (or admitted on clearance card) as a member of L. U. No. 1130-1893 on the 10 day of 10 1940

Mr. A. Jensen President
A. B. Bopha Fin. Sec.

UNITED BROTHERS AND JOINERS FINANCES

MEMBERS IN A

DUPLICATE



Fecha de nacimiento 18 Nov. 1884

Profesión Jubilado

Estado civil Casado

Domicilio Stockton California

Color de los ojos Vase

Color del cabello foto

Señales particulares foto

Hijos MENORES DE 15 AÑOS

Nombre Julian Nordi

Firma de la esposa Julian Nordi



Lugar y fecha de nacimiento Stockton Calif 1915

Profesión Chef

Estado civil Casado

Domicilio Stockton California

Color de los ojos Vase

Color del cabello foto

Señales particulares foto

Hijos MENORES DE 15 AÑOS

Nombre Frank Allendi

Firma de la esposa Frank Allendi



Diego Rivera

LEKEITIO_n

Akademizismoaren eta modernitatearen artean. Diego Rivera euskal kostaldean: Lekeitio (1907)

Mikel Onandia Garate

Bai bere produkzio piktorikoagatik baita Mexikoko historiako etapa garrantzitsuenetako batean aktiboki parte hartzeagatik, Diego Rivera (Guanajuato, 1886 – Mexiko Hiria, 1957) Iberoamerikako artista garrantzitsuenetakoa dugu. Mexikon lehen formakuntza jaso eta Europan egonaldi luze eta emankorra egin ostean, non Pariseko abangoardiako artista nagusienekin lan egin zuen (1907-1921), Clemente Orozco eta David Alfaro Siqueirosekin, muralismo mexikarra deitutakoaren protagonista bihurtu zen. Bere konexio pertsonalengatik, izaera menderakaitzagatik legenda bihurtu aurretik, 1907 eta 1909 artean Espainian bizi izan zen eta Eduardo Chicharro maisuarekin euskal kostalderaino hurbildu zen. Lekeitio egin zuen denboran gauzatu lanek margolariaren ikaskuntza garaia erakusten dute, akademizismoaren eta urte horietan Espainian modernitatearen inguruan nagusi ziren mintzaira plastiko berrien artean mugituz.

Margolari akademiko eta naturalistekin formatua, Diego Rivera gazte-gazterik Mexiko Hiriko San Carlos Arte Ederren Akademia zaharrean sartu zen. Aire librean lehen paisaiak margotzen hasi eta arte europarra ezagutu zuen, Gerardo Murilloren eskutik; azken honek hura zuzenean ezagutzera animatuta, Veracruzeko Gobernuaren beka batekin Europara bidaiatu ahal izan zuen, sei hilabetero Teodoro Dehesa gobernadoreari lan bat bidaltzeko baldintzarekin [1. fig.]. Rivera 1907ko otsailean heldu zen Espainiara Alfonso XIII itsasontzian, bere memorietan seinatu beza-la, hogeitaz metro bat eta laurogei zentime-

tro baino gehiago eta ehun eta hogeitamar kilorekin.¹

A Coruñaetik pasa ostean Santanderrera ailegatu zen, bertatik Madrilerazuzenean bidaiatzeko. Hiriburuan, Gerardo Murilloren gomendioz, hurrengo urteetan bere maisu izango zen Eduardo Chicharro y Agüera (Madril, 1873-1949) pintore prestigiotsuak itxaroten zion. San Fernandoko Arte Ederren Erret Akademian eta Joaquín Sorollaren estudioan formatua, kostunbrismotik simbolismorako bidea egin zuen –egiaz mende hasierako simbolismoarekin zerikusirik handirik barik, gehiago akademizismo frantsesak beranduago egingako asimilaziotik, edota baita prerrafaelismotik hurbilago² eta bere karreraren une politetan aurkitzen zen Chicharro zirkulu artistikoetan barneratu zuen Rivera, Extremadura, Gaztela, Galizia, Valentzia, Murtzia edo Euskal Herrian zehar egin bidaietan ere lagundu zuelarik.

Diego Riverak 1907 eta 1909 artean Espainian bitzako garaia madurazio akademikoarena eta Parisen abangardia ezagutzeak ekarriko zion akademizismoaren superazioaren aurrerapena izan zen, eta bi urte horietan zuzenean Chicharroren eta Madrileko giroan

¹ Artistak diktatu eta baimendu bi biografiak Loló de Torrienteren *Memoria y razón de Diego Rivera* (1959) eta Gladys March-en *Mi arte, mi vida. Una autobiografía* (1960) dira; bien eduki nagusiaren hautaketa bat egin du Juan Coronel Riverak hurrengo argitalpenerako: *Diego Rivera. Palabras ilustradas* (2007), Museo Estudio Diego Rivera, Mexiko.

² BRIHUEGA, J., (1981), *Las vanguardias artísticas en España. 1909-1936*, Istmo, Madril, 144. orr.



1 – Diego Rivera bere ikaskideekin Arte Ederren Eskola Nazionalean. 1906

ezagutu ahal izan zituen beste artista espainiar ezberdinen eraginpean gauzatu zuen bere produkzioa. Ailegatu zenetik deskantsu gabe lan egin zuen, sarritan bisitatu zuen Prado Museoa, Greco, Goya, Velázquez eta pintore flandriar, holandar eta italiarren lanak kopiatzeko, eta zirkulu bohemiokekin eta espainiar intelektual ezberdinekin kontaktua hasi zuen, hala nola Ramón González de la Serna edo Ramón Valle Inclanekin, edota hurrengo urteetan adiskidetasun estua mantenduko zuen Maria Blanchard artistarekin.

Espainian aurkitu zuen giro artistikoa 98ko belaunaldikoen erregenerazionismoak eta tradizioa eta modernitatea kontrajartzen zituen

identitate kulturalaren kontzepzio tragikoak blaituta zegoen, abangoardiaren protagonista nagusiak, hala nola Pablo Picasso, Juan Gris, Julio González edo Daniel Vázquez Díaz, Parisen ziren bitartean.³ Bere egonaldian Riverak erregionalismo modernista espainiarra –zeinak bertako tradizioaren gaiak inpresionismotik postimpresionismora arte zihoazen mintzairaren bidez tratatzen zituen⁴ ezagutu eta ikasketa moduan erabili zuen, 1909 urte bukerarako bere egina zuelarik, argiaren eta kolorearen trataerei dagokienez berritasunei irekitako sustrai akademikoko pintura gauzatzeraino.

Madrilerazuzenean heldu eta handik gutxira, 1907ko udaberrian, Riverak Bartzelonako V. Nazioarteko Erakusketa bisitatu zuen; bere maisu Chicharro lan batzuk erakusgai zituen bertan, eta mexikarrari Toledoko bi paisaia ez zizkioten onartu. Erakusketa hartan, ikastun gazteak Manet, Renoir edo Pissarro bezalakoekin lanak zuzenean ikusi ahal izan zituen, baina inpresionismoak, XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako pintore katalanengan eragina izan zuenak, presentzia urria izan zuen zirkulu madrildarretan, eta Riverak ezagutzen bazuen ere, oraindino eredu konbentzionalagoetatik ikasten ari zen. Maisuak eta ikasleak desplazamendu hura bidaia luze bat egin eta euskal kostaldetik pasatzeko aprobetxatu zuten. Mexikoko burgesia txikiaren kide, gobernuaren beka batekin ikasketak osatu eta bere talentua askatzeko borrokan ari zen gazte konbentzional bat zen Lekeitiora ailegatu zen Rivera [2. fig.].⁵

Ez dira ezagutzen Lekeitiora bidaiatzearen arrazoiak eta bertan eman ahal izan zuen denbora. Zubiurre anaiak, Aurelio Arteta edo Julian Tellache bezalako euskal artista ezberdinekin adiskidetasuna egin zuela esan izan da.⁶

³ CALVO SERRALLER, F., (1987), 'Rivera y España, un capítulo olvidado', *Diego Rivera. Retrospectiva*, MNCARS, Madril, 122. orr.

⁴ Bere memorietan Riverak artista gazteen lana ezagutu ahal izan zuen lekua seinatu zuen, non inpresio berezia sorrarazi zion Darío de Regoyosen lanak: 'Era esta tienda, en la calle que resulta de la bifurcación de la de Alcalá, el lugar de reunión de los pintores jóvenes de Madrid. A ella concurría, cuando raramente pasaba por la capital, el admirable, y tan grande como poco conocido, maestro del neopresionismo español, el verdadero pintor de España, la geográfica, etnográfica, social, física y metafísica, Darío de Regoyos.' *Diego Rivera. Palabras ilustradas* (2007): 227.

⁵ MARNHAM, P., (1999), *Soñar con los ojos abiertos. Una vida de Diego Rivera*, Debate, Madril, 74. orr.

⁶ BONET, J. M., (1995), *Diccionario de las vanguardias en España. 1907-1936*, Alianza Editorial, Madril, 526. orr.



2 – Diego Rivera Angelina Beloff-ek erretratatu. 1909

Lekeitio izanik, sarritan hurbiltzen baitzen bertara. Modu berean, egiaztatzen duen dokumentaziorik ez badago ere, hura bezain onargarria den hipotesia Eduardo Chicharro Madrazo familiarekin izan zezakeen harremana da; Madrazotarrak lotura estua zuten Euskal Herriarekin, etxea baitzuten Lekeitio eta eragin nabarmena izan zuten XIX. mendeko pintore batzuegan, Juan de Barroetaren kasuan adibidez. 1884an Ángeles López de la Calle-ekin ezkondu zenetik, Ricardo Madrazok uda

Azken honek ere Eduardo Chicharroren tailerrean jaso zuen formakuntza, zehazki 1900. urtean Ascensio Martiaren euskaldunarekin batera, eta 1907an Parisen bazen ere, ez da zentzugabea Rivera eta Chicharro euskal kostaldera Tellaecheren bidez ailegatu izana, bere familia

guztiak herri bizkaitarrean pasatzen zituen, eta ia bere lagun guztiak hurbildu ziren bertaraino. Ez litzateke oso arraroa beraz Chicharro eta bere dizipulu mexikarra Madrazotarren etxera heldu izana.

Riverak 1907ko udan zehar Lekeitioan gauzatu zituen obra desberdinak kontserbatzen dira. Sinaturik eta dataturik dauden lanok kostaldeko herriaren portu, kale eta paisaia identifikagarriak errepresentatzen dituzte, eta egun bilduma pribatuetan gordetzen dira gehienak, batzuen kokalekua orain urte gutxi arte ezezaguna izan delarik.

La Casona [3. fig.] izeneko lanak Behoko eta Tortola kaleen arteko eskina egiten duten etxeak errepresentatzen ditu, lekuaren testigantza errealista baino gehiago aitzakia modernoenean. Rivera bi kalekura kurbatuen kontraposizioaz eta bereziki eraikinaren ardatz bertikal eta horizontal ezberdinez baliatzen da, etxeek mihise ia osoa okupatzen duten konposizio konplexu bat osatzeko, zeru irekiari eskuma aldean soilik irtenune estu bat libre utziz. Ikuspuntu hain hurbilak, kalearen angeluetako batean, etxebizitzaren monumentaltasun eta bolumentria sentsazioa –artistaren interes na-



3 - La Casona, Diego Rivera, 1907



4 - Iglesia de Lekeitio edo Piedra vieja y flores nuevas, Diego Rivera, 1907

ez zuen artistari tradizio zaharren baitan bizi berria loratzen dela dioen irakurketa sinbolikoa proposatzea ahalbidetzen dio, izenburuak aditzera ematen duen bezala.

Lekeitioan margotu obren artean duda barrik kostunbrismora –eta neurri batean euskal kostunbrismora– gehien hurbiltzen dena *La parte de Pedro da* [5. fig.], giza figurak erre-presentatzen dituen lan bakarra, konkretuki abadeen moilan zehar arraina daraman bikote bat. Kontraste luminikoak atentzia deitzen du ostera ere, alde batetik, pertsonaien tonu ilun eta monumentaltasun latzaren –ziurrenik orduko euskal artista garrantzitsuenen eraginez, izan Zuloaga edo Zubiaurre anaiak, azken hauek urte horietan Madrilén bizi eta tertulia desberdinetan parte hartzen zutenak–, eta beste alde batetik Sanpedropearen eta portuaren etxeen artean, Tellaecheren zenbait konposizio gogorazten dituen hondo kolorista eta sensual batekin. Riverak 1907 eta 1909an Iberiar Penintsulan zeharreko bidaie-tan pintatu obra esanguratsuenetakoa da, orain gutxi bilduma partikular baten baitan argia ikusi duena.⁸

gusiena margolan honetan– nabarmentzen du, orban kromatikoek eta argi-ilunek areagotua dena, eta horrexegatik kubismoaren aitzindari gisa eta Riverak XIX. mendeko loturak uzten dituen lehen lana kontsideratu izan da.⁷

Arostegi Jauregiaren atzetik bajatzen den aldapatik, Madrazotarren etxetik metro gutxira, Riverak Lekeitioko Andra Mariaren Zeruratzearen Basilika margotu zuen *Iglesia de*

Lekeitio edo Piedra vieja y flores nuevas deitutako mihisean [4. fig.]. Hondoan eta gerizpean eliza gotikoaren fatxada nagusia erretratatzen da haren errepresentazio osoa mozten duen konposizio batean, lehen planuko azalea larrosadun zuhaitz oparoekin kontrastean. Detalle handiko eta zeruaren trataera zinez interesgarriko koadroan, planteamendu efektista honek sekula koadro erlijiosorik gauzatu

⁷ LOZANO, L. M., (2011), *Diego Rivera, cubista: de la academia a la vanguardia (1907-1921)*, Fundación Unicaja, Malaga, 15. orr.


⁸ *Picasso & Rivera: conversaciones a través del tiempo*, (2017), INBA, Mexiko, 220; 221. orr.



5 - La parte de Pedro, Diego Rivera, 1907



6 - Cuando los remos descansan, Diego Rivera, 1907



7 - En Vasconia, Diego Rivera, 1907

Portuaren beste eszena bat *Cuando los remos descansan* [6. fig.] dugu, Txatxo kaiaren kurbaren bista polit bat. Espainiar pintore moderno askorengan ohikoa zen uraren gaineko argiaren islen tratamendu nabarmen batekin, belak bilduta portuko itsaso lasaian deskantsatzen duten ontzien gainean altxatzen dira lehio txikidun etxe

estu bereizgarriak. Bere aldetik, itsasoaren eta arroken gaineko jolas eta argi efektu beretsuak ikus daitezke baita *En Vasconia* [7. fig.] mihisean. Kabauako labarren gainean 1902an eraiki frontoia –70etan estalia izango zena– agertzen da giro lanbrotzuko pintura honetan, bilduma partikular batean hau ere, Lekeition gauzatutakoeren taldeak pu-

blikoaren eta espezialisten artean gutxien ezagutzen dena. Gaiaren aukeraketak eta harrizko murreren kontra egiten duen forma uhinduko itsasoaren tratamendu plastikoak neurri batean Joaquim Mir katalanaren zerbait pintura gogorarazi ditzakete, Riverak haren lana Bartzelonako Nazioarteko Erakusketan ezagutu baitzuen.



8 - Izenbururik gabe, Diego Rivera, 1907



9 - Lekeitioko bista, Eduardo Chicharro y Agüera, 1907


Duela gutxi Riverak Lekeitioko egonaldian gauzatu eta orain arte ezezaguna izan den izenburu bako pintura berri bat atera da argitara [8. fig.]. Kalean zehar eskuan otoitz-liburu bat eta arrosario bat daraman beltzez jantzitako adindun emakume bat errepresentatzen da, zehazki Beheko kalean; izaera kostunbristako pinturan, andrearen eta portaleen tonu ilunak etheen paretan zuriekin eta Dendari kaletik datorren eguzki izpi indartsuen argiarekin kontrajartzen dira. Sinatua eta 1907an datatua, margolana Teodoro Dehesa Gobernadorearen idazkaria zen Eliazar Espinosa Jaunari dedikatua dago, eta artistak hari zuzenean bidali zion urte berean. 2017 urtera arte familiaren eskuetan, ondorioz katalogatu eta publikoan erakutsi barik egon da.⁹ Interesgarria da lan hau kale berean Eduardo Chicharro beste angelu batetik egindako pinturara batekin alderatzea, kasu honetan giza presentziarik gabe portale eta irekitako lehio berberak tonu argiagoan irudikatu konposizio bat, ikasle eta maisuak batera eta leku bere-tsetan margotzen zutela frogatzen duena [9. fig.].

⁹ Riveraren korrespondentzian aurki daitekeen deskribapenak hala dio: 'una calle de un pueblecito vizcaíno, con la figura de una anciana que, con un libro de oraciones y un rosario en las manos, se encamina al templo.' WOLFE, B., (1972), La fabulosa vida de Diego Rivera, Diana, México, 53. orr.

Diego Riveraren garai hartako beste bi lan existitzen dira, taula gaineko bi apunte txiki hain justu. Lehenak, *Costa cantábrica* [10. fig.] titulua duenak, Santa Catalinako farorako bidean altxatzen diren itsalabarrak errepresentatzen ditu, konkretuki Estrabupia izenez ezagutzen den itsasoaren sarrera txikia, goiko aldean kostatik hurbil dabilen belaontzi txiki bat erakusten duelarik.

Bere aldetik, *Lekeitio* [11. fig.] taula urte horietan oraindino tinglaurik ez zeukan Iparreko moilatik gauzatu portuaren bista dugu. Lerro diagonal eta horizontalen bidez osatu konposizio konplexuago batean, lehen planuan itsasontzi ezberdinak eta hondoan basilika monumentala nabarmentzen dira. Aire libreko bi bozetoetan –Chicharro bere dizipuluei, naturan, giroaren arazoekin lan egitea gomendatu zien beti¹⁰ egikera benetan soltea hauteman daiteke; inpresionismo tekniko batetik hurbil, Riverak Sorollaren pintzelkada bere egin eta erakusketa ofizialetan erakusteko eta bere bekaren justifikazio gisa bidaliak izateko estudioan amaitu obretan baino ausardia askoz nabariagoa agertzen du hauetan. Era berean, atentzioa deitzen du *Lekeitio* apuntea sinatuta eta 1908an datatua egoteak, beste margolanak baino urtebete beranduago, agian hurrengo udan Rivera euskal kostaldera bueltatu zelako, edota sinpleki pintorearen arrakasta handiaren ondorioz, beranduago modu orientatiboan sinatu ahal izan zuelako.

¹⁰ PRADOS Y LÓPEZ, J.; M., (1976), Eduardo Chicharro. Su vida y su obra, Caja de Ahorros de Ávila, Ávila, 127. orr.



10 - Costa cantábrica, Diego Rivera, ca. 1907



11 - Lekeitio, Diego Rivera, ca. 1907



12 - Diego Rivera. ca. 1910-11

1907ko azaroan Riverak bere lehen erakusketan parte hartu zuen Espainian, konkretuki pintore madrildarraren estudioan antolatu 'Eduardo Chicharro y sus discípulos' moztan; dirudienez bertan irakasleak Lekeitioko udako egonaldian gauzatu lanen bilduma bat ere ikusi ahal izan zen.¹¹ Erakusketan Riverak aipatutako lau pieza aurkeztu zituen, zehazki *La Casona*, *En Vasconia*, *Cuando los remos descansan* eta *La parte de Pedro*, eta partaideen artean –Tellaechere ere presente zegoen– kritikak mexikarraren lana bereziki nabarmendu zuen.¹² Seguru asko *Iglesia de Lekeitio* edo *Piedra Vieja y flores nuevas*, moztan hartan egon ez zena, gobernuko dirulaguntzaren lehen sei hilabeteen ordain moduan Mexikora bidalia zuen ordurako.¹³ Zentzu honetan azpimarragarria da, baita ere, urte hartan Chicharro Teodoro Dehesa gobernadoreari bere ikaslearen aldeko ziurtagiri bat bidali izana; bertan, Rivera langile nekazina zela, dohain bikainak agertzen zituela eta bere ailegaeratik aurrerapen ikusgarriak egin zituela berresten zuen.¹⁴

Riverak Lekeitioan egin zituen obren harri onaren lekuko Joaquín Sorollarengandik

jasotako laudorioa aipatu behar dugu, pintore mexikarrak bere memorieta biltzen duen testigantza araberak. Bertsoietako baten arabera, bisita horietako batean Sorolla –zeinak sarritan bisitatzen zuen Chicharroren estudioa eta, dirudienez, modan zegoen inpresionismo frantseserantz edo ortodoxia espainiarra gainditzen zuten korrante artistikoetarantz desbideratzen zen edonori errieta egiten zion– berriaz Riveraren lanak ikustera hurbildu zen; mexikarrak, Chicharro gomendatuta, *Iglesia de Lekeitio* edo *Piedra vieja y flores nuevas*, *En Vasconia* eta *Cuando los remos descansan* erakutsi zizkionean, pintore valentziar prestigioitsuak arrakasta handia iragarri zion etorkizunerako.¹⁵

Hurrengo urtean Riverak obra horietako batzuk erakusketa gehiagotara bidali zituen, zehazki Madrileko Arte Ederren Erakusketa Nazionalera 1908ko udaberrian, Julio Romero de Torres eta Santiago Rusiñol gailendu eta Chicharrok urrezko domina bat irabazi zuen moztan, edota urte bereko Zaragozako Erakusketa Hispano-Frantsesera, zeinean Riverak zilarrezko domina bat eta bilatutako aitoren ofiziala lortu zuen.

Handik eta gutxira Mexikora egindako bidaietako batean, lehen aldiz Artista Independenteen Elkartearen erakusketa batean parte hartu ostean, Riverak 1910eko azaroan bere bost koadro lekeitiarrak –eta identifikatu bako *Puerto vasco* izeneko marrazki bat– San Carlos Arte Ederren Akademian erakutsi zituen Gaztela, Madril, Paris eta Europako iparraldean egindako lanekin batera.¹⁶ Eferbeszentzia sozio-politiko batean, moztan haren inguruan independentzia mexikarraren mendeurrena ospatu behar zuen erakusketaren nolakotasunaren inguruko polemika bizia piztu zen. Riverak aurkeztu Lekeitioan gauzatu pinturak ez ziren publikoan berriz ere erakutsiko hamarkada asko pasa arte, bilduma partikular mexikar eta estatubatuarren esku geratu baitziren. Egun ere hala jarraitzen dute, *Iglesia de Lekeitio* edo *Piedra vieja y flores nuevas* lana salbu, Guanajuatoko Museo Casa Diego Riveran baitago.

Gaztelan margotu pintura batzuekin batera –horien artean *Noche de Ávila* (1907) eta *Calle de Ávila* (1908) aipatu behar dira, zein-

tzuetan misterio eta nostalgia atmosfera berezi bat eta bolumenen tratamendu interesgarri bat lortzen duen, hurrenez-hurren–, Lekeitio osatu eta egun kontserbatzen diren mihiseetako batzuk, *La Casona* edo *La parte de Pedro* kasu, Europara lehen aldiz iritsi eta oraindik abangoardiarekin bat egin aurretik 1907 eta 1909 arteko Riveraren pieza esanguratsuenen artean kokatu behar dira. Formazio akademikoko artista gaztea teknikaren domeinurantzko prozesu batean aurkitzen da, artista moderno espainiarrengan nagusi diren nobedade plastikoak ezagutu eta horiekin modu lotsatian esperimentatuz [12. fig.]. Kale eszenak eta paisaia naturalak erreprezentatzen dituzten kontraste luminiko eta kromatiko esanguratsuko izaera errealistako pinturak dira, marrazkiaren erabilera zuzen eta bolumenen eta kolorearen aplikazioan nolabaiteko ausardiarekin, kostunbrismo lokalarekiko hurbiltasun bat ere atzeman daitekeelarik.



13 - Diego Rivera aldamio batera igota

Espainian egindako bere lehen egonaldian, paisaiaren tra- taera errealistari dagokionean, Chicharroren eragina agerikoa bada ere, Riverak Ignacio Zuloagaren influentzia jasoko zuen laster. Pintore eibartarrak arrakasta handia zuen nazioartean eta momentuko intelektual askorentzat erreferente piktorikoa zen. Halaber, etorkizunean Rivera hainbeste txundituko zuen Grecoren errebalorizazioaren protagonista nagusienetarikoa izan zen Zuloaga.¹⁷ 1909an Espainia utzi arren, hurrengo urteetan Riverak espainiar artistekin harremana mantendu zuen eta bisita esporadikoetan bueltatu zen, baita ere noizbait Euskal Herrira, adibidez 1914an Hondarribian Angel Zarraga bere herri-idearekin beraneatzen zuten Robert eta Sonia Delaunay ezagutu zituen.

1909an Riverak Belgika –bertan Angelina Beloff margolari errusiarra ezagutu zuen, hurrengo hamarkadan zehar bere bikotea izango zena–, Ingalaterra eta Britainian zehar bidaiatu zuen postinpresionismoaren ildotan lan eginez, modu definitiboan Parisen instalatu zuen arte Montmartre inguruko pintore nagusienekin harremanetan, bere produkzioak esperimentazio estilistikorantz eta zehazki kubismo heterodoxo baterantz eboluzionatu zuen, nolabaiteko arrakasta lortzeraino. Bidaia ezberdinen eta abangoardia europarreko artistekin desadostasun desberdinen ondoren, Mexikora bueltatu zen 1921an. Jaioterrian Riverak –marxismo iraultzailearekin eta herrialdearen herentzia kultural indigenarekin konprometituri– José Vasconcelos Hezkuntza Ministroak pintura murala berrintegrazio eta kulturalizazio modu legez definitu zuen politika kultural anbiziotsuan parte hartu zuen, bere kide Frida Kahlorekin batera artista nazional nagusia bihurtuz [13, 14 eta 15. fig.].

¹⁷ CALVO SERRALLER, F., 1987: 122.



14- Frida Kahlo eta Diego Rivera. ca. 1929



15 - Leon Trotsky, Diego Rivera eta André Breton. 1938

¹¹ PRADOS Y LÓPEZ, J.; M., 1976: 130.

¹² *El Imparcial*, 1907/11/12.

¹³ WOLFE, B., 1972: 53.

¹⁴ MARNHAM, P., 1999: 75.

¹⁵ RIVERA MARÍN, G., (2013), *Diego el Rojo*, Editorial Ink, 133. orr.; *Diego Rivera. Palabras ilustres*, 2007: 225; 231.

¹⁶ FAVELA, R., (1991), *El joven e inquieto Diego María Rivera 1907-1910*, INBA-Museo Estudio Diego Rivera, Editorial Secuencia, Mexiko, 159. orr.

Fitxa teknikoak:



La Casona. 1907
Olioa mihise gainean
90 x 110 zm.
Sinadura: *Diego M. Rivera 1907 Vizcaya*
Bilduma pribatua. Houston, Texas

- *Diego Rivera. Catálogo General de Obra de Caballete*, (1989), Dirección General de Publicaciones, CNA-INBA, 339. orr.

- FAVELA, R., (1991), *El joven e inquieto Diego María Rivera 1907-1910*, INBA-Museo Estudio Diego Rivera, Editorial Secuencia, Mexiko, 128; 159. orr.

- LOZANO, L. M.; CORONEL RIVERA, J., (1999), *Diego Rivera. Art & Revolución*, Conaculta/INBA - Ohio Arts Council, The Cleveland Museum of Art, Mexiko, 81. orr.

- LOZANO, L. M., (2011), *Diego Rivera, cubista: de la academia a la vanguardia (1907-1921)*, Fundación Unicaja, Malaga, 34; 35. orr.



Iglesia de Lekeitio edo Piedra vieja y flores nuevas
1907

Olioa mihise gainean
90 x 110 zm.
Sinadura: *Diego M. Rivera Vizcaya 1907*
Marte R. Gómez INBA Bilduma
Museo Casa Diego Rivera. Instituto Estatal de la Cultura de Guanajuato.

- *Diego Rivera. Catálogo General de Obra de Caballete*, (1989), Dirección General de Publicaciones, CNA-INBA, 339. orr.

- FAVELA, R., (1991), *El joven e inquieto*

Diego María Rivera 1907-1910, INBA-Museo Estudio Diego Rivera, Editorial Secuencia, Mexiko, 44; 159. orr.

- DURÁN PAYAN, M. E.; RODRÍGUEZ PÉREZ, A. M., (2012), *Marte R. Gómez y Diego Rivera. Historia de una colección*, Ediciones La Rana, Mexiko.



La parte de Pedro
1907

Olioa mihise gainean
106, 5 x 102, 5 zm.
Sinadura: *Diego M. Rivera Vizcaya 1907*
María eta Manuel Reyero Bilduma.
Mexiko Hiria

- FAVELA, R., (1991), *El joven e inquieto Diego María Rivera 1907-1910*, INBA-Museo Estudio Die-

go Rivera, Editorial Secuencia, México, 137; 159. orr.

- *Subastas de Arte Latinoamericano*, (2012), Morton Casa de Subastas, Mexiko, 58; 59. orr.

- *Picasso & Rivera: conversaciones a través del tiempo*, (2017), INBA, México, p. 220; 221.



Cuando los remos descansan
1907

Olioa mihise gainean
100,3 x 81,3 zm.
Sinadura: *Diego M. Rivera 1907 Lequeitio*
Bilduma pribatua. AEB

- FAVELA, R., (1991), *El joven e inquieto Diego María Rivera 1907-1910*, INBA-Museo Estudio Diego Rivera, Editorial Secuencia, Mexiko, 159. orr.



En Vasconia
1907

Olioa mihise gainean
110 x 89 zm.
Sinadura: *Diego M. Rivera Lequeitio 1907*
María eta Manuel Reyero Bilduma. Mexiko Hiria

- *Diego Rivera. Catálogo General de Obra de Caballete*, (1989), Dirección General de Publicaciones, CNA-INBA, 339. orr.

- FAVELA, R., (1991), *El joven e inquieto Diego María Rivera 1907-1910*, INBA-Museo Estudio Diego Rivera, Editorial Secuencia, Mexiko, 46; 159. orr.



Izenbururik gabe
1907

Olioa mihise gainean
59 x 79,5 zm.
Sinadura: *Al Sr. Lic Don Eliazar Espinosa con mi reconocimiento Diego M Rivera 1907 Vizcaya*
Galería de Arte Mexicano. Mexiko



Costa cantábrica
ca. 1907

Olioa taula gainean
28 x 18 zm.
Bilduma pribatua. Mexiko

- LOZANO, L. M., (2011), *Diego Rivera, cubista: de la academia a la vanguardia (1907-1921)*, Fundación Unicaja, Malaga, 36; 37. orr.



Lekeitio
ca. 1907

Olioa taula gainean
28 x 18 zm.
Sinadura: *Diego M. Rivera 1908*
Bilduma pribatua. Mexiko

- LOZANO, L. M., (2011), *Diego Rivera, cubista: de la academia a la vanguardia (1907-1921)*, Fundación Unicaja, Malaga, 38; 39. orr.



Vista de Lekeitio

Eduardo Chicharro y Agüera, 1907,
olioa mihise gainean, 54 x 71 zm.



Jakob Georg Gapp

Mikel Arizaleta

Itzulpena: Hori-Hori

Santiago Gapp

1897ko uztailaren 26an jaio zen Austriako Tiroleko Wattens herri txiki, lasai eta ederrean. Gaur egun 3.500 biztanle inguru ditu.

Herriko eliza zurian medailoi bat dago Jakob Gappen irudiarekin eta inskripzio honekin: *P. Jakob Gapp, SM. Geb. 26 juli 1897 in Wattens, am 5.4.1930 Priesterweihe, hingerichtet am 13.8.1943 in Berlin. Sein Leben war Zeugnis für den Glauben, sein Tod ist Opfer und Vorbild* (Jakob Gapp aita, marianista, 1897ko uztailaren 26an Wattensen jaioa, 1930-04-05ean apaiz ordenatua eta 1943-08-13an Berlinen exekutatua. Beraren bizitza fedearen testigantza izan zen, bere heriotza sakrifizioarena eta ereduarena). Aita Santu Joan Paulo II.ak dohatsu aitortu zuen 1996ko azaroaren 24an. Beraren memoria liturgikoa abuztuaren 13an ospatzen da.

Martín Gapp eta Antonia Wach senar-emazteen zazpigarren semea izan zen; familia txiroa eta oso kristaua zen. Santiago egunaren biharamunean jaio zenez, haren izena ipini zioten. Lehen hezkuntza eskola publikoan ikasi zuen; bigarren hezkuntza, aldiz, fraide-ikastetxe batean. Ikasle saiatua izan zen. Hamazazpi urte zituela, ikasteari utzi eta Italiaren aurkako gerrara joan zen boluntario. Zauritu eta 1918an txekiarrek gatibu egin zuten. Hamar hilabete eman zituen preso. 1919ko abuztuaren 18an askatu zuten. Marianna Oberauer ilobak, arreba nagusiaren alabak, zera kontatzen zuen: *“Gerratik eta gatibualditik itzuli zenean, Jakobek Jaungoikoaren existentzia ukatzen zuen, eta amak negar asko egiten zuen horregatik”*. Arreba nagusia eta anaia bat Alderdi Nazikoak izan ziren geroago eta ez ziren Jakob Gappekin ondo konpondu.

Gerratik itzuli zenean, *Kriegsmatura* egin zuen, “gerrako batxilergo” erraz bat, solda-

duen eta gudari ohien eskuragai jartzen zena. 23 urte zituen eta unibertsitateko ikasketak egin nahi zituen. Pobreziak, ordea, orpo orpo jarraitzen zion, eta aholkatu zioten fraide marianista eginez gero doan ikasi ahal izango zuela. Luis Gafall parrokoak animatu zuen. Gappek gomendio-gutuna bidali zion Mariaren Lagundiaren Freistadt-eko probintzialari eta hark honela aurkeztu zuen bere burua, soil eta lau: *“Hemen nago. Sozialista naiz eta apaiza izan nahi dut. Horretarako balio ez badut, esadazue lehenbailehen eta etxera joango naiz”*. Teologia ikasi zuen Friburgon (Suitza) eta 1930eko apirilaren 5ean Friburgoko katedralean apaiztu zuen Lausana, Geneva eta Friburgoko apezpiku Mario Besson monsinoreak. Gappek 33 urte zituen. Friburgon zegoela, nagusiak, Neubert aitak, honako hau ohartarazi zion:

“Kontuz ibili zeure sentiberatasunarekin. Grina apostoliko handia daukazu, baina zuhurtziaz jokatu behar duzu. Amesgile samarra zara batzuetan, eta egoskorregia beste zenbaitetan. Begiekin baino gehiago irudimenarekin ikusteko arriskua daukazu. Aldera itzazu zeure iritziak; ondo etorriko zaizu”. Jakob Gapp ez zen beti konprenitua sentitu; batzuen ustetan puztu egiten zuen txiroen aldeko jarrera egoskorra, eta nazionalsozialismoaren aurkako salaketa ere bai. 1938ko martxoaren 12an Reicharen tropak Austrian sartu ziren. Eta Gappek honako hau erantzun zien horren kontrako jarrera sutsuaz gaizki esaten zutenei: *“Ba, ez nazazu aintzakotzat hartu. Argi eta garbi hitz egiten jarraituko dut. Eta traba egiten badut, beste komunitate batera aldatzeko eskatuko dut... Ez dut sekula esbastikarik jarriko soinean!”*. Geroago esan zuen Marien-Institututik, ordenaren zentrotik, bota egin zutela. Berlinen, hauxe esango zuen epaitzen zuten auzitegian: *“... Ba-*

tez ere Alfred Rosembergen XX. mendeko mitoa irakurri ondoren erabat konbentzituta nongoen nazionalsozialismoa eta fede katolikoa guztiz bateraezinak zirela”.

Geroago, erlijioso guztiak kanporatu eta erlijio eskolak bertan behera utziko zituzten.

Ihesaldia

1938tik aurrera nazien jazarpena ondo-ondotik sentitu zuen Gappek. Bizitokia aldatu eta ihes egin zuen. 1939ko urtarrilaren 20an Cannesera iritsi zen trenez Milanetik, eta gero Bordelera joan zen. *Père Jacques* bihurtu zen. Baina luze gabe gauzaez sentitzen hasi zen; egiteko gutxi zeukan eta frantsesek alemaniarrez adierazten zituzten iritziek mindu egiten zuten. Alemaniartzat zuen bere burua eta bere herria maite zuen, baina ez nazien erara; frantsesek ez zuten ulertzen: *“Austriar alemana naiz!”*. Bordeleko komunitateko buruak idatzi zuen: *“Norbaitek Alemaniaren aurkako hitzik esaten badu, hain haserretzen da asko ezen jantokian Alemaniari buruz hitz egitea debekatu behar izan dudana”*. Denak ziren Gappen haserrealdien beldur. Aldi hartan ez zen erreza beraren solidaritate pangermanikoa ulertzea.

Martxoaren 6an, Gappek Jungi jakinarazi zion Alemaniako kontsulatuaren bisa lortu zuela eta Bordelen zegoen Espainiako kontsulatuan izapideak egiten ari zela. Gestapok bazekien non zegoen. Berlingo epaiketaren konatuak eskatuko zizkioten Pzko eguneko Bordelen emandako sermoi batengatik. Bordeleko kapera hartan zelatari bat zegoen.

Jakob, Santiago bihurtuta, Hendaiara eta Donostiara iritsi zen 1939ko maiatzaren 23an. Maiatzaren 21ean, Francok berak, Espainiak Condor Legioa agurtu zuen Leongo Virgen del

Lekeitioko kanposantua

Gorka Pérez de la Peña Oleaga

Itzulpena: Hori-Hori

Bizkaiko hileta arkitekturaren altxorra

Lekeitioko kanposantua Bizkaiko arkitektura garaikidearen adibide bikaina da, eta interes handiko ondare-elementua.

Honetan datza beraren berezitasuna: neoklasizismotik modernismora bitarteko arrastoak dituen Bizkaiko kanposantu bakarra da. Gainera, eklektizismoak eta neomedievalismoak Bizkaian izan zuten eraginaren lehen adibideak ditu, bai hilobietan, bai arkitektura orokorrean.

Nekropoli hau oso ezezaguna da euskal bibliografian, orain artean ez baita egin berari buruz esku artean duguna bezalako berariatzko azterketa sistematikorik.

Azterlana kanposantuko hiru estilo nagusien arabera egin da: neoklasizismoa, eklektizismoa eta neomedievalismoa, eta modernismoa. Aldi horietan egin ziren kanposantuko oin berriko lanak eta haren eremua zabaltzeko lanak. Gainera, aldi horietakoak dira hilobirik nabariak ere.

Jatorria


Lekeition, Europako beste leku askotan bezala, gorpuak tenpluen barruan eta inguruan lurperatzen ziren. Euskal Herrian, esaterako, familia baten hilobia etxearen beraren ataltzat hartzen zen.

Ilustrazioaren ideien ondorioz Karlos III. ak eliza barruko ehorzketak debekatu zituen zedula baten bidez, osasun-arrazoia zirela eta. Geroago, 1804. urtean, Karlos IV.ak agindu zuen kanposantuak egitea herriguneetako aldirietan. Agindua zen hilerriak landetan egitea, haizea aise zebilen toki garaietan,... baina horretarako eskumena ez zitzaion eman erakunde jakin bati. Horren ondorioz arazo asko egon ziren xedapen horiek betetzeko; gainera, hilak eliza barruan lurperatzea sendo errotutako ohitura zen herrietan. Horregatik, herri batzuetan urte asko luzatu zen agindua burutzapena.

Ez dakigu zehatz-mehatz noiz eraiki zuten Lekeitioko kanposantua Lumentza mendia-
ren hegalean. Udalaren 1810eko akta batean aipatzen da kanposantu berria eraiki behar dela, baina ez zen egin, baliabide ekonomikoen faltagatik, hurrean. Badirudi 1819an elizako kanposantua erabiltzen zela artean, zeren kontuetan "Elizako kanposantua" aipatzen da, farol bat gehiago ipini zutela eta. Ziur asko, elizpean eraikitzen ziren teilapeko kanposantuen ereduakoa zen. Kanposantu berria egon zitekeela pentsarazten duen lehen erreferentzia 1822. urtekoa da, udal kontuetakoa: "kanposantuko ate berria, eta eskailera berriak ere bai". Horrenbestez, arrazoizkoa da pentsatzea XIX. mendeko 20ko hamarkadaren hasieraren inguruan eraiki zutela kanposantua. Agian, aldi batez bi kanposantuak erabiliko ziren. Ez dugu aurkitu auzia argitzen duen datu zehatzik.


Kanposantu berria oso eraikuntza eskasa izan bide zen, Mariano de Lascurain arkitektoak 1831. urtean egin zuen deskribapenaren arabera: "oso txarto dago; ez dago kaperarik ez gorpuak uzteko tokirik". Oinplano angeluzuzeneko sail batean egon zen, antza, egungo sarrera nagusiaz beste aldean.

Lehen kanposantu hura Hermenegildo Belaularan arkitektoak handitu zuen 1842an: kaperak publikoak erantsi zion kale nagusiaren erremate gisa. Horrez gain, bi hilobi pribatu egin zituen: Aguirre Solartetarrena eta Uribarren y Aguirrevengoatarrena. Familia horiek kanposantua handitzeko lanak ordaindu zituzten eta orube bana hautatu zuten beren kaperak egiteko, kaperak publikoaren alboetan. Elementu horiek guztiak jatorrizko tokietan daude oraindik, kaperak publikoak izan ezik, 1908. urteko erreforman gaur egun dagoen tokira aldatu zuten eta.



Lekeitioko kanposantuko plano, 1908 aurrekoa.
LUA 1436/4

Lekeitioko kanposantuko plano, Juan Arancibia, 1908.
LUA 1436/4



- 1 Kapera publikoa
- 2 Agirre Solarte kapera
- 3 Uribarren/Agirrebengoa kapera
- 4 Uribarren/Batiz kapera
- 5 Abaroa kapera
- 6 Ibañez de Aldekoa kapera
- 7 Oxangoiti kapera (Arriola/Lertxundi)
- 8 Zelaia
- 9 Colmenares
- 10 Larrazabal/Lariz
- 11 Amias/Arana
- 12 Erquiaga/Arana
- 13 Anduiza
- 14 Arze/Arruabarrena
- 15 Aremaio (Erkiaga/Salinas)
- 16 Txopitea
- 17 Marianistak
- 18 Oxinalde
- 19 Garavilla
- 20 Kanposantuko ataria
- 21 Adan de Yarza
- 22 Rodriguez Espina
- 23 Gerrikabeitia
- 24 Garavilla/Zabala
- 25 Monfort/Ibañez de Aldekoa



Kapera publikoa



Aguirre Solarte kapera



Uribarren Aguirrevengoa kapera

NEOKLASIZISMOA, 1820-1842

Arkitektura neoklasikoaren ezaugarri nagusiak lerroen purutasuna, simetria eta formen arrazionaltasun zorrotza dira. Barrokoaren eta rokokoaren gehiegizko apaingarrien kontrako erreakzioa izan zen.

Bizkaian 1777 eta 1860 artean eragin zuen. Lekeitioko kanposantua azken faseko estilokoa da, eredu neoklasiko zorrotzak apurtu zirenekoa, alegia.

Kanposantuko kapera publikoa neoklasizismoaren azken etapako emaitza adierazgarria da. Egiptoko eta Greziako ereduaren oinarritutako bolumen soila da; aurrealde noblea da ezaugarri nabarmenena. Egiptoren eragina antzematen da fatxada nagusiaren alboetako hormetan: pilonoak ekartzen dute gogora, itxura trapeziala dute eta. Eragin honek argi erakusten du eredu neoklasiko zorrotza alde batera utzi eta arkitektura eklektikorako bidea zabaltzen ari zela.

Klasizismoa honako baliabide hauen erabilera ere islatzen da: Greziako in antis tenpluen ereduari jarraitzen dio eta hiru atal dauzka: bi zutabe doriko, garezurrez apaindutako entablamendu laua, eta errematean irlaitz ganbila eta frontoia zapala, izkinetan akroterak dauzkana eta gailurrean gurutzea. Frontoian latinezko D.O.M. (Deo optimo maximo) inskripzioa dago. Hau esan nahi du: *Jainkoarentzat, onena eta handiena baita*. Kapera honetan nahiko ondo egindako erretaula neoklasikoa dago.

Kapera pribatuetan, publikoan ez bezala, neoklasizismo kanonikoa aplikatu zen. Hauexek dira ezaugarri nagusiak: bolumen soilak, leuntasun handiko harlanduak eta apaingarri gutxi (moldura lauak, frontoi triangeluarak, pilastra ildaskatuak eta abar).



EKLEKTIZISMOA eta NEOMEDIEBALISMOA, 1864-1915

Eklektizismoak askatasun handiarekin berregiten ditu iraganeko estiloak sintesi berria sortzeko. Ezaugarri behinena da apaingarriek protagonismo erabakigarria dutela diseinu arkitektonikoan. Erreferentzia ohikoena tradizio klasikoa izan zen, baina mediebalismoa ere aplikatzen zen. Ondorioz, arkitektura eklektikoan ugariak dira tondoak, pitxerrak, soingainekoak, frontoiak, harlandu kateatuak eta pilastra erraldoiak, besteak beste.

Neomediebalismoan kutsu erromanikoak eta gotikoak berreskuratu ziren. Arkitektura erlijiosoaren estilo propio gisa finkatu zen.

Lekeitioko udalak 1864 eta 1866 bitartean kanposantua handitu zuen; zabalkuntza jatorrizko sailaren eskuinean egin zen, gaur egungo sarrera nagusia erreferentziatzat hartuta. Kanposantu berria terrazetan eratu zen; horretarako euste-horma handiak ipini behar izan ziren, mendi-hegalaren malda handia da eta. Kanposantu berriaren eta zaharraren arteko malda gainditzeko bi eskailera egin ziren. Obra Jose Luis Abaroak finantzatu zuen.

Eremu horretan eklektizismoaren eta mediebalismoaren ezaugarriekin egindako kapera eta hilobi multzo bikaina dago. 1865eko hiru kapera pribatu azpimarratu behar dira: Uribarren y Batiztarrena, Abaroatarrena eta Ibañez de Aldecoatarrena. Izan ere, Euskal Herriko arkitektura garaikidean eklektizismoa sartu zuten lehenak izan ziren.

Uribarren y Batiztarren hilobia eta Abaroatarrena oso antzekoak ziren: lerro zorrotzeko bolumenak, kalitate oso oneko harlanduez egindako bi isurkiko estalkiarekin. Bietan aurrealdeko errematea



noblea da: frontoi triangeluarra eta bertan idi-begia eta gurutzea; gainera, beirate ikusgarriak daude bietan. Halaber, beste apaingarri klasizista batzuk ere badaude: Uribarren y Batiztarrenean pilastra dorikoak ertzetan; Abaroatarrenean itxiturako burdin hesia. Azken horretan eragin neogotikoa ere antzematen da arku zorrotzeko sarreran eta burdinazko atearen diseinuan; kalitate bikaineko burdinlan neomediebalista da.

Ibañez de Aldecoatarren hilobian, berriz, eklektizismoa desberdina da bi ezaugarriengatik: apaingarri gehiago daude eta neomediebalismoaren eragintxoak dauka. Nahasketa hori aurrealde noblean nabaritzen da: ataripe txikia, hiru gingileko arkuak daukana, oinarri handien gainean eraikitako zutabe korintoar biren gainean. Kapera honetan kalitate handiko beirate koloretsuak daude.

Nitxoak ere aipatu behar dira; bi motatakoak dira: goian eta lurpean. Lehenengo artean hauek dira nabarmenenak: Celayatarrena, Larrazabal y Lariztarrena (1882), Anduizatarrena (1884) eta Aboitzatarrena. Bigarren artean: Garavilla y Zavalatarrena, Monfort Ibañez de Aldecoatarrena, Altunatarrena, Zabalatarrena (1880), eta Eguilior y Echevarrietatarrena (1900).

Celaya familiarenak eredu neoklasikoari jarraitzen dio, erremate piramidalean ikusten den moduan. Larrazabal y Lariz, Anduiza eta Aboitz familien hilobietan diseinu eklektiko landua dute; Larrazabal y Lariztarrena da ede-


rena. Garavilla y Zavala, Altuna, Zabala eta Eguilior y Echevarrieta familien hilobien planteamendu eklektikoaren emaitza apala da. Monfortarren hilobiak burdinazko itxiturako hesi bikaina dauka. Burdinlan eklektiko paregabea da.

1908ko erreformarekin batera egindako bigarren zabalkuntzan egindako eraikuntzetatik honako hauek dira ederrenak: Marianisten kapera (1915) eta Oxinaldetarren (1913) eta Garavillatarren (1915) hilobi soilak. Marianisten kapera eklektizismoaren adibide bikaina da, estilo neoekusaldunaren nolabaiteko eragina antzematen delako bi elementutan: bi isurkiko hegal-estalkia eta sarrera nagusia babesten duen hegazpea. Garavillatarrena oso interesgarria da, Frantzia egindako burdinazko eskultura berezia baitauka. Maurice Denonvilliers-en lantegian egin zen, Parisen (Lafayette kalea, 174).

Neomediebalismoaren eraginaren adibide bikaina dugu, Euskal Herriko arkitektura erlijiosoan aitzindaria: Arce eta Arruebarretarren kapera, 1866 ingurukoa. Elementurik adierazgarriena errematea da: arkupe itsuez eratutako zerrenda. Ez da guztiz landua, eragin eklektikoa ere nabaritzen baita hiru elementutan: erremateko frontoia, zutabe txikiak sarrerako alboetan eta itxiturako hesia.

Goraka jarritako nitxo multzoa ere badauka Lekeitioko kanposantuetan: Colmenares de Licon (1867), Arriola-Lerchundi, Chopitea (1874), Erquiaga y Arana (1878 ingurukoa),

Amias y Arana, eta Aremayo. Sei hilobiok neomediebalak dira, baina bi motatakoak: lehenengo biak neorromanikoak dira (erdipuntuko arkuak, arku itsuak eta abar); beste lauretan eragin neogotikoa islatzen da (arku zorrotzak, gailurreria eta abar).



Uribarren Batiz familiaren kapera. 1866ko plano LUA 2012/3



8

Zelaia hilobia



10

Larrazabal/Lariz hilobia



13

Anduiza hilobia



14

Arce/Arruabarrena hilobia



9

Colmenares/Licona hilobia



24

Garavilla/Zabala hilobia



25

Monfort/Ibáñez de Aldecoa hilobia



7

Oxangoiti (Arriola/Lertxundi) hilobia



11

Amias/Arana hilobia



17

Marianisten hilobia



19

Garavilla



18

Oxinalde hilobia



15

Aremayo (Erkiaga/Salinas) hilobia



12

Erquiaga/Arana hilobia

MODERNISMOA, 1908-1918

98ko krisiaren ondorioz XX. mendearen hasieran eklektizismoa atzean utzi zen eta estilo berri bi zabaldu ziren: erregionalismoa eta modernismoa. Noraezean ibili ondoren estilo berria aurkitzeko nazioarteko erreferentzietara jo zutenek modernismoa hautatu zuten. Ez zen estilo uniforme; aitzitik, modernismoa bost gune nagusitan sortu zen, eta bakoitzak bere ezaugarri bereziak zituen: katalana, vienarra, frantziarra, alemana eta italiarra. Bizkaian 1900-1914 bitartean nabaritu zen modernismoaren eragina; batez ere estilo frantziarra eta vienarra aplikatu ziren.

Lekeitioko kanposantuan modernismo vienarrak lan bikainak utzi zituen, euskal arkitekturaren mota honetako emaitza ederrenetakoak. 1908. eta 1912. urteen artean Juan de Arancibia arkitektoak zabalkuntzako erreforma garrantzitsua egin zuen eta beste bi elementu eraiki zituen: sarrerako ataria eta gorputegia. Kanposantua ekialderantz zabaldu zen, haurda, mendirantz. Malda handia zen eta euste-horma handia eraiki behar izan zen mailakako terrazak sortzeko. Erreforma horren ondorioz kapera publikoa lur berrietara eraman behar izan zen eta eskailera bat egin behar izan zen goiko eta beheko sailak lotzeko. Eskailera berria eraiki zuten, kapera, lehen Aguirre Solartetarren panteoiaren eta Uribarren y Aguirrevengoatarren panteoiaren artean zegoena, gaur egun dagoen tokira aldatu behar izan zen, goialdera.

Bi eraikin berriak (ataria eta gorputegia) modernismo vienarraren emaitza bikainak dira. Elementu nagusiak honako hauek dira: forma geometriko argi eta astunak, batetik, eta kareharrizko harlandu ederrak, bestetik. Sarrerako atea 1913. urtean egin zen; aipagarria da burdineria modernistaren diseinuaren kalitate aparta, batez ere forma lerromakurrak.

Fase honetakoak dira Juan de Arancibiak egindako kapera pribatu biak: Rodríguez Espina familiarena (1916) eta Adán de Yarzatarrena (1918). Modernismo vienar berantiarreko diseinu heldu eta zoragarriak dira, Europako ederrenetakoak elementu hauei esker: lerro masiboak eta geometrizatuak, kareharrizko harlandu bikainak eta burdineria zoragarria sarrerako atean; Adán de Yarzatarren hilobian gurutzea dago errematean. Rodríguez Espina familiaren kaperan apaindura-elementuen kalitatea goraiatu behar da: hontzen erliebeak, motibo geometrikoak eta lore-koroak. Kapera horietan beste estilo batzuen eragina ere antzematen da, berantiarrek izanik: neomedievalismo moteldua Adán de Yarzatarrenean eta eklektizismokoa Rodríguez Espina familiarenean.

Illo berean daude Algorta-Abaroatarren hobiak (1914-1918); forma geometriko agerikoak eta zorrotzak dira elementu nagusiak.

ORAINTSUKO ADIBIDEAK

Lekeitioko nekropolia kasu bakarra ere bada kanposantuen artean, eskultura garaikidea antzematen delako; Reinaldo Lopez Carrizok Gerrikabeitiaren panteoirako egindakoan esaterako. Izaera espresionista gogorreko giza irudiz osatutako multzo bikaina da. Min sakona igortzen du eta Jorge Oteiza bere maisuaren eragin handia du.

Ocamicaren 1953ko lana ere nabarmendu behar da, lantegiko eskultura zuzenarengatik.

Argazkiak: Gorka Pérez de la Peña, Maite Garamendi eta Aitor Iturbe.



Adan de Yarza

21



Rodríguez Espina

22



Gerrikabeitia

23

“El señor Echevarrieta dió cuenta de haberse practicado unas **catas** de terrenos situados en la falda del monte “Arzabal”, en los que el Ayuntamiento se había fijado para construir un nuevo cementerio; manifesto que del resultado de ellas aparecía no existir en aquella profundidad suficiente para el objeto; que se habían hecho iguales catas también en la parte superior del monte encontrándose unos tres y medio pies de profundidad...” LUA 1901-7-28



Nori demontre okurridu jakon kanposantua Artzabalera eruatia! Lekitto inkenieroz beteta egon dala beti, kanposantua, nun eta, Loibetarren zelai ederrian! Eeskerrak sakonera gixxiko lurra zala, bestela, Tako, nora juango ginatete bainotxua hartzera?

Let's talk of graves, of worms and epitaphs

Richard II, Shakespeare

Aitor Iturbe

Enterradoriak

Hainbeste artikulu heriotzaren gainean eta nortzuk faltako eta... enterradoriak.

Lekeition kanposantu ederra egin zen XIX. mende hasieran eta han lan egin zutenen berri jakiteko Artxibora joan gara paper artean zertxobait aurkitzeko. Ez zen, eta ez da, lanbiderik estimatuena, heriotza, batez ere gaur egun, gai tabua delako.

Guk dakigula Kanposantu berrian lan egin zuen lehena Jose Orbe izan zen. Ez dakigu noiz hasi zen lanean, baina bai 1826an bera zela kanposantuko arduraduna: *"Leyose un memorial de Ygnacio Cilloniz solicitando la yerba del campo santo de esta villa... acuerdo no ha lugar y que... a Jose de Orbe a cuyo cargo esta el mismo campo santo lo tenga aseado y cual exige un lugar sagrado llevando la yerba que existe en el a su huerta que la tiene frente del hospital..."* LUA Udal aktak, 1826-4-13.

Handik hiru urtetara, Orbe hilda, bere suhiak eskatu zuen aitagarrebaren lana. *"Al de Juan Cruz Barainca Bengoechea... solicitando la plaza de enterrador de esta Parroquia, vacante por fallecimiento de su padre político Jose de Orbe, enterado de su capacidad y demas loables circunstancias que concurren en el pretendiente le nombraron sus mercedes por tal enterrador, asi que para todos los demas actos de la Fábrica Parroquial de esta villa á una con el Cabildo Eclesiastico de ella: que el Procurador Sindico general averigue los emolumentos que le están consignados al enterrador, los que, y todas las atribuciones que le competen se espresen en la escritura que otorgue para su desempeño..."* LUA Udal aktak, 1829-1-5.

Eskritura hori ez dugu ezagutzen, baina badakigu lurperatzaileak bi eginkizun nagusi ohi zituela: batetik Elizan lagundu (garbiketak...) eta bestetik hilak lurperatu. Horixe bera dio Udalak Elizako Kabildoarekin tirabiraren bat izan zuenean: *"Nombrase por enterrador de esta villa al pretendiente Juan Cruz de Barainca... Al dictar el ayuntamiento este decreto supo distinguir los dos conceptos que generalmente han merecido en esta villa los enterradores; a saber, el primero como tales sepultureros y al segundo como encargados de la limpieza y otros trabajos de la Yglesia con emolumentos separados, cuyos dos conceptos no deben confundirse en manera alguna por ser independientes, y por poderse hallar en dos diferentes= El nombramiento de enterrador, considerado aisladamente este oficio, no depende del patronato de las Yglesias..."* LUA, Udal aktak, 1829-3-9.



"Hamlet eta Horatio lurperatzaileekin", Eugène Delacroixen litografia, 1843

Ospitale aurreko ortua sarritan agertu izan zaigu dokumentazioan. Antza denez, lurperatzaileak erabiltzen zuen bere lanaren truke. Udalak 1831n eskola berri bat altxatu zuen ortu horren gainean, gaur egungo gasolindegia zaharraren orubean, eta lurperatzailea ortu barik geratu zen. Komisioa sortu zen kaltea ordaintzeko: *"Comision para arreglar la cuota de indemnizacion que ha de consignarse al enterrador por el terreno que ha perdido en la huerta del hospital... en*

la huerta llamada del enterrador en la que se esta construyendo la nueva casa para maestro de primeras letras..." LUA, Udal aktak, 1832-2-18. 15 dukatetan baloratu zuten galtzea: *"queda compensada la perdida que sufre con quince ducados anuales que deberán satisfacerse al enterrador que es ó fuere de esta villa de los propios y rentas de ella"* LUA, Udal aktak, 1832-3-12. Egia esan, ezkutuko higiezin operazioa zen, Udalak orube hori eta soberan gelditzen zena erosi nahi zuen eta.

Argi gera dadila ez zela edozelako ortua, Lekeition egon denik famatuena izan zela, hantxe uste baita egon zela Bizkaiko Jaunaren jauregia. Ez dakigu jauregiaren arrastoak inoiz agertuko diren, izurridunen bat seguru baietz, gainezka egon baitzen 1597ko izurrite ikaragarrian. Portzierto orain dela gutxi ibili dira arkeologoak han lanean eta erromatarren garaiko aztarnak aurkitu dituzte.

Juan Cruz Barainak hainbat urtetan egin zuen lan, 1866-7an jubilatatu zen arte. Ederto merezitako jubilazioa ordaindu zion Udalak, berak irabazten zuena baino askoz handiagoa 460 erreal hiru hilabetero. Kontuan izan behar dugu soldata apala izan zuela, hasieran urteko 205 errealekoa, gero 221ekoa, inoiz 265ekoa eta amaierarantz 463 errealekoa. Ezin da alderatu beste soldata batzuekin, soldata eta errenta nahastuta daudelako. Gainera baliteke Elizarengandik ere kobratzea.

Barainkaren garaian kanposantuak hobekuntza nagusi bi izan zituen, lehenengoa Uribarren eta Agirre Solarteri esker 1842 aldean eta bestea 1865 inguruan. Biztanleriaren gorakadak, gerrak,¹ kolerak... kanposantua handitzea eskatu zuten. Baina ez zen tamainu kontua bakarrik, kalitatea ere hobetu egin behar zen. A zelako hilobiak egin ziren orduan!

"La ereccion de una Capilla en la que se celebre el Santo sacrificio de la misa atraeria al campo santo el respeto que se le debe y la xxx de una religiosidad tan necesaria á un punto, ultima morada del hombre; xxx hay mas construida que fuese una Capilla, podrian depositarse en ella cadaveres que ó bien sea por putrefaccion ó bien por alguna enfermedad sospechosa son conducidas al Campo Santo y enterrados en el (zirriborrotuta) faltando en esto a lo ordenado en las leyes, y esponiendose tal vez a que la desnaciada (sic) precipitacion cause la muerte de algun infeliz que su estado de accidente ó de mortorra hiciese causar? la muerte ¡ejemplo por



¹ LUA Udal aktak 13-5-1835: "un memorial de Juan Cruz de Barainca enterrador de esta Yglesia parroquial expresando, que con motivo de la destructora guerra Civil y epidemia que se padece en el Hospital Militar de la guarnicion de esta Villa y su vecindario se habia llenado ya de Cadaveres el Cementerio o Campo Santo de la misma parroquial, solicitando que el ayuntamiento y el Cavildo eclesiastico determinaran un local para el enterramiento respecto a que no cogian ya a dicho Campo Santo sino treinta cadaveres...".

desgracia no el primero en el mundo! *Edgar Allan Poe!* La Comision pues en vista de lo que lleva dicho opina, que debe suplicarse al Don Jose Ventura Aguirre solarte erija una capilla en el citado Campo Santo frente de la puerta concediendole para eso el suficiente terreno, que esta capilla a mas de poder celebrar en ella el Santo sacrificio de la misa, sirva para depositar cadaveres que que por cualquier motivo de putrefaccion ó contagio no puedan subsistir en la casa mortuoria ni ser conducidos a la Yglesia; y la comision no duda que el señor Don Jose Ventura accedera a esta suplica en obsequio á sus relaciones con esta Villa..." LUA Udal aktak, 1840-5-22.

1866an jubilatatu zen eta hurrengoa Antonio Gabiola izan zen. Honek Barainkaren moduan urteko 463 erreal irabaziko zuen.

1869koak ditugu prezio hauek: "Por cada nicho de sesenta pies cuadrados se pagaran con destino á la fabrica parroquial mil reales vellon; tres mil por dos nichos unidos ó para un sepulcro; seis mil reales por tres nichos tambien para un sepulcro de á cada sesenta pies, y doce mil por terreno para cuatro nichos asi bien reunidos sin que se pueda conceder mas pies de terreno para sepulturas unidas..." LUA Udal aktak, 1869-7-22.

Antonio Gabiolak ez zuen luze iraun, 1877an bere suhiak, Luis Ziarretak, "heredatu" zuen kargua: "Se dio cuenta a continuacion de la dimision presentada por el sepulturero de esta villa Don José Antonio de Gaviola motivandola en su gravísimo estado de su salud y en la imposibilidad en que presume ha de quedar aún cuando se reztalezca..." "... y una esposición de su hijo político Don Luis Ciarreta solicitando la espresada plaza alegando los servicios de su suegro y los que viene prestando el mismo como sustituto de aquel. El ayuntamiento aceptó la dimisión del espresado Gaviola y nombró sepulturero en su reemplazo al esponente Luis Ciarreta" LUA, Udal aktak, 1877-3-8.

Ziarretarren dinastia hasi zen honekin. Luis Florencio Ziarreta Artadi 1871an Felipa Gabiola Amiasekin ezkondu zen, Antonio Gabiolaren alabarekin. Aitagarrebarekin ikasi zuen ofizioa. Honek ere Barainkaren antzera urte asko egin zituen lanean. 1907an hil zen Luis eta bere seme Florencio aukeratu zuen Udalak. Lehenago inoiz anaia Julianek ere lagundu zuen aita gaixorik egon zenean. 1911n hilerria handitu zutela eta Florenciok soldata

igotzea nahi zuen. Zenbat irabazten zuten jakingo dugu: 70 ztmo egunean 1904ra arte eta harrezkero 95 ztmo.

Sobre aumento de asignación al enterrador por ampliación del cementerio

"... instancia de Don Florencio Cearreta, en la que, despues de exponer que por espacio de 44 años han venido desempeñando el exponente y antepasados el cargo de sepultureros percibiendo la retribución de 70 ctmos. al dia en los primeros 34 años y la de 95 ctmos. despues..." LUA, Udal aktak, 1911-4-20. Eta horretaz ari garela, ez zioten soldatarik igo.



Florenciori tokatu zitzaion 1918-19ko gripe ikaragarria. Ez dakigu zenbat hil ziren Lekeition, baina badakigu emaztea eta semetxoa hil zitzaizkiola gure lurperatzaileari. Kolpe latza! 1931n hil zen Florencio, eta harekin enterradore dinastia hori. Hala ere, memoriak izaten ditu bere mekanismoak bizirauteko. Lekeition denda eta taberna zahar guztiak hondatu ditugu, baina Arranegi eta Bergara kaleen artean gelditzen da halako denda dotore bat, Ziarreta izenekoa, Mirari Eguren Ziarretarena. Denda horren izen ofiziala, kartelak dioena, ezagutzen duzue; gurean, berriz, beti deitu izan zitzaion Mari enterradoriena. Gaur badaikit Mari Mirariren ama izan zela eta haren aita (benetan musikoa), osaba, aitita eta birraitita enterradoriak izan zirela.

Libro Registro del Cementerio de Lequeitio

Mayo de 1900.

El cadáver de D.^o José Diego de Cocorosa fallecido el día seis de Mayo de 1900. ha sido enterrado en este cementerio en caja de madera pino de pocas suelas cubierta de tela ligera; Lequeitio á 6 de Mayo de 1900. el enterrador Luis de Ciarreta

El cadáver de D.^o Angela de Hontanpu fallecido el día once de Mayo de 1900. ha sido enterrado en este cementerio en caja de madera pino de pocas suelas cubierta de tela ligera; Lequeitio 11 de Mayo de 1900. el enterrador Luis Ciarreta

El cadáver del señor... fallecido el día... ha sido enterrado en este cementerio en caja de madera pino de pocas suelas cubierta de tela ligera; Lequeitio 11 de Mayo de 1900. el enterrador Luis Ciarreta



"L'inhumation précipitée", Antoine Wiertzen oleoa, 1854

"Libro Registro del cementerio de Lequeitio" (1900-1911) LUA 1450/1

Reglas que deberá observar el sepulturero ó enterrador.

59



LUA Udal aktak, 1898-5-29

Reglas que deberá observar el sepulturero ó enterrador

1º El cargo de sepulturero será desempeñado por un solo individuo. Su nombramiento lo hará el Ayuntamiento autorizándole para que lo ejerza exclusivamente.

2º En los casos de ausencia ó enfermedad estará obligado á dejar quién le sustituya, previa autorización del Sr. Alcalde.

3º Cuidará del buen orden, aseo y limpieza del Campo-Santo, así como también de la buena conservación de los panteones ó nichos particulares, avisando á los interesados respectivos cualquier deterioro ó avería para que dentro de las 48 horas sea reparada, y de no verificarlo pondrá en conocimiento del Sr. Alcalde.

4º Evitará el que se abra ningun enterrorio antes del tiempo reglamentario.

5º Durante la permanencia de los cadáveres en la capilla, conservará constantemente encendida la lámpara que ha de haber en ella, y no consentirá se pongan velas, cerillas ni ninguna otra clase de luces.

6º En el caso de que los interesados deseen permanezca alguna persona en la capilla para vigilar un cadáver, les recomendará observen el orden y compostura que deben guardarse.

7º La llave de la capilla estará constantemente en su poder y durante la noche la de la puerta exterior del Campo-Santo.

8º Sepultado el cadáver, permitirá que los interesados recojan las cintas, flores ú otros objetos que estuvieren exteriormente ó sobre la caja y examinen el cadaver.

Si estos notaren falta de alguna prenda ú objeto que llevaba consigo al entrar en el Cementerio, oír sus quejas y las pondrá en conocimiento al Sr. Alcalde.

9º No permitirá se fije inscripción alguna sin que venga autorizada con el permiso de la autoridad local.

10º Todos los cadáveres, deben ser conducidos al Campo-Santo en cajas cubiertas, y si notase infracción en este punto, lo pondrá en conocimiento del Sr. Alcalde.

11º No consentirá la exhumación, ni con pretexto de traslado de una a otra sepultura, ni que se remuevan los cadáveres, se levanten las losas que cubren sepulturas para ver el estado de estos, aunque los interesados lo soliciten.

12º No permitirá se dé principio á la construcción de panteones ni de ninguna otra clase de obras sin que preceda la presentación del permiso corres-

pondiente.

13º Será obligación suya quemar dentro del mismo día en que se extraigan, las cajas y ropas ó hábitos que se encuentren al abrir las urnas nichos ó sepulturas, sin que pueda dejarlo para determinado día.

14º Será igualmente cargo suyo fumigar y limpiar a menudo, sirviéndose para ello de desinfectantes, las cajas mortuorias que serian para el hospital y pobres de solemnidad. Esta operación habrá de hacerse inmediatamente despues de inhumado el cadaver, cuando el fallecimiento hubiese sido por enfermedad contagiosa, sin que por ningun concepto puedan volver á la población las cajas sin haber antes llenado dicho requisito.

15º Todos los ataúdes y cajas, excepto las destinadas ál hospital y pobres de solemnidad en que se han? conducido los cadáveres que han de ser inhumados en terreno común sin ella, quedarán en el Campo-Santo y serán quemados en el mismo día, sin darles otro destino.

16º Si se desprendiesen humores de algun cadáver, durante su permanencia en la Capilla, les hará desaparecer por completo, y despues de lavado bien el suelo, hará aspersiones con una ligera disolución de cloruro de cal ú otro desinfectante que se ordene.

17º Tratará con respeto los cadáveres durante el acto (los actos) de las inhumaciones y exhumaciones.

18º No permitirá á persona alguna escribir, rayar, ni pintar figuras en la pared ó frontis de los nichos, panteones y muros del recinto del Cementerio.

19º Cuidará de que en la superficie del Campo-Santo no aparezca lucero? ni resto alguno y que las sendas se conserven en buen estado y limpias.

20º Deberá verificar cuatro mondas anuales de todo el herval que hubiere en el Cementerio y dentro de los meses Febrero, Mayo, Agosto y Noviembre.

21º No permitirá, á no haber autorización especial para ello, que entren carros en el recinto del Campo-Santo, puesto que la conducción de materiales de construcción deberá hacerse por medio de carros de mano y carretillas, siendo de cuenta del empresario de la obra la reparacion del daño que causaran.

22º Será de su cargo y cuenta del Ayuntamiento tener en buen estado y número suficiente, las palas, picos y azadones; así que el material necesario para cerrar toda clase de sepulturas y hacer todas aquellas reparaciones que por urgentes y de poca

importancia no deban demorarse.

23º No permitirá clavar las cajas de los cadáveres antes de que transcurran 24 horas á la del fallecimiento.

24º Todo cadáver inhumado en terreno comun ó sepultura será cubierto por dos cestos de cal viva y cinco pies de tierra cuando menos, y bien apelmazada.

25º Cada fosa ó sepultura deberá tener siete pies de largo, tres de ancho y seis de profundidad.

26º Los cadáveres que se entierren en urna, nicho ó panteón, irán cubiertos por todas partes de cal viva, sin que se pueda prescindir en ningun caso de levantar el cuerpo para cubrir el fondo de la caja con buena capa de dicha sustancia. Colocado que sea en el panteon ó nicho, se cerrará este herméticamente con tabique de ladrillo a media asta y despues la losa á fin de que no haya salida para los gases, producto de la descomposicion.

27º Todos los objetos que esten en inmediato contacto con el cadáver, y una vez esté en el depósito, como sábanas, almohadas ó enseres?, etc serán tambien enterrados ó se destruiran por el fuego, sin que puedan en ningun caso y por ningun concepto devolverse a los interesados. Con el objeto de que estos no puedan alegar ignorancia acerca de esta disposicion, se pondrá oportunamente en su conocimiento.

28º No se permitiran inhumaciones en panteones de construccion sin previo reconocimiento.

29º En el local destinado al efecto ó huesera se colocaran los restos de cadáveres que esten completamente desprovistos blandas, debiendo volver a la tierra los que no se tal estado. Los restos de ropas no podran en ningun guardarse, quemandolos acto continuo que fueran sacados de los enterrorios?

30º Se cuidará de que dicho depósito esté bien ventilado, y se esparcerá? sobre los restos y con la frecuencia necesaria, la cal suficiente y para que queden cubiertos y desaparezca todo temor de que pueda haber lugar á desarrollarse miasmas.


31º Cuando la cantidad de restos acumulados en el depósito sea considerable, dispondrá se entierren en sitio á proposito y á profundidad tal que queden cubiertos por una capa de tierra de siete pies cuando menos, en la que puedan despues abrirse sepulturas.

Cualquiera infraccion de las reglas espuestas, será motivo bastante para que el Sr. Alcalde destituya al sepultero (sic) ó enterrador.

Lequeitio 22 Mayo de 1.898

Manuel de Garavilla, Juan Antonio Goicoechea, Rafael Achurra y Rafael de Céniga.

Goian bego



Heriotzaren gaineko eliz dokumentuak

Lekeitioko parrokian eta Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboan

Cristina Castillo Pérez

AHEB-BEHA

Itzulpena: Hori-Hori

Eliza bati begiratzen diogunean eraikina ikusten dugu, komunitatean funtzio oso argia duen parrokia, mendetan zehar funtzio hori mantendu duena. Harrizko, kristalezko eta egurrezko presentzia, gure herriaren bizitzarekin batera doana eta ikuspuntu urbanistikotik, sozialetik, kulturaletik, eta bereziki erlijiosotik eta pastoraletik erreferentziatzeko lekua duena.

Hormen barnean artea eta espiritualtasuna nagusitzen dira: erretaulak, kaperak, irudiak, koadroak, apaindura-elementuak, jantziak eta objektu liturgiko sinbolikoak, mendeetan zehar kristau-komunitateak izan duen debozioa eta erlijio-sentimendua islatzen dituztenak. Baina beste ikuspuntu batetik, eliztarrek edo eliza bisitatzeko dutenek gutxitan antzematen duten ikuspuntu horretatik begiratu, beste altxor handi hau gordetzen da bertan: parrokiaren historian zehar metatutako agiriak, paperak eta espedienteak, eguneroko kudeaketa administratiboan sortuak, elizaren funtzio pastoralaren oinarritzko testigu ere badirenak. Pergaminoak, sakramentuzko liburuak, fabrika, eskriturak, testamentuak, erroldak, pietatezko fundazioak, memoriak eta urteurrenak, obra-kontratuak eta konponketak, erosketak, konatuak edo langileria, beste batzuen artean, daude gordeta elizako artxibategian. Hori guztia parrokiaren jardueraren eta bere presentzia pastoralaren, ondareari lotutakoaren eta historikoaren proba bezala.

Parrokiako artxibo horiek, erakunde batek sortutako agiriaren egituratutako funtsak, aldian-aldian elizbarrutiko artxibategietara eramaten dira betirako gordetzeko ondare-althor modura. Hala, ikerketa-iturriak izan daitezke eta gertakari eta eskubideen frogak eta bermeak izango dira.

Orrialde hauetan Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboak eskaintzen duena aurkeztuko dugu eta Lekeitioren buruz dugun artxiboko dokumentazioa azalduko dugu; zehatzago, hemen jorratzen dugun gai monografikoaz ariko gara, heriotzaren gaiaren inguruan, alegia.



AHEB ■ BEHA

ARCHIVO HISTÓRICO
ECLESIAÍSTICO DE BIZKAIA

BIZKAIKO ELIZAREN
HISTORI ARTXIBOA

AHEB-BEHA elizbarrutiko ondare-agirien zaindaria


Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia/ Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa titulartasun pribatuko artxibategia da eta Bilboko elizbarrutiaren menpe dago. 1976an sortu zen. Artxibategi historiko eta administratiboa da, elizbarrutiko zirkuituko piramidearen gailurrean kokatua, eta Artxiboen Elizbarrutiko Zerbitzuak koordinatzen ditu. Elizbarrutiko dokumentazioa zentralizatzeko funtzio garrantzitsua betetzen du, eta Bizkaiko parrokiek gaur egunera arte gorde duten dokumentazio historikoa artatzen du. Elizbarrutiko parrokia eta erakunde guztiak artxibo guztiak edo artxiboen atal batzuk AHEB-BEHARA eraman dituzte egokia edota beharrezkoa dela uste dutenean, batez ere kontserbatzeko edo toki-arrazoiengatik. Funtzak etengabe eskualdatzen direnez, AHEB-BEHA artxibategi bizia da, etengabe gehitzen doazen funtsak dituen. Gaur egun, lau kilometro inguruko apalategien % 90 beteta daude.

AHEB-BEHAK herritarren artean bere funtsak hedatzeko helburu irmoa du, eta horrez gain, Bilboko Gotzaindegia behar informatibo eta dokumentalei irtenbidea eman nahi die, funtzio administratiboko bokazio sendoarekin. Ikerketa Aretorako sarrera librea eta doakoa da, baina hitzordua eskatu behar da aurretik. Hala, AHEB-BEHAko erabiltzaileei bertan gordetako inprima-

kiak, irudi digitalizatuak eta jatorrizko agiriak kontsultatzeko aukera ematen die, betiere horien kontserbazio-egoerak ahalbidetzen duenean eta kasuan kasu ezarritako datuak eskuratzeko arauak errespetatzen direnean, bereziki pertsona bizidunei eragiten dieten agiriei dagokienez. SIGA-AKIS sistemaren bitartez Bizkaiko erregistro sakramentaleko datu-basea kontsultatu daiteke (1501-1900)¹. Hala, pertsona askok erabiltzen dute, bereziki genealogista profesionalak edo interesa dutenek. AHEB-BEHAko katalogo orokorrean eta liburutegi osagarrian ere kontsulta asko egiten dira. Bertako langileen laguntza tekniko eta aholkularitzarekin, online zerbitzuekin eta www.aheb-beha.org webgunearekin errentagarria bihurtzen da ikerketan eta artxibategian igarotako denbora. Modu horretan, pertsona guztiak, jatorria eta prestakuntza kontuan hartu gabe, ikerketa genealogikoa edo familiako historiarena egin dezakete, eta izapide zibilak edo eklesiastikoak egiteko balio frogagarria duten dokumentuak eskuratu ditzakete.

Horrekin guztiarekin, AHEB-BEHARA eta Icaro Zentroko (Artxiboak interpretatzeko zentroa) erakusketa egonkorrera egin daitezkeen bisitekin, tailer telematikoen eta martxan dauden Europako proiektuekin, gure artxibategia elizbarrutiaren administrazioaren zerbitzura dagoen erakundea izateaz gain, kalitatezko jarduera kulturalera zentroa da,

¹ Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko elizbarrutiek Elizaren agiritegi historikoetako sakramentu-erregistroak indizeatzeko eta Interneten jartzeko (2004-2008) sinatu duten lankidetzat-hitzarmenari esker egin da, Euskadi Informazioaren Gizartearen planeko Euskadi 2000Hiru ekimenaren barruan (benetako bateratzea, gizarte kohesioa eta modernizazioa bultzatzeko ekimena).



Zuhaitz genealogikoa, 1888, Orozko. AHEB-BEHA Sig. 3008/003-05

balioak transmititzen dituen. Ondare dokumentala kontserbatzeko dugun konpromisoa betetzeko artxiboak modu integralean antolatzeko irtenbideak eskaintzen ditugu, eta hala, elizbarrutiarentzat eta Bizkaiko historiarentzat oso interesgarriak eta garrantzitsuak diren proiektuak gauzatu ditugu, besteak beste Artxibategi Historikoa eta Euskal Elizbarrutiko Misioen Ordezkaritzaren Artxibategia sortzea, Berrizko eta Markinako komentuetako (biak ere aberastasun apartekoak) Berrizko Mesedetako Misiolarien Artxibategia sortzea edo Durango-ko Klaratarrena, oraintsu eskualdatu dena.

Lekeitioko parrokia-artxiboaren funtsa AHEB-BEHAN.

Lekeitioko hiribildua zentro ekonomiko eta komertzial garrantzitsua izan zen Behe Erdi Arotik aurrera. Itsasoa eta arrantza, lurrak eta mendiak, errotak eta burdinolak, Sevilla, Flandria, Amerika eta Iparraldeko itsasoa, leinuak, lekaioak, doilorkeria eta abentura... Aro Modernoan zehar eta XIX. mende ia bukaerara arte Bizkaiko bigarren porturik garrantzitsuen izan zen.

Parrokiak (basilika 1884tik) hiribilduaren eta beraren jardueraren garrantzia islatzen ditu, eta denak ere dokumentuetan ageri dira. Goi Erdi Aroan, XIII. mendean sortu zutenetik, Andra Maria edo Lekeitioko Ama Birjinaren Zeruratzea inguruko udalerrietako parrokiako erdigunea zen, besteak beste Mendexako, Amoroetako, Gizaburuagako eta Ispasterko parrokiak. Andre Mariaren Kabiloan Ea-Bedaronako Pedro Deunaren parrokia eta Amoroetako San Martin parrokiaren zenbait etxe, Ispasterko San Miguel Goiaingeruko parrokia eta Mendexako Pedro Deunaren parrokia ere biltzen ziren. Lekeitioko elizaren menpe zeuden baita ere zenbait ermita, besteak beste San Juan Ebanjelista (San Juan Talako esaten zaiona) talaian; Santa Elena eta San Roke edo Gurutzetakoa, eta Pietatearen Kristo Santua, herritarrek Piela edo Aitta Piel esaten diotena, biak ere alde zaharreak; Azurtuako Andra Maria Magdalena, Madalena, Arropain auzoan (bertatik prozesioan joaten ziren hiribilduan alkate berriak jartzen zirenean); Santa Katalina, Antzorizko puntan kokatuta, hondatuta dagoena edo San Nikolas (jada desagertua), izen bereko irlan, jatorriz Garraiz izenekoan.²

Juan Ramón de Yturriza y Garate Zabalen Historia General de Vizcaya liburuaren eskuz idatzitako kopia bat kontserbatzen da AHEB-BEHAN eta 1786. urtean honela definitu zuten Lekeitio:

“Lequeitio: Ala Puebla de Lequeitio dio fueros de Villa D^a M^a Diaz de Aro Señora de Vizcaya en Paredes de Naba en 3 de Noviembre de 1325. Ay una Parroquia dedicada a Santa Maria y según tradición consagrada año de 1289 es servida de quince Beneficiados. Ay siete Hermitas dedicadas a Santa Elena, San Roque, San Nicolas, Sto Christo de la Piedad y las dos restantes a San Juan Baupta Evangelista un Combento

² ARREGUI AZPEITIA, Gurutzi, *Ermitas de Bizkaia*, I. liburukia, 241-253.or.

*de Religiosas Dominicadas dotado el año de 1368 por D^a Juana Viuda de Martin, Mar Martinez de Zallo vecino de Bermeo, que tubo principio en Beatorio en tiempo que bibia el Patriarca Sto Domingo hubo un Colegio de Jesuita fundado por el Capn Dn Jh de Mendiola y D^a Maria Perez de Begolea en 25 de Dizre. de 1688. pero oy en dia sirve de ayuda de Parroquia con el titulo de San Josef El Real. 1887 Almas de Comunión trescientas veinte y quatro casas parroquianas dos Ferrerías seis Molinos 27 Chalupas 230 fogueras y un Magnifico puente de un arco de 149 ½ pies Diametro llamado de Yzunza fue delineado el año 1774 por el Yngeniero de los Reales Exercitos el Br Dn Joseph Santos Calderon y costo 6000 Ducados”.*³

Lekeitioko Andra Mariaren Zeruratzea parrokiaren sortutako agiriak 1334tik gaur egunera artekoak dira. Funtsoaren barnean, parrokiako funts gehienetan ohikoak diren atal eta sortez gain (nagusiki sakramentuen administrazioei buruzkoak, 1513-1939), parrokiako kudeaketaren eta ikerketa historikoaren ikuspegitik oso interesgarriak diren beste batzuk nabarmendu behar dira. Adibidez, denboran izan zuten garrantzia eta jarraikotasunagatik Fabrika atalaren barnean (1511-1971) dokumentazioa ekonomikoa eta administratiboa aipatu ditzakegu. Horren barne daude ondasun eta errentekin, aktekin, erroldekin, hamarrenekin, inbentarioekin eta bisitekin lotutako dokumentuak dituztenak; Kofradia eta Elkarteen sortak (1616-1972), besteak beste Vera Cruz-en kofradia, Bakardadearen kofradia eta Berpizkundearen kofradia; Kabilo Eklesiastikoaren dokumentazioa (1334-1946), ordenantza, auzi- eta elkartasun-sortekin, kontuak, testamentuak, sortzeak edo errentak; buldak, brebeak, errege zedulak eta eliza gairako erakundeetan jatorria duten elkartasun-itunak besteak beste Vatikanoko, Gotzaindegia, artzapez-barrutiak, Koroia, Estatua edo udala, beste dokumentazio batzuen artean (1334-1943).⁴ Katalogatutako Lekeitioko funtsaren barne daude baita ere hamahiru pergamino (1334-1772), nagusiki Ka-

³ YTURRIZA Y GARATE ZABALA, Juan Ramón, “Capítulo quinto y último donde se refieren las fundaciones de las Ciudades y Villas de Vizcaya, Historia General de Vizcaya [...], [1786], Historia General de Vizcaya, eskuz idatzitako kopia, AHEB-BEHA, 62.orr, ES/AHEB-BEHA/(1674/002-00)

⁴ Lekeitioko Andra Mariaren Zeruratzearen parrokiako funtsa linean kontsultatu daiteke AHEB-BEHAREN webgunean: http://internet.aheb-beha.org/paginas/catalogacion/pdfs/AHEB_F006228.pdf



Alfonso XI.aren zigilua. 1334, Lekeitio. AHEB-BEHA Sig. P001/000-00

bildo Eklesiastikoaren auziekin lotuak, onuren-gatik edo Kurian edo Erregean jatorria duten hamarregatik.⁵ Pergamino musikalak, antifonario eta kyrialeko atalak (XVI-XVII. mendeak) eta hitzaldi liturgiko moralen eta euskarako sermoien sorta interesgarri bat (1782-1840). Hala, parrokiak funtzionatzen eta bere jarduera gauzatzen jarraitzen zuen heinean, dokumentazioa sortuz joan zen. Bere parrokia-artxiboa bizia eta dinamikoa da, eta AHEB-BEHARA eskualdatzen jarraituko du, non jada gordeta dauden funtsen deskribapenean eta hedapenean sakontzen ari garen.

⁵ Horren adibidea dugu Alfontso XI.aren bitxi hau: berunez zigitatutako eskutitz bat, Erregearen (eserita eta zaldian) 55 milimetrotako berunezko zigitu zoragarria daukana, horren bitartez Bizkaiko mailegatzaile Ladrón de Guevarari agindu zion Gonzalo Ibañez de Aranzuviari itzularazteko Amoroetako, Ispasterko, Gardatako eta Asumendiko mendietxeetatik eraman zituen hamarrenek, Lekeitioko Andra Mariaren Kabiloarenak baitziren [ES/AHEB-BEHA/F006.228(P001/000-00)]. Agiri hau Lekeitioko hiribilduko kontzejak Lekeitioko Andra Mariako Kabiloko elizgizonen aurka egindako kexaren ondorioz hasi zen auzikoa da; auziaren sorburua izan zen elizgizonen ez zetela nahi izan inguruko basozainak elizan lurperatzerik, ez haien aldeko mezarik esan. Elizgizonen arazoia zen beren hamarrenek partikular batek jaso zituela, Gonzalo Ibañez de Aranzuviak, Kabilotik kanpokoak. Egoera horren aurrean, Erregeak mailegatzaileari agindu zion partikularri itzularazteko Kabiloaren hamarrenek. Gainera, AHEB-BEHAN badago pribilegio bat, Burgosen egina 1372ko urtarrilaren 27an, auzi horri buruzkoa, eta auzian eman zen epaia ere badago, Palentzian emana 1377ko abenduaren 8an, biak ere Lekeitioko funtsean.



Lekeitioko Andra Mari Zeruratzaren basilika
Argazkia: Kiñuka

Zenbait agiri eklesiastiko eta heriotza


Aurretik aipatu dugun dokumentazio guztitik (Andra Mariaren Zeruratzeko funtsa osatzen dutenetatik) ikerketan erabiltzeko lehendabiziko iturri moduan gehien erabili diren sortak "Sakramentuen Administrazioarenak" dira. Trentoko Kontzilioko (1545-1563) xedapenetan ezarri zen administratutako sakramentuen erregistroak idatziz egin behar zirela: jaiotzen diren guztiak bataiatu behar dira; ezkontzen baldin badira, ezkontza erregistratu behar da; eta hiltzen baldin badira, hileta jaso behar da idatziz. Bizkaian Trentoren aurreko liburu sakramentalak ere baditugu, eta kontserbatutako lehenengo bataiatuen liburua Zeauri-Ipiñaburuko Santiago Apostoluaren parrokiakoa da.⁶ Lekeitiori dagokionez, Trento aurreko bataio-erregistroak ditugu, 1513tik aurrerakoak, 1565etik aurrera ezkontzetakoak eta 1610etik aurrera hildakoenak. Oinarrizko hiru sorta hauek elizbarrutiko artxiboetan sorta historiko oinarrizkoak dira: demografiari edo historia sozialari buruzko ikerketarentzat hainbat datu kualitatibo eta kuantitatibo eskaintzen dituzte, eta genealogistei eta erabiltzaileei azterketa genealogikoak edo familiako historiari lotutakoak egiteko aukera eskaintzen die, filiazioa, leinua, jaiotze eta bizitze lekuak, lanbideak, egoera zibila, hiltzeko arrazoiak edo arbasoen lurperatze-lekuak jakiteko aukerarekin.

Sakramentu bakoitzak datuen nukleo komun bat eskaintzen du, baina beraien artean desberdintasun interesgarriak ere badaude, pertsona bati eta beraren bizitzari eta familia eta gizarte inguruari buruzko informazio aberasgarria ematen dutenak. Desberdintasunak erregistroen antzinakotasunaren arabera dira, batik bat, erregistroen formatua aldatu egin da eta mendeetan zehar; gainera, parrokiak bakoitzeko parrokiaren azturek eta emandako datuek ere badute eragina. Egiatzatu ahal izan dugu sortak oso laburrak izan zirela XVI. mendean. Lekeition hildakoei buruzko lehenengo erreferentzia 1610eko hildakoei buruzko memoria bat izan da,⁷ eta ondoren, mendeek aurrera egin ahala, datuak eta formulismoak gehitzen joan dira. XIX. mendean zehatzago eta zorrotzago arautu ziren erregistro sakramentalak inprimaki sinodalen bitartez. Nagusiki zaintza orrialdeetan edo formatu handiko liburu sakramentalen aurreko orrialdeetan atxikitzen ziren, eta erregistro sakramental guztiak idazteko oinarria ziren. Hala, bataioen, ezkontzen eta heriotzen erregistroek egitura hori errespetatu behar zuten, eta datu guztiak jarri behar zituzten, jakinez gero.

⁶ ES/AHEB-BEHA/F006.326(1787/005-01)

⁷ ES/AHEB-BEHA/F006.228(2489/002-04), 011. folioa, atz.





Constituciones Sinodales del Obispado de Calahorra y La Calzada, 1698. AHEB-BEHA

Heriotzaren inguruko ohiturak oso araututa zituzten elizako agintaritzek XVI. mendetik aurrera, eta halaxe adierazten dute Konstituzio Sinodaleko hainbat artikuluk.⁹ Artikulu horien helburua parrokiaren inguruko eta parrokiaren bizitzari eragiten zion guztiarekiko parrokiarren eta apaizen jarduketak arautzea zen. Konstituzio horiek elizbarrutiaren ordenantzak edo estatutuak ziren gobernuarentzat, eta horien helburua “arimen gobernu espirituala eta elizen eta bere norbanakoen gobernu politiko-ekonomikoa” bermatzea zen.¹⁰ Elizbarrutieta-

ko apezpikuek parrokiaren funtzioak arautzeko ahalegin handiak egiten zituzten, forma eta errealtate hutsuneak egiaztzeko, lurraldeetan zehar bisitak eginez, eta kleroaren eta eliztarren arteko desadostasunak zuzentzeko. Heriotzaren gai ezin saihestuzkoa jorrazteko jarraibideak eta arauak legezztatzen eta ezartzen zituzten: ehorzketak eta hileta-elizkizunak nola eta non egin behar ziren, eta zenbat kobratu behar zuten hileta-elizkizunen eta hil-hurrekoen zaintzaren ardua zuten apaizek. AHEB-BEHAn Konstituzio Sinodal horien zenbait liburu zoragarri kontserbatzen ditugu (parrokietako liburategietatik edo artxiboe-tatik iritsi zaizkigunak), eta horiek garai hartako usadio eta ohiturei buruzko informazioa ematen digute, baita gehiegikeriak zuzentzeari buruzko informazioa ere. Parrokietako liburuetan heriotzaren aurreko ohiturak ere islatzen dira. Adibidez, Lekeitioko Andra Mariaren Zeruratzea parrokiako hildakoen jato-

⁹ *Constituciones synodales, antiguas, y modernas del Obispado de Calahorra, y La Calzada. Reconocidas, reformadas, y avmentadas novissimamente por el Ilustrissimo Sor D. Pedro de Lepe Obispo deste Obispado, del Consejo de Sv Magestad, & c. en el synodo diocesano, que celebró en la ciudad de Logroño, en el año de mil y seiscientos y noventa y ocho. Con privilegio. Madril. Antonio Gonzalez de Reyes, Año de 1700. 790 or. + [86] aurkibideetan.*

¹⁰ ALONSO PERUJO, Niceto, *Diccionario de Ciencias Eclesiásticas*. Hirugarren liburukia, 189. or.

rrizko erregistro-liburuan ohar bat daukagu; bertan hiribilduko emakumeei debekatu egiten zitzaizen abestiak “*ni otras cosas profanas*” abestea lurperatzeetan eta hiletetan, “*porque perturba a los sacerdotes en sus oficios divinos y a los seglares en la devoción de ellos*”.¹¹

Betiko bizitzara igarotzea modu sekularrean ere arautzen zuen Elizak. Oleazioa ekintza liturgikoa da, Elizak bizitzaren eta heriotzaren arteko zubizat eskaintzen duena, heriotzatik hurbil daudenak lasaitzeko eta Jaungoikoarekin elkartzeko prestatzeko. Sakramentua apaiz batek eman behar da: “*por medio de las unciones sagradas, hechas con aceite de oliva debidamente bendecido y pronunciando las palabras prescritas en los libros rituales aprobados por la Iglesia*”.¹²

¹¹ ES/AHEB-BEHA/F006.228(2513/001-03), Sig. Dig. 251300103-0011/012, 011. folioa, aurr. eta atz.

¹² *Código de Derecho Canónico, Libro III, Parte I, Título V. De la extremaunción, 348-350 or.; Código de Derecho Canóni-*

AHEB-BEHAn oliaduren erregistro-liburu bakarra daukagu, modernoa, Bilboko Bari San Nikolas parrokiakoa, 1930-1966 aldirako¹³ Erregistro horietan erregistro-data, pertsonaren identifikazio-helbidea, emandako sakramentuak, sakramentuak eman dituen apaiza, hiltze-eguna eta gainerako oharra daude jasota.

Elizako lur ematean hilotza elizara eramaten da, bere aurrean egiten dira hil-elizkizunak edo hiletak, eta lur emateko legez ezarritako leku sakratuan ehorzten da, tenpluen barnean

co [1983], *Libro IV, Parte I, Título V. Del Sacramento de la Unción de los enfermos, cánones 998-1007, 447-449 or.; Derecho parroquial: Guía canónica y pastoral, 376-384 or.*

¹³ http://internet.aheb-beha.org/paginas/catalogacion/n_ficha_catalogo.php?id_catalogo=13971.

edo kanpoan. Jarduera horren ondorioz hainbat dokumentazio sortu zen, hilerriaren eraikitze, mantenu eta handitzearekin, mugarriztatzeekin, lurperatze-eskubideekin, kontuekin, hilobi-enkanteekin eta kexeekin lotura zuena. Lekeitioko funtsetik, adibidez, hildakoen 1. liburuan aurkitutako berri bat hautatu genuen. Berri hori, 1737ko urriaren 4an “San Francisco” izeneko ontzia Pasaiaiko portuko sarreran hondoratu zen pasarteari buruzkoa da. Bertan 79 gizon zeuden, eta horietariko 21 lekeitiarrak ziren.¹⁴ Horrez gain, XV. mendeko errege epaiak eta zedulak ere hautatu genituen, ehorzketa-eskubideak eta baimenak arautzen zituztenak, edo Lekeitioko Andra Mariaren

¹⁴ ES/AHEB-BEHA/F006.228(2505/002-00), 022. folioa, aurr. eta atz.

Zeruratzea parrokiako hilobien plano zoragarria, 1864koa.¹⁵

Zuzenbide Kanonikoko Kodeak eta Elizako Zuzenbideak, nola ez, eliztarren lurreko bizitzaren azken puntua xehetasunez arautzen dute.¹⁶ Adibidez, 1917ko Kodean errausketa gaitzetsi zuten; 1983koan, aldiz, aldi berrietara eta Vatikanoko II. kontziliara egokitu beharrez, indar handiz aholkatu zen hildakoen gorpuak lurperatzeko ohitura mantentzea, baina ez zen debekatzeko, baldin eta errauste-

¹⁵ ES/AHEB-BEHA/F006.228(7433/001-01).

¹⁶ *Código de Derecho Canónico [1917], Libro III, Parte II, Sección I, Título XII. De la sepultura eclesiástica, cánones 1203-1242, 450-466 or.; Código de Derecho Canónico [1983], Libro IV, Parte II, Título III. De las exequias eclesiásticas, cánones 1176-1185, 517-520 or.; Derecho parroquial: Guía canónica y pastoral, 407. or.*



Constituciones Sinodales. Tabla de títulos o índice, 1698, AHEB-BEHA

ko arrazoa doktrina kristauaren aurkakoa ez bazen. Elizak hilerri propioak edukitzeko eta atalak, lur-zatiak edo hilobiak erabili eta bedeinkatzeko duen eskubidearen inguruko kanonak daude, udal hilerriei dagokienez; hilerrien zainketa eta begirunea; apaingarriak eta kaperak; hiletengatiko zergak eta hiletak, bakoitzaren eskubideak ezarri kasuen arabera; hileta-motak aukeratzea; txiro nabarmenei ehorzketak doan egitea; eta dagokion inprimaki sinodalaren zuzentzarauak jarraituz liburu sakramentalean izena ematea. Kasuak askotarikoak dira. Horrenbestez, Konstituzioak eta Zuzenbide Kanonikoa oinarritzko beste tresna batzuk dira parrokiaren bizitzari eragiten zion edozein alderdiri testuingurua emateko, eta horrenbestez, herriaren bizitzari ere bai.

Amaiera

Heriotzaren gaia arautzen edo aipatzen duten parrokiak –edo eliza– dokumentu gehiago daude: tarifikazartzea, estola-eskubideak eta hileta-motak; urteurrenak edo mezen memoriak, fabrikarako diru-sarrerak eta hildakoarentzat oroitzapenak direnak; hilerriak, hilobiak eta panteoiak kudeatzea; parrokiako estatistikak, hilerrien egoera egiaztatzeke atal batekin; kanposantuetako titulartasuna parrokiatik udalera pasatzea... Agiri administratibo eta elizako mota askotako agiriak, bizitzaren zirkulua eta igarotzea erregistratzen zutenak, bataiotik hasi eta ehorzketara arte.

BIBLIOGRAFIA

ZZ.EE., *Colección documental del Archivo Municipal de Lekeitio*, II. liburukia. (1475-1795), Donostia : Eusko Ikaskuntza, DL 1992

ARREGUI AZPEITIA, Gurutzi, *Eremitas de Bizkaia*, I. liburukia, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia : Labayru Ikastegia, 1987

Código de Derecho Canónico [1917], Madril :BAC, 1954

Código de Derecho Canónico [1983], Madril :BAC, 1999

SAN JOSÉ PRISCO, José, *Derecho parroquial : Guía canónica y pastoral*, Salamanca : Sígueme, 2008

JIMENEZ SÁNCHEZ, José Manuel, *Lekeitio: Estudio Histórico-Artístico*, Bilbo : Bizkaiko Foru Aldundia, DL 2003

ALONSO PERUJO, Niceto, *Diccionario de ciencias eclesiásticas*, Tomo tercero, Bartzelona : Librería de Subirana Hermanos, 1885

PRADO ANTUNEZ, Ana Isabel, *Lekeitio: Estudio Histórico-Artístico*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, DL 2004

YTURRIZA Y GARATE ZABALA, Juan Ramón, *Capítulo quinto y último donde se refieren las fundaciones de las Ciudades y Villas de Vizcaya, Historia General de Vizcaya [...]*, [1786], *Historia General de Vizcaya*, Idatzizko kopia, ES/AHEB-BEHA/(1674/002-00)

107 urteko emakumea

En diez y siete de Agosto de mil setecientos y teinta y siete años Marina de Beytia de edad de ciento y siete años cumplidos recibió los santos sacramentos, no testó ni dexó bienes algunos; firme ut supra
Ziloniz

Terranoban hildakoa

En diez y siete de Septiembre de mil setecientos y treinta y siete vino la noticia de aver muerto en el viage de Ballenas Domingo de Carreras, el mismo dia se dio principio a sus exequias por horden de Maria de Azterrica porque el difunto no dejó bienes y para que conste firme ut supra= entre XXX= Domingo de Carreras valga


Pasaian hildakoak

En nueve de Octubre de Mil setecientos y treinta y siete años vino la noticia de aver padecido naufragio el dia quatro del presente mes y año a la entrada del puerto de los Pasages el nabío llamado San Francisco con setenta y nueve hombres de tripulación y entre ellos veinte y uno de este puerto que son los siguientes

Domingo de Ynsausti marido de Osana de Licona- cumplido
Eta Diego de Allona alarguna, Baptista Lezamiz Osana Gorosarriren senarra, Ignacio Aqueregui Antonia Arancibiaren senarra, Juan Tellaecha Nicola Tellaechaeren semea, Juan Sugadi Ana Elemendiren senarra, Juan Elemendi Franciscoren semea, Domingo Marquez Antonioreen semea, Nicolas Amesti Magdalena Aguirereren senarra, Agustin Mendiguren Jacoboren semea, Pedro Beytia Ana Sugadiren senarra, Domingo Zavala Antonia Navalesen senarra, Antonio Navales San Juan Navalesen semea, Simon Sugadi Antonia Galdizen senarra, Domingo Goyo Cathalina Uscolaren senarra, Gregorio Orañegui Ana Maria Aranaren senarra, Ignacio Aguirre Ysabela Aquerreguiren senarra, Simon Arana Ana Carreraren senarra, Agustin Navales Cecilia Larizen senarra Juan Goytia Francisco eta Maria Amanreguiren semea eta Miguel Bizcarra Maria Garateren senarra
[...] *Por todos los dichos veinte y uno difuntos han dado principio las exequias acostumbradas las partes interesadas y para que conste de ellos firma ut supra= Don Andres de Ziloniz*



Libro nº1 de registros originales de difuntos de la parroquia de la Asunción de Nuestra Señora de Lekeitio. 1722 - 1776. AHEB-BEHA. Sig.(2505/002-00)



Marina Matusalen baino zaharrago zan, 107 urte !!! Marina Beitia Algorta 1630eko zereilaren 28an jaiotzen eta hil 1737ko azarorrilaren 17an!



THE STRAND MAGAZINE



SHERLOCK HOLMES RETURNS Ipastarreko hilketak

BY AITOR ITURBE
Illustrated by Jon Zubiaur



pister bertakoentzak, Ipastar lekeitiarrontzat herri polit eta baketsua da, idilikoa eraikin berri horiengatik ez balitz, baina beti ez zen hala izan. Polita lehen ere izango zen, baina baketsua... Hamarraldi bitan, hiru hilketak sonatu gertatu ziren (eta beste bat lehentxoago). Lau erahilketa harritzeko marka bada, harritzekoagoa da denak inguru edo paraje antzekoan gertatu izana. Epi-zentroa Hirukurtzietan zegoen. Bideak, Ispasterrekoa behintzat, mortalak ziren. Homo homini lupus! Gizakia gizakiarentzat otsoa omen da. Gure otsoek euskaraz zekiten, etxeok ziren.

Lau erahilketa eta lau epaietak askotarako ematen dute, santuena ere aspertzeko beste. Nik, zer erremedio, legajo eta dokumentu denak

irakurri behar izan ditut eta ordenagailuan geratu da saiakera potoloren bat den-dena zehatz mehatz azalduz, behintzat lantxo hau idazteko balio izan digutenak, baina nahiago izan dut, zuon (zori) onerako eta, zergatik ez, neurerako, artikulua "arinagoa" (ezen ez friboloa) idatzi, arreta ikerketa arloan ipini eta detektibe lana bete, Sherlock Holmes eta Watson doktorea gogoan.

Badaezpada, puntalakurloei aurrea hartzea alferrikakoa den arren, esan, ez dela izan artikulua honen asmoa auziak eta sententziak zuzentzea, ez naizelako ez epailea ez historia-fikzio zalea. Esan berriro, gertatu zenari beste bueltatxo bat eman nahi izan diodala (deabruaren abokatuaren papera hartuz, akaso) eta bide batez garai hura (gizartea, krimenak, justizia...) zuoi erakutsi.

Has gaitzean, arina izango dela promestu dut, lehenengo erahilketarekin.

CHAPTER I • HATE: Martin Uriarteren heriotza

Martinen heriotzak (urriak 21, 1725) hasteko ez du inolongo misteriorik. Dena egin zen egin behar zen legez. Ispasterreko agintariak, fialak deitzen ziren orduan, hilketaren berri eman zioten korrejidorearen tenienteari eta ikerketa hasi zen. Ganoraz egin zuten lana: derrigorrezkoa zen itzultzailea aukeratu zuten euskaraz bakarrik zekitelako testigu eta akusatuek, gero zirujauak gorpua aztertu zuen lurperatu baino lehen eta azkenik testigantzak etorri ziren.

Ez zen gehiegirik ikertu behar izan segituan ezagutu izan zirelako hiltzaileak. Martin kolpeka hil zuten, baina ez zuten egurtu bera bakarrik, berarekin zihoazen beste bi gazte ere jipoitu zituzten. Bi horien testigantza ezeztazina zen. Ispasterrekoak ziren erasotzaileak, batzuk gainera, nahiz eta gaua izan, identifikatu egin zituzten. Jakina, hiltzaileek ihes egin zuten arren, justizia ez zen geldituko. Gizon gaztea hil zuten kolpeka, ziurrenik heriotz zigorrari aurre egin beharko zioten.

Bada, ez zen halakorik gertatu, Martin Uriarteren alargunak barkatu egin zien eta gure foru-legediaren arabera epaia bertan behera gelditu zen. Ulergaitza dirudi alargunaren portaera, baina ez zen konponbide txarra. Eginga eginda zegoen, senarra ez zen bueltatuko eta semetxoaz hazi behar zen. Gainera pariente eta herritar asko zeudenez zikinduta, hobe zen akordio egokia lortzea: *“entre los dichos culpados havia primo y parientes del dicho Martin y que su muerte subcederia con algun descuido, sin animo, ni rencor de matarle por medio de sacerdotes y personas principales deudos y amigos que han ynterbenido, y por que Dios nuestro señor manda perdonar a los enemigos estan determinados de hazer relajazion y desistimiento de dichas acciones, mediante la obligazion que han de hazer de entregar a la dicha Ana de Miriategui duzientos ducados de vellon, para alimentos de un hijo suyo y del dicho su marido llamado Diego de edad de siete meses, dentro de un año...”*. Berrehun dukat balio izan zuen Martinen heriotzak!

Berrehun dukat gehi hileta eta mezak, medikua eta zirujaua, eta teniente generalaren gastuak, guztira 4.237 erreal. Zuritzeko erasotzaileek urte bat herritik kanpo egin behar izan zuten. Hori mauka!



⚡ Miauka entzun dot? Ez dot nahi, iparraldekuak esaten dabenen moduan, finolatu, baina nire ustez ez zan ondo ikertu. Deskuiduan, nahi barik hil ebela sinistria kosta egiten jat “su muerte subcederia con algun descuido, sin animo, ni rencor de matarle”. Ilun egoala badakigu, baina ez ziran ez itsuak ezta gorrak be. Simon Bengoetxeak erasotzaile biak eta inguruan egoazan beste hiru pertsona ezaqutu ebazan. Alboko herrikuak izanda zelan ez ziran alkar ezaqutuko ba? Zirujauak aztertu eban gorpua hil aurretik: *“... bio que junto al hueso petoso de la caveza al lado derecho cerca de la sien, algo mas arriba tenia una contusion que llaman equimosis, y en el omoplato de la parte ysqquierda otra magullazion echa con instrumento magullante y sobre el hombligo a la parte derecha otro golpe de patada al parecer, y la bolsa y testiculos ensangrentados y enegrezidos por la joagulazion (sic) de la sangre; asi bien echa de patada; y de la misma suerte sobre el empeñe? y bejisa... se podia presumir, la tenia rota...”*. Deskuiduan? Baina alargunak partatu baebazan, nor naz ni horrek kondenateto!

Xerloek nik baino gehiago daki eta agian arrazoia du, baina nik sinistu nahi dut Ispasterrekoak erratu egin zirela, beste batzuk egurtzen ari zirela pentsatu zutela.

Hala ere, egia da baita ere, nahita ala deskuiduan izan, gizona hil zutela eta Martin barik Juan Iguarriza deitu izanak ez zuela ezer aldatuko. Preseski Juan Iguarriza gizaburutarren hitzek zertxobait laguntzen digute: *“aunque con el declarante y Pedro de Yguarriza su hermano armo pendenza el dicho Martin de Uriarte y Zarandona la noche de Santa Ana en esta dicha anteyglesia de yzpaster estando echando un trago con dos hombres de hereño y le tiro con el jarro que tenia en la mano por haverle provocado dandole un cachete en el ojo y al declarante agarrandole por dos veces de los cabellos y dandole diferentes golpes... y aunque no ha sido amenazado el declarante ni su hermano por el dicho Martin de Zarandona de benganza, ni desafiado para riña, le ha dicho Miguel de Alberro zirujano vezino de la villa de Lequeitio que pareziendoles ser el declarante y dicho su hermano Pedro, executaron la muerte de dicho Martin y los golpes de dicho Simon; Y tambien le a dicho Cathalina de Muguertegui madre del susodicho que el dicho Martin de Uriarte Zarandona se ha declarado a Maria de Uriarte... que la muerte del dicho Martin de Uriarte su primo havia executado pareziendo hera el declarante...”*. Herrien arteko liskarrak, kirol nazionala! Baliteke deskuiduan izatea. Ez du ematen inor, gutxiago lehengusua, hiltzeko asmorik izan zutenik. Gainera Hirukurtzieta parajean egurtu zuten eta Arbiondo baserrian amaitu zuen seguruenik baten batek damututa lagunduko ziolako.



Erabilitako dokumentuak
 BFAH, Notariala, Lequeitio, N0452/(265/266/267), 1725
 BFAH, Notariala, Lequeitio, N0454/(0010/11/12/13/14/58/59/71), 1727
 BFAH, Judiziala, Teniente generala, Kriminala, JTB0907/007, 1725



CHAPTER II • GREED: Miguel Urkizaren heriotza (irailak 29, 1755)

Nahiz eta hasiera-hasieratik ezagutzen zen “ustezko” hiltzailea, prozesu judizial luze, korapilotsu eta tarteka iluna hasi barik zegoen hiru aste geroago.

 Ondik burukomina dauko honak!

Miguel irailaren 29an egurtu zuten, urriaren 10ean hil zen eta urriaren 19an jakinarazi zioten teniente generalari, denbora demasa hiltzaileak trankil-trankil ospa egiteko. Fielak kartzelarekin ordainduko zuen, baina (hau Xerloken eta bion ustea da) “ustezko” hiltzaileak eta konplizeak urregorritzko denbora irabazi zuten; izan ere, laguntzaileak alde egin zuen. Berriro ere, badirudi herritarrek elkar babesten ari zirela.



Denak ziren Ispasterrekoak, hildakoa eta bi hiltzaileak, baita testigu gehienak ere. Hainbat leku-kok (30etik gora!) eman zuten testigantza eta ordu, leku eta distantzia parasmametxa horretatik ustegabeen (ala ez) salbu atera zen “ustezko” hiltzailea. Ustegabeen, defuntuak hiltzailea identifikatu zuelako eta hiltzailearen testigantza kontraesanek eta konplizearen ihesak hala iragartzen zutelako. Baina abokatu defentsariaren abilezia eta fiskalaren dorpeziak ezusteko hori posible egin zuten. Zorte handia izan zuen Domingo Goyok (hala deitzen zen ustezko hiltzailea) abokatu kuradorearekin. Abokatu eta kuradorea Domingo juridikoki gaztea zelako (25 urtetik beherakoa).

Testigu apraposak lortu zituen eta defentsa bikaina erakutsi zuen. Ostera, fiskalak (promotor fiscal) ez zuen bere lana ondo bete; egia esan, ez zuen laguntzarik aurkitu, defuntuaren emazteak eta semeek ere lepoa eman zioten errudunak barkatu zituztenean. Zer egingo zuen fiskalak horren aurrean?

Bai, oraingoan ere, familiaren barkamena lortu zuen hiltzaileak, izana izan, baina fiskalak lapurreta ere egon zenez ez zuen auzia amaitutzat eman. Alferrik izango zen!



AUZIA

Legajo edo zati biz osatuta dago auzia, eta lehen zatia irakurtzen duenak ez du dudarik Domingo Goio kondenatuko dutela nahiz eta azken momentuan defuntuaren familiaren barkamenak eta Juan Bollar eta Maria Iturraldearen testigantzek zalantzaren bat sortu.


Lehenengo zatia (primera pieza)

Juan Aguirre Solarteren hitzak erabiliko ditugu, Migueli entzundakoak, jakiteko zer gertatu zen: “... que la cittada noche del dia del Señor San Miguel proximo pasado yendo desde la la funcion de danzas que hubo aquella ttarde junto a la Parroquia desta Republica para su casa, en dicho Robledal de Gazetta camino real, (sin que pudiese dezir si le siguieron detras, ó le hubiesen aguardado) le acometieron dos con palos, y sacudiendole reciamente en su cuerpo le havian ttendido al suelo, donde le dieron de pattadas y por quanto havia conozido a Domingo de Goyo mozo soltero natural desta Antte Yglesia aunque no al otro su compañero le (APURTUTA) a aquel, que le dexase con vida siquiera para confesarse llamandole con su nombre; a que le havia respondido dicho Domingo me conozes? y dichole el expresado Miguel que si bolbio a dezir que no le conozeria mañana; y a este ttiempo le havia repetido los golpes con palo, el expresado Domingo; y por quanto el expresado Miguel se fingio de muerto no ablando palabra alguna, el ttal compañero inconitto le havia dicho al cittado Domingo que le dexase pues le sacudio basttantte; y que en este lanze le quittaa-ron ambos, un pañuelo de seda, un cuchillo de faltriquera y algunos dineros...”.

Miguelek behin eta berriro errepikatu zuen gauza bera; gezurretan ibiliko zen hilzorian zegoen gizona? Hildakoaren plantak egin zituelako, bestela bertan akabatuko zuten! Hala ere handik gutxira hil zen mediku eta zirujauaren eginahalak gorabehera. Zabala zirujaua ahalegindu zen baina...

ZIRU JAUAREN TXOSTENA

“... hallo que todo el lado derecho, tenía contuso, y fracturado dos o tres costillas, y junttamente, el brazo izquierdo magullado barios golpes en el otro brazo, y en diferentes partes de su cuerpo, que a su parecer, sin menor duda, fueron echas de mano airada, palo o instrumento, conttundente y haviendole echo seys sangrias, untturas, y otros remedios que pide la Arte, no se sinttio mejoria ninguna, y haviendose seguido una inflamacion innterna, y de ella delirio grande, fallezio...”. Eta hori jakinda Juan Agirre Solartek ez zuen ezer egin! Harrigarria!

 Juan Agirre Solarte fielaren ezjakitiak (ala lar jakitiak?) “... ignorar como rusttico Labrador el que esttubiese precisado ni obligado a dar parte a los Señores Jueces...” dana izorratu eban... Rusttico Labrador! Ez eukan, ez, loba Benturaren antzik, ha ministrora be heldu zan gero! Horren erruz ez zan jakin eta ez dakigu benetan zer pasa zan. Nori jakon komeni hori? CUI BONO? Portzieto zer deritzozue difuntuaren familiaren ziabogiari? Isuntzakuak bez! Holako markarik, aitta gizajuak burua alza baeban!

Testigu guztiak errepikatu zuten goian esandakoa, baina kantitatea baino hobea omen da kalitatea. Fiskala ez zen konturatu (ziurrenik bai, baina...) testigu guztiak entzundakoa errepikatzen ari zirela eta batzuk gainera entzun zutenari entzundakoa eta abar. Nahikoa zen Miguel Urkizak esan zuenari ahuleziaren bat aurkitzea karta-gaztelua erortzeko. Baina momentuz 33-34 testiguk gauza bera aitortzea, baliagarria zen. Gainera Domingo Goio eta Juan Agirre Solarte kartzelan zeuden eta

Bautista Etxebarrieta atxilotzeko agindua emanda.

Lehenengo ezustea defuntuaren familiak eman zuen. Denok bat egingo dugu ez zela normala urriaren 22an Domingo Goio hiltzaile krudela salatu zutenek azaroaren 13an barkatzea. Shakespeare-en zale amorratua den Kurikek esango lukeen antzera “**Something is rotten in the state of Denmark**”.

Badakigu barkamenak zer zekarren “... segun fuero una vez remitida la injuria como la remitieron y perdonaron, no se puede, sino es con notoria nulidad y expreso contrafuero”; oraingo honetan, berriz, lapurreta tartean, ez zuen balio izan. Nire ustez familiak (eta nork ez Ispasterren?) auzia amaitu nahi zuen, baina ez zen hala izan. Defuntuaren eta haren familiaren ondra zikinduta geratuko zen auziko bigarren zatian. Abokatuak bere lana bete behar zuen.

Bigarren zatia (segunda pieza)

Badaezpada, esan beharra daukagu ez dela gure asmoa epailearen erabakia ezeztatu eta Domingo Goio kondenatzea. Ez ginen han egon eta ez dakigu zer gertatu zen. Zalantzak izan ditzakegu, baina libre utzi zuten, eta hori ukaezina da, bere jarrera eta abokatuaren lanari esker.

Martinek agertu zuen tenplea eta uste sendoa ihes ez egiterakoan eta errugabea zela behin eta berriro errepikatzean izan zen bere bermerik onena. Errudunek, aukera izanda, alde egiten dute.

Horrez gain, abokatuaren lana izugarria izan zela onartu behar dugu.

1-Fiskalak Miguel Urkiza 19:00-19:30 artean erahil zutela, abokatuak 19:00-20:00 artean alibia (coartada) aurkitu Domingo Goio eta, bide batez, Bautista Etxebarrietari.

2-Fiskalak Miguel Urkizak Domingo Goio erasotzailea ezagutu zuela, abokatuak, bat ez ezik, bi alternatiba aurkeztu:

- a- Miguel mozkortia lehenago ere antzeko gertakari batean konfunditu zela.
- b- Gau iluna, ilbehera, euria, azken finean ezin zela ondo ikusi.

3- Fiskalak Bautista Etxebarrietak ihes egin zuela erruduna zelako, abokatuak ihes egin zuela bai, baina, errugabea zenez, kartzelara joan nahi ez zuelako heriotz zigorraren beldur.

Baina, hau gure ustea da, ez ziren gauzak ondo egin. Domingo Goio, neurri handi batean, salbu atera zen Juan Bollar eta Maria Iturraldearen testigantzei esker. Beste guztia, Miguel mozkorra zela ..., huskeria zen horrekin konparatuz.

Zazpiak eta zortziak artean Domingo Goio, Bautista Etxebarrieta, Juan Bollar eta Maria Iturraldea elkarrekin afaltzen egon baziren Erremerterriko baserrian ezin ziren izan Miguel jipoitu eta lapurtu zutenak. Baina Juan Bollar eta Maria Iturraldea Bautistaren anaia Erremerterria baserriko morroia eta neskamea ziren. Zer esan behar zuten ba? Nola ez zituzten ezetzi?

Alabaina, funtsezko testigu bat zegoen (gainera abokatuak aurkeztutakoa) kontuan hartu ez zena. Maria Agirre Erremerterria baserriaren albo baserrian bizi zen, Kortazar Aldekoan, eta harek zazpi ta erdietan ikusi zituen Goio eta Etxebarrieta Erremerterriko baserriaren bertan. Bera eta bi ahizpa zeuden baserriko atarian horiek biak heldu zirenean. Agirretarrek euren begiekin ikusi zuten, beste testiguen, berriz, Bollarrek eta Iturralde ziotena errepikatu zuten. Zergatik entzungor egin zuten zuzeneko testigantza hau? Zazpi ta erdietan bueltatu izanak susmagarriak errudun bihurtzen zituelako.

1. ORDUTEGIA Domingo Goio beraren lehen adierazpenak. (BFAH JTB0563/007, 104 v-110 r)	2. ORDUTEGIA Abokatuak prestatutakua (BFAH JTB0563/001, 5 r-v)
14:00 Tabernan edaten	
17:30 Ezpata-dantzan parte hartu (despues una ora antes de anochezer a su parezer se empezo una danza de espadas... en la que se manttubieron danzando cosa de un cuarto de ora que duro...).	
17:45 Etxera erropak aldatzera	
18:00-18:15 Plazara bueltatu eta lagunakin barriro alkartu. Lehenengo Francisco Atxabalekin geratu apur baten (no era noche oscuro, sino entre entre dos luzes). Gero beste batzuekin, Etxebarrieta barru (fue ttambien entre dos luzes). 15 minutu egon Etxebarrieta eta lagunakin (se dettendria con el (Etxebarrietarekin) cosa de un cuarto de ora)	18:30 arte dantzan "se mantuvo en este paraje y sitio hasta las Avemarias" ORDUNTXE BENETAKO GABA
18:30/18:45 Etxebarrietagaz batera alde egin plazatik, lehenengo Domingok oinetakuak aldatu bere etxian eta segiduan (paso inmediatamente) Etxebarrietaren etxera aldatzera eta afaltzera. Distantziak oso txikiak dira Ispasterren!	18:30 etxera erropak aldatzera "en este tiempo se retiro a su casa a mudarse"
18:30/45-19:30 ???	18:45 plazara bueltatu "buelto al mismo paraje a divertirse" 19:00 (baino arintxuago) etxera berriro bueltatu Bautistagaz "antes de las siete bolvio a su casa"
19:30 Etxebarrietaren etxian afaldu (que a una ora, despues de anochezido,... fueron juntos el declarante y dicho Bauplista de Echevarrieta... y cenaron los en ella los dos juntos y un criado y criada...).	19:00-20:00 Erremerentaria baserrian afaldu Bautista, Maria Iturralde eta Juan Bollarregaz "desde alli a la casa de Martin de Echevarrieta y en ella zeno a las siete de la referida noche"

☺ Ez zan ez, tontua abo-katua! Hau be katunekua eta... Argi dago batian esaten danak eta bestian, ez daukela zerikusirik Noiz esan zan guzurra? Ez da Unibertsi-dadera jua bihar hori erantzuteko. Argia benetan Renteria auzilaria!

Domingo Goiok kontraesanak errazegi konpondu zituen, erratu zela esanez eta kitto. "Preguntado, como dize que se dettubieron solo un cuarto de ora, desde que llego a dicho paraxe de mudarse la camisa, que fue entre dos luzes, tteniendo antes declarado, que una hora despues de anochezido salieron del referido paraxe para la casa del expresado Bauplista de Echevarrieta, en lo que ay de diferencia tres quartos de hora. **Dijo... que padezio equibocazion, en haver dicho antes que una hora y responde**". Maria Iturralderen adierazpenak are hutsalagoak ziren, Abemariak (18:30) Animekin (19:00) konfunditzen zituen. Kartzelara ere sartu zuten konplizea zelakoan, baina libre utzi zuten.


Orduaren kontua oinarrizkoa bihurtu zen auzi honetan, bataila zelaia erloju bako herrian! Xerlokeko Domingo Goiok berak lehenengo testigantzan esan zuena eta abokatuak geroago "asmatu" zuena konparatu ditu eta argi geratzen da sei ta erdi eta zazpi ta erdi arteko momentu iluna ez dagoela ondo justifikatuta. Baina zeinek esan zuen 19.00-19:30 artean gertatu zela eraso? Miguel defuntuak gauetz izan zela esan zuen "despues de anochezido" eta Sanmigeletan seiak eta sei ta erdiak artean iluntzen du. Beraz gertaera sei ta erdiak bueltan ere izan zitekeen, zergatik ez?, eta Gazeta hariztirako joan etorria 15 minutuko zen testigu

guztien arabera. Denbora bazegoen behintzat! Hemen erakutsi zuen Joseph Renteriak bere maisutasuna: Juan Bollar eta Maria Iturraldearen testigantzak aprobetxatu behar ziren. Zazpiak eta zazpi eta erdiak artean gertatu zela krimena "asmatu" zuen (ez bazuen asmatu ere, lau haizetara zabaldu zuen) eta asmakeria horri indarra emateko aurkituko zuen beranduago testiguen bat zazpitan, tabernan ez bazen ere, hurbilean ikusi zuena. "Y porque van conformes los testigos de haver oido a dicho Miguel que el lanze le sucedio de siete a siete y media de la expresada noche veinte y nueve de San Miguel, en la que consta de deposiciones uniformes que a las siete horas de ella se hallava dicho Miguel en la taberna publica". Ez bata ez bestea ez ziren egiak. Askotan esan dugu defuntuak ez zuela ordua zehaztu, nekez beraz testiguen, eta Miguel zazpiretan tabernan ikusi zuenik ere ez zegoen (gero testigu bakar bat aurkitu zuen hori esango zuena). Maisutasun bera erakutsi zuen beste koskatxo batzuk gainditzeko ere: testigu nagusiaren izena kentzean, akusatua konplizearen ihesa justifikatzean, gau hura sekulako gaurik ilunena bihurtzean...


Baina ez du meritu guztia eramango abokatuak. Domingo akusatua erakutsi zuen tenplea errudun gutxik erakutsi dezakete. Horregatik, ihes

egin ez zuelako batez ere, pentsatu dezakegu ez zela bera izan, baina testigantzek, paradajokoki bere aldekoak, batzuetan gezurrak, ez gara itzulingeru ibiliko, abokatuaren trikimailuek eta Miguel Urkizaren adierazpenek zalantzak sortzen dizkigute.

Auziak amaiera krudela izan zuen, bata salbatzeko bestea kondentatu zuten, Miguel birritan hil zuten. Mozkortia ei zen eta lehenago ere okerrekoa akusatutakoa. Nork sinetsiko zuen jairik jai mozkor-mozkor eginda ibiltzen zen txoriburua! Domingo Goyoren abokatuaren hitzak gogorrak ziren: "... que dicho Miguel anduvo toda aquella tarde del dia del señor San Miguel de combite en combite de vino clarete, que le venzio como afizionado, (que solo digo en defensa de mi menor) de donde naze que mal pudo conozer a sujeto alguno i de noche". Hori gutxi balitz: "Digo que dicho Miguel de Urquiza... fue frecuente a las funziones de tamboril y tabernas, y afizionado al vino, y se emborrachava las vezes que tenia ocasion, y en una de ellas viniendo de Vedarona una noche de San Bartholome tuvo su riña o reierta con Sevastian de Garatea, de cuia resulta guardo cama, y le hecho la culpa a Martin de Arana, indemne e inozente de semejante caso...".



Ispasterreko eliza XX. mende hasieran. Arinago erosi izan bazuten zorioneko erlojuak!



Erabilitako dokumentuak
BFAH, JUDICIAL, TENIENTE GENERAL, CRIMINAL JTB0563/007
1755-10-19 / 1756-07-14
BFAH, JUDICIAL, TENIENTE GENERAL, CRIMINAL JTB0563/001
1756-07-24 / 1756-08-15

SENTENTZIA

Fallo atento a los autos y meritos de la causa a los que en caso necesario me refiero, que el referido Franzisco de Gaztañazorre promotor fiscal, no ha justificado su accion y acusacion como justificar le combino, como ni tampoco el expresado Juan de Aguirre sus cargos y defensa, y que el citado Domingo de Goio, o su curador adlitem ha probado su defensa en bastante forma, declaro uno y otro asi, y administrando justicia absuelbo y doi por libre a dicho Domingo de Goio...

CHAPTER III • SCARE: Pedro Badiolaren heriotza

(irailak 29, 1765)

“En la villa de Guernica a treinta de Septiembre año de mil settecientos sesenta y zinco el señor lizenziado Don Juan Philipe Lopez de Mena, Abogado de los Reales Concexos, theniente general... se le acaba de dar noticia a su merced, que en jurisdiccion de la Anteyglesia de Yzpazter se ha cometido delito de muertte de un escopetazo a un hombre la noche...”. Oraingoan bai, gauzak hobeto egin ziren, hildakoa aurkitu eta segituan parte eman zioten tenienteari eta behar ziren erreztenak hartu ziren. Lekua, arropak eta ondasunak deskribatuz gain, arma bila ere ibili ziren. Miguel Urkizaren kasuan esaterako, ez zen halakorik egin beranduegi zelako, jakina.

Itxuraz ikerketa eredugarria zitekeenaren urratsak aztertuko ditugu:

1 Korrejidorearen tenientea informatu

Hurrengo egunerako tenienteak hilketaren berri zuen.

2 Gorpua eta ingurua arakatu

“En el camino real que tira desde la Parroquia de la Anteyglesia de Yzpazter para la villa de Lequeitio, siendo cosa de la siette y media oras de la tarde hoy? dia treinta de septiembre... se hallo un cadaber de hombre ttendido en el suelo pegante al camino real, al lado o parte del mediodia, bestido con chupa y calzon de paño negro polaynas del mismo genero, armador rojo de escanlatte?, zapatas puestas con ebillas xxx, la cabeza descubiertta, la cara mirando arriba, toda ensangrentada y a su lado un sombrero y un palo, ó baston negro de azebo delgado y de largo cosa de cinco quartas de bara y rexistrado sus faltriqueras del calzon y los bolsillos de la chupa, seno y otros paraxes del cuerpo se le hallaron, una pipa cortta de fumar, una bolsita de cuero biolado, con poca cosa de tabaco de oja picado, un baso liso de christal, un pañuelito ajado (APURTUTA) de lana que sirbe para narizes, una peseta (APURTUTA) e de plata, tres ochottes o peiezas de ocho un quarto y un ochabo que hazen todos siet cientos? quatro maravedis de vellon, zinco granos de manzana y (APURTUTA) peruchas, y no obstante barias y cuidados (APURTUTA) que se practicaron en el rexistro del cuerpo ya? cadaber y su cercania por si se podia encontrar alguna arma punzantte, magullantte, o de fuego u otra cosa, no se le halla mas de lo que queda referido...”.

3 Gorpua aztertu

ZIRUJAUAREN TXOSTENA

Manuel Zearra zirujauaren hitzak: “... le ha hallado que entre la mandibula inferior y superior del carrillo derecho, tenia una herida morttal de arma de fuego con carga de perdigon disparada de muy zerca, porque en nada se esparcieron los perdigones y se ocuparon, o encaxaron, como en la concabidad de la palma de la mano, y salieron de entre las benas que llaman jugulares de la garganta, siendo causa la postura en que recibio el tiro que sin duda fue estando agobiado agachado o sentado y que en el resto de la cara, ni en el cuerpo le ha hallado otra herida contusion ni roturas...”. CSI Las Vegas-ko Grissomek ere ez luke hobetuko, laburra eta ona, bitan ona!

4 Defuntuari lurra eman


Frantziskotarren habituearekin enterratu zuten Badiola Ispasterren bertan Lekeition bizi zen arren. Nabarnizkoa jaiotzaz, ez zuen familiarik izango Lekeition, kontixu.

5 Itzultzailea izendatu

Testiguen txandarako itzultzailea behar zen, batzuek euskara eta besteek gaztelania ez zekitelako: “... por quanto ygnoraba su merced la lengua bulgar bascongada de esta tierra y sus indibiduos ygnoran la castellana de que usaba su merced...”.

6 Testigantzak

Ez zen testigu asko behar izan. Berriro ere, hiltzailea ezagutzen dugu eta berriro ere, aske geratu zen! Defuntuaren familiak barkatu zion...

 *Ostera be Watson maittia! Ixilik egon naz auntxe arte, baina zenbat bidar esan bihar jatzu ez dala erakutsi bihar hiltzailia amaierara arte. Tira, zer egingo dotsagu ba! Dagoeneko ezagutzen dozue erruduna, baina bittartian gertatuko dana be ez da makala!*

GERTAERAK

Berriro irailaren 29a, San Migelak, festa, parranda...


Ispasterreko fiela, jaietatik bueltan etxera zihoan hainbat lagunekin batera, Obaiz parajeen lurrean etzanda gizon bat aurkitu zutenean: “... repararon esttaba tendido un bulto de hombre de largo en tierra...”, baina edanda zegoelakoan aurrera egin zuten. Etxera heldu baino lehen Urkiza dorrera joateko eskatu zioten han Lekeitioko txistularia zegoelako gizon bati tiro egin ziola zioena: “... fue prontamente a dicha casa de Urquiza torre, donde a la parte de fuera hallo al referido tamborilero, que estaba solo, con una escopeta en la mano, y sentado en una piedra...”.

Danbolindariak fielari kontatu zion Obaiz inguruan aurkitu zuela gizon bat belaunikatuta eta berari eraso egin aurretik tiro egin ziola: “... concluida la fiesta de danzas, a que havia tocado el tamboril solo, y sin ninguna compañía, con su tamboril al hombro y escopeta en la mano, reparo en dicho paraje llamado Obayz, a un bulto como de hombre que estaba algo apartado del camino real, y agachado o agobiado, y por ver dicho sittio, sospechoso, le tentto asi en lengua bascuenze como en romanze, dos e tres bezes para que le respondiese, y le dijese quien hera, y a que estaba alli, y como no le contesto, ni le respondio cosa, y reparo que se mobia hazia a el como que queria ttomar algun palo, o arma para cometerle, se anttizo y le disparo dicha escopeta...”. Orduan denak bueltatu ziren hilketaren eszenatokira eta ezagutu zuten hildakoa, Pedro Badiola lekeitiarra (benetan Nabarnizkoa).

Tragikomedia hasi baino ez zen egin. Hilketeta apal-apal onartu zuen danbolindaria Udaletzeko kartzelarantz zeramaten preso ihes egin zutenean: “... bino el deponente con el referido tamborilero preso, para la Casa consistorial... quien al emparexar con dicha yglesia parroquial, preziso paso para la cittada Casa Consistorial, salto a los zimentorios de donde no quiso salir...”. Elizaren babespean gelditu zen, justizia sekularrak ezin zuen ezer egin, bakar-bakarrik “negoziatu”. Negoziatu egin behar izan zuten danbolindariaren testigantza lortzeko, deklaratu ondoren berriro bueltatu zen “saktura”.

Lehenago esandakoa berretsi zuen eta lekukoaren testigantzak ere ildo beretik zihoazen: ilun zegoela, lapurreta lekua zela, defuntoa zerbait hartzera zihoala, denak hiltzailearen faboretan. Hiltzaileak hala zioen:

“... como tenia oydo ser aquel paraxe de mala fama por que salian a los caminantes algunos rateros a quitar, a fuerza, lo que llebaban, se apodero de susto y miedo, pues le descubrio, que delante y a la parte que miraba a la calzada ttenia una cosa negra de largura de cinco quarttas, que le parecia seria sable, o trabuco... le disparo como a bulto y a ziegas, sin encararle, ni apuntarle a paraxe señalado de su cuerpo, ni creer que le quitaria la vida, ni tubo asomo ni intencion para ello y fue lo mismo el disparo de la escopeta que dar a correr, aturdido y azeleradamente...”. Gainera familiaren barkamena lortu zuen: “asi para con Dios como para el mundo desde luego remitte y perdona la culpa y pena...” eta ondorioz, ohikoa zenez, auzia etenda geratu zen.



Fotomuntaketa. Jose Arrueren tanbolindariari guardasola kendu eta eskopeta ipini diogu. Photographaren mirariak!

Erabilitako dokumentuak
BFAH, JUDICIAL, TENIENTE GENERAL, CRIMINAL JTB0686/020
1765-09-30 / 1765-10-23

Badiolaren hilketeta

Sanmigelak

Hildakua: Pedro Badiola "lekittirra"
Noiz: iraila 29, 1765, Sanmigelak Gabaz
Nun: Ipastar. Obaiz inguruan, Hirukurtzi-
etatik hurre.
Zergatik: deskuiduan, zoritxarra?
Zelan: eskopeta-tirua
Hiltzailia: Joseph Beristain, izatez Itzian-
rekua, Lekittoko danbolindaria.
Gertaerak: Joseph Beristainek Pedro Ba-
diola eskopeta-tiroz garbitu Ipastarreko San
Miguel jaietatik etxera bueltan joiala.
Xehetasunak: Beristainek, zelan ez, esan
nahi barik hil ebala Badiola pentsaurik
bera erasotzekotan egoala. Beristainek ihes
egin eta Elizan babestu, ZERGATIK?
Libre itxi, familiak parkatu.

Inuzente kua-
drilia! Irakurlia dagoeneko
konturatuko zan informaziño fida-
garri bakarra zirujauarena dala. Zien-
tzia ez dabe guzurrik esaten! Testiguak,
barrik, hiltzailiak diruana dirue ez euren
begiak inuzente ikusi dabelako, hiltzailiari entzun
dotselako baino. Ze arraio! Zirujauaren hitzak gogoratuz
tirua goitik behera eta hurre-hurretik egin zan gizona makur-
tuta edo jazarrita egoala: "una herida morttal de arma de fuego
con carga de perdigon disparada de muy zerca... estando agobiado
agachado o sentado". The little things are infinitely the most important
esango leuko Sherlockek Ondo-ondotik, goitik behera eta NAHI BARIK
ez dozue pentsatzen Beristainek kontatakua -diplomatikua izango naz-
ez dala Lekitton esaten dogun modura egi-berdaderua? Ikaratuta
egoteko apunteria ezinhobia erakutsi eban, eta ondo-ondotik eta
goitik behera... bai zera! Zenbat inuzentekeri! Defuntuen trabu-
kua nun egoan ba? Eta errugabia bazan zergatik babestu
zan Elizan? Hiru hilotz eta errudun
bat bera bez! Ia laugarrena...



CHAPTER IV • LUST: Ignacio Ibarren heriotza

(apirilak 4, 1774)

Ez dagoela hirurik lau barik eta heldu gara azkenengo heriotzara, azkena eta argiena, Xerlok ez aztoratzeko modukoa. Eztabaida bako kasua, akusatuaren kontrako frogak, berak ukatu arren, ukaezinak ziren. Bestalde hilketa hain basatia izan zen familiaren barkamena, nainbatetan ikusi duguna, ezinezkoa zela. Ezin da oharkabean inoren zama moztu: "... luego que se le dio la buelta se le vio que tenia degollado su pescuezo a mas de otras dos heridas una sobre cejas y la otra en mitad de la caveza..."

IKERKETA

Elementary, my dear Watson

Laster eman zituen emaitzak ikerketak. Hainbat testiguk ikusi zuten Ignacio defuntua ezezagun batekin aurreko egunean eta goizalde hartan. Bera izan behar zen hiltzailea, deskribapen zorrotza ere bazuten, baina nor zen?

"vestido con almilla roja escarlattinada, o, de escarlattin, ottra blanca de cottonia, calzon negro, medias azules, polainas corttas, abarcas en los pies, en la caveza una montera y red y un ceñidor de varios colores, de estatura arqueada, sus muslos y piernas arqueadas, axxdo de cara, morreno y de poca barba, y cubiertta la cara en mucha parte con un pañuelo attado a la caveza con prettesto de dolor de muelas, y en realidad por cubrir una berruga, ó, lunar que ttenia en la mendibula (sic) ynferior del lado derecho, y que no pudiese ser reconocido..." Aurpegi horri izena ipini behar zitzaion.

Hari-muturrak lotuz konturatu ziren Ignacio Ibarrenaren

emazte Manuela Aranak hilketarekin zerikusia zuela eta "ustezko" hiltzailea bere amorantea zela. Berandu zen, Juan Legarreta susmagariari ospa egin zuen; Manuela, berriz, kartzelara eramane zuten. Antza, emaztea eta senarra aspaldi haserretuta eta banatuta zeuden, antza berriri, emaztea desleiala zelako. Aspaldi nahastu zen handikiren batekin: "Y alguna bez que otra expuso, que con su mujer no hacia vida maridable por haberla subzedido una frajilidad con una persona pribilegiada..." eta azken aldian ustezko hiltzailearekin zebilen. Emakume mihiluzea, testigu bati esan omen zion: "... que gustosa daria un doblon de a ocho al que llebase la notizia de la muerte de dicho Ygnacio su marido". Egia izan ala ez, ez zen bere kontra zegoen froga bakarra. Lehenxeago ama izan zen (apirilak 6) eta dagoeneko jakingo duzue nor zen aita. Adulterioa ukaezina zen, hilketa kargua izango zen bere ardura nagusia.

Eta hor amaituko zen istorioa Juan Legarreta inozoa (barkatu esaera) ez bazen bueltatu eta zelan bueltatu gainera! Eliza batean egindako lapurreta batean parte hartu zuen, agian zuzenean izan ez bazen ere. Adulterioa, lapurreta eta erahilketa!

Zelan demontre irtengo zen onik honetatik! Lekeitio erdiak ikusi zuen defuntuarekin pasieran, ardoa edaten, afaltzen, lotan eta azkenik Ispas-terrerantz (elkarrekin) joaten.

Bere defentsan Juan Legarretak sano eta salbu utzi zuela "ezezaguna" zioen. Ez zekien Ignacio Ibarrearekin egon zena harek ez ziolako esan zelan deitzen zen. Badaezpada, ez zekien ezta Manuela Arana ezkondu-ta zegoenik ere. Beraz Lekeitioen kasualitatez aurkitu zuen gizona bere zoritxarrerako Manuela Aranaren senarra izan zen eta (gainera), bere zoritxarrerako berriri, norbaitek erahil egin zuen. Ezagutzen zuela onartzen bazuen akabo!

Ezinean zebilen, erantzunek ez zuten inor konbentzitzen eta abokatuaren argumentuak ez ziren azkarregiak. Badakigu harrapatua ez izateko alde egin zuela eta Erroma eta Santiagora joan zela, bere hitzetan, promestu zuelako. Abokatuarenetan damututa zegoelako: "arrepentido de lo que havia ofendido a su Magestad con los torpes y adulteros actos que havia tenido con Manuela de Arana". Odolez betetako oinetakoak, gezur-rrak -bere hitzetan: "por tener de costumbre los que andan en contrabando el no declarar la verdad"-, arropa aldaketak... ez zioten laguntzen.

☹️ Ai ene penia! Gaztia izatia zer dan! Burua galtzen dabe gaztiak, amodio kontuakin. Zer dala ta Ignacio Ibarra hil, emaztiagaz aspaldi banatuta baegoan? Zer uste eban, senarra hilda emaztiagaz ezkonduko zala? Txoriburua eta narraza!

Dena zegoen Legarretaren kontra, azkenean lau urte beranduago, 1778an, erantzun behar izan zuen hilketa, adulterioa eta lapurretaren-gatik (... sobre la muerte alebosa dada a dicho Ygnacio; adulterio enttre los citados Juan y Manuela, urto de vasos sagrados...). Honek aurreko guztien partez ordaindu zuen. Garesti, heriotza zigorra ezarri baitzioten berari eta Manuela Aranari: "... los denotados Juan de Legarreta, y Manuela de Arana les debo de condenar, y condeno, a que de la prision en que existen sean sacados con gorras y capuces negros enluttados en seron en xx por direccion del ministro de la villa? que publique sus delitos y asi llebados via recta desde el (sitio dela prision)? asta el lugar del suplicio, poniendose en el acostumbrado a prebencion un tablado se les de garrote hasta que mueran naturalmente en pena y castigo de sus delitos y maldades y egecutados que sean ambos muerttos los cuerpos de los dichos dos reos sean encubados y echados a la rria para que a otros sirba de escarmiento y nadie sea osado de



1774-7-18ko agiria. Juan Legarreta Santiagon erromes egon zela ziurtatzen zuen dokumentua. (Omnibus, & singulis praesentes litteras inspecturis notum facio, Joannem a Legarreta Hispanum ex natione Cantabris, suam Patriam redeuntem hoc Sacratissimum Templum visitasse...)

tocarles ni sacarlos sin mi licencia...". Sententzia apelatu zuten eta behintzat Manuelak heriotza zigorra saihestu zuen: "condenamos a la susodicha en diez años de reclusion en la Carcel de la Galera de esta Corte". Juanek, berriz, lortu zuen bakarria bere gorpua tinan ez sartzea izan zen.




"Por una navaja" Desastres de la guerra, 34. Francisco Goya, 1815

GARROTEA

1778-8-Sean exekutatu zuten Juan Legarreta Ignacio Venturarekin batera Bilbon. Garrotez hil zuten bizkaitarra zelako eta kaparea (hidalgo), Ignacio berriz, urkatu egin zuten. Gainera Karitate eta Erruki kofradiak bere gorpua lurperatzeko egindako eskaera baimendu egin zuen Korrejidoreak. Aldiz, Ignacio Venturaren gorpua lau zatitan moztu zuten eta Jaurerriko lau lekutan utzi eskarmentu modura bide-lapurra zelako eta arazo larri horrekin moztu nahi zelako. Ikuskizun beldur-garria!

"Ynmediatamente y siendo como a cosa de nueve oras y media de la mañana, minuto mas o menos de oy dia cinco de Agosto, y año de mil setecientos y setenta y ocho; haviendo echo Juan de Ybarreche Alcalde de la Carcel publica de esta villa el entrego que ofrecio de la persona de Juan de Legarreta, preso a los... Ministros Alguaciles para dar cumplimiento a lo mandado por las sentencias... fue sacado de dicha Carcel... el expresado Legarreta encima de una mula de silla enlutada con el Pregonero adelante, en que iba publicando en altavoz, frente de dicha Carcel, en el primer Canton de la Calle que llaman de Artecalle, y entrada de la Plaza publica el Pregon del tenor siguiente Esta es la Justicia que manda hacer el Rey Nuestro... en este reo llamado Juan de Legarreta natural de la anteyglesia de Gamiz por la muerte violenta, alebosa, asesina de Ygnacio de Ybarra marido que fue de Manuela de Arana, adulterio de esta con este dicho reo, hurto de vasos sagrados, y otras cosas el que a sido condenado con la pena ordinaria (APURTUTA) de garrote En esta forma fue conducido por la calle de Artecalle, una de las publicas, via recta hasta que aviendo llegado a la dicha Plaza publica, siendo a cosa de las diez de este mismo dia, donde se hallava puesto un tablado, hasta donde le asistieron exortando... en el qual dicho Tablado le fue dado garrote por Andres Brizuela ejecutor de sentencias..."



Mundua txikia ei da. Ezustean, Arropaingo tabernaren gaineko auzian (LUA R 37), Pedro Ugarriza Bedaruko testiguak hilketa hori gogoratu zuen: "que por Pascua de Resurreccion inmediata hizo quatro años cuedio una muerte en dicho camino entre los sitios llamados Arriandiac, y Yrucruceta, lo que save por que haviendose publicado dicha desgracia en la referida Ante Yglesia de Bedarona movido de curiosidad el testigo se fue desde ella a dicho parage a verlo... y vio el cadaver que estava tendido en tierra degollado, en donde havia muchisima gente que fueron a verlo... y que la mañana de este dia se egecuta la sentencia de garrote en el agresor en la villa de Bilbao...". Badirudi espektakulu monumentala montatu zela erailketa egunean, garrote egunekoa ez zen atzean geratuko!

Erailitako dokumentuak
BFAH, JUDICIAL, TENIENTE GENERAL, CRIMINAL
JTB0762/003. 1774-04-04 / 1774-12-09
BFAH, JUDICIAL, TENIENTE GENERAL, CRIMINAL
JTB0762/004. 1775-01-07 / 1775-10-15
BFAH, JUDICIAL, CORREGIDOR, CRIMINAL
JCR1545/006/004. 1775-08-29 / 1775-09-01



Usatorretarrak, itsasgizonen dinastia

Koldo San Sebastian Fernández
Itzulpena: Josu Erkiaga



Egun batean, 1910. hamarkadaren hasieran, Lekeitiora jo zuen Vicente Usatorre Santidriánek. Aita, obretako arduraduna, Etxebarrakoa zen. Leioako eliza bereoneratzeko lanak zuzendu zituen eta, geroago, Gasteizen jardun zuen. Dirua polito irabazi eta, zendu zenean, seme nagusiak jaso zuen dena, Pedrok. Hau, handik denbora batera, merkataritza-korredore bihurtu zen, baita prokuradore, burtsako agente eta Gasteizko Udaleko zinegotzi ere. Bien bitartean, beste anaia-arreba guztiek estu eta larri egin zioten aurre bizitzari: ama alargunak sarritan seme nagusiari laguntza eskatu behar izaten zion sendiari eusteko.

Vicentek denbora batean hargin eta okin jardun zuen, harik eta egun batean Gasteiz

utzi eta Santoñara jotzea erabaki arte; han, antza denez, Udalean ibili zen beharrean. Rosario Royo Solanarekin ezkondu zen bertan, baina zor-konturen batengatik herria utzi beharra izan ei zuen. Zeukan guztia gurdian sartu eta, emaztearekin eta seme-alaba nagusiekin batera (bigarrenak urtebete besterik ez zuen), Lekeitiora heldu zen; okin-lanak egin zituen. Sendia haziz joan zen: bost anaia eta arreba batek osatzen zituzten Usatorre Royotarrak: Concha, Marcelino, Vicente, José María eta Miguel. Mutil guztiak itsasgizonak izan ziren, eta patuak biderik bihurrienetatik eraman zituen.

Usatorretarrak Ezpeleta kaleko etxe batean bizi izan ziren, beste familia batekin batera. Gurasoek seme-alabek aurrera egitea nahi zuten eta, horretarako, ezinbestekoa zen

ikastea: kasu honetan eta beste hainbatetan, J.J. Uribarrenen laguntzari esker egin ahal izan zuten. Beraz, lau anaia Lekeitioko Nautika Eskolatik pasatu ziren: nagusienak ikasle onak eta arduratsuak izan ziren; txikienek nahiago zuten herrian zehar arin-aranga ibili edo pelotan. Aitak gogor egin behar izan zien, harik eta ikasketak amaitzea lortu arte.

Concha, Castro Urdialeseko Castro abizeneko batekin ezkondu zen. Alargundu ostein, Frantziara eta Belgikara jo zuen: sukaldari aritu zen. 60. hamarkadan, Euskadira itzuli zen, Begoñara. Seme-alaba bi izan zituen: mutilak peritaje elektronikoa ikasi zuen Frantzian. Behin bakarrik joan zen nabigatzera, eta hondoratu egin zen itsasontzia. 80. hamarkadan hil zen. Haren alaba bakarra Algortan bizi zen.

Juan Usatorre Royo, Milizietako burua



Anaietako nagusia, Marcelino Juan, Santoñan jaio zen 1902ko ekainaren 2an (egia esan, biografia ofizialetan Lekeition jaioa zela agertzen da). Hamaika urterekin, 1913ko irailaren 28an, Lekeitioko Nautika Eskolan

sartu zen, Makina arloan. Ikasketekin batera, herriko ontzioletan egindako itsasontzietako motorrak jartzen jarduten zuen.

Ikasle bikaina izan zen: bere espedientean, ugariak dira nota onak eta bikainak (Aritmetikan, Fisikan, Mekanikan, Elektrizitatean, Makinetan eta Galderetan). “Gai” bakarrak (inoiz ere ez, “ez gaiak”) Marrazketan (lineala eta makinetakoa). 1917 aldera, Bilbora joan zen eta han Compañía Euskaldunan egin zuen lan (itsasontziak egiten eta konpontzen), harik eta ikasle itsasoratu eta “itsas egunak” egiteko aukera izan arte, gero itsas makinaburu bihurtzeko.

Bilbon zegoela, Itsas Makinisten Elkarte Nagusiko bazkide egin zen, arlo horretako garrantzitsuenean. Geroago, UGTn egin zen bazkide, nahiz eta elkarte profesionalekin harremanik ez eten. Bete-betean bizi izan zuen Gerra Handiko gorakadaren osteko Itsas Merkataritzaren gainbehera, batez ere 1924tik aurrera. Urte horietan, itsasgizonen eskubideen aldeko borrokan nabarmendu zen, eta horrek lanetik botatzea eragin zuen. Azkenean, Mediterraneoan itsasoratzeak egiten zituen konpainian lan egitea lortu zuen, eta Bartzelonan hartu zuen bizilekua.

Kataluniako hiriburuan, UGTren eta PCEren militantea izan zen, eta behin gerra hasita, PSUCen sorreran parte hartu zuen (Partit Socialista Unificat de Catalunya).

122 Brigada Mistoko burua izan zen, Sorgina zeritzotena, eta, geroago, Gudaloste Popularraren 27. taldekoa ere bai: teniente koronel izatera heldu zen. Kataluniako Kanpainan, taldeak atzera egin behar izan zuen (gauza bera gertatu zitzaion Gudaloste Popularrari), hain izan zen handia frankisten nagusitasuna. Atzeraldi luzearen ostean, Taldeak muga gurutzatu zuen Vajoleko pasabidetik 1939ko otsailaren 8an. Taldearen komandanteak, Marcelino Usatorrek, biharamunean jo zuen beste aldera, eta

Saint Ciprieneko esparruan sartu zuten, bizirik geratutako beste kideekin batera. Beste arduradun batzuk atzerriratu egin ziren handik denbora batera, eta PSUCen komitean parte hartu zuten Frantzian.



1939an, beste lekeitiar bat bizi zen Bartzelonan: Juan San Sebastian. Campsan ziharduen lanean eta Usatorrerren herrikidea zen, baita ikaskidea ere, bai eskolan, bai Nautikan. Halako batean, PCEren bandera eta Errepublikako Gudalostearen ikurra zeramatzan kamioi bat geratu zen haren etxe aurrean. “Nireak egin du. Ez daukat ihesbiderik”, pentsatu zuen. San Sebastianek jarrera “profesionala” erakutsi zuen sasoi hartan (nahiz eta haren anaia gaztea, Domingo, Bilboko Karmelon preso zegoen eta nahiz eta gauza bera gertatuko zitzaion aste batzuk geroago anaia nagusi Migueli). Bat-batean, milizianoetako batek leihotik burua atera eta esan zuen:

“Txo, Juanito...”. Lekeitiar bat zeukan aurrez aurre! Salbatuta zegoen! Usatorre zen. Atzeraka zihoazela kontatu zion, eta soldaduek kuartelean geratzen ziren eta eurek eraman ezin zituzten janari-edariak utzi zizkiotela.



Juan Usatorre teniente koronela (ezkerretik bederatzigarrena, tente), Frunzeko Eskola Militarrean (Taskelnt, SSEB, 1942ko abuztua). Harekin batera, Lister, Modesto, Mentxaka... daude.

Usatorre, PCEko kide ziren militar errepublikar batzuekin batera, Frunzeko Akademia Militarrean sartu zen (goi-mailako ofizialak prestatzen zituzten bertan). Han, beste euskal itsasgizon batekin elkartu zen, Rafael Mentxakarekin. Plentzian jaioa, Bizkaia bouko lehen ofiziala izan zen eta, ondoren, Miguel de Cervantes gurutzontzian ibili zen bigarren

komandante lanetan. 1939tik 1947 bitartean, Guadaloste Sovietarreko kidea izan zen eta, utzi zuenean, teniente koronel ardura lortu zuen. Ondoren, Liachova lantegian jardun zuen mekaniko elektrikari lanetan.

Maruja Canovasekin ezkondu zen (Kataluniako gudalerroan ezagutu zuen). Cartagenan jaiotako itsasgizon baten alaba zen, nahiz eta

Mahó-n hazia izan. Marujak, familiarekin batera, Bartzelonara jo zuen Batxilergoa amaitu ostean, beka baten bitartez Unibertsitatera joateko aukera lortu zuen-eta. JSUCeko ekintzailea zen eta Aliança Nacionak de la Done Joveko animatzailea. Seme-alaba bi izan zituzten, Juan eta Carmen. Banandu eta Cesar Arkonadarekin ezkondu zen. Moscun zendu zen 1966an.



Miguel Usatorre EEBBko armadako uniformearekin



Miguel Usatorre Lekeitioko eskolan (1920)

Miguel Lekeition jaio zen 1913ko irailaren 29an. Anaien moduan, Nautika ikasketak egin zituen. Gudaria izan zen 1936ko gerran, eta, Liérganesen harrapatu ostean, lan derrigor-tuak egitera zigortu zuten: San Juan de Mossarrifar-en (Zaragoza), Huescan, Teruelen, Guadalajaran eta Toledon egon zen preso. Lau urte igaro behar izan ziren Argentinara joan ahal izateko, 27 urterekin. Marítima del Nervión enpresako Mar Cantábrico itsasontzian heldu zen, beste lagun birekin batera desertatu ostean, Gernikako Rafael Zalloetxebarria eta Berangoko Alejandro Anitua.

Orduan, kontraestre lanak egiteko ontziratzen zen Compañía Argentina de Navegación Mihanivich-eko SS Victoria petrolio-ontzian. 1942ko udaberrian, itsasontziak New Jerseyko Edgewater porturako bidea hartu zuen, Pernambuco eskala egin eta gero. Apirilaren 17ko goizaldeko 6:50ean, itsasertzetik 360 miliatara zegoela, urpekotzi alemaniar batek birritan torpedeatu zuen. Kapitainak itsasontzia uzteko agindua eman zien gizoni. Laguntzera, Owl eta Nicholson destruktoreak heldu ziren, eta gizon guztiak itsasontzira eraman zituzten berriro, nabigatzeko moduan zegoelako. Atoiontzia batek hartu arte lagundu zioten. Azkenean, SS Victoria New Yorkera heldu zen 1942ko apirilaren 22an. Eusko Jaurlearitzaren Ordezkaritzan, pasaporte jaso zuen, eta horrekin munduan zehar ibili ahal izan zen.

Japoniarrek Pearl Harbourri eraso egin eta Rooseveltek gerra aitortu zuenean, Estatu Batuek itsasgizonen premia handia zuten. Horregatik, Ingalaterrara talde militarrek eramateko itsasontzi batean hasi zen lanean; geroago, Normandiako inbasioan parte hartuko zuten. Itsasontziak elkarrekin joaten ziren Atlantikoa zeharkatuz, eta zig-zag sistema era-

biltzen zuten Alemaniako urpekotzietan iskin egiteko. Geroago, lan bera egin zuen Ozeano Barean: "Tropak eramaten genituen Australiara, Zeelanda Berrira eta Indiara, japoniarrek menderatutako hainbat uharte hartzeko pres-taketa-lanetarako (Filipinak, Guam, Marshall, Iwojima eta Okinawa)" (Etxebarria, Elvira: "Estatu Batuetarako euskal espioi bat", Euzkadi, 98:1983).

Egun haietan, Miguel Usatorrek itsas karta berriak sortu zituen, nabigazioa zailtzen zuten oztopoak adierazteko (edozein motatako eta neurritako itsasontziak, hegazkinak...). Atlantikoko gerrako fronteetako dominak jaso zituen, baita Goi Agintaritzaren kondekorazioa ere.

Gerra amatu zenean, Filipinetara destinatzen zuten eta, geroago, Okinawara; han, 25 urte igaro zituen kapitain eta portuko buru lanetan. Bolada batean, Japoniako portu horretan Lekeitioko beste itsasgizon batekin elkartzen zen, Antón Brouardekin. Emakume japoniar batekin ezkondu zen bertan. Ondoren, Arkansasera jo eta Estatu Batuetako Gobernuaren pentsioarekin bizi izan zen. 1950ean, Estatu Batuetako nazionalitate lortu zuen.

Hainbatetan etorri zen Euskal Herrira. Alaba ere Pasaiara bidali zuen ikastera. 2000ko martxoaren 15ean hil zen. Arkansaseko Fort Smith hilerri nazionalan dago lurperatuta.



"Victoria" itsasontzian bizirik iraundakoak. Miguel Usatorre azken lerroko eskuinekoa da.



Marcelinoren semea izan zen Juan Usatorre, SSEBeko futbol-atzeleririk onenetarikoak. Torpedon, Spartaken, Lokomotiven eta Minseko Dinamon (Bielorrusiako talderik onena) jokatu

zuen. Selekzioarako aukeratu zuten, baina lagunarteko partidak baino ezin izan zituen jokatu. Horietako batean, taldeak berdindu egin zuen Brasilekin, eta atezaina Yashin handia izan zen. Bartzelonara emigratu zuen amarekin batera 1983an, eta bertan hil zen 1989an sarkoma batek hantetako bat hondatzearen ondorioz.

SSEBeko futbol selekzioa, 1966. Tente eskumatik ezkerrera bigarrena Juan Usatorre.




Vicente, anaietako bigarrena, Lekeition jaio zen 1908an. Nautika Eskolako ikaslea hau ere, nota bikainak ateratu zituen. Marítima del Nervión enpresako itsasontzietan hasi zen lanean. 1930ean, Estatu Batuetarako bidaiak egiten zituen Mar Blanco itsasontzian zebilen hirugarren ofizial. Errepublikaren eta Gerra Zibilaren sasoiaren kapitaina zen, baina, geroago, Francoren erregimenaren aldekoa ez zenez, ez zioten kargu horretan lan egiten utzi, harik eta hirurogeita bost urte bete arte: itsasontziarekin New Yorkera heltzea lortu zuen bera

lehen ofiziala zela, zikloi tropikal batek zubia hondatu eta kapitaina eta ikaslea desagerrarazi ostean.

Hirugarren anaietakoari buruz, Jose Mariári buruz, bakarrik dakigu Filadelfian jo zuela lurra eta desagertu egin zela. Anaia Miguel New Yorkera heldu zenean, bila ibili zen eta, horretarako, iragarki bat ere jarri zuen, nahiz eta arrakastarik ez izan: "Jose María Usatorre Royo non dagoen jakin nahi dugu. Lekeitiarra da, 31 urtekoa, eta Mar del Norte itsasontzian etorri zen Filadelfiara 1928 eta 1930 bitartean.

Haren anaia naiz ni. Txostenak SHCN (Sociedades Hispanas Confederadas)" (España Libre, Brooklyn, 1942ko maiatzaren 29an).

Se desea saber el paradero de José María Usatorre Royo, de 31 años de edad, natural de Lekeitio, Vizcaya, que vino en el barco "Mar del Norte", desembarcando en Philadelphia entre los años 1928 y 1930. Lo solicita su hermano. Informes en S.H.C.



Paskual Abaroaren monumentuaren inaugurazioa. LUA 1432/2.

Paskaliren *kontuak*

G. Gabriel Piedra Anakabe

Idazkunaren gorabeherak

Hasteko eta behin, esan behar da ze Don Paskual Abaroaren monumentuak beheko aldean daukon eskaintza-idazkuna euskeraz egoala inaugurazinetik bertatik, 1934ko abuztutik, baina faxistak Lekittora sartu ziranean, 1937an, segidan kendu ebela, eta haren ordez gaztelaniazko beste bat ipini. Lehenengo-lehenengotako ha testua, gaur egun dagoan bera, Resurreccion Maria Azkue Lekittoko semeak, 1919tik 1951ra Euskaltzainburu izandako berak, egindakoa da, monumentuaren batzordeak halan eskatuta berari.¹

Ba, hamen kontatzen dana da, zelan izan zan eskaintza-idazkuna barrero euskeraz ipintzeko bidea. Testua lehengoratzeko ekimen ha ondo eta arin amaitu zan, orduko egun pixkat gorabeheratsuek be lagunduta.

Harako 1976ko uda edo udazken inguru hartan zenbat bider ez nengoa ni, eta beste herritar guztiak, Don Pascual Abaroaren estatua-aren aurretik pasauta!, eta gehien-gehienak, neure modura, konturatu be egin barik han egoan zeozer arraroagaz, zehatzago esanda: monumentuko eskaintza-idazkunaren eta jagokon fetxa edo datearen artean egoan gauza arraroagaz.

Norbera horretaz konturatzea honan izan zan: Don Pako Okamikak

liburuan 15a eta bene-benetan irailen 7an inaugura zan. Lequeitio, cuna de rebros!

(Lekittoko alkatea 1963-X-3 eta 1967-XI-19 bitartean) Lekittoren ganean egindako liburueta bat, *Diez lustros en la Villa de Lequeitio, 1925-1974* izenburukoa, irakurtzen nengoala, deigarri egin jatan 67. orrialdean ekarren honako zatitxu hau, bertorako moldatuta honan diñoana: "... Hala eta guztiz ere, ezin ulertuzkoa da agintari eta politikari berriek gure hizkuntzaren eta folkloreaken aurka erakutsitako gorrotoa, euskaradunei eurei ere gaitzeritzita, ganera. Eta ildo horretan, euskarazko errotuluak kentzeko agindu zuten. Besteak beste, Don Pascual Abaroaren monumentuko euskarazko idazkuna, nahiz eta, kasu horretan, erabili eben argudioa faltsua izan: "herriak ez zuela ulertzen, haren idazkera «modernista» zelako, eta haren ordez gaztelaniazko hau ipini zuten: «Lequeitio, agradecido a su bienhechor, don Pascual Abaroa»".

Baina, hori ez eze, Don Pakok pasadizo horri oharde bat be gehitzen deutso: "Euskarazko idazkuna mailu eta zintzel hotsez ezabatu arren, eta haren ordez gaztelaniazko itzulpena ipini, gaur egun ekintza hura ageri-agerian eta nabarmenki salatzen du data euskaraz ipintzeko moduak, ze jatorrizkoa bere hartan (urteahilea-eguna) geratu baitzen, erdaraz besteletara izan beharko zuelarik". Ba, horixe; testua erderaz baegoan be, inaugurazino egunaren fetxea euskeraz egoala ipinita, eta gutako asko eta asko, ia dan-danak esango neuke, konturatu be egin barik, eta hori aurretik makinatxo bat bider pasauta, edo aurrean olgetan txikitari nahi umekin-eta ibilita. Faxistek eurek be, ez dakigu, fetxea nahita itxi ete eben halan, testua eta fetxea harri banatan egozalako, ala, fetxea zenbakitan egoanez, konturatu ez ziralako.

Antzeko beste kontu bi. Bateko, monumentuak badauko, harriari itsatsita, brontzeko zerrenda bat be, Don Paskual Abaroaren jesarlekua baino beheratxoago, harrizko idulkiaren goiko aldean, eta zerrenda horrek hartzen ditu, ertzak besarkatzen lez, albo biak ia osorik eta, aurrealdean, Lekittoko armariaren eta idazkunaren alde banatan, arra eta arra eta erdi bitarteko zatitxo bi. Zerrenda horretan ikusten diran buruen eta hegoen azpian, zerrendearen beheko erdian, armari bi dagoz alde banatan, horreek be ertzak besarkatzen, bakoxtaren erdi bat aurrean eta beste erdia alboan; hareetako baten Espainiako Errepublikaren bandera dago irudikatuta, eta bestean, Ikurrina; faxistek bandera errepublikanoa ez eben ikutu ze, brontzekoa izatekeran eta denporearen buruan, ez zan monarkikotik asko bereizten, eta gure ikurrinean, barriz, gurutze berdea, San Andresena, ikoroski formaduna, ezabatu egin eben eta zuria itxi. Eta besteko, gomutagarritzako monumentu horretako fetxea faxistek, euskaraz egoala konturatu ez eta aldatu barik itxi eben lez, Abaroaren botinak baino beheratxoago eta idazkunaren buruan ageri dan Lekittoko armaria be, hareek frankistek egoan lekuan eta

Paskual Abaroaren monumentuko gorazarre-testua erdaratuta



¹ 1909an pentsatu zan Don Paskual Abaroari gorazarre monumentu bat egitea, eta horretarako, batzorde bat eratu zan, halako kontu batek ekarriko eban beharlekua ardura hartzeko. Hainbeste gorabeheraren ostean, 1934ko abuztuan inauguratu zan eta 1940an amaitu monumentua ordaintzea. Monumentua inguratzen burdin hesi bat egoan, metro bat inguru altua, eta barruan bedartza edo lorategitxo bat; baina hori askoz honantzago kendu zan.

 *Beti berandu ibili biharra be. Monumentuan abuztuen 14a agertzen da, akta*

moduan itxi eben, konturatu be egin barik, hango ha ikur errepublikana zala, hain zuzen be, ondo desbardina euren-eurea eben Espainia inperialaren ereduaren aldean. Izan be, harri-kiskirrietan, lsuntzara emoten dauen zokondoan dagoan monumentu horretan gaur egun ageri dan Lekittoko ezkutu edo armariak ganeko aldean daukon koroa ez da monarkiaren sasoian herriak erabiltzen ebana, Lekittok Errepublika denporan onartu eban harresi tankerakoa baino.

Horrek guztiak erakusten dauezanak ez dira besterik faxistek euskerari eutsoen gorrotoa eta herriaren historia eta kultureagazko ezjakintasun galanta baino.



Beste alde batetik, Eliza barruan, altare nagusiaren atzean eta kumulgatorioaren aurrez aurre dagoan Don Paskual Abaroaren mausoleoan, hor be badago euskerazko idazkun bat, baina hori faxistek ez eben ikutu, Eliza kontuetan ez sartzearen-edo; ba horrek han dirau, lehenengo egunean lez.


Orduan, fetxarena jakinda, udaletxera joan nintzan itauntzeko ea zer egin behar zan Don Pascual Abaroaren monumentuko idazkuna oster be jatorrizko moduan ipintzeko. Eta han esan eusten ze bide bat izan eitekeala herritarren, lekittarren, sinadura asko batu eta gero eskabidea egitea Udalarai, sinadura horreekin guztiokin batera aurkeztuta: testutxo bat, idazkunaren hizkuntza lehengoratzeko eskatuz, eta segiduan haren azpian, sinadurak.

Horrenbestez ba, folio batzuk karpeta baten sartu (lehenengoaren orri-buruan, eskari-testutxo bat, elebiduna, idazmakina: erderazkoa, dokumenturen batetik ia berbaz berba kopiatuta, eta euskerazkoa, haren aringa-aringako itzulpen bat) eta han hasi nintzan herriko jenteari sinadurak eskatzen: etxean eta senitartean, karpetea galtzarpean hartuta txikiteoan, soziedadeetara joanda, nahi kalean andragaiagaz paseetan harengana eta horrengana, eta sarritan herritar batzuk eurak etortzen jakuzan firmea emoten, topaten ginduezan lekuan; horreotariko batzuk, familiaren zein lagunen bidez zertan nenbilen jakinda, nahi, jente-ilarea firmea emoten ikustekean, "ze pasaten da hor" galdetu eta bertan enterauta, edo geroago geu kalean ikusita, eta beste batzuk, lehenengo bider, kuadrileagaz txikiteoan zein dana dalako lekuan gegoazala, justu orduan karneta ez eukelako aldean. Eta batu genduan sinadura piloa, eta 1977ko apirileko egun baten udaletxera joan nintzan eta han idazkaritzan aurkeztu neban eskabidea.

Sinadurak batzeko zereginean gauza aitagarri batzuk be jakin eragin eusteaz firma-emoleek. Esate baterako, adinez aurrera egindako batek baino gehiagok esan eustan eurek Don Paskual Abaroari "Paskali" deitzen eutsiela, hau da, jatorrizko harek testutxuak "Gure erriko seme ...Paskal-i..." iñoanez, *Paskal'i* hori apostrofo barik irakurrita. Edo, Juan Akarregi Maguregik kontau eustan zelan, bera txikia zala, ikusi ebala, faxistak, Lekittora sartu ziranean, harria, euskerazko idazkuna eukan harria, bere lekutik kentzen, erauzten, eta gero ha harria kioskopera botaten (Don Pakok lehengo liburuan kontatzen dauen moduan, honan ailegau ziran faxistak herrira: "... herritik ikusten zan Kurlutxuko errebueltatik ejertzito nazionalen abangoardia hurreratzen, zein segiduan herriaz jabetu baitzen. Haiek osatzen zituzten, italiar «Gezi Beltzak»en destakamentu batek eta erreketek-konpainia batek, eta handik gutxira generako tropak jarraitu zitzaizkien".

Eta beste barik, halako egun baten, eta ez denbora askora, paseetan, monumentuaren aurretik igarotzean, lehenengoratzeko aldaketea eginda ikusi genduan; han agertu jakun idazkuna, behar dan moduan; hain zuzen be, RM Azkue euskaltzainburu eta gure herrikideak ipini ebana: **"Lekeitiarrak, geure ongille handi ta erritar maite Abaroa tar Paskal'i esker on sakonaren gomutagarritzat».**

Ocamica y Goitiso, Francisco, Diez lustros en la Villa de Lekeitio, 1925-1974, La Editorial Vizcaina, 1975. Lekeitio Udal. Artxiboa.



Moises Huerta Paskual Abaroaren eskultura lantzen. LUA 1432/2

LEKEITIARRAK, GEURE ONGILLE ANDI
TA ERRITAR MAITE ABAROTAR PASKAL'I
ESKER ON SAKONAREN GOMUTAGARRITZAT



Jose Sesma bikia Paskali esartekua berotzen



Marrazkia: Markues.



Gudaria Lekeitioko frontean.
Argazkia: Sabino Arana Fundazioa

Lekeitio errefuxiatuz betetzen hasi zen. Egoera ondo azaltzen duen datu bat emango dugu: gerra hasi eta bost hilabetera, 1936ko abenduaren bukaeran, 2.089 errefuxiatu bizi ziren Lekeition (Euzkadi, 36-12-20). Kontuan hartzen badugu gerra hasterakoan Lekeitiok 4.127 biztanle zituela, konturatzen gara, gerra hasi eta hile gutxira, herriko biztanleria % 50 hasi zela. Herria goitik behera aldatu zen.

Irailaren 13an, Mola jeneralaren tropak Donostian sartu ziren, eta irailaren 21ean, Gipuzkoa bereganatu ostean (Eibar, Elgeta eta Mutriku izan ezik), matxinatuak San Migel gainean, Kalamua mendiaren oinetan eta Urkaregin agertu ziren (Elgoibarko lurrak); hau da, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko mugan (Juaristi, 2014b).

Egun hartan, urduritasuna eta beldurra nagusitu zen Lea-Artibaiko herritar askoren artean.

Markinar eta xemeindar askok (bereziki gazteak eta erantzukizun politikoak zituztenak) pentsatu zuten erreketek berehala sartuko zirela, eta, izututa, ihes egin zuten 21etik 22rako goizaldean. Horiatariko batzuk Lekeition ezkutatu ziren (Onaindia, 1937: 7).

Ondarrutar askok ere ihes egin zuten irailaren 21ean (Basaldua, 2017). Hauetariko asko ere Lekeition ezkutatu zen.

4. 1936ko iraila: Lekeitiko Frontea sortzen

Errepublikazaleek ikusten zuten frankistak arazorik gabe aurreratzeko ari zirela, Gipuzkoa ia osoa konkistatua zutela, eta laster gauza bera egingo zutela Bizkaiarekin. Beraz, hauen aurrerabidea gelditzeko asmoz, abuztuaren bukaeran, UGTren 3. batailoia (Gonzalez Peña), Facundo Perezagua batailoia komunista eta Herri-milizietako kideak⁸ Asterrika inguruan (Berriatua)⁹ kokatu ziren¹⁰ eta, apur bat geroago,

⁸ Herri Miliziak gerratearen hasieran, alderdi politikotako boluntarioekin osatutako guda-taldeak izan ziren. Arma eta munizio gutxirekin, eta buruzagi militar profesionalik gabe, aritu ziren frankisten aurka borrokatzen. Herri milizietako bi kide hil ziren Lekeitioko Frontean urriaren hasierako borroketan: Eusebio Lopez Barcena, 1936ko urriaren 10ean, eta Cirilo Lopez Carcena urriaren 11n.

⁹ 1936ko urriaren hasieran, Lekeitioko Frontean izan ziren borroketan batailoia honetako laugarren konpainiako Rikardo Bilbao hil zen. Irailaren 19an omenaldia egin zioten Lekeitioko kanposantuan. Batailoia horrek izan zuen lehen hildakoa izan zen (El Liberal, 1936-10-21).

¹⁰ Kontuan izan Asterrika auzoa (Berriatua) Bizkaiko Gol-

baita Itoinomendian, Milloin eta Kalamendin. Ingurune horretan babeserako lubakiak, gotorlekuak eta soldaduentzako aterpetxeak eraikitzen hasi ziren; alegia, Lekeitioko Fron-

Erreketek eta falangistak Bizkaiko "atean" zeudela ikusita, Lekeitioko frontean zaintzen ari ziren soldaduak frontea sendotzeko ahaleginak areagotu zituzten

tea izenarekin ezagutuko zen frontea antolatzen¹¹ (Talon, 1988:352; Vargas, 1994:55; Gorriti, 2015; Juaristi, 2014a).

Irailaren erdi inguruan, EAE-ANVko bigarren (Euzko Indarra) batailoiko gudariak etorri ziren Lekeitiara. Gipuzkoarrak ziren gehienak, eta Gipuzkoan borrokatu ostean, Asterrika ingurura bidali zituzten, frontea antolatzera (Vargas, datarik gabe-IV:175 eta 251).

Irailaren zehar, EAE-ANVko lehenengoa (Olabarri) batailoiko gudariak ere etorri ziren. Hauek bizkaitarrak ziren gehienak (Vargas, 2001:523), eta aurrekoek bezala, Lekeitioko Frontea antolatzeko agindua zuten.

Irailaren bukaeran, UGTren 2. batailoiko milizianoak (Indalecio Prieto batailoioak), ere agertu ziren Lekeitio inguruan (Vargas, 1994:54; Talon, 1988:352).¹²

1936ko irailaren bukaeran edo urriaren hasieran beste batailoia hauek ere Lekeition zeuden:

Castilla (JSU –Juventud Socialista Unificada–) batailoia irailaren bukaeran edo urriaren hasieran bidali zuten Lekeitioko Frontera (Vargas, datarik gabe-II:160).

Saseta metrailadoreen batailoia (EA) ere Kalamendi, Milloi eta Asterrikan kokatu zen 1936ko urriaren hasieran (Bidaso, 2005:677; Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006:65-85 eta 89; Vargas, 2001:329).

koaren bazterrean dagoela, Ondarroa, Mendexa, Lekeitio eta Berriatuko herri guneen erdi aldean; beraz, ikuspuntu militarretik, toki estrategikoa zen.

¹¹ Frontearen zati honen izen ofiziala Lekeitioko Frontea edo Lekeitioko Sektorea zen. Dena dela, hainbat ziren Asterrikako Frontea izenarekin ezagutzen zutenak. Ondorioz, hainbat liburutan Asterrikako Fronteari edo Sektoreari buruz hitz egiten da, baina, ofizialki, Lekeitioko Frontea zen.

¹² Batailoia honetako Timoteo Rodriguez Garcia Lekeitioko Frontean hil zen 1936ko urriaren 20an.

Barakaldo Batailoiko bigarren eta hirugarren batailoia eta Santander batailoioak ere Lekeitioko Frontean zeuden 1936ko urriaren hasieran. (<https://errepublikaplaza.wordpress.com/2016/09/15/batallon-28-baracaldo-martinez-aragon/>; El Liberal, 1936-10-8).

Abuztuaren bukaeran hasita, kanpoko gudari eta miliziar ugari etorri zen Lekeitioko Frontea prestatzera. Dena dela, Lekeitioko eta inguruko gazteak ere antolatu ziren Gipuzkoatik gelditu gabe zetozen frankistei aurrerabidea gelditzeko helburuarekin. Hain zuzen ere, abuztuaren hasieran militarri trebatzen hasi ziren Lekeitioko gazte talde hartatik abiatuz, Itsasalde konpainia sortu zen, 1936ko irailaren bukaeran. Konpainia hau Itsasalde batailoien hazia izan zen, eta kostaldean jatorria zuten boluntarioekin osatu zen; nagusiki Ondarroa, Lekeitio, Mendexa, Ea, Elantxobe, Mundaka edo Bermeoko gazte abertzaleekin, baina baita barneko herrietako gazteekin ere (berbarako, muxikarrak, gernikarrak, berriatuarrak, markinarrak edo xemeindarrak). Militarri antolatzeaz bat, Itsasaldeko gudariak (zehazki Boga-Boga konpainiakoak) Lekeitioko Frontean kokatu ziren (bereziki Asterrikan), frankisten aurrerapena gelditzeko asmoz, eta han geratu ziren, gutxienez 1936ko azaroaren azken egunetara arte (Vargas, 2001:314-315).

5. 1936ko iraila: errepublikazaleen antolaketa militarra Lekeition

1936ko uztailaren 20tik Lea-Artibai eskualdea osatzen duten herriak (Garai hartan Markinako Barruti Judiziala), beraz, baita Lekeitio ere, Santiago Meaberen agindupean zeuden; bera zen plaza-delegatua, baita Errepublikaren Aldeko Batzordearen lehendakaria ere, eta bere ardurak ziren sektorea osatzen zuten herrietan ordenu publikoa ziurtatzea, elikagaien banaketak antolatzea (bereziki errefuxiatuen mantenua ziurtatzea), eta altxamenduaren alde lanean ari ziren eskuindarrak salatzea, atxilotzea eta euren ondasunak bahitzea.¹³ Arazo eta hutsune asko zeuden (herrian zeuden errefuxiatu

¹³ 1936ko urriaren 18an, defentsa sailburuak, Jose Antonio Agirre Lehendakariak, frontetik hurbil zeuden herrietako antolaketa politiko-militarra zehazten zuten dekretu argitaratu zuen. Aginte gorena sektoreko komandanteak zuen, baina Plaza Delegatuak, Errepublikaren Aldeko Batzordeak, Ondasunen Ikerketa Batzordeak, Udal-batzordeak eta udal-epaile eta -fiskalek ere aginpidea eta konpetentziak zituzten.



Errefuxiatuak Lekeition

guztiek jaten ematea ez zen erraza), baina zibilei zegozkien gaiek agintaritzaz argia zuten.

Ikuspuntu militarretik, baina, gauzak hankaz gora zeuden, irailaren hasieran. Frankistak gero eta hurbilago zeuden, baina hauei aurre egiteko behar ziren azpiegitura militarrek oso ahalak ziren Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan (Onaindia, 1980).

Beraz, irailaren erdi inguruan, agintari militarrek agertu ziren Lekeition, eta ikuspuntu militarretik frontea hobeto antolatzen hasi ziren.

Hasteko, Ispasterreko Zubieta jauregia soldaduen kuartel bihurtu zuten.¹⁴ Lekeitioko

Konpainiako eliza¹⁵ eta Urberuagako bainuetxea (Markina)¹⁶ ere hartu zituzten Lekeitioko Frontean borrokan ari ziren soldaduen kuartel bihurtzeko. Autoak konpontzeko eta gordetzeko garajeak, armategiak edo kanoiak sartzeko lekuak (Zeletan zeuden kanoiak Lekeitiora jaisten zituztela gauero, eta biharamunean igotzen) ere bahitu zituzten. Sektoreko ospitalea Lekeitioko Uribarren jauregiaren (Zita enperatrizaren jauregia izenarekin ere ezaguna) beheko solairuan kokatu zuten¹⁷

¹⁵ Auñamendi Eusko Entziklopedia: <http://aunamendi.euskoi-kaskuntza.eus/es/lekeitio/ar-79286-54063/>

¹⁶ Euzkadiko Jaurlaritzak 1936ko urriaren hasieran bahitu zuen Urberuagako bainuetxea, frankistak Berriatuko mendietan agertu eta gutxira. Nagusiki, Markinako Frontean borrokatzen ari ziren soldadu errepublikazaleak kuarteratu zituzten bertan, baina baita Lekeitioko Frontean borrokatzen ari ziren ANV-ren Olabarri batailoioa ere (Juaristi, 2011).

¹⁷ 1937ko apirilaren 27an, Flechas Negras brigada italiar-espainiar mistoak Lekeition sartu baino bi egun aurretik, errepublikazaleek balioko gauza guztiak atera, eta sua eman zitoten

(Untzeta, 1937 eta Talon, 1988:651).

Arazo asko zeuden ikuspuntu militarretik (nagusiena arma eta munizioa falta zen, men-debaldeko demokraziek ez zirelako armarik saltzen errepublikazaleei),¹⁸ baina, 1936ko irailaren erditik aurrera, frankistek aurre egiteko behar ziren azpiegitura eta antolaketa militarrek hobeagotu egin ziren.

jauregiari.

¹⁸ Bizkaira heldu zen armen lehen kargamentu handia Azteka baporearen bidez iritsi zen Santanderrera 1936ko irailaren 21ean. Arma hauek irailaren bukaeran banatu ziren Gipuzkoako Frontean (Lekeitio, Markina, Eibar eta Elgeta eta Elorrioko sektoreak). Iñaki Goigianak zioen legez: "Azteka heldu aurretik, fronteko egoera etsigarria zen. Miliziarrek eta gudariek arma gabezia, nola hala, adore eta kemen handiz ordezkatu behar zuten. Herriak etengabe erortzen ziren eta gero eta errefuxiatu gehiago zihoazen Bizkaira" (Goigiana, 2014:17-18). Geroago, urriaren hasieran, Eusko Jaurlaritzak Txekoslovakian eta Alemanian erosi zituen armak heldu ziren.

6. 1936ko irailaren bukaera: frankistak Bizkaiko mugan

Perez Salas-en agindupeko erreketek (Montejurra erreketetertzioa) Azkarate Gainera (Elgoibar) heldu ziren irailaren 21ean, eta errepublikazaleen aurka borrokatu ostean, Elgoibarren sartu ziren, arratsaldeko seiak eta erdiak inguruan (Barruso, 1996:266; Juaristi, 2014b).

Frankisten aurrerabidea ikusita, Elgoibarko abertzale eta ezkertiarrek, bereziki erantzukizun politikoak zituztenek (Errepublikaren Aldeko Batzordeetan aritutakoak, nagusiki), beldurtuta, ihes egin zuten. Batzuk Markinan gelditu ziren,¹⁹ baina gehienak Lekeition errefuxiatu ziren.²⁰

Irailaren 24an, frankistek eraso egin zuten Mutriku hartzeko helburuarekin, baina arrakastarik gabe. Borroketan, soldadu frankista asko hil ziren, eta hauek ezin izan zuten aurrera egin (Barruso, 1996:269). Edonola ere, hiru egunez, irailaren 27ra arte, frankistek erasotzen jarraitu zuten Mutriku hartzeko helburuarekin, eta errepublikazaleek, eraso gelditu ezinda, eta inguratuta gelditzeko beldurrez, atzera egin behar izan zuten. Irailaren 27an, frankistak Mutrikun sartu ziren.

Irailaren 26an, Gipuzkoan borrokatzen aritutako miliziar asko Ondarroan gotortu ziren. Eta horrek ideologia eskuindarra zutenen beldurra areagotu zuen. Kontuan izan behar dugu, irailaren bukaeran, gerrak harrapatutako hainbat udatiar (madrildarrak, zaragozarrak...) bizi zela Ondarroan. Horietariko askok ideologia eskuindarra zuten, eta miliziarrek egin ziezaioketenaz beldur ziren. Horiek babesteko, EAJ-k Gordexola batailoia bidali zuen Ondarroara. Batailoio hau irailaren 26tik urriaren 4ra egon zen bertan, ordena publikoa ziurtatzen (Egiguren, 2009).

Lekeitioko eskuindarrak ere urduri zeuden irailaren bukaeran. Ondorioz, horietariko batzuk ihes egitea erabaki zuten. Adibidez, Leon

¹⁹ Markinan kaleak eta plazak zaintzen zituzten, eta ordena publikoa ziurtatzen zuten.

²⁰ Ixaka Azpiaz "Ixaka" idazle elgoibartarrak 1936ko urriaren 4an Euzkadiko egunkarian idatzi zuenaren arabera, Elgoibarko Errepublikaren Aldeko Batzordeetan lanean aritu ziren gehienak Lekeition errefuxiatu ziren: "An eta emen, Bilbao, Gernika eta abar, badira bai, banaka elgoibartar batzuk, baña emen Lekeitio'n alkarturik geranak, degu Elgoibar erriaren izena, ez or banaka dabilzanak". Lekeition Gipuzkoako euskal idazle ugari errefuxiatu zela ere aipatzen du: Luzear, Basarri, Tene, Zumaiaiko Arrate, Etxabe, Azkoitiko Urzelai eta abar.



Errefuxiatuak eta gudariak Lekeition

Okamikak, Primo de Riveraren diktadura garaian Lekeitioko alkate izandakoak, Donostiara ihes egin zuen irailaren bukaeran edo urriaren hasieran (Ocamica).

Erreketek eta falangistak Bizkaiko "atean" zeudela ikusita, Lekeitioko frontean zaitzen ari ziren soldaduek frontea sendotzeko ahalginak areagotu zituzten. Lekeitioko komandantziatik aginduta, gudari, miliziar eta zibil boluntarioek lubakiak eta gotorlekuak sendotu zituzten Milloin, Kalamendin eta Asterrikan, fronteko lerroa arantzadun alanbrearekin itxi zuten, eta Laka Goikoan, Asterrikan²¹ eta Zeletan kanoiak jarri zituzten (Zeleta Plazakolatik Oletara doan bideko aldatsik gorenean dago). Horrez gain, edozenbat baserri bahitu zituzten, aginte eta kontrol postuak ezartzeko, eta fronteko lehen lerroan borrokatzen ari ziren gerlariei biziokiak eta gotorlekuak emateko. Milloi auzoan (Berriatua), Astobitza (hiru batailoio bizi ziren bertan, 300 bat miliziar), Eizmendi Altzanekua (aginte-postua), Idemine-ta, Laka Behekoa, Laka Erdikoa, Laka Goikoa eta Zeleta bahitu zituzten; Asterrika auzoan, Aldeko, Alipasolo, Anakabe Goikoa, Urkiaga Goikoa eta Urkiaga Behekoa (Juaristi, 2014a).

²¹ Asterrikan (Berriatua), 15 zentimetrotako Krupp erako kanoi bi zeuden (Vargas, datarik gabe-IV:273-274) eta Laka Goikoan eta Zeletan (Berriatuko Milloi auzoa) 75 milimetrotako Saint Chamond-Mondragon erako beste bi kanoi.

Osasun militarreko postuak ezartzeko ere hainbat eraikuntza bahitu zituzten Berriatuan: besteak beste, Anakabe Goikoa, Asterrikako auzo-eskola eta Portu izeneko tokia, Lekeitio eta Ondarroa artean.

Beraz, 1936ko urriaren hasieran, Lekeitioko Frontean "gerrako makinaria" prest zegoen Gipuzkoatik gelditu gabe zetozen erreketek aurre egiteko.

7. 1936ko urriak 4: erreketek eta falangisten eraso hasten da

Urriaren 3an tiro hotsak entzun ziren Ondarroako inguruetan.

Erreketek eta falangistak hurbiltzen ari zirenen seinale. Errepublikazaleak Lekeitioko bidetik atzera egiterakoan, hiru ondarrutar atxilotu zituzten, eta eskuindarrekin kolaboratzea leporatu, biharamunean, urriaren 4an, hil zituzten Atxazpin. Egun berean, faxistek lau miliziar fusilatu zituzten Katei inguruetan. Isolatuta gelditu omen ziren, Pikupe inguruak babesteko ahaleginetan, eta atxilotu egin zituzten (<https://ondarroakohistoria.wordpress.com/2008/11/07/ii-errepublika-eta-gerrazibila-ondarroan/>).

1936ko urriaren 4ko goizean (Arrosario-ko Domeka), Benantzio Tutor teniente koronelaren agintepeko erreketetertzioek eta falangisten banderek (batailoiek) Ondarroako

ekialdea eta hegoaldea eta Berriatuko hegoaldea²² eskuratu zituzten. Larruskain (Markina-Xemein) inguruko mendi eta baserrietan ere (Amulategi, Kostola, Amallogarai Goikoa, Mandiola Goikoa...) jaun eta jabe ziren.

San Inazio tertzioko erreketek, San Migel tertzioko erreketek (Ondarroan kokatu ziren martxoaren 31ra arte) eta Karlos Ruizen mendeko gerlari falangistak izan ziren posizio horietan agertu ziren aurrenetarikoak (OHZ eta Lan Taldeko Kideak, 2007:187). Ondorioz, Ondarroan eta Berriatua inguruan zeuden soldadu errepublikazaleek atzera egin behar izan zuten, batzuk Amallo inguruko (Markina-Xemein) tontor eta baserrietaraino eta, beste batzuk, Kalamendi, Asterrika eta Milloiraino (Berriatua).

Urriaren lauko goizeko 11tan erreketek eta falangistak Ondarroako sarreran zeuden (frankistak arratsaldeko 13:00etatik 16:00etara eskuratu zuten Ondarroa), eta aurreko egunetan bezala, herritar gehiagok, beldurtuta, Lekeitiarrantz ihes egin zuen.

Ondarroako Antiguako amaren elizako kanpaiek frankistei ongi-etorria ematen zieten momentuan, alde bateko eta besteko artilleriak jo eta ke ari ziren lanean. Errepublikazaleak Asterrikatik eta frankistak Santa Kruzetik, kanoikadak etengabeak ziren (<http://ondarroakohistoria.wordpress.com/2008/11/07/ii-errepublika-eta-gerra-zibila-ondarroan>).

Urriaren 4an, errepublikazaleek, atzeraka zihoazela, Plazakolako zubiaren (Markina-Xemein) zati bat lehertu zuten, frankisten aurreabidea galarazteko edo behintzat geldotzeko. Aurreko egunetan, Ondarroako zubi zaharra eta berria ere suntsitu zituzten.

Behin Ondarroa eta Berriatuko iparraldeko eta ekialdeko mendiak eta baserriak hartuta, bazirudien frankistak berehala sartuko zirela Berriatuko erdigunean, Erriberan; baina urriaren 4ko gaua mendian pasatu zuten. Iluntzean, egoera lasaia zela ikusita, soldadu errepublikazaleak bueltatu egin ziren ordu batzuk aurretik utzitako Milloiko, Kalamendiko eta Asterrika posizioetara.

Ondarroa inguruan zeuden soldadu errepublikazale guztiak ihes egin zuten Lekeitiarrantz urriaren lauko goizean, baina Santander Batailoiko lau kide atxilotu zituzten: Manuel

Garcia, Gerardo Toalet, Victoriano Lopez eta Jose Lopez Fernandez. Urriaren 4tik 5era atxilotuta egon ziren, baina ihes egitea lortu zuten, eta ezkutatuta ibili ostean, Lekeitioko Frontean agertu ziren urriaren zazpian (El Liberal, 1936-10-8).



8. Urriaren 5etik 10era: borroka gogorak Lekeitioko Frontean

1936ko urriaren 5ean, atsedena hartuta, Santa Gurutz ermitan (Ondarroa) eta Madalena inguruan (Berriatuko auzoa) gaua pasatu zuten erreketek eta falangistek aurrera egin zuten Bizkaia konkistatzeko helburuarekin.

Ondarroa inguruan lo egin zuten erreketek eta falangistak, bestalde, Asterrika auzoko Urkiaga Goikoaraino (Berriatua) heldu ziren urriaren 5eko arratsaldean. Edozelan ere, aurreko asteetan eraikitako lubaki eta babesguneetan gotortuta, miliziarrek eta gudariak aurre egin zieten, eta frankistek ezin izan zuten aurrera egin (Juaristi, 2014a).

Madalena inguruan gaua egindako frankistak ere aurrera egin zuten, eta Berriatuko Erriberaraino jaitsi ziren urriaren 5ean, eta Kalamendin, Zeletan eta Laka Goikoan zeuden miliziar eta gudariei erasotzen hasi ziren. Dena den, errepublikazaleek tinko aurre egin zieten frankistei, eta, ondorioz, berehala igo behar izan zuten Amallozur, Madalena eta Txindurri (Berriatuko mendiak).

Urriaren 6an borrokak jarraitu zuten Berriatua inguruan. Hain zuzen ere, Barakaldo batailoiak parte hartu zuen borroka gogor hartan.²³

Urriaren 7an, Escañon eta Miranda guda-hontzi errepublikarrek Asterrika inguruan frankistek zituzten posizioak bonbardatu zituzten, frankistei kalte egiteko helburuarekin (Egaña, 2000, VI. Tomoa:24; Euzkadi, 1936-10-8). Laurogei bat kanoikada bota omen zituzten frankisten posizioetara, hauen atzerakada bultzatzeko asmoz, baina arrakastarik gabe. Egun hartan, Euskal Milizietako zapadore-minadoreen kapitaina, Jose Portu, zauritu zen (Euzkadi, 1936-10-8).²⁴

Urriaren 8a aurreko eguna baino lasaia izan zela dirudi (Euzkadi, 1936-10-9). Tiroketa arin batzuk besterik ez ziren izan (Euzkadi, 1936-10-9).

Urriaren 9an, hegazkin errepublikarrek Lekeitioko Frontean aritu ziren. Frankisten posizioak bonbardatu, frankistek kanoiak isilarazi zituzten, eta infanteria errepublikazaleak galdutako posizio batzuk (zehazki esanda, baserri batzuk) eskuratu ahal izan zituen (Euzkadi, 1936-10-10). Guk dakigula, gerrako helburuekin Lekeitioko Frontean hegazkinek egin zuten lehen bonbardaketa izan zen.

Badirudi Lekeitioko Frontean izan zen lehen borrokaldi hura urriaren 10ean bukatu zela. Izan ere, frankistek egun horretan utzi zuten Berriatuko hirigunea (Erribera), Eizmendi baserriaren ingurutik (Milloi auzoa) eraso gogor bat jasan ostean (baliteke eguraldi txarra ere atzera egiteko arrazoiatariko bat izatea). Berriatua, beraz, errepublikaren aldekoen eskuetan gelditu zen.

Egun horretan, urriaren 10ean, Errepublikaren aldeko bi hegazkinek frankistek Ondarroan zituzten posizioak bonbardatu zituzten. Zehazki, Santa Kruz ermita eta Ondarroako gaina eraso zituzten, 10:30etan, 13:00etan eta 17:00etan. Prentsak zioenaren arabera, 150 bomba baino gehiago bota zituzten erreketek eta falangisten posizioetara. Horietariko bomba batek Mutriku eta Ondarroa artean zeuden kamioi batzuk lehertu omen zituen (El liberal, 1936-10-11; Euzkadi, 1936-10-11).


1936ko urriaren 5etik 10era bitarteko egunetan, erreketek eta falangistak gogor borrokatu ziren aurrera egiteko helburuarekin, baina Herri-milizietako soldaduek, UGTren batailoietakoek (Gonzalez Peñakoak, Indalecio Prietokoak eta Barakaldokoak), EAE-ANVko gudariak (Euzko Indarra eta Olabarri batailoietakoak), Castilla batailoiko miliziarrek (JSU - Juventud Socialista Unificadakoak) eta Saseta batailoiek (EAJ-koak) gogor borrokatu ziren horien aurrerabidea galarazteko (El Liberal, 1936-10-8). Iruditzen zaigu hegazkin errepublikazaleen parte hartzeak ere (urriaren 9an eta 10ean) garrantzi handia izan zuela frankistak geldituzerakoan.


1936ko urriaren 5etik 10era bitarteko borroketan batailo ugarik parte hartu zuten, baina hiru izan ziren lehen leerroan aritu zirenak, eta, ondorioz, arrisku handiena bizi izan zutenak:

²² Santa Kruz eta Madalena ermitak, Tontorramendi, Legarremendi, Amallozur eta Txindurri mendiak eta Berrosasi, Armetxa, Itxurriño, Legarrei, Arantzadi eta Pertike baserriak.

²³ <https://errepublikaplaza.wordpress.com/2016/09/15/batallon-28-baracaldo-martinez-aragon/>

²⁴ Geroago, Jose Portu Ingeñariaren 1. Batailo Mistoko (Manuel Andres Batailoia) komandantea izan zen (<http://www.errepublika.org/LAS-MILICIAS-REPUBLICANAS-EJERCITO-EUSKADI.htm>).





Lekeitioko plaza eta kaleak.
Luis Ceniga medikuak ateratako argazkiak

Luis Sansinenea²⁵ kapitainaren ardurapean zeuden EAE-ANV-ren bigarren batailoiko gudariak (Euzko Indarrakoe).

Franco kapitainaren ardurapean zegoen UGTren 2. batailoia (Indalecio Prieto batailoikoek) (Vargas, 1994:54).

Eta Barakaldoko bigarren eta hirugarren batailoiak.

Hiru batailoia honetako soldaduek, erakutsi zuten tinkotasunaren ondorioz, agintari militarrek zoriondu egin zituzten (El liberal, 1936-10-8).

9. 1936ko urriaren 11: Lekeitioko Frontea egonkortzen da

Urriaren 11tik aurrera, aurreko egunetako borroka gogorak baretu egin ziren,²⁶ eta frontea egonkortu egin zen. Horrela, zazpi hilabetez, 1937ko apirilaren amaierara arte,²⁷ soldadu errepublikazaleak eta soldadu frankistak bata bestearen parean egon ziren, elkarri tirokatzen eta erasotzen (baita lubaki batetik bestera iraintzen ere), baina urriaren

²⁵ Luis Sansinenea Eusko Indarra EAE-ANVko batailoia kapitaina izan zen. Gara egunkarian (2009-08-22) irakurri zitekeen bezala: "Gerra Zibilak ia 27 urterekin harrapatu zuen Luis Sansinenea. Garai hartan bere lanbidearen oinarriak jartzen ari ziren: hortzetako aparatuetan teknikaria zen, Donostiako Sansinenea sendiko hainbat partaide bezala. Gerra Zibilak dena hankaz gora bota zuen eta, hainbeste kasutan bezala, bere lanbide zibila bazterrean utzi eta armak hartu behar izan zituen. Nahiz eta instrukzio edo esperientzia militarrik ez izan, azkar elkartu zen kolpe espainiar faxistaren aurka bildu ziren Donostiako abertzale eta errepublikazaleekin. Berak ezker abertzalearen hautua egin zuen, EAE-ANVko bigarren batailoian, Eusko Indarran. Batailoia horretan pasa zituen Gerra Zibileko hainbat pasarte latz eta gogor: Donostia, Irun, Zubeltzu, Buruntza, Zarateko Bentak, Murumendi, Markina. 1936ko azaroan, Luis Sansinenea Eusko Indarreko kapitain gradua zuen. Berarekin Joxe Azurmendi, Ramon Laniella, eta Sabino Oiarzabal kapitainak ziren. Batailoia komandantea Tomas Mitxelena zen. Geroago, Eusko Indarra Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan eta Albertiako frontean aritu zen. <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20090822/152986/eu/Luis-Sansinenea-Zurube-EAE-ANVko-gudari-handi-baten-100-urte>

²⁶ Hara zer kontatzen zuen Jose Aseginolazak, 1936ko urriaren bigarren hamabostaldian Lekeitioko Frontera bidali zuten Saseta batailoiko gudariak: "Después de un descanso de 5 o 6 días, y equipados completamente, hicimos la primera salida desde Vizcaya al frente, y ocupamos las posiciones que dominaban el pueblo de Berriatua. Aunque días antes se habían librado allí combates durísimos con grandes pérdidas para los rebeldes que fueron rechazados hasta el otro lado del valle, al ocupar nosotros las lomas, la tranquilidad era completa. De vez en cuando el silvido de alguna bala nos hacía recordar que enfrente teníamos a nuestros enemigos. Aparte de esto, calma absoluta. A los quince días, sin tener que lamentar baja alguna, fuimos relevados" (Bidaso, 2005:677).

²⁷ 1937ko apirilaren 26an, soldadu frankistak Eibarren, Ermuan, Zaldibarren, Berrizen eta Garain sartu ziren (Irazabal, 2012:210). Biharamunean, 27an, Markina-Xemeinen, Etxebarrin eta Berriatuan; 28an, Munitibarren eta 29an, Lekeition eta Durangon.

hasieran lortutako posizioetatik mugitu gabe.

Frankistek Ondarroa eta Berriatuko iparraldeko eta ekialdeko mendiak eta baserriak kontrolatzen zituzten,²⁸ baita Larruskain (Markina-Xemein) inguruko tontor eta baserriak ere (Amulategi, Kostola, Amallogarai Goikoa, Mandiola Goikoa...), eta Arrate, Urkaregi Gaina, San Migel Gaina eta Kalamua tontorra.

Errepublikazaleek, aldiz, Lekeitio, Berriatua eta Berriatuko mendebaldeko eta hegoaldeko mendi, auzo eta baserriak kontrolatzen zituzten (Asterrika eta Milloi auzoak eta Kalamendi), baita Itoiñomendia, Urberuaga, Akarregi mendia, Xemein, Markina, Etxebarria, Barinaga auzoa, Kalamua mendiaren oinak, Akondia eta Urko mendiak. Posizio askotan, batzuegandik besteengana, kilometro bat baino gutxiago zegoen (Juaristi, 2014a).

1936ko urritik aurrera hiru ziren Bizkaia babesten zuten fronteak: Gipuzkoako frontea, Arabako frontea eta Burgoseko frontea.²⁹

Gipuzkoako frontea Lekeitio ingurutik Aramaio ingurura arte zihoan, eta Lekeitio, Markina, Eibar, Elgeta eta Elorrioko sektoreek osatzen zuten. Gipuzkoako Frontearen agintaritzak Amorebieta-Etxanon zegoen, eta Joakin Vidal Munarriz zen koronela.

Lekeitioko sektorea Asterrikan hasten zen (horregatik, hain zuzen ere, batzuk Asterrikako Frontea deitzen zioten), Kalamenditik eta Millotik pasatzen, eta Itoinomendiraino heltzen. Gipuzkoako Frontearen zati hau Markinako eta, batez ere, Berriatuko lurretan zegoen, baina Lekeitioko Sektorea edo Frontea izenarekin ezagutzen zen, komandantzia Lekeition zegoelako, baita soldaduentzako kuartelak eta odol ospitalea ere (Talon, 1988:651).

10. Lekeitioko Fronteko agintari militar errepublikazaleak

Lekeitioko Fronteak agintari militar asko izan zituen frontea geldirik egon zen zazpi hilabeteetan. 1936ko urriaren 5etik 10era izan ziren borroketan, agintaritzak militarra Eugenio Garcia Munilla Guardia Nazio-

²⁸ Ondarroako Zezermendi eta Arteta baserriak eta Berriatuko Ikatza eta Arrixa baserriak kontrolatzen zituzten Asterrika auzoan; eta Legarmendia, Amalozur eta Txindurri mendiak, Madalenako ermita eta Legarrei, Arantzadi eta Pertika baserriak Madalena auzoan (Berriatua).

²⁹ Arabako frontea Aramaioetik Gorbeia mendiaren mendebalderaino zihoan; Burgosekoa, Gorbeia ingurutik Enkarterriaraino.

nal Errepublikarraren buruzagiaren, Manuel Asarta (Alderdi Komunistako kidea) eta Placer milizietako komandanteen, Payret tenientearen eta Salvador Gomez Buillon³⁰ ingeniarien kapitainaren eskuetan egon zen. Dena dela, urriaren bukaeratik abenduaren 7ra arte, Juul Christianaes belgikarra izan zen sektoreko komandantea (El Liberal, 1936-10-21).

1936ko abenduan, Ledesma Guardia Zibileko tenienteak hartu zuen komandantziaren ardura.³¹ Ledesma Markinako Fronteko buru militarra izan zen 1936ko gabonak arte, eta gero Lekeitioko komandante egin zuten. Postu horretan ez zen luzaroan egon; 1937ko otsailaren 19an, frankisten aldera pasatu zelako, Markinako eta Lekeitioko fronteei buruzko informazio pila frankistek pasatuz (Mendizabal, Lasa eta Agirre, 2006:78).

1937ko otsailaren eta martxoan, sektoreko komandantea German Ollero Morente Guardia Zibila izan zen.³²

11. Frankisten antolaketak militarra Lekeitioko Frontean

Frontea geldirik egon zen zazpi hilabeteetan (1936ko urriaren hasieratik 1937ko apirilaren bukaerara arte), lau izan ziren Bizkaiko eta Gipuzkoako fronteetan guduak izan ziren Nafarroako brigadak. Lau brigadok iparraldeko armada nazionalako seigarren dibisioko (Jose López-Pinto zen jenerala, eta kuartel nagusia Burgosen zegoen) lehen taldearen (Jose Solchaga zen jenerala, eta kuartel nagusia Burgosen zegoen) parte ziren. Lekeitioko Fronteko posizioetan, bigarren brigadako soldaduek guduak izan, nagusiki.


Bigarren brigadaren burua Cayuela koronela zen, eta bere kuartel nagusia Deban zegoen.

³⁰ Espainiako Defentsa ministerioaren arabera, Salvador Gomez Bullón, Alejandro Goikoetxearekin batera, Euskadiko Armadaren ingeniarien burua zen (Egafía, 2009: 40-41).

³¹ Ledesma teniente Fernando Ledesma Bartret (Toledo, 1939) politikari sozialistaren aita izan zen. Fernando Ledesma justizia ministroa izan zen Felipe Gonzalezen agintaldian (1982-1988).

³² Germán Ollero Morente (Porcuna, Jaen, 1892 – Madril, 1967) Madrilen zegoen 1936an. Gerra hasi zenean, Errepublikaren alde agertu zen, eta Bizkaiko frontera bidali zuten. Lekeitioko komandantea izan zen 1937ko apirilaren bukaerara arte, eta 1937ko apirilaren 26an, I. dibisioko agintaritzak eman zituen. Guztira lau brigada zeuden bere mendean (Urgoitia, data gabe: 229). Gero Valentziara eraman zuten, eta 1939an, komandante egin zuten. 1939ko martxoaren 29an, armada frankistari entregatu zen Balentzian, eta epaiketa egin ostean, hainbat kontzentrazio eremu eta kartzeletatik pasatu zen (ABC, 1967ko urriaren 15eko nekrologika).

Panoramico dalla Trincea di q. 212



Italiako artxibo militarretan aurkitutako planoak.

Brigada honek 4.654 soldadu zituen, Asterrikatik (Berriatua) Urkaregi ingurura (Elgoibar) arteko kokaguneetan (hau da, Lekeitioko eta Markinako Fronteetan).

Bigarren brigadak bi brigada-erdi zituen. Lekeitioko Frontean, lehen brigada-erdiko erreketek eta falangistak gudukatu ziren, Benantzio Tutor teniente koronelaren ardura-pean (OHZ eta Ondarroako Historiazaleak, 2007:187). Lehen brigada-erdi hau erreketean 2 tertziok eta falangisten bi banderak (batailoiak) osatzen zuten:

1. San Inazio erreketek-tertzioa (2º Tercio de Requetés de Guipuzcoa) Lekeitioko Frontera heldu ziren lehenengotariko soldadu frankistak izan ziren. 1936ko urriaren 4ko goizean (Arrosarioko Domeka) azaldu ziren Berriatuko Madalena auzora, eta Ondarroa hartzen ere parte hartu zuten. Kuartel nagusia Deban zuten. Urola araneke herritarrez osaturik zegoen, nagusiki.

2. San Migel erreketek-tertzioa (4º Tercio de Requetés de Navarra) Leitzan sortu zen, 450 soldadu zituen (Legarra Belastegi, 2008:348-349) eta Santo Domingo abizeneko norbait zen komandantea. Tertzio honetako soldaduak izan ziren Ondarroako hirigunean sartu ziren lehenak urriaren 4an, arratsaldeko 13:00etatik 16:00etara. Nafarrak ez ezik, donostiarrak eta tolosarrak ere parte hartu zuten tertzioan (Errazkin, 2013-I:55; Legarra Belastegi, 2008:348-349).

3. Falangista nafarren 1. eta 3. banderak: Nafarroako falangisten banderak ere borrokatu ziren Lekeitioko Frontean. Hain justu ere, Karlos Ruiz kapitainaren mendeko falangisten bi konpainiak Asterrrikako kokaguneak zaintzen zituzten. Hauek ere Ondarroan zuten kuartela (Legarra Belastegi, 2008:348-349 eta OHZ eta Lan Taldeko Ki-deak, 2007:187-189).

Erreketek eta falangista hauek guztiak martxoaren 31ra arte egon ziren Lekeitioko Frontean borrokatzen (Arostegi, 1991, bigarren tomoa:70-71), eta 1937ko apirilaren 2an Piazzoni jeneralaren Gezi Beltzak brigada italiar-espainiar mistoak hartu zituen hauen posizioak. Brigada honek sei batailoio eta artilleria talde bi zituen, eta guztira 8.000 soldadu.

Errepublikaren aldeko batailoiek bezala, armada frankistak ere zapadoreen eta transmisio, osasun eta artilleria unitateen laguntza zuten. Erreketean artilleria Arantzadi baserriaren alboan eta Santa Kruz ermitaren inguruan egon zen; eta gauean, Armetxa baserri ingurura jaisten zituzten. Ondarroa eta Lekeitioren arteko bidean ere, karabineroen kuartelean, kanoiak kokatu zituzten.

Frankistek ere hainbat lubaki eraiki zituzten Lekeitioko Frontean (Txindurrimendin, Legarreimendin edo Asterrikan). Edozelan

ere, alde bateko eta besteko lubakiak ikusi zituztenek diotenez, frankistenak errepublikazaleenak baino sakonera eta babes gutxiagoak ziren. Itxura denez, zeuden posizioetatik aurrera egingo zutenaren esperantzarekin egindakoak ziren.



12. 1936 urriaren 11tik 20ra: lasaitasuna Lekeitioko Frontean

Esan bezala, urriaren 5etik 10era borroka gogorrak izan ziren Lekeitioko Frontean. Hurrengo 10 egunak, baina, lasaiagoak izan ziren (Bidasoa, 2005:677). Tiroketak eta bonbardaketa batzuk izan ziren, baina, oro har, borrokaren intentsitatea jaitsi egin zen.

Urriaren 12an, hegazkin errepublikarrek Lekeitioko Frontean frankistek zituzten posizioak bonbardatu zituzten (El Liberal, 1936-

10-13). Lekeitioko Frontean hegazkinen bidez egin zen hirugarren bonbardaketa izan zen.

Urriaren 13an, 14an eta 15ean, tiroketa gutxi batzuk izan ziren Asterrikan eta Itoiño-mendian (Euzkadi, 1936-10-14; Euzkadi, 1936-10-15).

Urriaren 17an, hegazkin frankistak Lekeitioko Frontea, Ondarroa inguruan, zelatatzen aritu ziren (Goiozana, 2017).

Egoera lasaiagoa izanik, urriaren 15ean, goizeko bederatzietan, Mikel Amuskizar gudari zarautzarraren aldeko hileta elizkizuna egin zen Lekeitioko Andra Mariaren Jasokundearen elizan. Lekeitioko herritarrek, EAJ-ko politikariak eta gudariak parte hartu zuten elizkizunean (Euzkadi, 1936-10-16).³³

³³ Mikel Amuskizar zarautzarra zen, eta Loiola Batailoiko gudaria. 1936ko abuztuaren lehen egunetan, Zarauzko beste 62 gazterekin batera, boluntario joan zen Loiolako santutegira,

Urriaren 19an, bestalde, urriaren hasierako borroketan Lekeitioko Frontean hil zen UGT-3 batailoiko laugarren konpainiako Rikardo Bilbao miliziarren aldeko omenaldia egin zen Lekeitioko kanposantuan. (El Liberal, 1936-10-21).



13. Urriak 21 (eguztana): bou frankisten aurkako eraso Lekeitioko eta Ondarroa parean

10 eguneko lasaitasuna 1936ko urriaren 21ean bukatu zen. Hain zuzen ere,

frankisten aurka borrokatzeko prestatzera. Eusko Gudarteko lehen konpainiaren sorreran parte hartu zuen (Anaitasuna zuen izena konpainia horrek, baina Zarautz ezizenez ezagutzen zen, zarautzarrak nagusi zirelako bertan). Gipuzkoa babesten hil zen (Etxeberria, 2013-2-2: <http://www.diariovasco.com/v/20130202/costa-urola/fallece-ultimo-gudari-zarauzterra-20130202.html> eta <https://zarautz1936.wordpress.com/2014/09/19/loiola-62-gazte-zarauztarren-gerra-eskola/>).

ZONA DE VIZCAYA

Schizzo N° 2

sviluppiamento delle operazioni -
II fase: 1° marzo - 31 maggio



VILLASANA
SALINAS

ORDUÑA

Idigoras gudaria

Lekeitioko frontean

Kurikeruak

1993an sortu zen Sabino Arana Fundazioa, besteak beste, euskal abertzaleen ondare historikoaren gordailu izateko asmoz. Sortzeaz batera, batean eta bestean sakabanaturik zeuden dokumentuak eta objektuak batzen hasi zen. Helburu nagusienetako bat gerran parte hartu zuten gudariak etxean gordeta zituzten bitxiak batu, gorde eta zabaltzea izan zen. Horretarako, urte hartan bertan, Gudari Egunean dei bat zabaldu zuen Jose Mari Otsoa Txintxetru gudari zaharrak eskatuz bere gudarikideei Fundazioan uzteko etxean urteetan zaindu zituzten argazki, agiri eta abarrak.

Dei honi erantzunez Andres Idigoras Villar, Mungia batailoiko Atzeta konpainiako gudaria, hurreratu zen Fundaziora ondoren datorren kontakizuna idatzita.

Andresek orduan ekarri zituen agiriak fotokopia batzuk besterik ez ziren, baina aspaldi ez dela bere familiakoak hurreratu ziren Fundaziora, aita zenak etxean utzi zituen argazkiak, karnetak eta kartak artxiboan uzteko asmotan. Orduan konturatu ginen Olabeagako gudari zaharrak hilabeteak eman zituela Itolako posizioan eta ez hori bakarrik bere argazkiak eta paperak irakurrita gerra gure inguruan zer izan zen jakiteko sekulako informazioa ematen dutela. Hemen argitaratu duguna bere bildumaren zati bat besterik ez da.

Mungia batailoiko Atzeta konpainiako gudariak: Garibi, Jose Andres Idigoras, Adolfo Ajuria, Juan Mendoza, Patxi Baruren, Felix Azkargorta, Jose Luis Gastelurrutia, Elias, Antonio Apellaniz eta Larrieta.



Veamos, en primer lugar, lo que nos dice la Tarjeta de Identidad expedida el 19 de Octubre de 1936 por la Oficina de Reclutamiento, Movilización Estadística y Acuartelamiento del Gobierno de Euzkadi.



Como puede observarse, nos otorga el nombre de Miliciano de la República. No me agrada tal denominación. Ya sé que miliciano es la versión castellana de gudari, pero prefiero que se me llame así: Gudari.


Al iniciarse la guerra comenzó a organizarse nuestro ejército en centros improvisados. El Patronato de Bilbao, en la calle de Iturribide, fue uno de ellos. Allí pasamos un brevísimo periodo de acuartelamiento e instrucción. Digo pasamos, en plural, porque me estoy refiriendo tanto a mí como a media docena más que constituíamos una cuadrilla de amigos y deseábamos, vehementemente, ir juntos a la gran aventura de la guerra. Quizás en nuestra subconsciencia buscábamos el recíproco y mutuo ánimo a la



vez que refugio y amparo en los trances que quién nos pudieran de parar aquellas circunstancias.

Nos adscribieron inicialmente al Batallón Otxandiano (Compañía-Fano) y unos días después, por exigencias de reestructuración, nos incorporaron definitivamente al Batallón Munguia (Compañía Atzeta) donde hicimos toda la campaña.

Como puede verse en la documentación que se exhibe en la la página siguiente, también en el Batallón nos dotaron de las correspondientes tarjetas de identificación. Ahí están el ESAUKIJA y el GUDARI TXARTELA de EUZKO GUDAROSTIA. Se puede observar, con gran satisfacción, que la terminología empleada es ya euskaldun.




Una vez en el frente, también aquí los papeles van registrando los quehaceres y acontecimientos más relevantes. El infrascrito, que oficiaba de cabo de una escuadra, llevaba un Diario en el que, rotando las horas, iba nombrando las guardias del parapeto en el frente.

Si observamos en el fragmente reproducido (si bien reducido en su tamaño a la mitad), podemos conocer qué gudari y a qué hora de la noche montaron guardia el día señalado. Este Diario sufrió mucho deterioro en su escondrijo subterráneo, pero goza de salud suficiente para decirnos, con potente voz, las consignas dadas para cada noche de guardia y la fecha en que relevamos al Batallón Gordexola, después de unos días de descanso en Lekeitio, practicando ejercicios de instrucción.

(Los apellidos de los gudarís, componentes de la escuadra, que sucesivamente van apareciendo son: Apellaniz, Azkargorta, Eizmendi, Mendoza, Axuria, Garibi, Germán, Salcedo y Gastelurrutia. Aunque con alguna dificultad, también pueden leerse las consignas dadas para las noches del 21 y 23 de Abril de 1.937: Unidad de mando y Todos preparados, respectivamente).

Ahora toca su turno a un documento muy singular. El frente de Lekeitio-Ondárroa permaneció estabilizado



durante algún tiempo, hallándose ambas posiciones enemigas muy próximas la una de la otra. Ello nos permitía establecer alguna comunicación verbal, si bien a grandes voces, que casi siempre culminaban con unas ráfagas de ametralladoras y fuego de fusiles.


En medio de ambas líneas enemigas, en tierra de nadie, había un caserío. Naturalmente se hallaba abandonado. En sus tierras de cultivo se percibía un exhuberante maizal con hermosísimos "artaburos". Amparados en la penumbra del atardecer, ya casi de noche, tres gudarís nos aventuramos a hacer una recolección y nos trajimos sendos sacos llenos de mazorcas.

Como ocurre en todas las guerras, también en la nuestra se dio la penuria de alimentos y, como consecuencia

de ello, el racionamiento y la intervención rigurosa de los artículos alimentarios, prohibiéndose la libre circulación de los mismos. Lógicamente surgió el problema: ¿Cómo llevar el maíz a casa? El documento que comentamos fue la solución.

Una vez redactado en los términos que puede leerse a continuación, (página 6), lo firmó el Teniente de la Compañía Iñaki de Arana (que poco después moriría gloriosamente en el frente de Otxandiano-Villarreal, cerca de la posición llamada Krutzeta.) Véase también la diligencia de la Alcaldía de Lekeitio firmada por su alcalde Sr. Adán de Yarza, que permitió el tránsito de los tres sacos de maíz a nuestras respectivas casas de Bilbao. Estupendo regalo en aquella época de riguroso racionamiento.

(Con el fin de facilitar su lectura, hacemos a continuación una transcripción literal del documento. Dice así: "El que suscribe, Iñaki de Arana, Teniente de la 3ª Sección de la Compañía Atzuela, certifica: Que los tres sacos de maíz que obran en poder de los gudarís de la indicada Compañía José Andrés de Idigoras, Adolfo de Axuria y Félix de Azkargorta, no son comprados, sino cogidos en las huertas sitas entre los dos fuegos ya que de otra forma hubiera sido fruto malogrado. Para que conste, y a petición de los interesados, expido el presente en Lekeitio a veinticuatro de Febrero de mil novecientos treinta y siete. Firmado Iñaki de Arana. Excmo. Sr. Alcalde de la Villa de Lekeitio. Hay una diligencia al dorso que dice: Visto el escrito que antecede, esta Alcaldía no tiene ningún inconveniente en que salgan de esta Villa, en tránsito para Bilbao, por lo que a esta Alcaldía incumbe autoriza se exportación. El Alcalde: Firmado Mariano Adán de Yarza. Hay un sello del Ayuntamiento.")





Hallándonos en el ya citado frente de Lekeitio-Ondárroa, en la posición denominada Itola, pasamos unos días de paz y tranquilidad por ausencia de toda agresividad bélica. En estas circunstancias, se acercaba el día de Santa Agueda. Se nos ocurrió organizar un coro y salir por los caseríos cercanos, con los gudarís excedentes una vez cubiertos los puestos de guardia y retenes.

Entre las clásicas e iniciales estrofas de "Aintzaldu daigun Agate deuna"... y las finales de "Orain ba guaz alde egitera"... insertamos algunas otras, originales, adecuadas a las circunstancias del momento, haciendo alusión a la guerra, los gudarís y sus necesidades.

Exponemos una fotocopia del coro y un fragmento del artículo aparecido en el Diario EGUNA con fecha 10 de Febrero de 1937, que nos releva de hacer todo comentario. En un euskera sabiniano, del que se enseñaba en Juventud Vasca de Bilbao con los textos de Euzkeltzale-Bazkuna, se da cuenta de nuestros propósitos, nuestros logros y andadura por los caseríos de la zona.



Itola guda-oñetik Gure ekandubak

Abertzaletasuna ageftzeko zori asko ixaten doguz ta era askotara ageftu leikegu. Aldi oñetan, guda au sortu danezkeru, euzko-gastedijak argi be argi erakutsi dau beren matasun aberkoya. Abefija il zorijan aufkitzen dala-ta guda zantzia entzun ofduko juañ ziran euzko-gastiañ aldatz-gora goiko tonoretara izkifubak eskubetan ebezala.

Baña, ondiño aldi asko eztala ingoski onetan esaten geban letz, ba dago beste arlo bat gustiz berezi ta egokija abertzaletasuna erakusteko: Euzko-gogo aldezko afluua. Au dala-ta, benetako abertzaliak letz ageftu gura ba'dogu, euzko ekandubak berbiztu ta sendotu biferan gagoz.

Atzo, Agate deuna eguna zan eta antxiñatik euzkotafak oituten dogun letz, zifopa deuna ori aintzaldu geban. Egunokaz, geure guda oñak paketsu diraila-ta "Atzueta" gudaltsalako gudaríjak, une baten izkifubak ordez makiñak artuta, basetxerik baxetxe juañ gintzazan Agate deuna aintzaldubaz batera, oturuntza baterako janari eskatzen.

Euzko-gudari bifa dago
Ondo edan ta jateko
Indartsu ta adore dadila
Abefija azkatzeko.

Etxeko andre atera eizuz
Or daukazuz gauza onak.
Afautza, ezne, eta txorisu
Artzeko, ba, gatoz ona.

Eskatu gebazan gauza danak ugarí emon euskubezan. Janari ezeze, txindi nailkua batu geban ta "Euzkadi" egazkin alde opaldu be.

Basuan, baxetxiak bananduta dagoz ta aldatz gora ta bera ibili bifañ ixan gintzazan, baño adore andijagaz, gure asabeak olan ibili zirala gomutauaz.

Gauf be afautzopiña jaten gengozala, une atsegin ixan yaku, Agate deuna egunian oturuntza-edo-jana egitia be, antxiñek, ofura dala oldozturik.

OLABEAGATARA.

("Atzueta" gudaltzalakua.)



Secuela triste e inevitable de toda guerra es la muerte, la mutilación, la enfermedad, la destrucción... Para tratar de remediar o paliar en lo posible sus efectos, surgen los hospitales que es preciso instalar por doquier.

El documento que reproducimos es de la Jefatura Superior de Sanidad Militar del Gobierno de Euzkadi y está expedido en Luxua (Bizkaia) el día 16 de Mayo de 1937. En él se hace referencia a dos hospitales improvisados. Uno de ellos es el de la ya citada localidad de Luxua o Lujua cuyo sello administrativo apenas se halla legible, ya que la acción del tiempo lo ha difuminado. Dice así: "Hospital Militar de Lujua. Dirección". El otro hospital a que hace referencia, es el que fue instalado en el Club Deportivo de Bilbao.

Sabido es que en tiempo de guerra se ejerce un riguroso control en el movimiento de las personas. Ello da origen al establecimiento de los salvoconductos. Es lógico que estas medidas de control se extremen cuando se solicite acceso a puntos próximos a los frentes de batalla.



En el Valle de Léniz (Gipuzkoa), el frente se estableció en las proximidades de Ezkoria-tza-Gatzaga. En el barrio de Ezkoria-tza denominado Mazmela, concretamente en el caserío Agarre-Goikoa, se instaló el puesto de mando del Comandante de uno de los Batallones. El citado caserío era propiedad y residencia habitual de los abuelos maternos de quien esto escribe. Esta es precisamente la razón de la existencia del documento titulado PERMISO, que puede contemplarse en esta página, ya que fue recabado para poder hacerles una visita.

La parte variable del documento, complementado caligráficamente, se ha desvirtuado casi en su totalidad. Aquellos datos que aún se pueden identificar, aunque con dificultad, se han reproducido mecanográficamente, no de una forma superpuesta, sino al lado. El resto de los datos, que son todo ilegibles, se han dejado intactos. Con ello hemos tratado de poner a salvo la originalidad del documento.

Mostramos ahora el sobre de una carta recibida en el frente. La correspondencia y el cartero, que con tanta solicitud trae y lleva las entrañables y emotivas misivas, constituyen toda una institución en la guerra. ¡Cuántos mensajes de ansiedad, inquietud, amor, penas, zozobras... encerrados en un sobre! ¡Qué alegría al recibir una carta y qué larga espera cuando el cartero no canta nuestro nombre! Pues he ahí el testimonio gráfico de ese exponente emocional de un gudari en el frente.

Si nos fijamos un poco, podremos observar que no lleva franqueo. Es un privilegio de los combatientes: no teníamos que comprar sellos. El sobre está plenamente autenticado. Vemos estampado, con la indeleble tinta china, el matasellos de Correos de la oficina de Bilbao y el sello de la Censura Militar, preceptiva en toda contienda bélica.



La dirección no puede ser más evocadora: Batallón Mungia.-Compañía Atzeta.- Posición Asterrica.-Lekeitio.

Quedaría incompleta esta semblanza si no recogieramos un episodio que dejó honda huella en nuestro espíritu.

Sabido es que en la zona republicana, hubo una gran persecución religiosa acompañada de quema de iglesias y conventos. No así en Euzkadi donde, si bien alguna excepción confirmó la regla, se mantuvo el orden y culto religioso con normalidad. Siguiendo esa tónica, los Batallones de Euzko Gudarostea estaban dotados de sus correspondientes capellanes para la asistencia espiritual y religiosa de los gudarís. De ahí que, cuando las circunstancias así lo permitían, teníamos nuestra misa dominical e incluso diaria en el mismo frente.

Con motivo de la ofensiva franquista por la zona de Villarreal de Alava, fuimos llamados a relevar a uno de los Batallones diezmados el día precedente. Salimos de Otxandiano, seriamente dañado e iluminado por los incendios de un recipiente bombardeo. Tras una larga y lluviosa noche de continuo caminar acompañados de un lugareño por guía, llegamos a las posiciones que nos habían señalado. Nos situamos en las proximidades de una ermita erigida a San Cristobal, cerca del lugar denominado Kruzeta. Apenas hubo amanecido, nos dispusimos a enterrar algunos combatientes muertos en la refriega de la pasada tarde. Aún no habíamos comenzado la humanitaria y piadosa labor, cuando el enemigo reanudó la ofensiva. Tuvimos que cambiar los picos y azadas por los fusiles. Mientras subíamos apresuradamente una pequeña loma para avistar a las huestes enemigas, el Pater nos exhortó a que hiciéramos un acto de contrición de nuestros pecados, pues nos iba a dar la absolución colectivamente. Momentos patéticos y emocionantes que difícilmente podrá uno olvidar.

Hoy están en boga los actos penitenciales comunitarios. Sabido es que, para su validez, es condición "sine qua non" la confesión individual y auricular, salvo en

contadísimos casos entre los que suele citarse como típico el que hemos considerado: la entrada en combate en caso de guerra.

De este hecho, que es otro aspecto más de la vida del gudari en campaña, no podemos ofrecer un testimonio gráfico o documental, como en los anteriores. Es demasiado grande para reducirlo a los estrechos límites de un papel. Pero sí nos es dado autenticarlo plenamente. Os remitimos al principal protagonista del caso que puede corroborarlo: nuestro capellán en el frente D. Tomás Aldecoa que, a Dios gracias, aún se halla entre nosotros y tiene su residencia en el Hogar Sacerdotal, calle Virgen de Begoña nº 8, Bilbao.

La falta de testimonio gráfico de este relato, puede suplirse por este otro testimonio literario que reproducimos más abajo. Se trata de un artículo publicado en la Revista Z E R, de la Asociación EUSKERAZALEAK de Bilbao, en el número 112 correspondiente al mes de Octubre de 1.987.¹

JOSE ANDRES IDIGORAS
del
Batallón Mungia. C^a Atzeta.



Acompañamos también esta reseña publicada en la Revista GUDARI nº 5, correspondiente al día 15 de abril de 1.937. Está firmado por "Olabeagatarra, seudónimo que yo empleaba, tanto en esta revista como en el Diario euskeriko EGUNA, cuando remitía alguna colaboración escrita.

El artículo refleja nuestras primeras inquietudes y pasos dados hasta que, formando una escuadra (éramos todos amigos), terminamos integrados en la Compañía "Atzeta" del Batallón MUNGIA y comenzamos la odisea cuyos inicios se relatan en el mismo.

Conservo los originales (muy deteriorados) de los documentos exhibidos y fotografías, todo lo cual lo pongo a vuestra disposición si de algo sirven.

¹ Artíkulu hori ez dugu argitaratu hemen.



Geure edestirako

Eun ta ogei egun guda-oñetan

Euzkadi geure Abefija beti, antziñatik, ixan dauz arerio anke-ankeak. Oneitariko amufatubenak ixan dira guda ezezkafi au soñtu dabezanok. Euzkadi il zorijan aurkitzen zala-ta guda ifintzija entzurik, euzko gaztedija Euzkadi'ko tonof gustijetara igon zan izkilubak eskubetan dabezala.

Guri be eldu yakun zorija. Abefijaren bixitz ta eskubideak aldeztuteko gudari geyago bial zirala-ta Euzko Gudarostera etof gintzazan ATZUETA Gudaltsala ixenaz alkafaturik.

Aldi gitxi baruban gefatatu gintzazan guda arazuetan. Gudan biazekuak diran gauzagaz be guztiz ederto onidu gindubezan. Gefiturik gengoan.

Nora eruango gatubez? Marfar asko entzuten ziran gudatexian. Ixen asko eltzen yakuzan geure entzumenera: Marfina, Lekeitio, Elgueta, Otxandiano.... baridin yaku; edonora juateko gefiturik gagoz.

Azila 18 garfen zan. Lekeitio'ko guda-onara bidaldu gindubezan. Gabeko amaiketan, belbil andi ta saratatsu batzubetan urfen gintzazan lelengo aldiz guda onara. Ezkengozan koldar-tuta, adoretu baño. Espan gustijetatik abesti aberkoyak urfeten ziran; gudari arpegi guztijetan alaitasuna ageftzen zan. An, guda-onan, zef aurkituko dogu? Eztakigu. Ezkara ixan iñoz. Abefija aldeztuten guazala jakitia naikua dogu.

Lekeitio, Anakabe, Itola, Astefika. Ara emen lau ilabete ibili garan lekubak. Zelako gomutak dakaskubez ixen oneik geure gogora! Zergatik esan ez? Geure lelengo egunetako bildua, berunbil txistuba dala-ta; geure daundots bota biala; afdura andijagaz parapetotik buruba apuf bat atara ta dana ikusi naya; erekete ta paxistakin itz-egiteko gogua....

.... Lastef oitu gintzazan beste era batera ibilirik. Lau ilabete ixan gara toki oneitan. Era gustijetako aldi ta uniak igazi doguz. Batzubetan artega ta lafitsu berunbil ta suagak dirala ta. Bestetan artetsu, gentsa aldijan. Eurija, aizia, ta otza be, jasan bialian ixan gara saritan guda onan tinko gengoan artian. Eguraldi ona be egin dauku.

Gomutetan dozube, guda adizkiak, ze atsegintsu ixaten ziran ilunabar gustijak? Txabola baruban danok batuta, geure egunoroko agurtza Zaindari onena dan Ama Neskutza'ri; euzkerazi o irakaspeta; gure jarfunak; abesti aberkoyak.... Ilunabar gozuak.

Eun ta ogei egun igazi dira. Santxo Eiztegi, Sabin Atutxa eta Txori-Efi gudaltsalakin alkafatu, ta Gudaloro bat egin dogu. MUNGIA Gudalorua.

Alai ta abestika juan gintzazan ta alai ta abestika etofi gara: Danok? Ez tamalez. Mungia Gudalorua be ba dauz beren ziñopak. Galindez Urutia, Atxalandabaso eta Elofiaga'ren odolaz, Anakabe, Itola eta Astefika'ko guda-onak goritu dira. Bezte guztijok, zorionez, Aberi-egunan geure etxietan aurkitzen gara, atsedan aldijan.

ABERI EGUNA. Egun gomutagafi onetan Begoña'ko Ama-ren oñetan gagozala, opari ta agintza bat: Il diranen goguak aldeztotya; bestijok JAUN GOIKUA ETA LEGE ZARA elburuai eutsi.

OLABEAGATARA
(Atzeta gudaltsalakua)

Lekeition, bertan, be, egin doguz geure atseden alditsubak. Itxas-ertzeko uri polit onetan adizkide on-onak eta begikuak egin doguz. Inoiz aitzuko dogu Lekeitio tik eruan gebazan oroipen gomutagarrija...



Lekeitio ko guda onetan batzuk geratu dira. Itola eta Asterrika euzko-odolaz gorritu da.



Andres Idigoras Villar eta gudari lagunak Lekeition atseden hartzen eta Zubietako kuartelean

Andres Idigoras Villar eta gudari lagunak Asterrikako frontean



La Messe de Campagne sur le Front Basque

P H O T O S C H I M



Les mains jointes, les miliciens se recueillent.
En-dessous d'eux, flotte le drapeau basque.



Le prêtre, revêtant ses habits sacerdotaux.

C'ÉTAIT près du village de Lequeitio, en pays basque, par une matinée de dimanche où tout était calme sur le front. Sur les collines au s'échelonnement les tranchées, et d'où l'on aperçoit la mer, au loin, il n'y avait que le grand vent du large; à peine, par instants, de rares coups de fusils s'échangeaient entre les avant-postes; à intervalles réguliers, un canon tonnait, quelque part, dans le ciel d'un autre secteur, des obus s'élevaient, comme des flocons d'ouate. La bataille avait été terrible les jours précédents, et les deux adversaires pansaient leurs plaies.

Le bataillon, qui tenait le secteur, confiait la garde de ses tranchées à une compagnie de grenadiers, descendit sans arme vers le village. Et là, devant une humble ferme, à cinq cents mètres des lignes, près des maisons que le bombardement avait en partie détruites, une messe fut célébrée.

Le voix du prêtre montait dans le silence; sur l'autel improvisé, la flamme des cierges tremblait dans le vent; au loin, le canon qui tonnait toujours, à intervalles réguliers, faisait au prêtre les répons.

La musique d'orgue manquait à cette messe champêtre; un tambourinaire, milicien du pays basque, improvisa sur des airs du pays une musique religieuse qu'il joua sur son flageolet en l'accompagnant des roulements légers et sourds de son tambourin.

Les paysans, que la guerre n'avait pas chassés de leur village, s'étaient jetés aux miliciens. Ils étaient tous là, dans le calme de leur force intérieure, ces miliciens catholiques qui avaient fait le don total de leur vie à la République.



A cette messe en plein air, l'orgue est absent. Pour y remédier, un milicien improvisa des thèmes religieux sur son flageolet.



Les miliciens, massés devant la ferme, écoute la messe. Sur la colline, on distingue le bords conduisant aux tranchées de premières lignes.


Avant la messe, les objets du culte sont posés sur une table.

On dresse l'autel; le vent souffle. Avec d'innombrables précautions, deux miliciens allument les cierges.



Les miliciens, agenouillés devant le prêtre, assistent à la messe.

The Combined Fleets
Touloneko batailako grabatua (1744-2-22). James Main, 1744



27. ontzia: Alcion, Joseph de la Renteria kapitain, 56 kainoi, 600 gizon

Merituak

Martin Perez Likona, Likona dorrekoa, gizoneko ondorengo barik hil zenean haren "itsasoko lantzak" libre geratu ziren. Ohore handia zenez, hainbat familiek, euren artean Renteriatarrak, eskatu zioten erregeari fabore hori: "... que el dicho Don Agustin Ybañez de la Renteria y sus pasados han servido a su Magestad por haver oydo al bachiller Don Francisco de Arriaga Hormaegui presbitero y a otros que en la ocasion que ingleses se apoderaron de la ciudad de Portobelo y sus castillos hallandose el dicho Don Agustin en la ciudad de Lima en el reyno de Peru, bajo al socorro de dicha ciudad habiendo sentado plaza de soldado en la conpañia del capitan Don Silberio de Beyngoolea= Y en otra ocasion que entro el yngles en la ciudad de Panama, bajo de dicha ciudad al socorro della con plaza de alferes de Infanteria de la conpañia del capitan Don Gonzalo de Zavala del tercio del Maestro de Campo Don Silberio de beyngoolea, y despues sirvio de alferes reformado en el

presidio del Callao y en la Armada de Mar del Sur siendo general de ella Don Juan de Beyngoolea. Y asi bien tiene noticia han servido a su Magestad otros antepasados suyos especialmente uno llamado Pedro ybañez de la Renteria en tiempo del señor? Rey Don Fernando el Catholico y no save que por dichos servicios se les aya echo merced ezepto al dicho Pedro ybañez que siendo capitan con su navio a otro de turcos que llevaba apresado a un navio gallego y se lo quito y metio en el puerto de Alicante por lo cual el dicho capitan Pedro ybañez de la Renteria y sus descendientes despues? sus navios y carabelas que entrasen en dicho Puerto de Alicante fuesen libres de pagar el derecho que llaman del Mollaje la qual dicha cedula ha visto en poder del dicho Don Agustin ybañez de la Renteria escripta en pergamino su fecha? en la ciudad de Cordoba a quatro de noviembre del año pasado de mil y quatrocientos y nobenta años. Y asi mesmo save que el dicho Don Agustin ybañez ha obtenido en esta dicha villa de lequeytio los puestos de Regi-

dor y Alcalde de ella y ha sido diputado general de este dicho Señorío de Vizcaya. Y save que Don Pedro ybañez de la Renteria su padre y Juan Bautista de la Renteria su aguelo han obtenido los puestos de Regidor y de Alcalde en esta dicha familia y en la de Vilbao y tiene noticias que sus pasados gozaron de dichos puestos de Alcaldes y regidores..." BFAH, JCR4244/009.

Generalak eta kanpo-maestreak besteak beste dira. Familia honen merituak beste leku batzuetan aurkitu behar dira: administrazioan, zientzietan, literaturan, historian..., baina horietaz idatzi da. Ahaztu baino lehenago Jose Vicente kapitainak ere zertxobait egin zuen, esaterako Toloneko itsas-batailan parte hartuko zuen Alcón ontziarekin ingelesen kontra. Portzierto Auñamendi Eusko Entziklopedian irakurri dugu Toloneko bataila porrot ikaragarria izan zela armada espainol eta frantsesarentzat, baina ez da hori egia. Hauteskundeetan gertatzen den bezala inork ez du galtzen, denak dira irabazle.

Heriotzaren beldur

Juan Manuel González Cembellín

Itzulpena: Hori-Hori



"Iragankortasunaren alegoria", Memento mori. Cornelis Anthonisz, 1537

Jesus Muñiz Petralandak liburuki honetako artikuluan esaten duen moduan (8. orrialdea), guretzat heriotza gai labain eta desatsegina da eta gaur egun, zuzentasun politikoa nagusi dugula, ezikusi egiten saiatzen gara. Baina beti ez da horrela izan. Beste garai batzuetan heriotza, azken eta behin betiko igarotzea, errituz inguratuta zegoen. Erritu batzuk ikusgarriak ziren, eta denak ziren publikoak, gaur egun ez bezala, diskrezioz jarduten baitugu. Errituak azken ueña heldu baino askoz lehenago hasten ziren eta asko luzatzen ziren heriotzaren ondoren. Ez ziren erlijiosoak bakarrik; aitzitik, arlo soziala eta ekonomikoa ere ukitzen zituzten.

Nola jokutzen zuten heriotzaren aurrean Lekeition Erdi Aroaren amaieran?

Egia esan, oso zaila da jakitea. Oso informazio gutxi daukagu horri buruz: testamentu batzuk, lauda batzuk eta hilobi-kapera batzuk, zenbait erreferentzia ordenantzetan... Datu urri horiekin garai hartako jendeak heriotzaz zer uste zuen azaltzen saiatuko gara.

Baina gaiari ekin aurretik, orduko lekeitiarrak entzun aurretik, pare bat gauza gogoratu behar ditugu. Lehenengoa, gizartea oso kristaua zen. Garai hartan ez zegoen gaur bezalako bereizketarik esparru erlijiosoaren eta laikoaren artean: erlijioaren eragina zegoen giza jardun guztietan. Gertaera fisikoaz harago, heriotzak batez ere transzendentzia espirituala zeukan. Horregatik, heriotzaren inguruko errituetaiko asko erlijiosoak ziren. Eta horren guztiaren helburua salbazioa lortzea zen: "ve-yendo que este mundo es fallesçeduoero e el otro perdurable".

Bigarrena, lekeitiarrak bilauak ziren. Hau da, hiribildu bateko biztanleak ziren. Horrek ondorio soziologiko handia zuen. Aldi hartan, eta 1000. urtearen ingurutik aurrera, gizartea honela antolatuta zegoen: batetik, orator zeritzenak zeuden, hots, denen salbaziorako otoi egiten zutenak (abadeak, fraideak eta mojak); bestetik, bellator zeritzenak, denak defenda-

tzeko borrokatzen zirenak (noble militarrek); azkenik, *laborator* izenekoak zeuden, hau da, denak mantentzeko lan egiten zutenak. Baina *laborator*-ak nekazariak ziren (*laborator*: lurra lantzen duena, *laboraria*). Bilauak, hiribilduetakoak, artisautzan eta merkataritzan aritzen ziren eta ez ziren sartzen eskema horretan. Izan ere, lurrean ez baziren, zeruan ere ez ziren izango. Beraz, ez zuten inolako aukerarik salbazioa, denen irrika eragiten zuena, lortzeko, eta horrek hainbat ondorio zeuzkan: purgatorioa "asmatu" zuten tarteko urrats gisa; Ama Birjina idealizatu zuten, Kristo bere semearen eta hil ondoren etorkizunik ez zuten pertsonen bitartekari gisa; hirietan debozioa eta eskuzabaltasuna indartu ziren, Azken Judizioan erruki apur bat lortzeko helburuarekin.

Heriotzari buruz hitz egiten duten Lekeitioko lehen dokumentuekin dugun lehen sentsazioa da jendea haren beldur zela, testu honen izenburuak adierazten duen moduan. Hona zer agertzen den berariaz testamentu guztietan:

"Temendonos de la muerte, que es cosa natural e ninguna criatura della puede escapar".

Hilobiak

Baina gertaera bat halabeharrezkoa dela onartzeak ez dakar berekin ezinbestean horretarako prest egon behar ez dugunik. Eta lekeitiarrak egoten saiatzen ziren. Batetik, familia bakoitzak bere hilobia zuen, hildakoak noiznahi hartzeko gertu. Hasieran hilobiak hiribilduko eliza barrarean (Andre Maria) egiten ziren; eliza hilerri handia zen funtsean. Jesús Muñiz Petralandak horri buruz eta hango hilarriek buruz hitz egiten digu. Hilarriok argi erakusten digute ezen, heriotzaz argi eduki arren "cosa natural" dela eta ez dagoela hartatik ihes egiterik ("ninguna

criatura della puede escapar"), hil ostean ez zegoela inolako berdintasun demokratikorik.

Nolanahi ere, 1368. urtean moja domingotarren komentua sortu zen hiribilduan. Domingotarrek eta frantziskotarrek (gizonezkoek nahiz emakumezkoek) aldaketa bat sustatu zuten kristau bizitza erlijiosoan, norberaren eta besteren karitatea lehen planoan jarriz. Horrek berehala erakarri zituen espiritualki baztertuta sentitzen ziren hiritarrak: ordena horien bitartez karitatez

aritzea oso lagungarria izan zitekeen zerua irabazteko. Eta are gehiago komentuen barruan, mojangandik hurbil, hilobiratzea lortuz gero, bizimodu eskuzabalarari esker Jainkoarengandik oso hurbil baitzeuden. Beraz, ordutik aurrera Lekeitioko pertsona batzuk komentuan lurperatzen saiatu ziren. Ezagutzen dugun lehen Sancha López de Gastañagarena izan zen; hauxe agindu zuen 1383. urtean bere testamentuan:

"que quando la mi alma despidiere deste mi cuerpo, que este mi cuerpo que entierren en el dicho monesterio de las dichas monjas... del qual so familiar".

Sancha komentuko "senidea" omen zen. Horrek esan nahi du ezkongai zegoela edo alargundu ondoren freila gisa lotu zitzaiola komen-



Lekeitioko Santo Domingo komentuko armarría

tuari, hau da, moja bihurtu zen de facto, nahiz eta abitua jantzi ez. Zeruko bidean aurrera egiteko modua zen.

Lurreko hilobiez ari gara. Baina familia aberatsenek baimena lortu zuten (ordainduta) elizako eta komentuko hormak apurtzeko eta hilobi-kaperak eraikitzeko. Eremitan erlijioari beste arlo bat eranstean zitzaien, gizarte-bizitza, handikeriarako aukera ematen zuten eta.

Andre Mariaren elizan garai hartako kaperak bat dago, Santa Anarena. Inskripzioa dago:

"Esta capilla y retablo fizieron M(art)in Martinez de Acha mercadero y Maria Urtiz de Guillestegui su muger por sus almas en el año de mill e d iiii (1503)".


Kaperak eraikitzearen helburua Martinen eta Mariaren arimak salbatzea izan zen, baina horrez gainera eremu zoragarria da: gangaduna da eta burdin hesia dauka (jatorrizkoa, 1503koa), eta garai batean erre-taula ere egon zen (gaur egun ez dago, eta hilobiak ere ez, seguruenik ere lauda zizelatuak eduki zituztenak). Luxuzko hilobia izan zen. Zalan-tzarik gabe sortzaileen ustez zenbat eta gehiago eman aukera gehiago edukiko zituzten zeruetako erresuman sartzeko.



Lekeitioko Andra Mari Zeruratzearen elizako Santa Ana kaperak, 1503

Santo Domingon partikularren kaperak ere egon ziren. Oraindik badago Nicolas Ibañez de Arteitak 1487. urtean sortutakoa. Triptiko flamenko zoragarria eseki zuten; bertako ikonografiak argi erakusten digu nolako irrika zeukan Arteitak salbazioa erdiesteko: erdiko taulan Kristo dago, gizateria salbatzeko hilik, salbazioa lortzeko bitarteko izango dugun Ama Birjinaren besoetan; alboko tauletan, Santo Domingo eta San Frantzisko (domingotarren eta frantziskotarren sortzaileak), oinetan Nicolas eta beraren emaztea dituztela.

Baina handikeriari bagagozkio, Nicolasen maila gainditu zuen bere seme Iñigok, almiranteak, 1503. urtean hilobi-kaperak egin baitzuen elizako absidean. Pertsona horien debozioa eta erlijiotasuna egiazkoak zirenik zalantzan ipini gabe, badirudi zerua eskuratzeaz gainera erkideak txundituta utzi ere nahi izan zutela.



García Ibaseta eskribauaren testamentua, 1556. LUA D]002/08

Lurrazpiko Lekitto

Oier Gorosabel Larrañaga

Azken urtietako aurkikuntzak dirazela eta, espeleologia modan jarri dala dirudi. Gure eskualdia, ganera, labar-artian zentro neuralgikua bihurtu da eta, horren barruan, Lekitto aparteko garrantzija dauko. Horregaittik, uste dogu interesgarrija izan leikiala herri barruko lurpeko ondaria aurkeztia.

Laburpen hau, bistan da, ez da behin betikua: espeleologian sekula ezin da zulo bat guztiz esploratutzat hartu, eta lurpeko mundua ikuspegi askotatik aztertu leike: arkeologia, geologia, biologia, hidrologia, kimika... Horretara, artikulu honegaz, gure herriko "beheko solairu" lilluragarrija hobeto ezagutzen jarraituteko gonbidapena egin nahi dotzuegu.

Bide batez, artikulu honetan mundu maillako primizia bi topako dozuez: bata, Atxurrako labar-artian aurkikuntzari buruzko detalle garrantzitsua; eta bestia, Ramon Adan de Yarzaren benetako arpegija. Bija on arte iñun be publiku ez dirazen datuak diraz.


Lekittoko egitura berezija

Gure herrija geologikoki kokatzeko, jakin daigun Bizkaiko iparraldeko Antiklinorijuan ipar-ekialdian dagola, Nabarniz-Aulestiako egitturiari dagokijon eremuan. Pitzadurak eta tolesdurak ugarijak diraz, eta urak bertatik sartuta haizuluak sortzen dittuz, Behe Kretazeoko fazie ur-gondarretako materialetan, arrezifien inguruetan sortutako kareharrijan. Izan be, gaur lihorrian dagon kareharri hori antxiñan, itsas hondoko hondarra zan; horren seiñale garbijena bertan topaten doguzen itsas animalijen fosillak diraz.

Kareharrizko moltzuan ganian egonda, gure herritarrak betidanik izan dabe lurpeko munduagaz hartuemonan (nork ez dau kuebaren bat ezagutzen Lekitto?). Hau ez da beti onerako izan, lurpeko eremuak errez hondatzen eta kutsatzen dirazelako. Lekitto "karst urbanua" da (etxiak kuebena ganian eginda dagoz), eta ingurune karstikua be intentsiboki erabili izan da gizaldi eta gizaldijetan: harrobijak, deforestaziñoia, nekazaritza, eraikuntzia, estolderija, hondakiñen isurketia... Batzuetan arreta ezangaittik eta bestetan ezjakinttasunangatik, horrek arazuak ekarri izan dittuz: kutsaduria, uholdiak, ur erreserbak agortzia, haizuluen hidrologia eta formia aldatzia, animalia espezieak desagertzia, aztarnategi arkeologikuak hondatzia... Lekitto ondorijutako gehijenak begibistakuak diraz, bereziki urari bidiak oztopatu izanan eragiñez. Baiña allega da geure lurpeko ondare aberatsa babesteko ordua; eta horretarako lehelen go pausua, haxe ondo ezagutzia da.

Lehelengo esploraziñoiak

Lekittoko kobazuluei buruzko lehelengo datu zientifikua Manuel Martínez de la Escalera biologuak emon euskun 1892jan: Quaestus espezieko intsektu txiki batzuk jaso zittuan Garratxako kueban, Lumentxa mendijan (Martínez de la Escalera, 1899). Sasoi horretan beste ikerlari garrantzitsu bat be ibilli zan herrijan: Ramon Adan de Yarza, espainiar estatuko geologorik garrantzitsuenetakua. Kontuan hartuta bere familijan etxe ingurua (Zubieta) kobazuloz beteta dagola, pentsa geinke gaztetandik bertan sartuta ibilliko zala; halan be, ez eban horri buruzko ezer publiku. 1920. hamarkadan, barriz, Joxemiel Barandiaranen taldia etorri zan; 1918tik aurrera ebizen Santimamiñe industen, eta tarteka inguruko herrijetako haizuluak be begiratzen zittuezen; halaxen agertu zan Lekitto, eta bertan Garratxako aztarnategija topa eban 1921. urtian. 1926jan, Santimamiñeko biharrak amaittu eta bertako indusketia hasi eben berak eta Telesforo Aranzadik; 1929ja arte egon zirian bertan (Barandiaran, 2005).



Garratxa I kuebena, Lumentxa mendijan. 1927ko indusketetan, ezkerretik eskumara: Telesforo Aranzadi, behargin lekeitiar bi eta Joxemiel Barandiaran. Iturria: Aranzadi Zientzia Elkartia



Ramon Adan de Yarza, gaztetan. Iturria: Llasera Adan de Yarza artxiboa

Ramon Adan de Yarzari (1848-1917) natur zientzietako interesa familiatik jatorkon; Meatze Injeniarari ikasketak egin ebazan Madrilen, eta horixe izan zan bere lanbide nagusija. Halan be, afiziñoz, ikerkuntza geologikuan be probetxu handijagaz ibilli zan: gaurko aditu askoren esanetan, bera dogu euskal geologorik garrantzitsuenen (Astibia et al, 1996). Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lehen azterketa geologikuak berak egindakuak diraz, Espainiako Mapa Geologikuan Komisiñoian enkarguz. Nazioarteko maillan be, bere garaiko petrografo nagusijenetakoa izan zan eta arlo honetako bere ikerketak, bestiak beste, nekazaritza lurren aprobetxamendu hobia ahalbidetu eben Gipuzkoan.

XIX gizaldi amaieran, Adan de Yarza izan zan Bizkaiko espeleologia zientifikuan aintzindarija Perea y Zurikaldai, Mazarredo eta Uhagon lagunegaz batera. Halan be, urte asko pasatu biharko zirian talde txiki honek hasittako bidiari iñork jarraipena emon arte; kontuan hartu daigun, artian, haizuluen esploraziñoia (baita kirola be, eta Zientzia oro har) klase altuei mugatutako eremua zala. 1950. hamarkadatik aurrera etorriko zan klase ertainan indartzia eta, horrekin batera, espeleologian loraldija.


Bere lan geologikuan osagarri legez, badakigu Ramon Adan de Yarza haizuluen esploraziñoian jardun ebal, batez be Lea-Artibai inguruan; hain zuzen be, bera izan zan 1882jan Atxurrako kobazuluan lehenengo datu zientifikuak jaso ebazana, Jose Maria Solano Eulate koiñatuagaz batera (Adan de Yarza, 1892).


Oharra: artikulu hau da, guk dakigula, Ramon Adan de Yarzaren benetako arpegija argitaratzen daben lehelengokua. Izan be leku askotan, Ramonena dalakuan, bere anajia Marioren argazkija topaten dogu. Errore hau, itxuraz, bere biografo batek egin zuen estrainekotz (Gomez Tejedor, 1998) eta harrezkero argitalpenez argitalpen errepikatua izan da.

1936ko gerraostiak etenaldi luzia ekarri eban. 50. hamarkadan, Antonio Ferrer espeleologo bilbotarrak Grupo Espeleologico Vizcaino (GEV) bultzatu eban, Bizkaiko Foru Aldundijan babesaz. Eurak izan zirian Lekitto inguruko kobazuluen ikerketiari berrekin eutsenak, 60. hamarkadan: herri barruan Zubiburua, Eluntzeta eta Audijo esplora zittuezen, eta Gardata, Zatika, Otoio eta Algorta inguruetako hainbeste lezetan be ibilli zirian (Ispaster eta Mendexako lurretan). Joxemiel Barandiaran 1963an bueltako zan Lekittora, Garratxan jentia indusketa furtibuan ebillelako; aztarnategia guztiz hondatu baino lehen, pare bat urtez jardun eban bertan. Sasoi horretan Armintxe inguruetan be ibilli zan: Garabilla eta Larrotegi II kuebak ikusi zittuan, bigarrenian aztarnategija topata. Antzoriz lurmuturrian be, kuebena lokaliza eban Santa Catalina ermita azpijan; eta hamen be aztarnategija identifikatu eban (Marcos, 1982).

70. hamarkadan ezer gitxi dago aittatzeko: Bilboko espeleologia talde pare bat etorri zirian (TBM eta SC Beti Goruntz), Zatika inguruko lezak eta Santa Catalinako aztarnategija ikustera (Fernandez, 1977). Hain zuzen be, 80. hamarkadan, azken kuebena honen indusketa arkeologikua hasi zan Eduardo Berganzaren zuzendaritzapian; honen emaitza nagusijak ointsu hasi dira argitaratzen, eta aurreko KURIK-en dakazue horren barri.

Antxiñako saneamenduan obrak IS-035 kuebena. Egilea: ADES





Euskal Herriko mapa geologikua.
 Egilea: Ramon Adan de Yarza

Ura, lurra eta hirigintza

Batzuetan emoten dau espeleologian garrantzija daukon gauza bakarra arkeologia dala; baiña Lekitton 80. hamarkadan izandako hirigintza arazuak ondo erakusten dabe ezetz: lurpeko munduak badittuz aintzat hartu biharreko beste arlo batzuk.

Gure herrijan saneamendu arazuak aspaldittik etozen. Estolda saria 1888kua zan (Pascual Abaroana), zati haundi baten herriko kuebak aprobetxata; bere sasoiari adelanto demasa izan bazan be (inguruko herrietan ez eguan estoldarik), ija 100 urte eta gero, zaharkituta eta hondatuta eguan: buxadurak, apurtutako hodijak, ur zikiñen igesak, marien eragiña... Honi aurre egin ahal izateko arazo handija eguan: lurpeko hoditerijan plano zehatzak falta zirian, edozein konponketa egittek biharrezkuak. Estolda sarian esploraziñoia enpresa desbardiñei enkarga jakon, eta bederatzi urtez luzatu zan harik eta baleko emaitzak lortu arte; espeleologuondako honek txostenok oso balioitsuak diraz, lurpeko galerija zaharren barri emoten doskuelako. Herriko estolderija barrizteko obra handija 90. hamarkadan egin zan.

Beste arazo hidrologiko larrija uholdiena da. Lekittono historijan, behin baiño gehijagotan, obregaz urari drainatze bidiak oztopatu izan jakoz, eta honen adibide nabarmenena Larrotegi auzo inguruko uholdiak diraz. 1986jan haranan azterketa hidrologikua egin nahi izan eben arazuari aurre egittek; gure aurreko GEVekuei be aholkua eskatu eutsien (Alvarez, 1986), baiña azkenian ez zan konponbiderik topa. Ganera, igaztik hona, arkeologia kontuegaz konplika jaku...

Uranaz gain, Lekitton eraikuntzian arazua dogu: millaka toneladatak etxia zuloz betetako lurran ganian egitten dogunian, ohizkua da eraikiñian arrakalak, hezetasuna, eraikiñian ezegonkortasuna... agertzia; hori gauza larriaguak ez dirazenen. Urte askuan, herriko obretan agertu dirazen kobazuluak tapa egin izan dira; gaur egunian be, lurpeko ondariari lehen baiño garrantzi gehijago emoten jakon arren, ondiño ohizkua da

hondeamakiñak topatoko lezak ezer esan barik apurtzia; halan galdu genduan Zatika azpijan barianteko obretan agertutako kuebetako bat, eta halaxen gertatu zan Armintxegaz bebai. Bistan danez hau legian kontrakua da, baiña ez hori bakarik: segurtasun arazo larrija be bada. Horretaz jabetuta, 80. hamarkadan Udalak kontratisten artian inkesta bat egin eban, euren bizitza profesionalian topatoko kobazuluaren barri jasoteko; batzuk erantzun eben, eta informaziñoia Artxibuan dago. Ganera, "Instituto Geológico Geominero de España"ri herriko lurren azterketia enkargatu jakon; geologo eta espeleologo talde battek egin eban, meatze-injenieri baten zuzendaritzapian. Bestiak beste, jakiña, herriko kuebak be aztertu zittuezen; eta 1988ko txosten geotekniko hauxe dogu, gaur arte, Lekittono kobazuluei buruz iñoiz egin dan katalogo espeleologiko osotuna (Ayala et al, 1988).

ADES Espeleologia Elkartiari dagokijonez: taldia 1982jan sortu bazan be, hasierako urtietan ez giñian Lekittono barruko zulueta Gernika ingurukoak zirian eta esploraziño gehijenak han burutzen genduzen. Lekittono harreman zuzena eukon lehenengo esploraziñoia 2000 ingurukua da eta, bide batez esanda, urhornikuntzan kontura herriari susto ederra emon geuntson.

Kontua da Lekittono erabili dan uren jatorri printzipala, juañ dan 500 urtian, Trakamailleko kuebia izan dala, Amoroton (Ocamica, 1965). 2000. urte inguruan, Abitara eta Trakamailleko kueben esploraziñoian buru-belarri ibilli giñian; bijak sistema bakarra ziriala frogatu genduan, eta baita bertako urak Ispasterko Elizalde auzotik etozela be. Beste modu batera esanda: Ispasterko ur zikiñak eta Trakamailleko iturrikuak, bat zirian. Zorijonez, Lurrak urak garbitzeko ahalmen handija dauko, eta ez zan sekula ezer larririk gertatu; baiña segurtasun kontuegaittik, Lekittono herriak Trakamailleko urak hartziari itzi eutson aldi baterako, harik eta Ispasterko ur araztegija martxan hasi zan arte. Gaur egunian, arazo hau konponduta dago.



XXI. gizaldia eta labar-arte kontuak


Lea-Artibaiko taldekidiak sartziagaz batera, ADES-en Leki-tto inguruko esploraziñoiei arreta gehijago emon geuntsen: ezagunak zirian kuebak hobeto ikertu, "galduta" eguzenak lokaliza, barriak topa... Bihar horretan garrantzi handiko aurkikuntzak egin doguz, oin dala 20.000 urte bertan bizi izandako animalijen hazurrak adibidez. Zorijonez, ekonomikoki ez dabe piperrik be balijo (hau espoliologuentzako mezua da); baiña aztarnategijok jagoten badoguz, etorkizuneko paleontologuak gure herrijari buruzko informaziño baliotsua atarako dabe bertatik.



IS-085 kuebia, herriko kaskuan. Egilea: ADES



IS-085 kuebia, herriko kaskuan. "Ursus spelaeus" hartzan hazurrak. Egilea: ADES



GARRATXA



Azken urtietan, halan be, zarata gehijen atara dabenak aurkikuntza arkeologikuak izan diraz. Izan be, horren kontura Lea-Artibai eskualdia mundu maillako erreferentzia gunia bihurtu jaku, teoria arkeologikoren bat be hankaz gora jarritta ("El Vacío Vasco" famatua). Honen eragille nagusija espezialisten belaunaldi barrija izan da, labar-artia beste ikuspegi batekin aztertzen hasi dana; gure zonan, horren meritua Diego Garate eta Joseba Rios-Garaizar arkeologuen taldiak dauko. Hamarkada honen hasieran, talde hau Euskal Herriko hainbat aztarnategi berrikusten hasi zan, eta pinttura eta grabauak topaten hasi zirian oin arte oharkabian pasatako leketan; esate baterako, eurak topa zittuezen 2012jan Garratxako pintturak. Zenbat bidar sartu ete gara zulo horretan, espeleologo eta arkeologuak bebai, ezer be ikusi barik? Jakiña: danok ahozabalik geratu giñian. ADES-en be, ordutik aurrera haitzuletako pareteti beste era baten begiratzen hasi giñian; halaxen topa genduan gure lehelengo zaldija 2014an, Morgotako lezan (Busturia).

Espeleologia eta Kultur Ondarea

Honek argi erakutsi eban kobazuletako aztarnategijak ikuspegi barri honegaz errevisa biharra eguala; izan be, ordura arte arkeologuak baekijen zer topa bihar zan, baina ez zirian kobazuletan asko sartzen; espeleologuak, barriz, aldrebes: kobazuluak barruraino esploraten genduzan, baina ez genkijan zer topa bihar zan. Egoera xeibre honegaz jabetuta, Bizkaiko Foru Aldundijak ekimen txalogarri bat bultzatu eban, arkeologuen eta espeleologuen arteko harremana estutzeko: 2015eko otsaillian, Euskal Espeleologo Elkargogaz batera "Espeleologia eta Kultur Ondarea" izeneko lehenengo jardunaldija antolatu eban Bilbon; bertan, arkeologuak labar-artia ezagutzen erakutsi euskuen Euskal Herri osoko espeleologuoi.

ATXURRA

Jardunaldi hau historikotzat hartu geinke, beronek ekarri dabelako azken urtietako aurkikuntza zaparradia. Hain zuzen be, bost hille geruago, espeleologo eta arkeologuen arteko elkarlan honen adibide ona gure eskualdian bertan ikusi genduan, Atxurrako kueban (Berriatua). Bertako labar-grabatu aurkikuntzian historiija oso ezaguna da; ez, ostera, oin kontakodogun detallia,



Garratxako kuebako bisontia. Argazkija eta infografija

KURIK-entzat primizian. Kontua da arkeologuak bi indusketa kanpaina egin zittuezela Atxurrako goiko sarreran, 2014 eta 2015ian; ADES-ekuok euri laguntzen izan giñian, seguridadeko sokak eta anlajiak instalaten. Indusketa egunak aprobetxata, noski, arkeologuak goiko galerijako hormak be miatu zittuezen; baiña esan euskuenez, ezer ez eben topa. Halan be, eurekin berba eginda, konaturatu giñian lehelengo metruak baiño ez zittuezela begiratu. Hau da: ez eben ezagutzen barruko galerijetara sartzeko pasabidia. Horretara, 2015ko irailaren 25ian, ADES-eko espeleologo batek (Iñaki Intxaurbek)

Diego Garate arkeologua galeria estu horretatik aurrera gidatu eban; hortik aurrera egindako aurkikuntzen historiija oso ezaguna da. Anekdotak honek ederto erakusten dosku arkeologo eta espeleologuen elkarlana alde bijen mesederako dala.


Honen ostian, guk betiko martxan jarraitu genduan: astero bi-hiru espediziño, urte osuan, gehijenetan errutinazko biharretan: leza txikiñak esplora, txarakan gora eta behera billa ibilli, Lea-Artibaiko katalogo espeleologikua osotu.... Errutinazko bihar batzuk, baiña, atzian sorpresia izaten dabe; eta horixe gertatu jakun Lekitton, Armintxegaz.



Markuesen txistia

ARMINTXE

Armintxeko aurkikuntzia ez zan bat-bateko gauzia izan. Lehelengo pistia 2008jan topa genduan, Lekittoko Udal Artxibuan, urei buruzko 1786ko txosten batian: leza bat aitatzaten zan, 20 metroko sakoneran ura eukona, Arbiatxen (Arbintze, Armintxe, Arbiatx, Arbeatx... itxuraz toponimo bakarran aldaera desbardiñak baiño ez diraz). Bestalde, jentia kontata bagenkijan Letraukua inguruan kobazulo asko eguazena, eta batek leza handija eukala barruan, ausartenak sokaz jaisten ebena; GEV-ekuak be jaso eben erreferentzia hori, baiña lezia lokaliza barik. Auzotarren esanetan, urte gitxi zirian koba-leza hori desagertu zala: Larrotegi auzotik Letraukuara igoteko oiñezko



LUA 1432/3, 1786

bidia egittian estali ei eben. 2013an, lekukuetako batek (Santi Bideganetak) kobazulua eguan toki zehatza seinala euskun. Eta bai: bertan lurrez tapatako galerija baten arrastua topa genduan. Halan be, ez geuntson kasu handirik egin: halako dozenaka zulo esploratzeko zain dakaguzen legez, zerrendan apunta genduan.

Baiña lehen esan dogu urte gitxitan gauzak asko aldatu dirazela: Lea ibarrian topatako labar-arte aztarnategiak Lekitto garrantzi handiko lekua bihurtu eben, eta beraz gure katalogoko "IS-100 Armintxe II" erreferentzia ez oso interesgarri horrek garrantzija hartu eban. 2016ko maiatzaren 1erako planea genduan bertara sartzia. Zeozer agertu zeikiala susmatzen genduan, egun horretan Juan Carlos Lopez Quintana arkeologua gonbidatu genduan. Bihar gogorra aurreikusi gendualako, jente asko bildu giñian: kuebia zabaldu, esplora eta atzera zarratu biharra eguan, dana egun bakarrian (bide horretatik ume asko pasaten da, eta ezin zan zulua zabalik itzi). Egun horretakuak ondo erakusten dau edozein aurkikuntza espeleologiko talde lanan ondorijua izaten dala: lehenengo, batzuek lurra, harriak eta hormigoi zatijak atara zittuezen; beste batzuek, esploraten hasi zirian; hurrengiak, topografiaten; bestiak, galerijen argazkijak ataraten; beste batzuek lagin biologikuak hartzen; bestiak, hormak miatzen...

Grabauak topa genduzanian poza, urdurittasuna eta kezkoa nahastu jakuzen. Segiduan konturatu giñian arte lanetako batzuk ezohizkuak ziriala, eta, paradoxikoki, handik aringa-aringan urteteko gogua sentiduten genduan, ha toki majikua ez hondatuteko. Kanpora urte giñian, eta arkeologua bertara ekarri genduan: grabauak benetakuak zirudijela baieztatu euskun. Argazki batzuek hartu, eta esploraziñoia bertan behera itzi genduan. Ekaiñian, Udalak atia instala eta gero, lehelengo biharra espezialista bat grabauetaraino ekartia izan zan (Cesar Gonzalez Sainz, Kantabriako arkeologo ospetsua). Gero esploraziñoiagaz jarraitu genduan, baiña babes-protokolo zorrotzez eta, jakiña, Panelan Gelara sartu barik.

Esploraziñoian datu asko jaso bagenduzen be, hórren artian nabarmenena hauxe da: Panel Nagusi famatuaz gain, Armintxen askoz be labar-grabau gehijago dagozela; urari ipiñittako oztopo artifizialen eragiñez kuebia urez betetzen dala, eta honek apurka-apurka grabauok hondatzen diharduela. Arazo honen zehaztasunak oin dala gitxi argitaratu doguz Karaitza aldizkarijan, beraz, artikulu hau ez luzatzeko bertan irakorri zeinkie; interneten errez topakozue (Gorosabel, 2017). Esploraziño espeleologikuan seigarrenengo astian, 2016ko iraillian, aztarnategiko Zuzendaritza Arkeologikuak biharra eteteko agindu euskun. Harrezkero eta gaur arte (artikulu hau 2018ko otsaillian idazten gabiz), ez dabe ADES Espeleologia Elkartiagaz ezertarako konta.




IS-100 Armintxe II. Cesar Gonzalez arkeologuan bisitta egunian, kasualidatez kalejira bat pasazan. Egilea: ADES



IS-100 Armintxe II, Garavilla Galerija. Urak pillatutako sedimentuegaz blokeatako pausua. Egilea: ADES



IS-100 Armintxe II, Hondo Bako Galerian. Ernai dagon behorran grabaua, uholdiak hondatuta. Egilea: ADES






Kabaua



Garraitz



Garratxa



Antzoriz IV, Santa Catalina azpijan



Zubiburua



Talaija II



IS-039 herriko kaskuan

Etorkizuna

Gorabehera desatseginotaz aparte, guk biharrian segitzen dogu. Armintxe inguruari, bistan da, harreta berezija eskintzen gabiz (IS-100 kuebako uren arazuari urtenbidia emon ahal izateko ez da bakarrik barruko esploraziñoia amaittu bihar; ganera, muino osuan eta beste kobazuluen hidrologia ulertzia ezinbestekua da). Halan be, gure ardurapeko eremua Urdaibai, Lea eta Artibai ibar osuak dirazen legez, bertako karsta ikertzen eta babesten jarraituko dogu bere arlo guztietan: biologia, arkeologia, hidrologia, kimika, geologia... Izan be, ikuspegi integral horixe da espeleologuon ezaugarri baliotsuena, espezialista monodisziplinarrei falta jakena. Horregaittik, euregaz eta erakundiegaz batera, danok lan talde bakarran parte izan beharko giñake. Nazioarteko komunitade zientifikuak aspaldittik argi dauko hori; ia noiz hasten garian hamentxe aplikaten.

Azken ohar bi

Momentu honetan, ADES Espeleologia Elkartiak 111 kueba daukoz katalogata Lekitto inguruan; horretatik 30 inguru, herri kasko barruan dagoz. Kontuan hartu, halan be, eraikin azpijetan gehijago be egon leikiatzela, ezagutzen ez doguzenak. Segurtasun arrazoiengaittik kobazuluen kokapen zehatza ezin dogu argitaratu; baiña gure katalogoko datuak ikerlari eta erakundientzat eskuragarri dagoz.

Espeleologuok ezingo genduke gure biharra egin herritarren laguntza barik, lurra onduen ezagutzen daberen jentia bertoko auzotar eta basarritarrak dirazelako. Eziñezkua da informatzaille guztiak aittatzia; baiña danon ordezkari modura gogoratu daiguzan Eustasio Arritola (Lekeitio, 1925-26), Norberto Urresti (Oleta, 1925), Pascual Algorta (Mendexa, 1926), Antonio Atxabal (Zatika, 1963) eta Uriarte jauna (Gardata, 1963); eta gaur egunetik hurrago, Txomin Okamika "Eluntzeta", Pedro Arrizubieta, Jose Ramon Mentxaka, Bene Plaza eta Anton "Pitxon". Hamen ikusi dozuen informaziñoian zati haundi bat euri eta beste herritar askori esker jasotakua da; horretara, lehengo eta gaurko espeleologo guztien izenian, eskerrikasko.



Txomin "Eluntzeta", Pedro Arrizubieta eta bere lagunak. Egilea: ADES



Jose Ramon Mentxaka. Egilea: ADES



Anton "Pitxon" eta Bene Plaza. Egilea: ADES

Bibliografia

Testuan aittatutako erreferentziak:

ADAN DE YARZA, Ramón. 1892. *Descripción física y geológica de la provincia de Vizcaya. Memorias de la Comisión del Mapa Geológico de España*. Imp. Manuel Tello. Madrid.

ALVAREZ ORTEGA, Angel. 1986. *Informe hidrológico de las dolinas de Larroategi*. GEV. Bilbo. Txostena Lekeitioko Udal Artxiboan.

ASTIBIA, Humberto. MURELAGA, Xabier. NUÑEZ-BETELU, Koldo. 1996-VI-1. *Ramón Adán de Yarza*. Elhuyar aldizkaria.

AYALA CARCEDO, Francisco Javier. FERRER GIJÓN, Mercedes. MARTINEZ PLÉDEL, Bruno. RAMÍREZ TRILLO, Federico. CISNEROS MACHO, Manuel. GRAO DEL PUEYO, José A. 1988. *Estudio de riesgos geológicos asociados al karst de Lequeitio (Vizcaya)*. Instituto Tecnológico Geominero de España. Txostena Lekeitioko Udal Artxiboan.

BARANDIARAN, Jose Miguel. 2005. *Diario Personal. Volumen I (1917-1936). Desde los primeros trabajos científicos, hasta el inicio del exilio*. José Miguel de Barandiaran Fundazioa. Colección Sara 6. Ataun.

FERNANDEZ IBAÑEZ, Carmelo. 1977. *Materiales prehistóricos procedentes de la caverna de Santa Catalina I (Lekeitio, Vizcaya)*. Ixiltasun Izkutuak 3. Bilbo.

GOMEZ TEJEDOR, Jacinto. 1998. Ramón Adán de Yarza, geólogo bilbaíno. Colección Temas Vizcaínos nº 283-284. Ed. BBK. Bilbo.

GOROSABEL, Oier. 2017. *Armintxe: korapilo arkeologikoa, hidrogeologikoa eta diplomatikoa*. Karaitza 24:46-54. Oñati.



MARCOS JL. 1982. *Carta arqueológica de Vizcaya. Primera parte. Yacimientos en cueva*. Cuadernos de Arqueología de Deusto 8. Bilbo.

MARTÍNEZ DE LA ESCALERA, Manuel. 1899. *Examen del Grupo Bathyscia de España*. An. Soc. Esp. Hist. Nat. XXVIII:385,411. Madrid.

OCAMICA Y GOITISOLO, Francisco de. 1965. *La villa de Lequeitio. Ensayo histórico*. 2ª edición. Diputación Foral de Vizcaya, Bilbao 1966.



2torren FEIXBUKA





ARABAKO eta BIZKAIKO
BERTSOLARI TXAPELKETA 1992



Euskararen gorpilla beratu ez daiteke haritu zote KONPROMISOA



ARABAKO eta BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 1994



ARABAKO eta BIZKAIKO
BERTSOLARI TXAPELKETA 1994



KALE ANTZERKIRAKO 1990





Gotorlekuen kokapena Lekeitioko badian (Google Earth).

Bolbora & kresala

Lekeitioko gotorlekuen historia

Alfredo Moraza Barea

Abiapuntua

Historian zehar, Lekeitiok eta bere bizilagunek beti izan dute pentsamendua itsasoan jarrita. Bertatik iristen ziren kaiak hondatu eta itsasontziak hondoratzen zituzten ekaitzak, baina baita bizilagunek aprobetxatzen zituzten hondartzetan hondartuta gelditzen ziren baleak ere. Harantz abiatzen ziren arrantza-ontziak, egunak edo, beharbada, hilabeteak beranduago zama preziatuarekin bueltatuko zirenak. Bere urak zeharkatuz urrutiko kaietatik merkantzia-ontziak iristen ziren bertako merkatuak ez zituen produktuak ekartzeko.

Zeruertz amaigabe hori bazen baita oihalen silueta marrazten zuen puntua ere. Batzuetan ontzi laguna, eta beste kasu askotan kostako herri hauen lasaitasuna apurto nahiz zuten etsaiena, arrantza-ontziak edo kaia

bahituz edo arpilatuz, edo gerra garaietan bonbardatuz. Azken finean, itsasoa zen ahulgune bakarra, Lekeitioko babesaren "Akile-sen orpoa", hau da, arerioek iristeko zuten bide bakarra.



Kanpoko mehatxuoi aurre egiteko, euskal kostaldeko herriek, eta bertako agintariak (Lekeitio horien artean), neurriak hartu zituzten, babes neurriak esan daitezkeenak. Kostaldea babesteko neurrian artean, esan, gerra garaietan arrantza-ontziak armaz hornitzen zituztela, artilleria-pieza txikiak jarritz, hala arkabuzak, lantzak edo ezpatak. Era berean, herritarrak armak erabiltzen trebatzen zituzten alardeen bidez. Halaber, itsasertzeko puntu estrategikoenetan zelatariak edo talaia ipintzen zituzten zeruertza zaindu eta oihal etsaiak ikusi nahian. Talaia haueta-ko bat Santa Katalinako lurmuturrean kokatu zuten, hain zuzen ere. Zenbait kasutan babeserako egin zituzten lanak behin-behineko-

goak izan ziren, kaietako sarbideak kate handiz itxiz edo ontziak bokaletan hondoratuz.

Neurri hauek guztiak behin-behinekoak zirela esan dezakegu eta, zalantzarik gabe, geroz eta arma hobez hornituago zegoen etsaiei aurre egiteko eskasegiak. Horrela, eta denbora igaro ahala, euskal itsasertzean lehenengo babes eraikuntzak altxatzen hasi ziren kaiak arriskuetatik saihesteko asmoz. Hasiera batean, eraikinok tropak ezkutatzeko lubaki edo parapeto xumeak besterik ez ziren izan. Ondoren, hainbat artilleria-piezas hornitutako eraikuntza nagusiagoak egin ziren. Eraikin hauek bateriak, forteak, gotorlekuak edo gazteluak ziren, ondorengo lerroetan aipatuko ditugunak.


Lekeitioko defentsa

Lekeitioko kaiaren defentsarik onena bere inguru propioa da. Izan ere, Lekeitioko badia mendi artean sartuta dagoen senadi estu bat da, Lea ibaiaren bokalean, hain zuzen ere. 1726ko idatzi baten honela deskribatu zuten Lekeitioko kaia: "puerto de dos entradas causadas de una ysla que tiene en su frente y a corta distancia, dicha San Nicolas. En tiempo de vonanza y pleamar pueden entrar embarcaciones menores y merchantes pero no fragatas de guerra, tiene uno y otro lado varra expuesta al tiempo, muelles con una pequeña concha guardada de todos vientos y solo con el noroeste ay vastante resaca".

Sakonerako baldintzak "eskasak" izan arren, Lekeitioko kaia babesteko neurriak aitzindariak izan ziren Bizkaian; garai berean beste garrantzi handiagoko kai batzuetan (Bermeon, Portugaleten, Mundakan...) hartutakoak baino lehenagokoak. Historian zehar zonaldean, Lekeitio (Talabekoa, San Juan Tala, Plaza, San Nikolas, Santa Katalina, Lumentxa,...) eta Mendexan (Artzabal, Kurlutxu, Likolarre), eraiki ziren gotorleku guztiak, hamarren bat guztira, ezin ditugu zehatz landu, baina bai zertzelada batzuk eman. Gotorleku horietako batzuk mendeetan zehar iraun zuten, XVI. gizaldiaren hasieratik XIX. era arte. Beste batzuk, aldiz, borrokaldiren bat zegoenean soilik egokitzen ziren eta ondoren bertan behera utzi. Esan beharra dago gotorleku horien itxuran ez dagoela berdintasunik. Batzuk, lurrezko hormak zituzten posizio txikiak izan ziren, zaku, upel eta artilleria-pieza bakarrarekin. Beste batzuk, ordea, horma sendoak eta kainoi ugari izan zituzten, non

beste eraikuntza batzuk ere egokitzen ziren artilleroak eta beren armamentua gordetzeko (balak, horma-euskarriak, baketak, lanadak, koilarak, bolbora, etab.). Maila honetan, Lekeitioko gotorleku nagusia Talabekoa izan zen, "Atalaya de Abajo" edo "Bateria de la Cruz" bezala ere ezaguna, eta egungo heliportutik gertu kokatzen zena, kaira sartzeko bokalea kontrolatzen zuena. Bertan, 1528an, ezarri ziren Lekeitioko kaia babesteko lehenengo bi artilleria-piezak, zehazki

bi burdinazko horma-zulatzaila. Urte batzuk beranduago, 1554an, eta Koroaren aginduz, toki berean dorre sendo bat eraiki zen ("una torre en la Talaya de este puerto a manera de balluarte"), inguruan zituen hormekin babes-tuta zegoena ("un paredon que forme punta de diamante en corta distancia" -1703-). Posizio honek kalibre desberdinetako sei kainoi izan zituen, naiz eta horietako lau 1774an herdoilduta zeuden eta lurtean botata ("desmontados por ynservibles").



"Descripción de España y de las costas y puertos de sus reinos", Pedro Texeiraren plano, 1634

eta gerrillariak suntsitu. 1834an berreraikia izan zen berriro ere, baina 1835eko urtarri-lean, tximista batek jota, bolborategiak ez-tanda egin zuen eta zeharo suntsitu zen (ia soldadu-talde osoa hil zen bertan, 40 bat soldadu). Berriro ere berreraikia, hurrengo urteko martxoan tropa karlistek okupatu egin zuten eta konpondu.


Lehen Karlistadaren testuinguruan, gotorleku berri bat eraiki zen herritik gertu, **Santa Katalinako** bidean, kostaldeko oinezkoen bidearekin batera konpondu berri den irtengune txiki batean. Tropa karlistek eraikia 1837an, ez zen gehiagorik erabili hurrengo urteetan izan ziren borroketan.

Zerrenda hau osatzen duen azken gotorlekua **Likoalarra** mendia gailurrean kokatzen da, Mendexako lurretan. Bertan tropa karlistek 1875ean Armstrong motako bi kanoi jarri zituzten Lekeitioko herriak jasaten zituen bonbardaketei aurre egiteko. Behin gatazka bukatu zenean, bertan behera utzi eta ez zen gehiagorik erabili.

Prozesu baten balantzea

Testuan zehar ikusi ahal izan dugu euskal kostaldeko herrientzat, eta bereziki Lekeitiorentzat, defentsa-sistema on bat izateak zer nolako garrantzia zuen. Gatazka ugariak izanik, babeserako neurriak hartzera behartuko zituen egoerak beraien ondasunak eta bertako bizilagunak gordetzeko. Irtenbidea, puntu estrategikoenetan gotorleku txikiak (forteak, bateriak, gotorlekuak...) eraikitzea izan zen, lekuetatik kairiko sarbideak zaindu ahal izateko.

Lekeitio eta inguruetan XVI. mendetik XIX.era hamar gotorleku inguru eraiki ziren. Asko dira desagertu zaizkigunak eta lekuko idatziak besterik utzi ez dizkigutenak beraien historia eta ezaugarriak azaltzeko. Beste batzuk, ordea, gaur egunera arte iritsi dira (San Juan Talako, San Nikolas, Lumentza), bakoitza garaian garaiko bere garrantziari buruzko lekukoak. Artikulu honen helburua hauxe baino ez da izan: inoiz nabarmenak izanda ere, gaur egun eraikin xume diren oroimena, ahanzturatik gure gogora ekartea.



Lekeitioko gotorlekuetan 1796an gordeta zeuden horniduren inbentarioa. (BFAAH. Administratiboa. AQ 607/01)



San Nikolas (Garraitz) irlako gotorlekuak, San Juan Talakoa, eta Lumentza tontorrekoa. Santa Katalinako ez dugu ipini, erreforman aldrebes jarri baitzuten.



Maaadarikatunari! Hiruzpau pinu triste baino ez bada gelditzen! Esaten neban nik, Okabijon akerrak bedarra bakarrik ez ebela jaten!



Fotomuntaketa. Akerrak ez dira Okabijonak (eta akerrak be ez diraz).

R.I.P. Garraitz irlako azken pinuak

Iñaki Gezuraga Ozkorta

Azken hamarkadan, zuhaitzei orbelak lez, pinu arbolak jausten doazkio gure irla maiteari. Horretaz ohartu gaitzen nahi nuke! Izan ere, gure ondarearen altxorretako bat desagertze-ra doa adinak, izurriteek eta gaitzek jota. Bertokoztat gogorra bada kresalaren eragina, zer esanik ez, beste lurralde batzuetatik ekarri eta landatutako pinuentzat.

25 itsas pinu, 23 larizio pinu eta 4 Monterreyko nekosta zutunik eta bizirik daude. Badiara zuhaitz gazteak ere: 2 itsas pinu, intsinis pinu bat eta 15 Monterreyko nekosta. Beste 5 pinu eta Monterreyko nekosta 2 zutunik eta ihartuta, 2018ko udabarri atarian Garraitzen ditugunak. Pinuak jausi ahala, berenera dator irlako landaredia: artea, txorbeltza, otea...

Garraitz irla behekretaziko kareharrizkoa da, artadi kantauriarreko arte, txorbeltz, gurbitz, endalatz eta abarren bizileku diren Otoio eta Lumentza mendiak legez.

Mendez mendez ustiatu dugu artadia, egurra sutarako eta egurrikatza egiteko, besteak beste. Baita ezkurak, hostoak eta belarra aziendaren bazkarako, ira azpigarritarako, aldiroko suteak belar berria sortzeko... Eta, ahuntzak zuhaitz kimu eta landare gazteak jateko

XX. mendez hasieran, Bizkaiko mendien egoera, gorria zela diote garaiko aditu eta arduradunek. Bizkaiko Foru Aldundia aspalditik zebilen egoera zuzendu eta herri jabegoko lurrak birlantatu nahian. Lege eta arau berriak egin zituzten ondorengo egoerari aurre egin nahian: artzaintza askeari, gehiegizko aprobetxamenduari, suteen arriskuari eta baso landaketak ganoraz egiteari.

1900 aldean



Argazkia: Manuel Garavilla

Lekeitiok, azalera mehe (1,90 km²) eta herri jabegoko lurretan meheago, ez zeukala baso landaketak egiteko eremurik erantzuten zuen arlo honetako aginduren bat jasotzen zuen bakoitzean.

Udalerritik kanpo, "Usa" eta "Otoio"n zeuden herri jabegoko lurren jabe zen Lekeitio, inguruko Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga eta Ispasterrekin batera. Pleitorik ez zen falta hemen!

Garraitzera bueltatuz, bertako pinuen gaineko lehen berriak noizkoak diren aztertuko dugu.

1901eko abuztuaren 25eko udalbatzarrean, beste kontu askoren artean, herritarrei San Nikolas irlako belarra aprobetxatzeko

aukera emotea onartu zen. Horretan zirela, Echevarrieta alkateak proposatu eta udalbatzak onartu zuen aldian aldian, zuhaitz landaketak egitea irlan. Landaketa eta ereite lanak zuzentzeko ardura Chacarteguiaren eskuetan utzi zuten.

1902ko maiatzaren 19ko udalbatzarrean, Mario Adan de Yarzagana jotzea erabaki zuten irlako zuhaitz landaketa zelan egin aholku eske.


Abenduaren 29ko udalbatzarrean erabakiz, berriro ere Mario Adan de Yarzagana jo zuten jakiteko irlarako eta herriko beste gunek batzuetarako zer nolako zuhaitzak eta haziak hartu.

Urte horretan hasi zen, guk dakigunez behintzat, Garraitzeko pinuen eta gizon honen

arteko lotura. Abokatu, politikari eta zubieta-rren jabegoko basoen kudeaketaren ardura-duna zen Mario, baita Bizkaiko Nekazaritza Kontsultarako batzordekidea ere. Basogintza modernoaren aitzindaria izan zen erbesteko koniferekin egindako birlandaketak direla eta. Mota desberdinetakoak erabili arren, insignis pinuaren alde egin zuten, Gipuzkoako eta Bizkaiko paisaia erabat aldatuz. Ordutik aurrera, insignis pinuaren bueltan garatu izan da herrialde bi hauetako basogintza eta zurgintza.

Bere anaia Ramonek ere izan zuen eragina Mariok Garraitzerako zein motatako pinuak aukeratu erabakitzeko orduan. Mehatzetako injineru, geologo aitzindari, Euskal Herriko lehen mapa geologikoaren eta hainbat idaz-

1919



Argazkia: Indalecio Ojanguren, 1919. AGG-GAO 7741

DIPUTACIÓN PROVINCIAL DE VIZCAYA
SERVICIO AGRÍCOLA

Núm. 13

Dirección. *El Sr. Alcalde de Bequeitio*

Unidades	CLASE DE PLANTAS DE ARBOLES	Precio.	Pesetas	Cts.	Debe:
1000	de pino silvestre el 700	10,20	10	20	
1000	" " Laricio " 700	16,00	16	00	
	<i>Suma pesetas</i>		26	20	

Stamp: DIPUTACION PROVINCIAL DE VIZCAYA, 27 MAR 1903, DIRECCION

LUA L48/49, 1903-3-27

Bilbao 27 de Marzo de 1903

V.º B.º
El Director,
Arreaga

Recibi:
El Ayudante,
Angel Salazar

lanen egile izan zen Ramon, beste batzuen artean "Provincia de Guipuzcoa. Geologia Agrícola". Lan horretan, zelako harriak halako zuhaitzak landatzeko aholkua eman zuten: behekretazikoko kareharri artean pinu gorria eta larizio pinua, bertako artadiarekin batera.

Urte biko landaretxoak ziren 1903an landatu zituzten mila pinu gorriak (pinus sylvestris) eta mila larizio pinuak (pinus nigra subsp. Laricio), 19,90 pezetatan Diputazioan erosiak.

Beste mila pinu gorri eta mila larizio pinu landatu zituzten 1904an, horiek ere Diputazioan erosiak, 26,60 pezetatan. Pedro Lendana, Aurreco, Sendoya, Erreca, Aguirre, Francisco Plaza, Francisco Arizubieta, Marcue, Acarregi, Ina Acarregi, Fernandez eta Iza ibili ziren urte horretan irlan pinuak landatzen, eta, seina pezeta jaso zuten jornal biren truke. Batelero egin zuenak 7,50 pezeta jaso zuten.

1904 geroztik, ez da aipatzen ez pinu gorriarik, ezta larizio pinurik. Pinua, Corteko itsas pinua, edo, azken hamarkadetan, itsas pinua beste barik.

Regalo de Plantas de pino por D. Mario Adán de Larrea

El Sr. Presidente acto segundo puso en conocimiento de los Tres Capitulados, que Don Mario Adán de Larrea había regalado al Ayuntamiento 2.600 plantas de pino al objeto de que pudieran emplear en las plantaciones que verifica el Municipio y se acordó se hiciera constar en acta y que se le dieran las gracias al Sr. Adán de Larrea.



"Atxurkada eta pinua, ezarria siku, artian 36 kuartilo ardan barruna eben. Hori bai, 4 ogiri laguntzeko."



Argazkia: Iñaki Gezuraga Ozkorta


Ez dakigu pinu gorriak noiz arte iraun zuen, baina larizio pinuak gaur arte iraun du, itsas pinu artean, isilik, honen protagonismo barik. Emilio Guineak, botanikoa bera, 1948an argitaratutako liburuan, "Vizcaya y su paisaje vegetal", Lekeitioko orrian, irlako landarediaz ari da. Azalerarik handiena itsas pinuak hartzen duela dio, beste pinu motarik aipatu barik. Itsas pinua eta kito!

Ba goaz aurrera. 1906an beste mila pinu landatzea erabaki zuten Lekeitioko udal agintariek. 1907an kexu ziren pinuek aurrerabiderik ez zeukatelakoan. 1908an, Mario Adan de Yarzak 2.600 pinu-landara oparitu zizkion herriari, eta, Udalbatzak eskertu egin zion.

Ordukoan, Pedro Badiola, Santiago Idoeta, Jose Pagai eta Simon Bildosola aritu ziren pinu landaketan. Batzaz beste, hamabina pezeta jaso zuten 4 jornalen truke. Irlarako garraioaren ardura Guillermo Jauregiren zen, 10 pezetaren ordainean.


1913ko abuztuan sutea izan zen irlan, eta, kalteen berririk jaso ez arren, badakigu Mario Adan de Yarzarengana jo zutela aholku eske, pinu landaketak zirela eta.

1914ko martxoan, pinu beldarrarena aipatzen da egin beharreko garbiketen artean. Baita 500 pinu landatzea ere.



LUA L. 57/58/59, 1908-3-21

1915ean, Zuhaitz Eguna zela eta (Espainiako Gobernuak dekretu bidez behartzen zuen hori egitera), orduko udal idazkariaren txosten batean jasota dago Garraitzen 3.000 pinu zeudela, eta, Zuhaitz Egun hartan, urtarilaren 31n hain zuzen, ondorengook ere: 40 ezkitik gora, sasiarkazi eta platanondo asko, baita ia 1.000 Corteko itsas pinu landatu zirela herrian. Hortxe aipatzen da lehen aldiz itsas pinua, Cortekoa.



Txosten berean agertzen da Mario Adan de Yarzak milaka zuhaitz landara eman ziola Lekeitioko herriari urteetan, baita egun hartarako ere, gehienak pinuak.

1920ko abuztuan zendu zen Mario Adan de Yarza. Ez ohiko udalbatzarrean goraiatu egin zuten.

Urte guztiotan eta aurrerantzean ere, irlako belar eta ote mozketak direla, lehorreak edo haizeteak direla, sarri aipatzen dira pinuak. Birlandaketaren bat egitearena baina, 1921ean bakarrik, eta, ez dakigu zertan gelditu zen.

1937an, "Estadística de árboles maderables del municipio de Lequeitio" txostenak, udal jabeagoko 1.800 pinu, 30 urtetakoak, aipatzen ditu. Sasoi horretan, Marioren loba Mariano Adan de Yarza zen Lekeitioko alkate. Hau ere basogintzan izen handikoa, Frantziar, Suitzar eta Babieran basogintza ikasketak egina eta "La Repoblación Forestal en el País Vasco" (1913) hitzaldi eta liburuxka entzutetsuaren egilea, alor horretan zebiltzanentzat ezinbesteko eskuliburua.

Harrezkero ez zen zenbakitan ipini irlako pinurik.

Eta islako akerrak berbetan baleki, beste kontu askoren berri jakiteko aukera izango genuke. Hauxe da baina, nik orain arte agiritegietan bildu dudana informazioa. Gustura hartuko nuke gai honen inguruko beste edozein gertaeraren berri. Ekarpinak egiteko gonbitea luzatu egin dizuet.



Luis Maria Ceniga Arriandiaga

Mundaka, 1881 - Bilbo, 1948

Maite Garamendi Rey



Luis Ceniga



Luis Ceniga familiarekin

Argazkilaria

2016an argitaratutako Kurik II.ean, Luis Cenigak ateratako argazki eder bi erabili genituen 1917ko aeroplanoen gaineko artikulua ilustratzeko. Izan ere, guk dakigula, momentu hartan atera ziren argazki bakarrak dira, beraz, balio handiko dokumentuak, apartak benetan.

III. Kurik honetan ere, Luis Cenigaren argazkiak erabili ditugu Patxi Juaristiren artikulua irudiz hornitzeko (Gerra zibila Lekeition eta Lekeitioko Frontean: 1936ko uztailetik urrira arteko egunak, 146. orrialdean). Gerra sasoiko argazki

ezezagun eta argitaragabeak utzi zizkigun Luisek. Dokumentu bikainak hauek ere.

Argazki bildumatxo hau bere alaba María Luisa Ceniga Cenigak utzi zuen Lekeitioko Udal Artxi-boan, kopiak atera eta bertan gordetzeko.

Luis Ceniga ezagutzera ematea interesgarria begitandu zaigu oraingoan. Eta ez bakarrik argazkilaria ona izan zelako baizik eta bere bizitza, bai Zita enperatrizarekin, bai eta 1936ko gerrarekin lotu ahal dugulako, besteak beste.

Julio de 1936 - El día 17 se sublevaron los militares y da comienzo la guerra civil que probablemente será dura, terrible, y más larga de lo que se creía los primeros días. A los pocos días llega a la vista de Lequeitio un torpedero alemán y el comandante y un oficial van al ayuntamiento a saludar al Comité de Defensa y de allí al hospital de la Cruz Roja instalado en el palacio Urribarren. Esta visita probablemente habrá sido con objeto de recoger información del estado de los pueblos de Vizcaya y Guipuzcoa (pues ha visitado varios).

En Lequeitio hay paz.



ROMPEOLAS

ROMPEOLAS. Julio de 1936 - El día 17 se sublevaron los militares y da comienzo la guerra civil que probablemente será dura, terrible, y más larga de lo que se creía los primeros días. A los pocos días llega a la vista de Lequeitio un torpedero alemán y el comandante y un oficial van al ayuntamiento a saludar al Comité de Defensa y de allí al hospital de la Cruz Roja instalado en el palacio Urribarren. Esta visita probablemente habrá sido con objeto de recoger información del estado de los pueblos de Vizcaya y Guipuzcoa (pues ha visitado varios).

En Lequeitio hay paz.



Seguro alemanak espjatan ebixala...

Medikua

Argazkiak ateratzeko zaletasun handia zeukan Luisek, baina ogibidez sendagilea izan zen.

Luis Maria Ceniga Arriandiaga Mundakan jaio zen 1881ean. Bere gurasoak, Pedro Ceniga Elespuru eta Clara Arriandiaga Larrinaga, mundakarrak ziren. Ez dakigu gauza handirik bere gurasoez, bai ordea bere aita-amaginarrebez. Izan ere, bere aitagarreba Rafael Ceniga Elespuru (Mundaka, 1842) pobreentzako mediku-zirujaua izan zen Lekeition, gutxienez 1878tik, Udalak kontratatua. Amaginarreba, Guadalupe Erkiaga Arana, Lekeition jaioa zen 1852an. Kontuz, ez nahastu, Pedro (aita) eta Rafael (aitagarreba) Ceniga Elespuru, anaiak ziren, beraz, gure Luis eta bere emazte izango zen Maria Luisa Ceniga Erkiaga (Lekeitio, 1890), lehengusuak. Luis Ceniga Arriandiaga eta Maria Luisa Ceniga Erkiaga Arantzazun ezkondu ziren 1917. urtean.

Luis Ceniga Arriandiaga medikuntza eta kirurgian lizentziatu zen Madrilako Medikuntza Fakultatean. Aitagarreba, Rafael 1906ko maiatzean hil zen eta Luisek berak ordeztu zuen behin-behinean mediku-zirujau legez, harik eta urte amaieran Lekeitioko Udalak mediku titular izendatu zuen arte. 1916tik 1917ra, Estatu Batuetara joan zen Luis odontologia ikastera, aurretik Lekeitioko Udalarai baimena eskatuta. Eta 1917tik 1937ra arte mediku-haginlari aritu zen Lekeition.

Mediku ona behar izan zuen Luisek, Udal Artxiboko dokumentuetatik ondorioztatu daitekenez. 1918ko gripe-izurrite bortitzean, adibidez, bera hasieratik kutsatuta egon arren, portaera bikaina agertu zuen herriarenganako, eta Lekeitioko udalak eskertu eta zoriondu egin zuen horregatik.

Osatzen hasita zegoela zera idatzi zion bere lankideari:

Amigo Pepe: me levanté ayer por 1ª vez y hoy voy a tomar yemas de huevo para empezar. Trece días de fiebre con solo una taza de café con leche al día enervan mucho así que estoy sin fuerza alguna. Quisiera poder empezar a visitar el próximo martes o miércoles para cuya fecha ten la bondad de prepararme distrito pero los primeros días solo podré asistir a enfermos de piso bajo, piso 1º y 2º; subir más será materialmente imposible. La orden te ruego me la prepares a letra a máquina y sello del Ayuntamiento pues la fijaré a la puerta de la casa. Tuyo a.a. Ceniga. No olvides que el Hospital y Hospicio debo visitar yo este mes.

Bestalde, Ahotsak.eus proiektuko (Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea bildu eta hedatzeko proiektua) Nerea Goiriak jasotako elkarriketen artean, Julian Akarregi lekeitiarrak kontatzen du nola salbatu zuen Luis Ceniga medikuak bere anaia:

–Pleubia etorri jakon anaixiari, Josebari, ta hamen eguan, mediko bat eguan hamen ona, nik ez dakit zelan Lekitton ez dotsien hareri ipiñi kale baten ixena. Egixa da e? Egixa da e? Ha, ha ez zan ixan Leketton eoteko medikue. –Ze mediku zan?

–Don Luis Zeniga, Don Luis Zeniga. Esan eutsan aittari, gure aitten laun handixa zan. Aittari esan otson /esatson/: “Julian, semia... ez dau egun birik eingo e? Ta nahi ba dozu /bozu/ neuk operako dotsut”. Ta aittak esan otson: “Ba opera”. Batzokixan opera eben. Hortxe batzokixen. Han daoz begi bi, zuluak. Neu eoten nintzan, zera ba “pruebia”, neskakin, bertan eoten zirinak, Solanonekuak eta Carmen ta... eoten zien, Nieves ta horrek aitzak ta Carmen “Antzarra” ta. Geu be kurak eitten anaixiari. Ta hurrengoko egunin esan eutsan berak Don Luisek esan eutsan: “Julian, semia libre dao, salbata dao semia” Ta, klaro, atara eutsezan harek danak ta hainbeste egunin ibilli giñin, kurak eitten eutsezan anaixiari, Josebari. Han dao [...]. Ha medikua ez zan ixan Leketton eoteko medikue. “Era, eminencia era aquel”. Don Isidro ta modukua, eminentzixa zan ha. Ta begiratu /beittu/, kale bat be ez deutse ipiñi hai gixonari, ta afusilla nahi ixan eben ha. Francok, Francok,



Familia inperiala Uribarren jauregiko parkean

afusilla nahi. Bai.


–Ze ba?

–Ba, nazionalisti zalako. Afusilla nahi ixan eben ha, ta botuk eta firmak eta bota ta jentik eta para eben.

Transkripzioaren egileak: Aner Arrate Quintana eta Gotzon Gallettebeitia Bilbao (Lekeitioko institutua).

1922an Zita enperatriza Lekeitiora etorri zen, alargun eta bere 8 seme-alabekin, eta urte batzuk egin zituen bertan bizitzen. Urkijo kondeak hala eskatuta, Luis Ceniga izan zen Zita enperatrizaren eta bere familiaren medikua. Hori horrela, Cenigak harreman estua izan zuen famili inperialarekin. Eta, nola ez, argazkiak atera zizkien, batzuk ezezagunak orain arte, ikusi ahal duzuen legez. Beste batzuk berak Zitak eman zizkion.

Luis Cenigak gutun-komunikazioa mantendu zuen Zitarekin. Bere alaba Maria Luisak karta batzuk erakutzi dizkigu. Bitxia da Zitak berak ez zituela bere eskuz idazten gutunak. Beti beste norbaitek idazten zituen bere orde: “Su majestad...”. Sinatu ere horrela egiten zuten: “Por orden de la emperatriz su majestad y reina”. Distantzia mantentzen zuen. Gutun gehienak Lekeitiotik aldeta zegoenean idatzi zizkion Zitak Luisi. Bere seme-alaben osasunaren gainean idazten zion sarritan, Luisi aholku medikua eskatuz. Ikus daiteke estimu handian zeukala Zitak Luis Ceniga. Gero ikusiko dugu, Zitaren esku-hartzeari ezinbestekoa izan zela frankistek Luis fusilatzea ez zezaten.



Cenigatarren korrespondentzia partikularra



Kaxáinak ronáúlitlenál
Lily híve, oh magyar!

HALMI udv. fényképező
Bpest, Kecskeméti u. 19.

Otto


Bruxelles le 21 décembre 1929.
47 rue de la Vanne

Cher Docteur,
La Majesté l'Impératrice
La Majesté l'Empereur et
tous les Enfants Impériaux
vous envoient les meilleurs
vœux de Noël et du Nouvel
An. Dieu merci tout le monde
se va bien. Comme Steen-
oekerzeel n'est pas encore
terminé la Famille Impériale
passera Noël au Luxem-
bourg. Vers la fin du mois
les six plus jeunes d'elles
sont à Villard de Lans pour
quelques semaines. Meilleurs
vœux à vous. Kerrenberk.

Bruselan, 1929ko abenduaren 21ean
La Vanne kalea 47,
Doktore maitea

Enperatrizak, enperadoreak eta gainerako seme inperialek, zorionak eman eta urte berri ona opa dizue. Jainkoari esker, danok gaude ondo. Steenockerzeel ez denez oraindik amaitu, famili inperialak Luxenburgon pasatuko ditu oporrak. Hile amaieran, sei gorentasun gazteenak Villard de Lansera joango dira aste batzuk pasatzera.

Zorionak,
(Sinadura)



Familia Inperialaren egoitza Steenockerzeel herrian (Belgika)



Egurrola, Lauzirika, Alonso eta Ceniga, 1936

Egurrola - Lauzirika -
Alonso - Ceniga

1936

Errepresaliatua

Politika gustoko zuen Luis Cenigak eta pertsona konprometitua izan zen bere ideiekin. Errepublikazale sutsua, II. Errepublika aldarrikatu zenean bere etxeko portuko balkoira irten omen zen bandera errepublikarra eskuetan eta "Gora Errepublika" oihukatuz. ANVko sortzaileetarikoa izan zen Lekeition (Acción Vasca). 1936ko estatu kolpearen ondoren, "Comité de Defensa de la República" zelako batzordean parte hartu zuen. Orduetik, Uribarren jauregian kokatu zen Gurutze Gorriaren odol-ospitalea, eta Luis Ceniga ohorezko zuzendari izendatu zuten bertan egindako mediku bolondres lanak eskertzeko. Begiratu argazkia, berak Luisek ateratakoa da. Uribarren jauregiko atzeko aldean hiru erizain eta gizon bat ikusten dira. Haien izenak bere argazki-albu-

mean idatzi zituen: Egurrola, Lauzirika, Alonso, Ceniga, 1936. Ceniga, eskumakoa, bere alaba Dolores da. Dio Maria Luisak, bere aita Luisek lan handia egin zuela herritarrei erizaintza irakasten, ikasketa ofizialak aurrera atera zitzen.

1937ko apirilean, Aste-rrikako gerra-frontea zeharkatu eta frankistak Lekeition sartzeko zeudela, Cantabria eta Asturias aldera alde egin zuen herriko bapór batean, esan baitzioten Lekeition geldituz gero fusilatu egingo zutela. Frankistek Gijonen harrapatu zuten urriaren 26an. Lekeition, seguritik Luis presionatzeko, bere seme Rafael atxilotu zuten. 15 urte zituen orduan eta Deustuko Unibertsitatean euki zuten preso. Irakurri Ramon Ibarrek, orduko alkateak, Luisen gainean bideratu zuen txostena.



Rgdo. de. u.º ~~764~~ 764.

A la vista los antecedentes e informes suministrados por las Dependencias de esta Administracion Municipal que aprecia como ciertos esta Alcaldia por propio conocimiento de los hechos, paso a evacuar el informe interesado en su Oficio. fecha 14 de Junio ultimo, respecto de la actuacion politico-social de LUIS MARIA CENIGA ARRIANDIAGA antes y durante el Glorioso Movimiento Salvador de España.

Se trata de un individuo que ejercia el cargo de Medico titular de Lequeitio, habiendose distinguido siempre por sus ideas izquierdistas. Desde el advenimiento de la nefasta Republica hizo campaña grande en favor del Separatismo Vasco en la rama de Accion Vasca. Hasta la venida de la Republica su propaganda fue solapada entre sus amigos y tertulianos pero ya llegada la epoca de la mal llamada "democracia" no tuvo ningun inconveniente en difamar y propagar todo lo que estaba a su alcance en contra de la monarquia y de los elementos derechistas. Hasta tal punto llego su actuacion directa en favor de sus ideales que poco tiempo antes del Movimiento por disposicion del Gobierno Republicano se llevo a cabo una antevotacion para la eleccion directa de Alcalde y vispera de llevarse a cabo esta eleccion presento él una candidatura izquierdista de Accion Vasca en contra de otros dos de derechas trabajando en persona la candidatura de un tal Jacinto Garamendi Arostegui, intimo amigo y como él Separatista extremista, si bien fracasó en su intento.

Este citado candidato Jacinto Garamendi poseia en Lequeitio una relojeria donde se reunia el citado tambien Luis Maria Ceniga con todos los elementos dirigentes del Separatismo Vasco, y teniendo en cuenta las dotes intelectuales de éste era el porta-voz del izquierdismo.

Al producirse el Glorioso-Movimiento Salvador de España se puso en contacto directo con los Elementos que constituian el nefasto Comité de Defensa Rojo de la localidad inspirando los acuerdos del mismo, quien por sus ma-



nifestaciones publicas excitaba a las masas a cometer cualquier acto de salvajismo, pues hizo manifestaciones como "hay que matar a todos los monarquicos" en la puerta del Hospital de la Cruz Roja al presenciar la visita de un avion nacional.

Al de pocos dias de estallar el Movimiento se estableció en Lequeitio en el Palacio de la Emperatriz Zita, cedida voluntariamente, el Hospital de la Cruz Roja, quedando de director Luis Maria Ceniga y aunque el establecimiento tenia caracter internacional, no obstante hizo allí tal campaña que al evacuar la poblacion despues de saquear el Palacio le dieron fuego quedando reducido a escombros.

Fue el inspirador de la lista de los detenidos del pueblo, cuya detencion se llevó a cabo por el Comité Rojo, y como consecuencia de estas detenciones un vecino pacifico amante de España fue victima del asalto de las hordas a las carceles de Bilbao, llevado a cabo el dia 4 de Enero de 1937.

Al de pocos dias de quedar liberado Bilbao llegó a esta localidad un Juez Militar, Sr Cuesta, quien llevó a cabo algunas actuaciones, habiendo prestado declaracion varios vecinos honrados de Lequeitio haciendole responsable de los excesos cometidos aqui al citado Ceniga. Consecuencia de estas actuaciones fue que se recibiera un telegrama ordenando la detencion de este y otros elementos del Comité, no pudiendose llevar a cabo por haber evacuado e ignorar entonces su paradero.

En resumen se halla conceptuado como Cabecilla de los extremistas de la localidad.

Dios salve a España y guarde a V. muchos años.
Lequeitio, 11 de Junio de 1938, 11 año triunfal.

El Alcalde,

Ramon Ybarra

Juez Instructor del Juzgado Especial de Incautacion de Bienes

Lequeitio

Amoroso
19. XII. 37

Muy Señora mía!

La Majestad la Emperatriz y Reina me otorga de verla, cuanto antes, la noticia que recibí de muy buena parte que Don Luis de Ceniga no tiene que tener por su vida, que se trata solamente de ser recluso. Claro hasta ahora no se puede decir cuánto tiempo puede durar esta reclusión, esto depende del juzgado y de su pronunciamiento. Con todo corazón la Emperatriz y toda la familia Imperial se encuentran muy aliviados teniendo esta noticia visto que sólo verán así su marido o padre en vida. La Majestad siente

Muchísimo de no poder tomar influencia ninguna sobre la cuestión de la duración de la encarceración pero como sus ojos a las de ver para que Dios le proteja abre se piensa. Dijo de nuevo que sólo tengan la Majestad la Emperatriz siempre en las noticias que este asunto tan sumamente triste y repite que toda la familia Imperial sintió con ver todo. Las angustias las penas de esta ocasión. Escribo de toda prisa visto que llego noticia y quisiera decirle lo más posible. Me permito decirle también nuestra buena. Creo que sólo pueden pasar del año nuevo lleno de esperanza ya sabe que siempre tiene su

Luis Ceniga Larrinagako espetxean egon zen atxilotuta eta lehenbiziko epaiketan, heriotza-zigorra ezarri zioten. Lekeitiarrek, mediku ona zela iritzita, sinadurak batu zituzten fusilatu ez zezaten (gerora, eskaera sinatu zutenek isun bat ordaindu behar izan zuten). Julian Akarregik ere badio Ahotsak-ek egindako elkarrizketan, herriak medikuaren alde egin zuela. Bere alaba Maria Luisak kontatu digu bere amak, Luisen emazteak, estututa, Zita enperatrizari eskatu ziola laguntza eta, haren eraginez, heriotza-zigorra kommutatu egin ziotela (Zita 1929an aldeta zegoen Lekeitiotik Belgikara). 1937ko abenduaren 19an, Gudemus baronesak Maria Luisa Cenigari idatzi zion, Zitaren partez, esateko arazoa konponduta zegoela, ez zeukala bere senarraren bizitzagatik arduratu beharrik.

Gubernativa de LEQUEITIO
30
En cumplimiento de órdenes de la Autoridad militar se servirá Vds. permanecer en su domicilio en calidad de detenidas sin que por ninguna causa o motivo puedan ausentarse de su domicilio sin previa autorización de la Autoridad Militar.
Lequeitio 19 Mayo 1937
El Agente
J. Martínez



Luis Ceniga familiarekin

ALCALDÍA DE LA VILLA DE LEQUEITIO
S. N.
Tengo a bien en comunicar a V. que en la fachada de su casa existen letreros pocos decorosos para el Nuevo Régimen, mucho le agradeceré los quite los antes posible, pues caso contrario me vería obligado en dar las ordenes oportunas para que lo efectuen obreros del Ayuntamiento por su cuenta. Esperando verme atendido sin nuevos requerimientos.
Dios save a España y guarde a V. muchos años.
Lequeitio 23 de Febrero de 1938
II año Triunfal
El Alcalde
Ramón Piana
Sra. Dña. Maria Luisa Zeniga

Luis Ceniga atxilotuta egon zen bitartean, bere emazte Maria Luisa eta alabak ere etxeko arrestoa jaso zuten, 1937ko maiatzaren 19ko gutunean ikus daitekeenez. Udaletxetik ere edozelako aginduak jasotzen zituen emakumeak, irakurri 1938ko otsailaren 23ko gutuna. Auskalo zer izango ziren dir-elako "letreros poco decorosos para el Nuevo Régimen"....

Lekeitioko Udaleko langile legez espedientea zabaldu zioten Luis Cenigari 1937ko maiatzaren 18an hasitako "garbiketara" prozesuaren ondorioz. Aritz Ipiña Bidaurrezagak ondo azaltzen du udal langileekin gertatutakoa oraintsu argitaratu duen liburuan (*La depuración de las empleadas y empleados municipales en Bizkaia durante la guerra civil y la dictadura franquista: 1936-1976*). 28 langiletik 14 berehala zigortu zituen eraturako udal berriak, frankistek herrian sartu baino lehen alde egin zutelako. Euren karguetatik kendu zituzten gorri-separatistekin aldetegatik. Luis Ceniga tartean zegoen. Plaza haiek, etorkizunean betetzeko geratu ziren eta alkate berriak behin-behineko ordezkokoak izendatu zituen, eurretariokoen artean aukeratutakoak noski.

1938ko abenduaren 15ean berriro epaitu zuten Luis Ceniga eta 12 urte eta egun bateko kartzela zigorra jaso zuen. Azkenik, urte bi eta sei hilabete bete zituen kartzelan, bertan ere erizaindegian lanean, bertako medikuak hala aginduta. Alabak kontatu digu presoan egonaldiak erizaindegian apropos luzatzen zituela hobeto elikatuta irten zitezela. 1940ko abuztuaren 14an irten zen espetxetik.

Bere ideien ondorioz espetxeratu eta zigortu egin zuten Luis eta gehiago ez zen Lekeition mediku arituko. Birritan baino ez zen herrira hurreratu, bietan ezkutuan eta bisita medikuak egiteko. Kartzelatik irten zenean Bilbon zabaldu zuen kontsultategia. Batez ere mediku-haginlaria izan zen. Dio bere alabak, hala ere, lekeitiar asko joaten zitzaizola Bilboko kontsultategira.

Luis Ceniga Bilbon hil zen 1948. urtean, gazte, beste asko bezala, gerran bizi izandakoak osasuna janda.

Steenockerzeel, el 11 de Noviembre de 1937.

Señora

DOÑA MARIA LUISA de CÉNIGA,
LEQUEITIO.

Muy Señora mía : Su Majestad la Emperatriz y Reina Zita acaba de recibir la carta que con fecha del 3 del actual V. le envió por conducto del Ministerio de Estado de Bélgica en Bruselas.

Mi Augusta Soberana nunca olvidará con cuanta solicitud, diligencia y afecto su marido se ha dedicado al tratamiento y cura de su Familia durante todo el tiempo de su estancia en Lequeitio, y de todo corazón comparte con V. en las angustias y la ansiedad que la suerte de Don Luis le esta causando en las actuales circunstancias.

Conmovidísima por la gravedad de su aflicción Su Majestad me encarga de mandarle este testimonio de sus sinceras simpatías y de sus oraciones, añadiendo que desde luego hace todo lo que esta en su poder para complacerle.

Por orden de Su Majestad la Emperatriz
y Reina :




Cenigatarren korrespondentzia partikularra

Liburuak

Iñaki Goigana Mendiguren



Kurik aldizkariaren bigarren zenbakia kaleratu zenetik hirugarren honetara artean, liburu uzta polita izan dugu osorik edo zati esanguratsu baten Lekeitio gaitzat hartu duten liburuetan. Horra gure eskuetaraino heldu direnen zerrenda.



Los Goytisolo. Una próspera familia de indianos. Martín Rodrigo y Alharilla, Marcial Pons Historia, 2016.

Gure herriaren historia ezagutu nahian gabiltzanok badakigu sumatzen dugu zenbaterainoko garrantzia izan zuen XIX. mendeak gaur garen honetan bihurtzen, baina usaintze horretatik aurrera sarrietan hutsunea besterik ez dugu ikusten. Apenas dugun historia garaikidea aztertzen duten libururik eta ditugunak oso azalekoak. Bestalde, XX. mendean ondo aurreratu arte Lekeitio eta inguruko herrietan ezaugarri nagusienetako bat aipatzekotan ezin dezakegu

emigrazioa baztertu. Gure artetik Ameriketara joan zirenak ez ziren gutxi batzuk izan, ehundaka baino eta fenomeno horrek pisu handia izan du gure iraganean. Rodrigo y Alharillaren liburuak gai bi oiek aztertzen ditu Goytisolotarren ibilbide kubatarrean sakonduz.

Agustin Goytisolo Lazartzaburu 1811ko uztailaren 11n jaio zen, ez edozelako familia batean. Ordurako ama, Magdalena Lezartzaburu, bere senarrarengandik banatuta zegoen eta, aurretik izan zituen hiru neska-mutikoei, Agustin Goytisolo Rementeriarekin izan zuen bigarrena izan zen gure protagonista. Ez zen izan Agustin txikia, horregatik, erdituko zuen azkena, ondorengo urteetan hirugarren gizon batekin beste sei ekarri zituen mundura-eta Magdalenak.


Horrenbesteko familia ugari baten jaiotzeak, amak adore guztia jarri arren denak aurrera ateratzen eta ez zen gutxi izan Magdalenak egindakoa, laster hasi zen gure Agustin lanean, arotz. Baina, amaren odolekoa nonbait eta herrian ikusten zituen Ameriketara joanda aberastutakoen bidea berdindu nahian edo, Kubarako bidea hartu zuen 22 urte zituela.

Kuban sekulako aberastasunak egin zituen esklabu lana erabiliz azukrea ekoizten Agustin Goytisolok, berak bakarrik edo beste lagun batzuk hartuta sozio, sarritan euskaldunak. 1870ean Bartzelonara erretiratu

zen eta Kubako ondasunak, denak ez, hiri kataluniarraren zabaltze eta handitze urbanistikoan inbertitu zituen bere onurak handituz. Halanda be, Agustinek pilatutako dirutzak bere oinordekoak jaten joan ziren ia aberastasunak guztiak agortu arte.

Labur, oso labur, esanda horra lekeitiar amerikano baten historia. Edozein modutan Goytisolotarren gaineko monografia honetan irakurleak hainbat eta hainbat informazio gehiago aurkituko du, batez ere burgesia katalanak Ameriketara joan zirenekin Kataluniako hazkunde ekonomikoarekin izan zuten loturari buruzkoak, horretan baita Alharilla espezialista.

Ezin esan barik utzi liburuaren egileak Lekeitio egin zuen liburuaren beraren aurkezpena. Txalotzekoa da Bartzelonatik honaino etortzea liburu aurkezteko eta estimatzeko, baita ere, bertara batu zen jendetza eta guztien interesa.




La muralla de la villa de Lequeitio. Aitor González Gato, Autoedizioa, 2017.

Lekeitioko harresiaren gaineko monografiko hau lehenago egileak aurretik Bizkaiko zenbait uritako hiri-hormen gainean eginak dituen antzeko liburuen bilduma osatzera dator. Idazlea ez da arkeologoa ez historiagilea, baina badu eskarmentua, esan bezala, antzeko lanetan. Horregatik, akaso, adituen artean lan honek ez du oihartzun handirik izan, baina liburu honen ekarpena ez da zokoratzea merezi duena.


Orain arte idatzi diren lanak kontuan hartuta eta artxiboetan gordeta dagoen dokumentazio aberatsa, dena ez bada ere zati handi bat, erabilia, Gonzalezek gaur egunera arte heldu zaizkigun harresi zati handien eta urteetan zehar galdu ditugun parteen berri ematen digu, hor dagoela jakin arren, kasu handiegirik egin barik baztertua dugun gure herriko elementu arkitektoniko zaharrenetarikoaren gainean.

Eskuen artean hartzen duen irakurleak harresiari buruzko hainbat informazio jakingarriz jantziko da. Gure iragana ezagutzeko honen antzeko hamaikaxko libururen faltan gara, beraz, akatsak akats, eskertzea besterik ez zaigu geratzen egileari lana.



Lekeitio en tiempos de la Emperatriz Zita (2ª parte). José María Arriola Arana, Autoedizioa, 2016. Arriola jaunak 2015ean oparitu zigun Zita enperatrizaren Lekeitioko egonaldiari buruzko liburuxka batekin eta lan hark izan zuen arrakastak akuilatuta edo bigarren zati osagarri hau kaleratu du oraingoan. Arriola jauna ondo moldatzen da zuzenean edo zeharka ezagutu duen Lekeition eta

bertako jendeen artean eta, zer esanik ez, liburu eta eskrituren munduan. Hori guztiori ezagun du liburu honetan eta aurrekoan. Lanean zehar ikusiko ditugun pertsonaia, agiri, liburu, kale eta abarrak etxeko edo auzoko ditu eta berak dakien modura kontatzen du guztia, gozo eta dotore. Ondare jardunaldien barruan, 2017an eman zuen hitzaldian erakutsi zuen modura, Arriolak badu zale multzo handi bat bere kontakizunak gustuko dituen eta azken lan honek asetuko dituen.



Arkeoikuska 2016. Eusko Jaurlaritza, 2017. Urtero legez, eta dagoeneko aspalditik, hutsik egin barik, Jaurlaritzaren Kultura Ondare Zuzendaritzak urtean zehar egindako indusketa arkeologikoen laburpena argitaratu du. Lekeition buruturiko lanak eta zenbaki honetan azaltzen direnak, honako hauek dira: Hirigune historikoan Beheko kaleko 22an, Dendari kaleko 29an eta 47n

egindako indusketak eta udal barrutian San Nikolas irlan egindakoa eta Armintxe kobazuloan aurkitutako Madaleine aroko marrazkien azterketa.



Escolatik eskolara. Xabier eta Aitor Iturbe, Lekeitioko Herri Eskola, 2017. Gure izatea garatzerakoan zerk duen eragina galdetzen hasiko bagina, ez litzateke azken erantzuna izango hezkuntza dela horretan garrantzitsuenetako elementuetako bat. Ba gure herriaren historian hezkuntzak

eman duenaren zati handi bat ekarri dute Iturbe anaiek liburu honetara. Eman duena eta eman nahi duena, ze lanak zati bi ditu. Batetik, hasi XVI. mendean eta XX. mendera arte gure artxiboetan hezkuntzaren gainean zerikusi duten agiriak guztiak arakatu ditu Aitor Iturbek eta Xabierrek, berriz, gaur egungo Herriko Eskolen asmo pedagogikoak eta historia landu ditu. Bien artean aspaldiko belaunaldien eskola kontuak eta gaur egungo lehenagoko haien oinordeko eta lekuko diren eskola, maisu-maistra eta eskola-umeen gorabeherak, ez dirudien arren guzti-guztion historiaren berri.




“Las aves monstruas”. Bombardeos aéreos sobre Lekeitio, octubre de 1936. Iñaki Goigana, in Bombardeos en Euskadi (1936-1937), Gernikako Bakearen Museoa, 2017. Gernikako bonbardaketa oroitzeko Gernikako Bakearen Museoa antolatzen duen mintegia 2017an Euskadin Gernikakoaz gain izan ziren hainbat bonbardaketen azterketan zentratu zen. Bonbardaketa kasu

oien artean, Lekeitiokoa. Beraz, hona dakarguna iazko apirilean Gernikan irakurri ziren txostenak dira eta hauen artean Lekeitori buruzkoa.



La depuración de las empleadas y empleados municipales en Bizkaia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista (1936-1976). Aritz Ipiña Bidaurrazaga, IVAP, 2017. Errepresioaren gaineko historiografia geroz eta aberatsago baten barruan sartu behar dugun liburu dugu Ipiñarena. Aurreko Kuriken zenbaki baten aipatu genuen Anxo Ferreireoren euskal kleroaren kontrako errepresioari buruzko liburuaren antzera, Ipiñak

instituzio oso bat aztertu du frankismoak eman zion tratuan. Herriz herri eta funtzionarioz funtzionario, Ipiñak erretratu zehatza dakargu bere liburuan. Lekeitioko kasuan bertan ikusi dugu frankistak Lekeitio hartu zutenean 29 langile zituela udalak eta oietatik 16 kaleratu zituztela, % 57, erdiak baino gehiago. Ikusita Bizkai osoan gertatu zena, gurean izandakoa ez zen apartekoa izan. Ipiñak diosku lurraldeko udaletako langileen % 52ak beste horrenbeste pairatu zuela eta. Ipiña ez da datu hotzetan geratzen eta langile guztien izen-deiturak eta zehaztasunak ere badakartza. Liburu honetan datozenak, 81 urte izan arren, hotzikara berdin-berdin sorrarazten dute nahiz eta garai hartako ankerkeriaren zati txiki bat besterik izan ez.




La historia del capitán Izaguirre. Un sobrecogedor relato en el mar. Antonio Vicario, Ediciones Ulzama, 2016. Belaontzien urrezko aroan kokaturiko itsas abenturaz osaturiko liburu honetan, irakurleak Anton Izaguirre izeneko lekeitiar kapitain baten itsas gora beherekin gozatuko du. XIX. mendean gertaturiko kasu historiko baten oinarrituta, irakurleak gustura ikusiko ditu nobelaren orrialdeetan sasoi hartako itsas munduari loturiko merkataritza, pirateria, arratza, eta abar eta baita garaiko historia bera ere.



Euskal Zine eta Bideo Bilerak. 40 urte zinea eta euskara bultzatzen. Hainbat idazle, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2017. Benito Ansolak, besteak beste Jose Luis de la Torre eta Jon Granderen laguntzaz, orain 40 urte ereindako haziaren fruituak biltzen ditu liburu honek. Halanda be, lana ez da mugatzen Euskal Zine eta Bideo Bileraren historia kontatzera. Horretaz gain, bost artikulua eta Benito Ansolari Miren Agur Meabek egindako elkarrizketa batekin, bere txikian handia

den Lekeitioko zine jaialdiaren eta antzeko zinemaldiak euskal ikus-entzunezkoen mundura egin duten ekarpenaren berri ematen digu liburuak.



Lea Artibaiako ipuinak. Jabier Kaltzakortaren edizioa eta itzulpena, Bizkaiko Foru Aldundia, 2016. Kaltzakortak, Aldundiaren Bizkaiko kondairak sortaren barruan, liburu honetara Markinan, Lekeition, Ondarroan eta Aulestin baturiko 22 herri ipuin ekarri ditu. Kontakizunon transmisioa ia erabat galduta dagoen honetan ideia bikaina begitandu zaigu gure aurrekoen altxor hau gaur eguneko irakurleen eskuetara ekartzea. Baina gure hasierako poza liburu irakurri ostean ez da erabatekoa izan. Nago

gaur egungo irakurle askok liburu testuaren euskara ereduarekin zailtasunak izango dituela bertan datorrena ulertzeko. Izan ere, irakurtzeko eta hizketarako darabiltzagun euskarak ez dira bat eta liburu ipuinak lekuan lekuko euskaran datoz. Ideia ederra, baina ez dakit ba beste era batera ez ote litzatekeen egin behar.

Gernikako arbola

Altunaren heriotzaren 150. urteurrenean

Fernando Garatea Alzola



Eskolapia XX. mendearen hasieran


Duela 50 urte ere, 1968an, urteurrenak ospatzen ibili ziren lekeitiarrak: dominikarren komentuarren 600. urteurrena, Altunaren heriotzaren mendeurrena... Eta horien kariaz, Eusebio Erkiagak, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen EGAN aldizkarian, artikulua bat idatzi zuen "Gernikako Arbola ta Lekeitio" izenekoa.

Artikuluaren kontatzen du zelan Iparragirrek, Lekeitiora etorri zen batean, Beheko kaleertzean hartu zuela ostatu¹ eta Bittor Arroita ostataria berehala ezagutu, Iparragirre karlisten artean ezaguna baitzen, eta Bittor karlista sustua, gerran sarjentu izatera iritsitakoa. Nobe-

dadearen aurrean, ostatutik hurbil² bizartegia zeukan Marurirengana joan omen zen Bittor, errekadua ematera: "Txo, Popitto! Etorri adi bertatik geurera! Han jaukat eta Iparragirre, gitarra ta guzti!".

Solasaldi gozoan aritu ziren hirurak eta hizketaldiaren erdian, bertso batzuen berri eman zien Iparragirrek solaskideei: Gernikako Arbola goratuaz antolatua zeuzkala bertsoak, baina haien zati musikarik ezin asmatuta zebilela.

"Lekeition daukagu, ba, hori konpon dezatekeen musikaria, Parisen ikasia..." atera zitzairen beste biei batera. "Zein, baina?", Iparragirrek. "Altuna", beste biek aho batez. Eta biharamunean Trinitade kaleko 7. zenbakira lagundu



omen zioten Iparragirreri, Altunaren etxera. Altunak, etxean zeukan harmoniuma lagun, zortziko batekin josi omen zituen Iparragirreren bertsoak. Gustatu zitzaion doinua Iparragirreri eta egun batzuk eman zituen Altunaren etxean doinu berrira bertsoak egokitzen eta ostatuko lagunekin solastatzen.

Eusebio Erkiagak idatzitakoaren arabera, beraz, Trinitade kaleko lekeitiarrak izan ziren munduan lehenak Gernikako arbola entzuten. Hobe ez izan lekeitiarrak munduan lehenak XIX. mendeko euskal ereserkia aditzen!

Baina horrela izan ote zen?

Egiaztatzeko, teink egingo diegu artikuluan aipatzen dituen pertsonaiei.

Paristik etorritako artista

1828ko otsailaren 2an mutiko bat jaio zen Durangon, Tabiran. Biharamunean bataiatu zuten eta Juan Maria Blas izena jarri zioten. Jaio berri guztiek bezalaxe, lehen lau hilabeteak inguruko ezer ikusi ezinda eman zituen, baina lau hilabeteak igarota ere berdin antzean jarraitzen zuenez, ikusmen urrikoa zela ondorioztatu zuten etxekoek, ia itsua. Hori gutxi ez, eta hezurdura bigun eta ahulekoa ere bazen, eta, gainera, gaixokia.

Gurasoek, artisau ondraduak, laster ikusi zuten semeak ezingo zuela beraien lanbidean jardun; beraz, mutilaren etorkizunak kezkatuta, irtenbideak asmatzeari ekin zioten, baina ez zuten askorik asmatu behar izan, mutikoaren portaera behatzea aski baitzen horretarako: txiki-txikitatik, elizara joaten ziren bakoitzean, koruko eskailerak lau hankan igotzen omen zituen organoa entzutean.

Cuenca-ko katedralean kapera-maisu izandako Higinio Herrerarekin hasi zen musika ikasten, Durangon, baita pianoa jotzen ere, baina hain ikasten zuen azkar, ezen laster jarri

Gernikako arbola

J. M. Iparragirre



baitzuen maisuak ikaslea parrokiako organo-jole, eta gurasoei gomendatu Arrasatera eramateko aita Larramendirekin armonia ikastera. Larramendirekin hasi zen konpositore lanetan eta pianoa perfektuz jotzen. Ikasketak amaituta Durangora itzuli zen eta umeen koru bat sortu zuen jaioterrian, zeinetan herriko ume guztiek nahi zuten sartu. Berak konposatutako musika sakroa kantatzen zuen koruak, baina halako sentimenduz, non ez baitzen kristaurik barrua samurtu barik elizatik ateratzen.

1849an, Durango txiki geratu zitzaion eta Madrilera joan zen Hilarion Eslava konpositore handiarekin ikasketak sakontzera. Kapitalera joateko Juan Mari izenari Altuna lehen abizena gehitu behar izan zion.

Jakin badakigu 1850etik 1853ra Madrilen egon zela, Jose Manterola-ren "Cancionero Vasco"-n Miguel Ostolaza jaunak hauxe dio-eta: *Iradier konpositorearen etxean ezagutu nuen Altuna, eta lagun min egin ginen. Altunak meritutik beste zeukan apaltasunetik; behin, zera esan zidan, zortziko bat idatzi zuela eta zortzikoari Iparragirrek jarri ziola letra. Gernikako Arbolari zen.*

Madrilen euskaldun asko zegoen garai hartan; gau batean, Montera kaleko San Luis kafetegia bete zuten euskaldun horiek, Iparr-

girrerent kantaldia entzuteko. Iparragirrek zortziko berri bat kantatu zien, Altunak pianoz lagunduta: Gernikako Arbola. Txalo zaparrada ikaragarri batekin eman zion amaiera kantaldia-ri, eta ikusleek behin eta berriz errepikarazi zieten kantua, buruz ikasi arte.

"Nik jakin badakit San Luis kafetegian baegoazala lekittarrak... harek entzu eben Gernikako Arbola inok baino arinago..."

Iparragirrek zabaldu zuen munduan barrena Gernikako Arbola, garaiko euskal ereserki bihurtuz. Eta kantu horrek betikotu zuen, gainera, Iparragirre. Baina musikaren egilea Altuna zenik ez zuen inork ere sekula santan entzun. Zergatik?

Jose Manterolak bere "Cancionero Vasco"-n iradokitzen duena izan daiteke arrazoia: Gernikako Arbola lehen aldiz Madrilen kantatu zuten gauean, euskaldun jendeak zortzikoari egin zion harrerak Iparragirre hazi egin zuela eta Altuna ikildu, ekar zitzakeen kontrako erreakzioen beldur. Eta, dirudienez, Altuna zuzen zebilen analisisan, zeren Iparragirre kartzelaratu, epaitua eta Euskal Herrikan kanporatu izan baitzen Gernikako Arbolarekin herria sutzeagatik.

Hara hemen, Iparragirreren kantu ezagun honetan horren aitortza:

Zibilak esan naute
bizi egoki
Tolosan biar dala
gauza erabaki
Zibilak esan naute
bizi egoki
Tolosan biar dala
gauza erabaki
giltzapian sartu naute
poliki poliki
negar egingo luke
nere amak baleki.
Jesus tribunalian
zutenian sartu
etzion Pilatosek
kulparik bilatu.
Jesus tribunalian
zutenian sartu
etzion Pilatosek
kulparik bilatu.
Neri ere arkitu ez arren
ez didate barkatu
zergatik ez dituzte
eskuak garbitu.
Neri ere arkitu ez arren
ez didate barkatu
zergatik ez dituzte
eskuak garbitu.
Kartzelatik aterata
fiskalen etxera
abisatu ziraten
juateko beriala
Kartzelatik aterata
fiskalen etxera
abisatu ziraten
juateko beriala
ez etortzeko geiago
probintzi onetara
orduan artu nuan
Santander aldera.
ez etortzeko geiago
probintzi onetara
orduan artu nuan
Santander aldera.



¹ Sasoi batean Juan Arrizubietak barberia izan zuen lekuan, gero Soka Muturra taberna izango zena.

² Aralde liburu-denda dagoen lekuan

Altuna Hilarion Eslavarengana joan zela Madrileran esan dugu, ikasketak sakontzera. Eslavaren laguntzaz hasi zen Altuna goi mailako jendea ezagutzen eta aberaskumeei musika irakasten, eta, Madrilen egon zen bitartean, hori izan zen bere ogibidea: musika irakastea eta konposatzea, baina gehiago jakiteko minak Parisera eramango du 1854an. Eslavak errekomendazio-gutunak eman zizkion Pariseko musikari onenekin harremanetan jartzeko eta horrela sartuko da Pariseko goi mailako jendearen saloietan. Horietako batean ezagutu zituen Uribarren eta Agirrebengoa senar-emazteak.

Uribarrenek eta Agirrebengoak Lekeitioko San José³ eliza eraberritu zuten hemeretzigarren mendean erdialdean, 1812an frantsesten aurkako gerran hondatuta geratu zena.⁴ Lekeitioren eta lekeitiarren alde beste azpiegitura lan asko ere eginak zituzten edota egiten ari ziren, baina Altunari Lekeitioko gonbitea egitea Konpainiako eliza eraberrituarekin dago lotuta; eliza horretarako erosia zuten harmoniuma⁵ jotzeko ekarri baitzuten Lekeitiara. Altunak pozik onartu zuen eskaintza, beste musikari batzuekin norgehiagoka ibiltzea ez zuelako gogoko; beraz, hemen daukagu 1856 inguruan Lekeition.

Zeregin artistikoetatik erretreta hartuta iritsi zen Lekeitioko atsedeenlekura, baina laster hasi zen lanean, koru handi bat sortuz Lekeition, musika obra ikaragarri zailak abesteko gai zena. Umeen lanari eta maisuaren behaketa-dohainari, pazientziari, bakoitzari ulertzeko berbekin hitz egiteko abildadeari –euskaraz hitz egingo zien seguruenik– eta umeak estimulatzeko gaitasunari esker lortu zuen koruak arrakasta.

Tristeza, pentsalaria, urduria, sentiberatasun handikoa, apala, handigura gabea, bihozbera... zintzotasunaren eredu zen Altuna. Ume itxurako ia itsua maite zuten lekeitiarrek, etxekotzat zeukaten guztiak.

Altunaz diharduten idazki guztietan esaten da Uribarrenek Lekeitioko elizari organoa eta organista oparitu zizkiola: Cavallé-Coll or-

ganoa eta Altuna organista. Esaldi horrek zer iradokitzen du? Altuna Cavallé-Coll jotzera etorri zela Lekeitioko parrokiara, Uribarrenek gonbidatuta.

Gezur bi esaldi bakarreen

Lehena, Jose Jabier Uribarrenek egin ziola Altunari Lekeitioko gonbitea. Litekeena da, baina emazteak iradokita, emaztea baitzen arteaz zekiena. Jose Jabier Uribarren diruari kumeak eragiten zen artista, horregatik zen Pariseko bankurik boteretsuenaren jabea, baina musikaz, pinturaz, arteaz... zekiena Maria Jesus emaztea zen. Beraz, Altuna Lekeitiara ekartzeaz dihardugunean Maria Jesus Agirrebengoa ezin da aipatu barik utzi.

Bigarrena, Altuna Cavallé-Coll jotzera etorri zela Lekeitioko parrokiara. Hara! Lekeitioko parrokiak, garai hartan, hamazortzi abade zeuzkan eta horietako bat, Juan Jose Etxebarria, parrokiako organista. Zelan dakigun? Organistari udalak ordaintzen ziolako, organista udal langilea baitzen. Garai hartako udal langileak hauek ziren: medikua, zirujaua, idazkaria, diruzaina, maisua, udaltzaina, txistularia, atabalaria, organista, enterradorea eta guarda. Eta artxiboan gordeta dauden ordainagiritan egiaztatu ahal izan dugu organistaren soldata, 1854tik 1863ra, Juan Jose Etxebarriak jaso zuela. Gero, 1863ko 2. hiruhilabetekoan Joakin M^a Velasco-k hartu zuen organista postua eta Juan Jose Etxebarriak organista-jubilatuari zegoen soldatu kobratu zuen udaletik, 1867an hil zen arte.

Mancos Luis Portero organista	1100
Celestino Berana	1100
Juan Jose Etxebarria organista	110
Juan Maria de Altuna udal de Capilla	666 22
Ramon de Truxa tamborilero	422 22
Jose Colaitarte Abalero	183 11

Are, ona zegoen Altuna apal, zintzo, urduria Juan Jose Etxebarriari lanpostua kentzeko. 1835ean, lehen karlistaldian, Lekeitioko liberalen menpe zegoela –udaletxe liberala eta mila soldadu liberaleko gudarostea hiribilduan–, Juan Jose Etxebarriak sekulakoak esan omen zituen pulpitutik liberalen aurka eta Lekeitioko go-

bernadore militarrek herritik kanpora egotzi zuen. 1839an itzuli zen, gerra amaituta, Ondarroatik. Postua kentzeko moduan organista titularrari... Altunak ziur jotzen zuela Cavallé-Coll organista titularrak baino mila aldiz hobeto, baina dilistak jokoan daudenean... kontuz!

Altuna, esan bezala, ez zen parrokiako organoa jotzera etorri Lekeitiara, baizik eta konpainiako harmoniuma. Zeregin horregatik ordainduko zioten Uribarren-Agirrebengoa senar-emazteek soldata.

1961ean, udalak, udalerriko musika irakastele izendatu zuen Altuna, urteko 2000 errealeko soldatarekin. Eta ordutik aurrera, udal langileen zerrendan lanpostu berri bat agertzen da: kapera-maisua. Eta Altuna izan zen kaperamaisu 1868an bularrekoak jota hil zen arte.

Juan E. Delmas

Altunak ez zuen inoiz euskal ereserkiaren (Gernikako Arbola) egiletza aldarrikatu, baina bera hilda gero ere polemikak jarraitu zuen, Altunarena ote zen musika ala Iparragirrena. Polemikan parte hartu zuenetako bat Juan Eustakio Delmas jauna izan zen, “Irujac bat” egunkari foruzale liberalaren sortzailea, zeinak “Diccionario Biográfico de Claros Varones de Vizcaya” liburuan, hauxe dioen:

“Bere zortzikoak hain ziren samur, eder eta bereziak, ezen eskuetatik kentzen baitzizkioten; eta hor dabilta galduta munduan zehar, norenak direnik barik, Gernikako Arbola ibili izan den moduan. Iparragirrek Europan eta Amerikan zabalduko Gerni-

kako Arbola 1853an idatzi zuen Altunak, bere ahotik entzun nion hori esaten, geurean –Bilbora etortzen zenetan geurean geratzen zen–, eta zortzikoaren eskuizkribua oparitu zidan, 1874an nire liburutegiarekin eta Campo Volantin-en neukan etxearekin batera erre zena”.

ALTUNA JUAN MARIA BLAS, compositor, músico y organista en Devango en 1828 y músico en Segorbe en 1849. Sus padres músicos aragoneses que si bien intentaron una carrera científica, como se veía muy endeble, a conocer grandes aficiones a la música, aprovecharon la estancia en Devango del maestro de capilla de la Catedral de Huesca D. Hipólito Herrera, para que le enseñase los fundamentos de ella. Pronto conoció este profesor que necesitaba mejores disposiciones, y por el consejo se lo llevaron a Saragorri que habitaba en el condado y graba de fue un excelente contrapuntista para que lo instruyese, lo que lo tanto acertó y exito que al cabo de dos años formó una docena de alumnos, el cual, regresando a su pueblo provisto de conocimientos de contrapunto y composición, escribió motetes, misas, sonatas y cantos religiosos del mejor corte y gusto, donó a Madrid, en 1849 para perfeccionarse en el estudio un celebre maestro Eslava y presentarle sus composiciones

sobre el final del arte segundo de Peristernios, del mismo acto de Suecica y cuarteto de Trigoletto; el rondo final de Sonambula, el belicidísimo canto variado del Spinto gentif de Favorita, y otras muchas piezas de su composición, rayaban a la altura de las mas celebradas de los grandes maestros. Y su digitacion y ejecución eran además tan prodeptasas que sobresalía como correctísimo interprete de la musica de Prudent, que fue su maestro en Paris, de la de Thalberg, Litz, Chopin y Schulloff, Gattaloni, Garcia y Braxton entre los modernos, y de la de Beeta, Haydn, Weber, Beethoven y Mendelsson entre los antiguos.

Sus Zortzicos eran tan bellos, tiernos y característicos que se los arrancaban de las manos y aun en ^{hoy día} atribuidos a autores diferentes, del mismo modo como dura el populurísimo himno Guernicaco arbola, que compuso en 1853, equivocadamente atribuido a Iparraguirre, jurgo



Altunak jotzen zuen harmoniuma



Altunaren hilobia Lekeitioko kanposantuan



Bittor Arroitaeren erretratua

Bittor Arroita

Eusebio Erkiagak EGANerako artikulua idatzi zuenean, 1968an, ez zuen Internet kontsultatzerik izan, baina nik bai, eta Google-n Bittor Arroita idatzita, hainbat sarrera pantailaratu zaizkit. Bat aukeratu dut, Bittor Arroitari egindako elkarrizketaren berri ematen duena.

1937ko maiatzaren 15ean Fotos aldizkari-ko kazetari batek elkarrizketatu zuen 2. karlistaldian partida-buru izandako 81 urteko Bittor Arroita, Lekeition, eta aldizkariaren 11. zenbakian argitaratu zen elkarrizketa.

Orduko ala oraingo gerra,⁶ zein iruditzen zaizu gogorragoa?

Oraingoa, zalantzarik gabe. Aeroplanoen metrailari etzanda eusteak ordu betez, infernuan egotea baino txarragoa izan behar du. Eta lubakietako bizimodua? Egunak ematea geldirik, ura belaunetaraino? Nik ez dut nahi horrelako gerrarik. Gurea politagoa izan zen.

Karlistaldian, zein borrokatan hartu zuen parte?

Zeinetan ez! Bilboko setioan ere izan nintzen, mila zortziehun eta hirurogeita hamahiruan.

Herrenka egiten du Bittorrek, orduan kazetariak galdetzen dio ea gerrako zauriren baten ondorio den herentasuna.

Ezetz, baina baduela zerikusirik gerrarekin.


Hara! Neu izan nintzen Delmas-en etxea hartu zutenetako bat Campo Volantin-ean, Bilboko setioan. **Gainera, neuk eman nion su etxeari.** Orain inor ez da gogoratzen sute hartaz, baina garai hartan entzutetsua izan zen.

Txurdinagan, setioa amaituta, beste etxe bat hartu zuen gure partidak. Ni partidako sarjentua nintzen. Hartutako etxean, Valentzia erregimentuko 25 soldadu eta euren teniente atxilotu genituen. Etxetik ateratzeko, zulo bat egin genien horman, eta banan-banan atera. Atxilotuen artean bi euskaldun zeuden: boluntarioak. Deskuidu batean, boluntarioak tiroka hasi zitzaizkigun eta ia hil egin gintuzten. Orduan, nire gizonak, amorratuta, hantxe bertan guztiak fusilatzea eskatu zidaten, baina ez nien utzi, denak ez zirelako errudun. Une horretan, atxilotutako tenienteak eskua eman zidan, esanez:

Gizalegekoa zara eta eskuzabala... Eskertzen dizut keinua. Ni Francisco Amayas Diaz naiz, Madrilen ezaguna den familia batekoa... Egunen batean ezertarako behar banauzu, badakizu non joatea. Are! Orain aurkako bandoetan gauden arren, gerra amaitzean lagunak izatea nahi nuke...

18 urte zeuzkan teniente liberalak... 19, nik.

Galdakaora eramane genituen liberalak, preso. Valdespina markesaren koartelera. Boluntario biei heriotza zigorra ezarri zitzaizen eta hauek hiltzeko berrogei makila zorrotz biltzeko eskatu zidan nagusiak. Heriotza krudela izango zutela iruditu zitzaidan, baina Zornotzako plazan hiltzera zihoazela



indultua jaso zuten eta handik urte betera, besteekin batera, preso karlistengatik trukatu zituzten, trukatuaren artean zegoen Amayas teniente ere.

Gerra galduta etxeratu nintzen, ezkondu eta 37 urtez ez nuen ezer jakin Amayas hartaz. Baina zelán diren gauzak! Gerra amaieran partidako fusilak entregatu beharrean, kobazulo batean gorde nituen eta lantzean-lantzean joaten nintzen kobazulora fusilak koipeztatzen, hurrengo altxaldirako prest

egon zitezten. Bisitaldi batean, jausi egin nintzen 7 metro sakon zen zulora eta hanka apurtu. Eskerrak habiaren berri zekien lagun bat neukan, hark atera ninduen eta etxera eramane. Egunak egin nituen heriotzarekin borrokan. Orduan, arbolatik jausita hautsi nuela hanka zabaldu genuen herrian, baina ez zuen inork sinetsi eta armak aurkitu zituzten. Agur ni! Laster fusilatuko ninduten...

Baina harrigarriki ez ninduen inork moles-tatu. Are, gertaeraz hitz egin zuten egunkarietan ez zen nire izenik agertu... Misterioa!

Misterioari orriak kentzen hasi nintzaionean jakin nuen Txurdinagan preso hartu genuen Amayas teniente guardia zibilen zuzendari orokor izatera iritsia zela...

Herrenka kalera irteten hasita nengoan jakin nuenean guardia zibilen zuzendari orokorra Lekeitiora etorri zela, bidaia ofizialean. Beitian hartu zuen ostatu. Eta eliza ondoan agurtu nuen, eskerrak ematera hurbildu nintzaionean.

“Ez zaitut ikusi orduntxetik” esan zidan zuzendari orokorrek, “baina ez nuen hil nahi zu besarkatu barik”.

Eta eliza inguruan zebiltzan lekeitiarren harridurarako guardia zibilen zuzendari orokorrek fusilatzea zen Bittor Arroita besarkatu zuen.


Kenketak egiten

1937ko elkarrizketan 81 urte bazeuzkan Bittor Arroita, 1856an jaio zen, eta ordurako Gernikako Arbola foruzale guztiak kantatzen zuten; beraz, tamalez, Eusebio Erkiagak EGANen idatzitakoa, polita den arren, ez da zuzena. Halandabe, zelako punteria Eusebio Erkiagarena, Gernikako Arbola eta Bittor Arroita lotu baitzituen bere artikuluan. Eta egon daude lotuta, baina ez Eusebiok dioen moduan, baizik eta Bittor Arroita izan zelako Delmas-en etxeari su eman ziona Campo Volantin-ean, 1874an; eta, etxearekin batera, liburutegian gordeta zeukan Gernikako Arbolen jatorrizko partitura erre zuena.

Bitartean, 150 urte daramatza Juan Mari Altunak Lekeitioko kanposantuan, boteretsuen artean ehortzita, heriotzak xumeak eta boteretsuak denak berdintzen dituela iradokitzen.



Daniel Escurza, Victor Arroita eta Adrian Celaya Abadien moilan, 1937



"Fotos" aldizkaria, 11. zenbakia. 1937ko maiatza

⁶ Gerra karlista ala gerra zibila?

Il faut mettre cette Figure au Discours 4. du 2. Liure, entre les pages 118. & 119.



"Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons". Pierre de Lancre, 1612

Antza, dena hasi zen kanpoko neskato batek gaez sorginak eramaten zutela salatu zuelako. Gero elur pelotaren antzera, hazi eta hazi, ezin izan zen gelditu. Bat-batean, ohikoa zenez, umeek salatuta hainbat sorgin agertu ziren. Inkizizioko komisarioaren hitzak dira: "[...] que habrá dieciocho meses que por relación de una criatura que era una niña forastera, hija de un advenedizo buhonero, en son de haber manifestado que la llevaban de noche como bruja, se comenzó a divulgar y a inquietar la gente de aquella villa persuadiéndose que estaban damnificados en muchas maneras".

Errepresio gogorra jasan zuten. Sorginkeria serio hartzen zen eta Jaurerria ere oso arduratuta zegoen.³

Lantxo hau egiteko, besteak beste, hurrengo dokumentuak erabili ditugu.

ARCHV, Registro de ejecutorias, caja 2292,19. 1620 "Ejecutoria del pleito litigado por Nicolás Gallate y consortes, vecinos de Lequeitio (Vizcaya), con Elvira de Arbolancha, vecina de dicha villa, sobre lesiones"

ARCHV, Sala de Vizcaya, caja 734,2. 1617 "Pleito de Domingo de Gallate, de Lequeitio, con Elvira de Arbolancha sobre injurias".

Lekeitiokoa, esan bezala, txikikeria izan zen; gure eskuetara bi dokumentu heldu dira, Valladolideko Chancilleriakoak, eta horien bidez dakigu Korrejidorearen tenientearen sententzia bat egon zela, salatzaileen ustez bigunegia, eta errekurtsua jarri zutela. Ez ziren bazterrak nahasi gutxigatik, sorgina ez zelako edonor.

Maria Ibañez Arrieta, Domingo Gallate eskribau eta Inkizizioko senide eta notarioaren (*familiar y notario de la Santa Inquisición*) ama zen ustezko sorgina. Behatetik haginka egin ziona Elbira Arbolancha, eta hari sinetsi eta notizia zabaldu zutenak Maria Zamora, Maria Urquiza eta Maria Mason.⁴ Hiru Mariak!

³ 1616an egoera hain zen larria Jaurerriak epaile berezia eskatu zuela sorginkeriak zigortzeko: "[...] pues el delito es tan grave que comprende en sí cualquiera género de encantación, hechicería y sortería e invocación de demonios, cosa prohibida y defendida por leyes reales, con cuya arte e invocación, acudiendo los brujos al demonio, hacen tan notables daños en toda la tierra del dicho Señorío y fuera de él, que destruyen los frutos, campos y mieses, y matan criaturas y hombres...". Reguera, Iñaki "La brujería vasca en la Edad Moderna: aquelarres, hechicería y curanderismo". RIEV, 2012.

⁴ Maria Mason Bartolome Mason zirujauaren (ikus. izurriaren artikulua) alaba naturala zen. Gaztea eta inuzentea! Bere hitzak: "... dixo que se llama Maria de mason y es hija de bartolome de mason y de marina de cavala muger soltera y su edad es de diez y seis años poco mas o menos y es costurera...". Aita ez zen Lekeition gelditu, baina guk dakigula hemen alaba eta seme bat utzi zituen.

Txikikeria bat, denen ahotan ez balego Lapurdi, Zugarramurdi edo Bermeon gertatzen ari zena hain bizirik!⁵ Ezagutzen ditugu Korrejidorearen zigorrak: Elbirari 12.000 mrs-ko isuna eta lau urteko desterrua, Maria Urquizari 8.000 mrs eta hiru urte eta Maria Zamora eta Maria Masoni 4.000 mrs eta urte bete. Baina Gallatetarren ustez ez ziren behar besteakoak, horregatik Valladolidera eramantzen zuten auzia.

Gallatetarrak argi zuten gorrotoa zela Elbira gidatzen zuena. Gorrotoa dago hainbat eta hainbat auziren atzean: odio y enemistad, enemiga capital... Auzi honetan denek gorroto zituzten Gallatetarrak: Elbirak zeharka: "... la dicha elbira de arbolancha por odio y enemistad que nos tiene como prima hermana de joan y maria garcia de uscola hermanos con quienes traemos pleitos muy reñidos..."; Maria Urquizak zuzenean: "yten si saven que de mas de dos años a esta parte la dicha maria de urquica tiene mucho odio y enemistad contra la dicha maria ybañez de arrieta y con andraota de solarte su nuera respeto de una ama de criar criaturas y no se abla y trata saludada ni comunica con ellas...". Gainera Gallatetarrak aberatsak ziren, eta aberastasuna, batez ere, berria denean ez da ontzat hartzen. Hori gutxi balitz, Yartzarren bandoa aukeratu zuten herriaren interesen kontra. Baliteke, bai, gorrotoa arrazoi nagusia izatea, baina siniskeria edo superstizio garai batean kokatu behar dugu. Sinistu egiten zen sorginetan eta sorginkerietan, horregatik esan dugu ia handia antolatuta zela. Bermeo sorginez josita eta Lekeitio zergatik ez?

Gertaerak

1615. urteko abuztuaren 13an, osteguna, goizaldeko ordubietan —edo lauretan— lau sorgin joan zitzaizkion Maria Arbolanchari bere etxera eta denarik egin zioten. Ahul egon arren, sorginetako bati hozka egin zion eta haragi zatitxoren batekin geratu omen zen; kontua da Domingo Gallateren ama zela sorgin hori.

Jakina, Gallatetarrak haserretu egin ziren eta auzitara eramantzen zuten Maria Arbolancha eta bai beste hiru emakume ere, notizia hori baztertu beharrean zabaltzearen.

⁵ "Lo tercero porque la pena del dicho delito es de muerte natural en que mi parte la dicha maria ybañez yncurriera si fuera verdadero el falso testimonio que las partes contrarias las levantaron diciendo la dicha elbira de arbolancha publicamente con animo de desonrrar y ynfamar a mi parte que era mi parte bruja...".

Etahalaizan bazen ~~a~~

Koldo Leniz Ortuondo eta Aitor Iturbe

**Se non è vero,
è molto ben trovato**
II. atala



sar dadila



K.WICKEN-LEINTZ

Gure aldizkariaren bigarren zenbakia irakurri duzuenok, badakizue kolaboratzaile anonimo bat izan genuela artikulu misterioitsu bat burutzeko.

Ez genekien nor zen, baina gure aldizkariako azaleratu zuen trama edo konspirazio historikoa sinesgarria iruditu zitzaigun. Kontu handiarekin argitaratu genuen, gure irakurleei aurretiaz abisatuz ez genekiela “vero”, hau da benetakoa, edo “ben trovato”, egiantzekoa zen.

Gaztelaniaz idatzi zigun gutun luze hartan beldurtuta agertzen zen beren ustezko aurkikuntzarekin. Izututa, uste baitzuen metalizko zilindro hartan aurkitutako dokumentuak, bere bizia arriskuan jar zezakeen konjurazio baten parte zirela.

Arrazoia zuen! Aldizkari hau nahi genuena baino pixkat beranduago atera izanaren arrazoia oraintxe kontatuko dizuegun hau izan da: duela aste gutxi Lekeitioko parrokiako Santa Anaren kaperan, herriaren zalaparta eta eskandalurako, erailda aurkitu zuten gorpua, gure laguntzaile anonimoarena zela jakin dugu. Atestauak dioenez, bere izena K.W Leintz da.

Kolaborazio hartan, Leintzek aitortu zigun Jesusen Lagundiko fraidea zela, hau da jesuita. Esan zigun, adinekoa bazen ere, bere ikerketarekin jarraituko zuela kosta ahala kosta, azkeneko arnasara arte. Elizarentzat eskandalu

izugarria izan zitekeen ustezko gertakari baten berri eman zigun. Uste zuen amarru edo azpijokoren bat egon behar zela guztiaren atzean.

Zelan izango zen egia Loiolako Iñigo Deunaren benetako aita izatea Errando II. Aragoikoa, hau da, Fernando “El Católico” izenez ezagutzen dugun erregea? Gaur egun normaltzat duguna, XVIII. gizaldian eskandalu izugarria



Wicken-Leintz Baroia Enperadoreen ezkontza egunean. Eskuman, zibilez jantzita etiketazko jaka batekin

izango zen, KATASTROFEA. Nor eta Inazio Deuna sasikumea!

Harira bueltatuz, esku artean duzuen aldizkaria guztiz maketatuta eta inprentara bidaltzeko prest geneukanean, Santa Anaren kaperako gertaera larriak eztanda egin zuen Lekeitioko herrian. Hedabideek laster batean isildu zuten kasua, baina “Lea-Artibai eta

Mutrikuko NICASO” astekarikoeak, batik bat Esther Murelaga erreportariak, ez zuten etsi. Badirudi kazetarien jarrera honek baduela izan astekariaren itxierarekin zerikusirik.

Eraiketaren bezperan, erredakzioaren atean gutun-azal bat utzi ziguten. Barruan, artikulu honetan argitaratuta dituzuen zirriborro, idatzi eta apunteak. Azalean ohartxo hau idatzita:

Solo me queda confirmar lo que ya doy por hecho. Si no recibieran estos documentos de mis propias manos, sepan que habrá sido por una razón muy grave, no descartando el propio asesinato.

Quedo en Paz. A todos mi saludo fraterno y mi bendición

K.W. Leintz

Orain badakigu gure artikulu-gile anonimoaren izena. Baina ez hori bakarrik: Alejandro Goikotxea medikuak egindako autopsiako datuen arabera, Leintz jauna kolpez eraila izan zen, ez zen istripu bat izan. Bestalde, Udaltzaingoan dauzkagun informatzaileek kontatu digutenarekin, badaukagu

Leintz jesuita misterioitsuaren filiazioa.

Aita K.W.Leintz S.I. (Societas Iesu) jaunaren izen osoa, Karl Wicken Leintz Goitia zen (1939-2018).

Bere aita Schmuell Karl Von Leintz (1887-1942), Wicken-go azken Freiherr-a (baroia) izan zen. Zita enperatrizarekin etorri zen Lekeitiora; bere gortearen parte zen.



Enperadoreen atzeko aldean, Wickengo Baroia, aurrean Otto printzea hile luzearekin

Wickengo baroia, Carlos I enperadorearen lagun mina zen. Adiskidetasun hori aspalditik zetorren, heziketa militarra elkarrekin egin baitzuten 10 urtez. Schmuellen jatorri judua ez zen eragozpena izan adiskidetasun hori sendoa izateko, baina enperadoreen agerraldi publikoetan bere papera oso diskretua izaten zen, guztien gustukoa ez baitzen, nahiz eta bi belaunaldi lehenago katolikotasuna besarkatua zuen familiak.

Carlos eta Zitaren seme nagusia, Otto Habsburgokoa, jaio zenean, enperadoreak haurren mentore nagusi izendatu zuen bere laguna. Zorionean eta ezbeharrean, Schmuell Karl Von Leintzek bere eginkizuna zintzo eta leial bete zuen utzi zioten arte.

Lekeitiora etorri zirenean, oraindik kargu hori zeraman ofizialki baina gorteko elementu batzuen antisemitismoak gutxika-gutxika bere kargutik baztertu zuen. Zita, Carlos I.aren alarguna, konturatu bazen ere, ez zuen ezertxo egin bere senarra zenaren lagun minaren egoera konpontzeko. Kronikak diotenez Kai-Gane tabernan ematen zituen orduak bertako leihotik Urribarren Jauregirantz begira, egunero koñak botila oso bat irensten zuen bitartean.

Leintz-Goitia familia

1924ko udan aldatuko zen baroiaren egoera. Neskame berri bat hartu zuten Karlota printzesaen kargu egin zedin. Karlota 1921ean jaioa zen eta txikiena, Isabella, 1922an, lan handia zen dontzeila batentzat neskato bien kargu egitea. Endredua zen Austriatik sehi berri bat ekartzea. Garavillatarren aholkua jarraituz, Le-

keitioke Antigua Goitia Urkiaga (1904-1973) Urribarren jauregian azaldu zen urte hartako ekainaren 8an dontzeila lana betetzeko prest.

1929ko urtarrilean, Zita eta bere gortea Lekeitiotik joan baino lehenago, ia bost urteko ezkongai-aldia egin ondoren, Lekeitioko Andre Maria Jasokundearen basilikan ezkondu ziren Schmuell Karl Von Leintz eta Antigua Goitia Urkiaga.

Beti enperadoreari emandako hitza bete nahirik, Zita eta bere familia Belgikako Ham



Antigua Goitia Urkiaga



Ezkerrean, K.W. Leintz (Lovaina, 1955). 16 urtekin

Steenorkkerzeel-go gazteluan finkatu zirenean, Bruselatik ez oso urruti, gure baroiak Lovainan finkatu ziren, Otto-rengandik gertu egoteko asmoz.

Aurrerantzean zer gertatu zen ez dakigu oso ondo. Ez behintzat orain arte kontatu ditugunen zehaztasunarekin berba egiteko moduan.

Dakiguna da 1940an, Zitak handik alde egin zuenean, Von Leintz-Goitiatarrak Lovainan geratu zirela. Ordurako, Kurik-eko gure kolaboratzaile misterioitsuak, K.W Leintz jaioa zen (1939-06-08). Ezin dugu ziurtatu baina dirudienez naziek Schmuell Karl baroia atxilotu zuten, baina bere goi-mailako posizioa kontuan hartuta, Breendonk-eko konzentrazio-esparrura eramane zuten, non pneumoniaz 1942an hil zen.

Karl Wicken Leintzek Lovainako Unibertsitate katolikoan egin zituen bere abadetza ikasketak. Ondoren, bere biografia moztu egiten da, hutsune handi bat dago Lekeitioren agertu zen arte, Kurikeko bigarren zenbakian kontatu genizuen modura.

Ez dakigu zuek ere ez dakizuenik duela aste batzuk Lekeitioko elizan hilik agertu zen arte.

Ondoren, utzi digun jarauntsia...


Erredakzioaren oharra

Azken orduko berrien arabera, Benito Ansola Erkiaga abadea atxilotu dute Santa Anaren kaperan gertatutako erailketaren susmagarri bezala

Oraindik Udaltzaingoaren ikerketa lanak amaitu gabe daude. Gure informazio-iturriek diotenez ez da batere erraza izango krimenaren benetako zergatia argitzea.

Gure betebeharra daukagun informazioa zabaltzea da. Ezin izan dugu gehiago atzeratu eskuetan duzuen aldizkariaren argitaratzea. Ez zaigu gustatzen espekulazioekin eta usteekin jokatzea, datuekin eta objektibotasunarekin baizik. Horregatik erabaki dugu Leintz defuntuaren zirriborroak idatzita zeuden bezala uztea. Aldamenean jarri dizkiegun notak gure interpretazio hutsa besterik ez dira, baina ez dugu uste egiatik oso urrun gaudenik.

Atentzio handia eman digu asi-lekeitiarrez idatzita daudela ikusteak, aurreko Kurikean gaztelaniaz idatzi baitzuen. Azalpen bakarra aurkitu diogu: K.W. Leintzek bere amarengandik ikasi zuen euskara ez zuela ahaztu. Zer modu hoberik bere ikerketak eta idatziak sekretuan gordetzeko, beren ingurukoentzat hain ezezaguna eta itxia zen hizkuntzan baino.



NI CASO

S U S E S O S Y A C A E S I D O S

VI. urtea . 3. zeb. - Lekeitio, 2018ko otsailak 29 Prezioa 3 pezeta.

ONDARROA

KORTXELEKO MAMUK ARRISKUAN

Bart gauean Santa Maria elizan lapurrak sartu ziren. Antza denez, ez zuten ezer eraman, baina Kortxeleko mamutako bat agertu zen apurtuta, hain zuzen ere, Leokadi famatua. Herritarrek hunkituta daude. Nahiz eta poliziak ez duen baztertzen hipotesirik, lekeitiarren eskua antzematen da.

(22. orrialdean)

HILTZAILEAREN BILA

ESKANDALUA LEKEITION SANTA ANAKO ERAHILKETA MISTERIOTSUA

ELIZA NAGUSIAN GERTATUTAKO SAKRILEGIOAREN EGILEA ASKE DABIL
E. M. S.-ren erreportaia

Oraindik ez dakigu norena den joan den otsailaren 28an Lekeitioko Andra Mariren Jasokundearen elizako Santa Ana kaperaren aurkitutako hilotza. Hildakoaren nortasuna ez dakigun arren, badakigu heriotza ez zela berezkoa izan. Alejandro Goikoetxeak eta Joaquin Abetal Palacio medikuek egindako autopsiaren arabera (lortu dugun dokumentuaren filtrazioaren arabera, behintzat), hildakoa errosario batekin ito zuten: "... muerte por asfixia provocada por estrangulamiento (...) un rosario de cuentas de piedra (gatas de Brasil) enroscado en su cuello..."



Hildakoaren alboan aurkitutako tutu metalikoa. Photo: Villalba Press



Benito Ansola abadea, Alejandro medikua eta I aki aguzail ohia gorpuaren aurrean. Atzekaldean Santa Ana kaperak. Photo: Villalba Press

Erredakzioari komenigarria iruditu zaio istorio rokanbolesko honen ulermena errazteko, hurrengo kronograma prestatzea, datu, data eta pertsonai ezberdinen artean ez delako erraza nabigatzea (Miguel Ibaseta eta Iturrizaren aipamenak labur-labur, sakon aztertu genituen eta aurreko Kurikean). Gainera asmo berarekin, batez ere aurreko aldizkaria irakurri ezin izan zutenentzat, Ibaseta eta Iturrizaren ibilerak laburtuko dizkizuegu.

KRONOGRAMA

- 1414 Likonatarrek Ondarrura desterratu. Yarzararra hiltzeagatik, euren artean Martin Perez Licona lekeitiarra, Iñigo Loiolakoaren herenaitita.
- 1491 Iñigo Loiolakoa jaio.
- 1554 Antonio Navarro Larreategui jaio.
- 1556 Iñigo (ordurako Ignacio) Loiolakoa hil.
- 1601 Yñigo Martinez Licona Arteyta Marta Ondarroa Apalluarekin ezkondu.
- 1603? Antonio Navarro ezkondu Magdalena Adan de Yarzarekin (ezkontza kontratua, 1602).
- 1604 Iñigo Zavala Arrizavalaga jaio.
- 1608 Yarzararek probestutza berreskuratu 14.000 dukat! ordaindu ondoren (lekeitiarren gogoz bestera).
- 1609-7-27 Iñigo Loiolakoa beatifikatu.
- 1610-14 Antonio Simancasko artxiboko arduradun.
- 1610. hamarkada Kortxeleko mamuk sekta sortu Ondarroan. Mantra bakarra: santua izango dena ondarrutarra da.
- 1617 Lekeitioko alkate Yñigo Martinez de Licona eta Juan de Uribe de Yarza.
- 1619-24? Yarzararek Lekeitioko jurisdizio-tik alde egin, aurrerantzean Zubieta Lur lau (Tierra LLana) bihurtu.
- 1619-24 Antonio, Manuel Filiberto Saboia-ko printzearen idazkaria (1621-24 Siziliako erregeordea).
- 1620 Antoniok *Epítome de los señores de Vizcaya* publikatu Turinen.
- 1620 Iñigo Zabala ondarrutarrek dokumentu faltua idatzi eta Likonatarren dorrean utzi.
- 1621 Felipe III. hil, Felipe IV. errege.
- 1622-3-12 Loiolako Ignacio santu izendatu/bihurtu.
- 1624 Antonio Navarro Larreategi (Adan de Yarza) hil Palermón.
- 1657-68 Yarzararek Lekeitioren kontrako auzia galdu (sobre la tumba, misas y responsos y otros honores). Probestuak ziren, patrioiak izan nahi zuten.
- 1670-80 hamarkada Gabriel Henao jesuitak Iñazio Deunaren jatorri ondarrutarra aurkitu. Lekeitio aipatu ez. Francisco Garcia jesuitak ere teoria bera defendatu.
- 1680 Iñazio Deuna Bizkaiko patroizendatu Ondarroakoa zelako.

- 1680 Iñigo Zavalaren aitormena eta suizidioa. Kortxeleko mamuren helburu bakarra: Zabala traidorearen aitormena aurkitu eta suntsitu.
- 1688 Lekeitioko Udalak jesuiten kolegioa zabaltzeko baimena eman.
- 1715 Maria Micaela Olabe Likona lekeitiarra ezkondu Juan Fernando Ibaseta Bustinzuriarekin.
- 1718 Juan Ibañez Ibasetak, Juan Fernandoren aitak, *Entroncamientos...* idatzi. Santuaren benetako jatorria Lekeitio kokatu.
- 1719 Miguel Ibaseta jaio Lekeitioko Likona dorrean.
- 1727 Likona dorrean konpontzen zeudela dokumentu madarikatua aurkitu.
- 1737 Miguel Ibaseta Jesusen Lagundian sartu.
- 1741 Juan Ramon Iturriza jaio.
- 1749 Juan Ramon Iturriza Likona dorreko morroi. Urte berean Miguel misioetara Orinokora.
- 1760 Juan Ramon Iturriza Mexikora joan.
- 1767 Jesuiten kanporatzea, Mexikotik, 1768an.
- 1795 Konbentzioko gerra. Ibasetak bere aitormena Garraitzeko komentuan ezkutatu.
- 1796 Colmenares-Licona artxiboa antolatuta "Iturrizak". Dokumentuen artean esaterako: "Arbol genealógico de los Licona desde Martin Perez de Licona que se estableció en la villa de Ondarroa en 1414 y fue bisabuelo de San Ignacio de Loyola..." eta antzekoak.
- 1801 Ondarrutarrek *Razones* idatzi. Santua ondarrutarra zela aldarrikatu eta jai berezia urtero ospatu.
- 1812 Juan Ramon Iturriza (Miguel Ibaseta) Dominiketan lurperatu.
- 181piku Likonatarren artxiboko dokumentu batzuk lapurtu. Kasualitatez santuaren jatorriaz ari zirenak.
- 1939 K. W. Leintz Goitia jaio.
- 2015 Leintzek Ibasetaren denbora kapsula aurkitu non Ibasetak gertatutako guztia kontatzen duen.
- 2016 Leintz gurekin harremanetan jarri. Kurik 2an argitaratu bere ikerketa.
- 2018-2-27 Leintzen idatzi batzuk erredakziora heldu.
- 2018-2-28 Leintz erail.



San Inazio Loiolakoa



Kortxeleko mamu

AVERIGVACIONES DE LAS ANTIGVEDADES DE CANTABRIA. OCVPADAS EN EXPLORAR SVCESOS DE LOS CANTABROS, QVANDO DOMINARON A ESPAÑA LOS GODO. Y EN LOS DE EMPRESAS CONTRA MOROS, Y EN DEFENDERSE DELLOS, ENDEZADAS PRINCIPALMENTE A DESCVBRIR LOS DE LAS TRES PROVINCIAS CANTABRICAS VASCONCADAS, EN ESOS TIEMPOS, SAN IGNACIO DE LOYOLA CANTABRO POR PADRE, Y MADRE, Y NACIMIENTO EN LA VNA, PATRIARCA, Y FVNDADOR DE LA COMPANIA DE AVTOR EL PADRE GABRIEL DE HENAO DE LA MISMA COMPANIA NATURAL DE LA MISMA COMPANIA

RAZONES QUE HA TENIDO LA N. VILLA DE ONDARROA PARA DECRETAR LA Celebridad anual de su hijo San Ignacio de Loyola, y Licona.

En todos tiempos ha havido interminables contiendas entre los Heroes, y sobre todo en países Cathólicos, de los que son ilustres en santidad. Son recientes las luchas, y aun recuendiosos sobre el Origen de San Martin de Aguirre, de las decisiones que ha havido, no han quietado los y hoy es el día, en que Beasain tiene tantos. Apologías Vergara. La N. Villa de Ondarroa jamas ha disputado quien pueda disputar á la N. Villa de Azpeitia el Origen del grande Ignacio de las Ilustrisimas casas de Onáz pero está persuadida que tampoco havra quien niegue el Origen materno de dicho Santo de la Ilustrisima casa de Licona, que aun subsiste medio derruida en su mismo P. Se han enganado pues grandemente los que publican la dichosa madre del Santo bascongado era de la casa equivocando á Doña Marquesa de Balda, Abuela de la con Doña Marina Senz de Licona, hija de Doña N. del Santo. Es verdad, que hasta la época del Henao, no havía sino vagas

Entroncamiento del Muy ilustre S. D. Martin Garcia de Licona, y Azterrica Abuelo materno del Gran Patriarca S. Ignacio de Loyola. y Licona En las m. ilustras Casas y Forres de Licona de la V. d. Lequeitio. y de Azterrica de la de Ondarroa en el muy noble y muy leal señorio de Vizcaya

Testamento del P. Navarro de Larreategui año 1624 Hecho en el Regno de Vizcaya

Horizko ezin izan ditugunak frogatu (Leintzekin fidatu gara), baina egiantzekoak diruditenak.

Batean kale, bestean bale

Aurreko Kurikean esandakoa errepikatu beharrean gaude. Ez dirudi lekeitiarriori kulturak orokorrean, eta ondareak partikularrean, arduratzen gaituztenik. Postal eta argazki zaharrak *uatsapez* edo *feisbukez* elkar trukatzeari nahikotzat ematen dugu. Ondarea babesteko lehenago ezagutu egin behar da, hau da, ikertu egin behar da eta gero zabaldu, erakutsi. Zer erakutsiko dugu ez bada ezer ikertu azkenengo hirurehun urteetan, harako harako Deskribapen anonimoa idatzi zenetik? Esageratzen ari garela, baliteke, baina dauzkagun artxibo bikainei egurra ez ematea! Zer edo zer dakigula gure historiaz eta konformatu egingo gara? Badakizue zenbat ez dugun ezagutzen? Ez zaigu heroia salbatzailea kanpotik etorriko, deitu Aldundia, deitu Jaurlaritza, guk geuk egin beharko genuena egitera.

Hor daukagu 2025eko urteurrena, prepara bolanderak, txurruntxurrunkak eta pasakalleak (ez daukagu ezer horien kontra); *ze ingo jako ba, xaukena xauk/n* (Oñatin). Kulturaren kontra ez dago inor, jakina, baina alde be, horrenbeste. Noiz konturatuko gara ondarean gastatzea, gastua barik inbertsioa dela? Eta dirurik ez balu emango ere, –eta ez da kasua–, gure hurrengoei zor diegu. Zer jakingo genuke gure aurrekoek zaindu izan ez balituzte gure artxiboak? Zelan egongo ginatke hain harro –lekatzar harruk– gure aurrekoek herria eta bere eraikinak ez balituzte zaindu ba?

Baina kontuz, ez diegu erakundeei bakarrik errua bota, guk geuk be esaterako ez genion Ondarzabal itsasontziari konponbiderik aurkitu. Lekeitiarren patxada sekularren kontra gaude, ea behingoz lortzen dugun nagi horrekin amaitzea, Slow City-a ez dezadan Lazy Town bihurtu.

Purgatorioa

Betikoa, purgatorioa topera. Ez da erraza gauzak martxan jartzea, baina zelan egiten dira ba beste leku batzuetan? Albaolako zoroak zelan jarri dute martxan hainbat proiektu? Erraz, ez direlako lekeitiarrak. Baten bat haserretuko zaigu, baina egia da. Beste gauza askotarako balioko dugu baina...

INFERNUA

Mendieta ontziola infernuan kokatu genuen, eta badirudi hortik atera behar dugula. Aterako dugu, baina ezin dugu zerura oraindik eramane. Egitura sendotu da, baina lehen pausotxo baina ez da, esaterako teiltua jaustear dago. Interesgarria izango litzateke haren errespetuzko berregitea eta Lekeitioko untzigintzaren azterketa sakona egitea.

Zorionez astakerien garaia joan zen eta ez daukagu ezer infernura eramateko.

Zerua



Onera beti amaierarako utzi behar da, ondo amaitxu, ondo kontau. Hainbeste kexa eta protesta ostean seguru eskertuko duzuela.

Zer –edo nor– ekarriko dugu zerura, ba? Formalak izan direnak, jakina. Aurten gure eta zuon txaloak merezi duten aingerutxoak dira: Kurikeroak (astoa beti aurretik), Ander Plaza “gaztea”, Jose Mari Arriola notarioa, Aitor Gonzalez Gato (hau Kuriken parientea, antza), Gabikeneko Iturbe anaia, Garraitzeroak, eta ADES taldeko espeleologoak. Eta zer egin dute, bada?

Astoek hauxe esku arten daukazuen Kurik III, ondo kostata bera. Aitor Gonzalez Gatok Lekeitioko harresiaren gaineko liburu bat argitaratu berri du, bere kabuz, inoren laguntza barik! Arriolak, berriz, Zita enperatriza eta orduko Lekeitioko ekarri dizkigu beste behin (bigarren zatia). Gabikenekoek Lekeitioko hezkuntzari, lehenari eta orainari, eman diote errepaso. Ezin ahaztu Ander Plazak egin duen lana Lekeitioko Udalak ateratako beka baten bidez: Udala Artxiboko arduradunaren laguntza, herriaren gaineko kultur eta natur ondarearen gaineko fitxa batzuk egin ditu, ikastetxeetako irakasleek erabil ditzaten gure txiki eta gazteei ondarearen balioa irakaste. Txikitatik landu behar da ondarearen gaineko sentsibilitatea. Atabakako garraitzeroek eurenean jarraitzen dute, piraten altxorra aurkitu arte!

ADES taldekoak be ez dira makalak. Opari digutena ezin ahaztuzkoa da (ze harro dago Kurik!). Erakundeek ez diete estimatzen behar beste, ze lastima!

Portzierto ez diegu meritorik kendu nahi, baina guk ere zerbait lagundu genien. Gogoratzen duzue Kurik II.eko Beti eskamak kentzen artikulua? Bada, 11. orrialdean agertzen zen menhir edo harriztar horretan agertzen zen Armintxe kobazuloa Santa Katalinako kobazulotik 2,1 km-ra. Kontixu, espeleologoek gure aldizkarian irakurri aurkitu zuten grabatuok.

Eta amaitzeko aipatu erromatarren garaiko aztarnak agertu direla, baina susmoa dugula halakoak poza barik etsipena dakartela, gure agintarientzat gogaikarriak direlako, besteak beste, obrak eta abar luzatzen dituztelako. Non eta Slow Cityn!



SANTIMAMINE
KOBAZULOA 19KM
←
ATXURRA
KOBAZULOA 4KM
←
LUMENTXA
KOBAZULOA 2KM
←
ARMINTXE
KOBAZULOA 2.1KM
←
KOSTALDEA 5KM →

Artxiboko Kontuak

Maite Garamendi

2018ko martxoan beste altxor bat jaso da Lekeitioko Udal Artxiboan: Jose Javier Uribarrenen ikatz-marrazki bat. Uribarren, nahiko gazte agertzen da paparretik gorako irudi honetan, mexikar kolonoek erabiltzen zuten bezalako gorbata bat jantzita. Bertan Mexikon edo handik bueltatu eta denbora gutxira egindako marrazkia izan daiteke, XIX. mendeko 20. hamarkadako hain zuzen ere, agian Lekeition daukagun pertsonai baten irudirik zaharrena. Posible da, baita, bere emazte Maria Jesus Agirrebengoak marraztutakoa izatea.

Gonzalo Duo plentziarraren eskutik ekarri da margolana artxibora. Gonzalo, aspaldi ibili zen Lekeitioko Udal Artxiboan ikerlari. Orduetik, hainbat artikulu eta liburu argitaratu ditu, besteak beste, *Lekeitio* y *Jose Javier de Uribarren, Las escuelas de náutica de Bizkaia, Gipuzkoa* y *Laburdi* edo *La enseñanza de náutica en Lekeitio durante los siglos XVIII y XIX*. Duok, bere lanak burutzeko, Javier Agirrebengoak zumarragatarrarekin izan zituen harremanak, Maria Jesus Aguirrebengoaren ondorengo azken hau.

Javier Agirrebengoak, Gonzalo Duo aholkatuta eta kontutan izanda J.J. Uribarren lekeitiarra zela, aipatutako margolana Lekeitioko herriari ematea erabaki zuen, haren jaioterrian gordetzeko.

J.J. Uribarrenen ikatz-marrazkiak lekeitiarrontzako ondare-balio handia duela eta, Lekeitioko Udalak dohaintza onartu egin zuen 2018ko apirilaren 13ko Oso-ko Bilkuran eta eskerrak ematea erabaki Javier Aguirrebengoari eta Gonzalo Duori.

Beste alde batetik, Kuriken irakurleek ere ekarpenak egiten dituzte noizean behin, oso balio-tsua gure historitxoak osatzen joateko.

Oraingoan, Julen Erostegei Esturok, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko langileak, *Aeroplano bi pasa-ta* artikulu irakurri zuen (Kurik II, 18. orr.) eta hemen ikusi ahal duzuen argazki interesgarri hau lokalizatu zuen interneten. Honi esker dakigu, 1943ko ur-hegazkin alemaniarra, Lekeitiotik Portugaletara eraman zutela...

Eta webguneko testuak zera dio:


“Un hidroavión alemán BV 138C-1 fue recogido frente a la costa de Bizkaia, a finales de septiembre de 1943 y quedó internado. Hallado por unos pescadores a 15 millas de Cabo Matxitxako (Bizkaia) fue llevado a su puerto, Lekeitio, de donde fue llevado por las autoridades a la Dársena de Portugalete, en Barakaldo (frente a Altos Hornos). El avión permaneció allí hasta 1946, cuando fue enviado a la chatarra.

Este avión, el Wnr. 1037 numeral X4+AH, pertenecía al 1./S.A.Gr.129 (See Aufklärungsgruppe, Reconocimiento Naval), unidad de reconocimiento de la Luftwaffe basada en Biscarrosse. El avión se quedó sin gasolina cerca de su base y amerizó, siendo la tripulación recogida y dejando para más tarde el rescate del hidro, que fue llevado por las corrientes”.

Datu honekin 1943ko aeroplanoaren historiari amaiera zehatzagoa eman diogu. Eskerrik asko, Julen!



Jose Javier Uribarren



AZKEN ORDUKOA

Sancho el Sabio Fundazioak, Uriarte familia-artxiboa (1288-1927) eskegi du bere webgunean (www.sanchoel-sabio.eus). Bertan, Andicano, Beingolea, Manso de Zuñiga eta Villarreal de Berriztarren familia-funtsak kontsultatu daitezke: 3.119 dokumentu guztira, 63.076 iruditan digitalizatu direnak. Txalotzeko ekimena.

Famili noble haiek lurak ematen zuenetik, zentzurik zabalenean hartuta, bizi ziren. Nekazaritza, abeltzaintza, ikatza egiteko basoak; etxeak, baserriak eta errota alokatzen zituzten eta burdinolak eta meategiak ustiatu. Jarduera horien ondorioz sortutako dokumentazioa gordetzen da artxibo hauetan, besteak beste. Notario-agiriak dira asko, ondarearen administrazioa eta eskualdatzeak islatzen dutenak: ezkontza-hitzarmenak, testamentuak, errentamendu-kontratuak, salerosketak, zentsu edo mailleak... Badaude, baita, erregeek eta aita santuek emandako mesede eta erregealiak (beraiei egindako zerbitzuen truke). Genealogiak, auto judizialak, korrespondentzia... Labur esanda, orduko bizitza ekonomikoa eta soziala islatzen duten agiriak, eta ez bakarrik familia oietakoak. Agiri hauetan Lekeitio, inguruko herri eta urrunagokoen bizi modua eta historia ikas daiteke. Urrats galanta gure iragana ezagutzeko.

Eskerrak Del Valle de Lersundi Manso de Zuñiga familiari eta Sancho el Sabio Fundazioari.



1943ko hidroaioia. Julen Erostegeik bidalitako argazkia

Zazpi akatsak

ikusitxu egon zuen letrua ipini dot bere lekuan



Guk asmo bat ta Jangoikuak beste bat. Beti akats ortografiko, linguistiko edo historikoen bila, orraztu eta orraztu testuak, eta askoz ere akats larriagoan erori omen ginen. Azalpenak eta esandakoak ez zirenez nahikoak izan, hementxe ezkerretara duzue del Valle de Lersundiren familiaren gutuna; baita Ugartetxea familiarekin adostutakoa ere.

Ezusteke eta disgustu handia hartu genuen familia kexa horrekin etorri zenean, guk idatzi eta adierazi nahi izan genuena guztiz kontrakoa baitzen. Horregatik ezta-baidarekin jarraitzeko asmorik ez dugun arren, berriro ere esan beharrean gaude, gure atalaren asmo bakarra Joaquinek –eta beste batzuek– egindako lana eskertzea zela. Alabantza eta esker ona!

Familia minduta sentitu zen, negarrak negarrari, baina ez zen B.T. artikulua errua izan, gu B.T. esaeraren kontra agertu bait ginen. Aurreko Kurikean duzue artikulua, irakurleek epai gaitzatela.

Akatsetatik ikasten omen da, akats honetatik asko ikasi dugu, ez zaigu erraz ahaztuko, ez.

AKERRAK ADARRAK OKERRAK DITU.

**Errare humanum est,
perseberare diabolicum**



Pasa den 2016ko uztailearen 15ean kaleratutako KURIK II aldizkariko lan taldeko kideok, zera adierazi nahi dugu, 14. orrialdean idatzitakoaren gainean:

-Ezjakintasunez, oker kokatu genuela Juan Manuel Ugartetxea Salinas, udatiarrei eskeinitako BT (Beraneante Txarriak) sailean.

Beraz, zera argitu nahi dugu:

-Juan Manuel Ugartetxea Salinas Lekeition jaio zen 1937ko ekainaren 23an, bere familiaren Arranegiko zabaleko Zaldundegi etxean.

-“Txarria” hitza erabiltzea ez da izan egokia.

Bere familiak jaso duen samintasuna ikusita, gutun honen bidez zintzoki barkamena eskatzera gatzozkie.

Maite Garamendi, Aitor Iturbe eta Iñaki Goigana

Joaquín del Valle de Lersundi Mendizabalen seme-alabok hurrengo gertaerak eta gogoetak jasota gelditu daitezuten nahi dugu, 2/1984 Lege Organikoa, martxoaren 26koa, zuzenketa eskubide arautzen duenari heltzen diogularik.

2016ko uztailearen 15ean KURIK aldizkariaren 2. zenbakia aurkeztu zen jendaurrean. Zenbakiaren aurkibidean BT izeneko atal berria iragartzen dute eta bertan Joaquín del Valle de Lersundi (Pilar del Valle de Lersundi) irakur daiteke. 14. orrialdean, atal horren aurkezpenean txarri baten ipurdiaren laurdenak ikus daitezke, eta bertan BT hizkiak idatzita daude; hitzaurrean argitzen dute hizki horiek “Beraneante Txarriak” esan nahi dutela. Jarraian gure aita kategoria horretan sartzen dute beste pertsona batzuekin batera, konnotazio baztertzalea adieraziz eta baita deskalifikatzailea ere artikulua testuinguru kontuan hartzen badugu.

Atalari berari iraingarria deritzogu.

Gure aita, Deban jaioa, Lekeitiar batekin ezkondu zen. Bere seme-alaba guztiak Lekeition jaio ziren. Erretiroaren ondoren hogeitau urte baino gehiagorik Hiribilduaren auzotarra izan zen; bertan familiaren hilibian bere gorpuzkiak dautza. Hortaz, aita Beraneantetzat hartzea ez da zilegi, eta are gutxiago txarritzat hartzea.

Testuak Lekeitioko maitale gisa aurkezten badu ere, atalak zein aurkezpenak aita sartzeko argitaratzaileek ezarritako sailkapen bitxi horren barruan.

Larria iruditzen zaigu argitaratzaileek alabetako bati egindako eskaera artikulua bat idatzi zezan aitak Lekeitioko historiari egindako ekarpena goraiatzeko eta bere figura omentzeko, gerora aitaren izena atal belzgarri batean sartzeko erabili baitzuten.

Udalaren menpeko argitalpen batek elkarbizitza bultzatu beharko luke eta ez lituzke modu iraingarri batean nabarmendu beharko jada zendutako pertsonak, beren burua nekez defendatuko dutenak.

Lekeition, 2016ko uztailearen 21ean.

Jokin, Gentz eta Pilar del Valle de Lersundi.

Pisto gotera eta Jon Jotilio

CHAPUZAS A DOMICILIO



AGURRA

Ez dago eskubiderik! Heldu gara azken orrialdera eta ez daukagu kopatxurik. Ez ei da komeni! Lan gehiegi egitea be ez da komeni, baina... Astoek baino behar gehiago egin eta gero ez dagoela saririk... Berriztarra bodegako tertulian batzen ziren filosofoetako batek esaten zuen modura: "¡Que trabajen los tontos!".

Eta errefrauekin segituz, etxean entzuten genuena, "Sarna con gusto pica, pero no mortifica", euskaraz gustuko bidian, aldaparik ez. Bada horixe bera, lan nekeza dela, baina gustukua. Eta horregaitik laugarren eta azken ale bat ateratzeko asmoa dugula eta oraingoan, ordukoan esan nahi genuen, zoriona izango dela izarra. Zoritxarra eta gero zoriona, eguraldi txarraren ondoren ona etortzen ohi den antzera. Kontuz, ez da metafora. Ezin da zorionari buruz idatzi tximista eta trumoi artean. Eguraldi onaren zain geratzen gara, beraz, eta ikusita aspaldian zelakoa sufritzen ari garen, hobeto duzue zuon diruak anorak eder batean gastatu. Bitartean asti gehiago/gehiegi izango dugu tontokeria gehiago/gehiegi idazteko.

Esan bezala ZORIONA izango da ildo nagusia, baina ez bakarra. Baina zer da zoriona? Filosofo eta jakintsu handienek ere ez dutenez bat egiten San Googlelengana jo behar izan dugu. Zoriona edo zoriontasuna pertsona batek bere barnean sentitzen duen poz, alaitasun, gozamen, lasaitasun eta maitasun-egoera da, sufrimendu eta asaldurarik gabea eta pertsonari betetasuna ematen diona. Beno, baliteke lekeitiarrok definizio horretan sartzea, batez ere, lasaitasunari dagokionez (Slow city, ahorita mismo). Eta alaiak be bagara, triste ez gaudenean, behintzat. Egiari zor, jai, zubi, akuedutu, bataio, jaunartze, ezkontza, despedida, kintada, opor eta abar batzen baditugu kalendarioa gorri-gorri geratzen da. Egun gorri (alai) horiek ekarri nahi ditugu hurrengo alean, amaitzear gauden honetan egun beltzak izan baitira nagusi.

Carpe diem latinez, fuego a la barraca espainolez. Ez dira faltako kantuak, dantzak, jaiak (Karnabalak, Sanantoliñak, Sanpedroak...), musika (banda eta estudiantina), tabernak, parrandak... Baina presa barik!

Gure Kurikek erpe egin barik altzoa berotu dizulakoan.

KURIN

KURIKeruak



lekeitioko
udala

